









7 92







10.000

CERURACO BIDE

ZUCENA ETA SEGURUA.









M-62891  
F-63683

155  
27922

**CERURACO BIDE**

**ZUCENA ETA SEGURUA;**

DON ANTONIO MARIA CLARET, ...

Trajanopolisco Arzobispo jaunac

GAZTELANIAZ IPIÑI ZUENETIC

**DON MANUEL ANTONIO ANTIA**

URNIETACO ERRETOREAC

**EUSCARARA ITZULIA.**

—1888—  
Obispo jaunaren baimenarequin.

—1888—  
**TOLOSAN:**

**F. MUGUERZA-REN MOLDIZTEGULAN,**

1888 garren urtean









*Obispado de Vitoria.* — Examinada de nuestra órden la traduccion vascongada que V. ha hecho de la obrita titulada *Camino recto y seguro para llegar al cielo*, escrita por el Excmo. é Ilmo. Sr. Claret, y no encontrando en la version la mas mínima cosa opuesta á la fé y santas costumbres, sino que por el contrario, puede ser muy á propósito para fomentar en los fieles el fervor y sentimiento religiosos, damos por el presente nuestra licencia para que pueda darse á la prensa, ordenando á V. que antes de expedir al público ejemplar alguno impreso se remita á Nos uno á los efectos consiguientes.


Dios guarde á V. muchos años.

Vitoria 28 de enero de 1867.

DIEGO MARIANO, Obispo.


Sr. D. Manuel Antonio de Antia, Pbro.  
Rector de Urnieta.





MAINT ET DE DORNY





## CERURACO

# BIDE ZUCENA ETA SEGURUA

---

## SARRERA.

**J**ESUCRISTOC bere buruagaitic esaten digu Evangelioan (1) *Ni naiz BIDEA, eguia eta bicitza*: eta nola BERA bidetzat degula ibiltzea dan, Escritura Sagraduaren azaldariac diotenez, bere legue chit santua contuz gordetzea, bere Sacramentuac artzea eta bere ejemploai jarraitzen sayatzea; orregatic edoceñ cristauc, Jaincozco aguinte edo mandamentuac errazago gorde, eta oen bidez betico bicitza iristeco; eguingo ditu egunoro goiz-arratsetan, *cristauaren Ejercicioac* deitzen diran debociozco

---

(1) San Juan. XIV, 6.



lan batzuec; errezatueo du Errosario chit santuaren parte bat, Meza santua enzungo du neque aundi gabe dezaqueanean; igaroco du dembora piscacho bat oracio mental edo ishilicacoan, lan au eguiñaz bere escu-lanetan ari danean, bestela ecin badezaque, debociozco libururen bat iracurrico du, baldin badaqui, eta ez badaqui, adituco du bestec iracurtzen duena; eta au ere ecin duenean, ordañez erabilli bitza gogoan Jesusen gorputz guztiz santuco llagac, ceñac diran *odolezco letraz escribitutaco liburua*, itz zorrotz eta deadar aundiaquin esaten dagoquiguna: Amatu, amatu gurutzeco urcamendi lotsagarriangure amorez bicia emateraño, lapurric billauen eta gaizquilleric aundienaren guisan illtzeraño maitatu guinducen Jaungoico guizon eguiña.

Asteoro juango da Eleiz-funcioetara, au da, Meza nagusi eta vezperetara, sermoyac eta cristau-doctriña aditzera, Errosariora etc., eta on litzaque au guztia norc bere errico Parroquian eguitea. Onela santutu al izango ditu Jaincoaren serbitzuan igarotzeco seña-



latuac dauden egun oec, ceintzuetan, esana dagoenaz gañera, beste obra on batzuec eguingo dituen, nola diran oatuac eta carceletan daudenac bisitatzea, ez-jaquiñai eracustea, etc.; apartatuaz gaiztoac eta perilltsuac diranetatic, batez ere indartan, dantza, amorio limuri, joco debecatu eta guis one-taco beste gaucetatic.

Cristau doctriñari dagocanez, sayatuco da arretaz icasten, guero icasia eguiten jaquin dezan, persona larriric alabaña, ceruco erreinoan ecin sartuco da dotriña icasi, eta icasi becela obratu gabe. Zortzitic zortzira edo amabostetic amabostera, edo illean bein beintzat confesatu eta comulgatuco da. Urteoro eguingo du confesio generala edo peccatu guztienquicoa, eta egun batzuetaraco erretiratuco da ejercicio santuac eguitera, confesore jaquintsu eta celotsu bat guiari duela.

Beti gorde bear ditu leyalqui Jaungoicoaren legueco mandamentu santuac eta bere bici-moduco eguin-bideac, alde-eguiñaz peccaturaco bideetatic, ceñac diran: lagun gaiztoac, alperqueria,



jocoac, dantza deshonestoac, amorio limuriac, comedia nabarreneguiac, eta pecatu larrian amilduerazo gaitzaquean guztia.

Benetan salvatu nai duen cristauac, librucho onetan arquituco du bere eguin-bideai ondo eranzuteco, eta Jau-naren legue santu eta biguñarequin osotoro eratzen dan viciera eguiteco bear duen guztia; eguiñ beza onela, eta mundu onetan Jaungoicoari gloria emanic; joango da guero beticotasun guztiraco bera ceruan gozatu eta alabatzerá, ceña dan opa dedana, eta libru au esqueintzera muguitu nauena.



— 10 —

— 10 —



# CRISTAUAREN EJERCICIOA.



## GOICEAN

Esnatzen danean, gurutzearen señaleara eguingo du  
esanaz:

**G**URUTZE santuaren ✠ señaleara-  
gatic, gure ✠ etsayetatic ✠  
libra gaitzatzu ✠ gure Jauna eta  
Jaungoicoa. Aitaren, eta Semea-  
ren ✠ eta Espiritu Santuaren ice-  
nean. Amen Jesus.

Guero esango du:

Jesus eta Maria, ematen dizqui-  
tzutet biotza eta anima nerea.



Jaiquita jantzitacoan belaunicaturic esango du:

Nere Jaun eta Jaungoicoa, Zugan sinisten eta esperatzen det, adoratzen zaitut eta nere biotz guztiarequin amatzen zaitut. Esquer-rac ematen dizquitzut criatu, erre-dimitu eta cristau eguiñ nazulaco, eta gau oñetan bicia gorde didazulaco. Esqueintzen eta consagratzen dizquitzut zure honra eta gloriara nere pensamentu, itz, obra eta neque guztiac. Humilqui escatzen dizut nere pecatuen barcacioa, biotz biotzez damu det zu ofenditu izana, eta Jesucristoren eta Virgiña chit santaren merecimentuacgatic erregutzen dizut, indazula, berri-ro ez ofenditzeco gracia.

Ondoren errezatuco ditu *Aita gurea Ave Maria* eta *Credoa*, eta Virgiña chit santarengana itzuliric esango dio:

Oh Jaincoaren Ama Virgiña, ni



ematen naitzatzu zure humetzat,  
eta zure garbitasunaren honran eta  
glorian esqueintzen dizquitut ne-  
re anima, gorputza, almen edo po-  
tenciác eta sentiduac, escatuaz iri-  
chi zadazula, egundaño gueyago  
pecaturic ez eguiteco gracia.

Amen Jesus. *Iru Ave Maria.*

Orain deituco dio Aingueru Goardacoari, esanaz.

Jaungoicoac bere ondasun on-  
dogabearen bidez zure amparo eta  
contura jarri nauen Aingueru San-  
tua, argui nazazu, gorde nazazu,  
guiatu eta gobernatu nazazu. Amen

Lanari equitean, esango du.

Lan au esqueintzen dizut, nere  
Jaungoicoa: biotz onez bota ezazu  
beraren gañera zure bendeincacio  
santua.



Egunaz sarritan alchaco du viotza Jaungoicoa. gana oracio labur edo ants oequin, edo guis one-taco beste batzuequin:

Nere Jaungoicoa; Zugan sinisten det, Zugan esperatzen det, adora-tzen zaitut, gauza guztiaz gañ maite zaitut. Nere Jesus erruqui zaitez nizaz. Nere Salbatzallea, lagun na-zazu zure graciarequin, egundaño ofenditu etzaitzadan.

Jateracóan esango du:

Bota ezazu, nere Jaungoicoa, zure bedeincacioa gure gañera, eta artzera goacen alimentu oeta-ra, iraun dezagun zure serbitzu santuan. *Aita gurea* eta *Ave Maria*

Otordua bucatzean, esquerrac emango ditu ezanaz

Esquerrac, Jauna, eman digu-zun alimentuagatic, iguzu berazaz ondo usatzeco gracia. *Aita gurea* eta *Ave Maria*.



Erlojuac ordua jotzean *Ave Maria* errezatuta esango du:

Esqueintzen dizquitzut, nere Jaungoicoa, ordu onetaco une guztia, eta indazu emplea ditzadala eguiten zure borondate santua.

(Erlojuac ordua jotzean *Ave Maria* esateagatic, eun urteco indulgencia dauca emana Aita Santu Leon X garrenac.)

Tentacioren batec atsecabetzen duenean siñatucoda, edo errezatucoda *Ave Maria*, eta esango du:

Indazu, Jauna, zu iñoiz ere ez ofenditzeco gracia.

Pecatuan erori baldin bada, edo lecuñeman dion edo ez dudatzen badu, bereala damutu bedi, eta biotzez esan beza:

Misericordia, nere Jaungoicoa; viotz viotzez damu det zu ofenditu izana, Zu cerana ceralaco, eta gauza guztiaz gañ maite zaitudalaco: pecatu eguiña damu det, nere Jesus ona, eta zure graciarequin erabaquia nago, zu berriz



ofenditu baño len, bicia milla bider ematera.

Nequeetan esango du:

Paciencia indazu, nere Jaungoicoa, eta atsecabetzen nauen neque au arzadazu nere pecatuen satisfacioan.—Bedeincatua izan bedi Jaungoicoa.—Guztia izan bedi Jaungoicoaren icenean.

Itz oec, edo onelaco beste on batzuec esango ditu, gaiztoac utziáz, alabaña, gaiztoa becin laster ona esaten da.

Goicean, eguerdian eta illuntzean oracio ezquillac jotzean, esango du:

Angelus Domini nuntiavit Mariæ, et concepit de Spiritu Sancto:  
*Ave Maria.*

Ecce ancilla Domini, fiat mihi secundum verbum tuum: *Ave Maria.*

Et Verbum caro factum est, et habitavit in nobis: *Ave Maria.*



Ori bera euscaraz.

Jaunaren Aingueruac Mariari  
berri ona eman cion: eta Espiritu  
Santuaren obraz aurdun arqitu  
zan: *Ave Maria*.

Ona emen Jaunaren serbitzaria:  
eguin bedi nigan zuc diozun bece-  
la. *Ave Maria*.

Jaungoicoaren Semea Guizon  
eguin zan: eta gure artean bicitu  
zan. *Ave Maria*.

Bedeincatua eta alabatua izan  
dedilla Aldareco Sacramentu guz-  
tiz adoragarria, eta gure Ama An-  
dre Maria chit santaren sortze gar-  
bi garbia; bere izatearen lembici-  
co unetic jatorrizco pecatuaren  
manchagabe sortua.

Ondorean escatzen da bendicioa.

Arratzean animen ezquilla jotzean, esango du  
*Deprofundis*, edo *Aita gurea* eta *Ave Maria*.

Elizacoac eriarengana dijoacenean, indulgenciac  
irabazteco, lagunduco dio Jaun aundiari al baldin  
badu eta ecin badu, belaunicaturic adoratuco du,



eta *Aita gurea* eta *Ave Maria* errezatuta esango du:

Gure senide gaizqui dagoen orri eman zayozcatzu, Jauna, bere salbadoraco eta zure gloriaraco bear dituen graciac.

### ARRATZERACO EJERCICIOA

Oeratu baño len belaunicatuco da eia *gurutze-santuaren señailea* eguiñic esango du:

Nere Jaun Jaungoicoa, zугan sinisten eta esperatzen det, adoraten, eta viotz viotzetic amatzen zaitut; esquerrac ematen dizquit-zut, criatu, erredimitu eta cristau eguin nazulaco, eta egun onetan bicia gorde didazulaco. Indazu nere pecatuac ezagutu, eta oezaz damutzeco bear dedan gracia.

Emen examiña egingo du, bere buruari galde-tuaz:

¿Gaur cer eguiñ det? ¿Nola eguiñ det? ¿Eguin bear nituen gaucetatic, eguin gabe cer utzi det?



Eta examiña acabatuco du contriciozo acto iraquequi batequin esanaz:

Nere Jesucristo Jauna, Jaungoico eta guizon eguiazcoa, nere eguillea, Aita eta erredimitzallea, Zugan sinisten eta esperatzen det, eta Zu, ontasun neurri gabea eta ecin gueyago erruquitsua ceralaco, amatzen zaitut gauza guztien gañean, eta nere amorez gurutzeco arbola santuan išuri cenduen odol guztiz preciosoagatic, diot, damu dedala Zu ofenditu izana; damu det, nere Jaungoicoa, damu gueyago ez izana; eta bildur izatea infernuric, eta esperatzeco gloriaric ez balitz ere, damutzen naiz bacar bacarric Zu cerana izanagatic, gorrotatzen ditut nere pecatuac, oec eguiñaren damu det, eta gaitz guztiac, baita eriotza berra ere nayago nuque gañera ba-



letozquit, Zu berriz ofenditu baño len: erabaquitzen det, Jauna, peccaturic gueyago ez eguitea, eta zure ofensaco bide guztietatic apartatzea; eta esqueintzen dizquitzut nere bicitza, lan eta nequeac, nere peccatu guztien satisfacioan; eta escatzen dizudan becela, ala esperatzen det zure ontasun eta misericordia neurri gabea barcatuco dizquidatzula, eta emango didazula gracia emendatzeco, eta irauteco zure adisquidetasunean eta gracion nere eriotzaco orduraño. Amen.

Bereala esango du:

Gau onetan, Jauna, peccatu gabe gorde nazazu, eta gaitz guztietatic libra nazazu.

Sayatuco da jartzen, eriotzaco orduan arquitea naico luquean estaduan, eta dembora piscacho



bat igaroco du pensatzen ordu artan cein guch; balioco dioten aberastasunac, honrac, atseguinac eta jostaqueta eroac; cer pena emango dioten pecatu eguinac, eta cer satisfacioa obra onac, eta esango du:

¡Cér izango litzaque nizaz! nere Jaungoicoa, gau onetan ill, eta contuac ematera zure tribunalera joan bear banuque! ¡gracian ote nago, edo pecatu mortalean? ¡Confesio onac edo gaiztoac eguin ditut? ¡Cer estadutan arkitzen ote naiz? ¡Ñori gorrotoric badiot, edo besteren gauzaric nere mendean badaucat? ¡Birauac botatzeco, murmuratzeco, jayetan lan eguiteco, edo loiqueri ichusiac eguiteco oituraric badet? ¡Nere eguinquizunai ondo erantzuten diet, eta dembora santutasunean igarotzen det? ¡Galdera oei cér erantzuten diet? ¡Ay ene! cein gogorra dan igaro bear dedan juicioa, eta cein bildur



izan bear naizan, ez banaiz damutzen eta cenzatzen, dembora ematen zadan bitartean.

Guero guchienaz esango dituzu *Aita gurea, Ave Maria* eta *Credoa* eta Aingueru guardacoari 11 garren orrian dagoan oracioa.


Oeratutacoan esango du.

Zure *gracian*, ó *Trinidad* guztiz santua, ni ill nadilla! *Jesus* eta *Maria*, ematen dizquitzet *viotza* eta *anima nerea*.

Azquenic *Jaungoicoari* bere *bendicioa* escatucodio, *gurutzearen* señaleara beregan eguiñaz eta esanaz:

*Jaungoico* guztiz altsu dan *Aitar*en, *Semearen* ✠, eta *Espiritu Santuaren* *bedeincacioa* nigana betor, eta nerequin beti egon bedi. Amen.






## ONDO

### ETA PROVECHU AUNDIAREQUIN

CONFESATZECO MODUA.



**C**RISTAU chit maitea: importanci aundico egui au jaquin, eta buruan ondo sarturic iduqui bear dezu: bata-yatu ezquero pecatu larria eguin dute-nentzat ez dagoela *confesioa*, edo *conde-nacioa* baicic. Confesioa edo penitencia-co Sacramentua, Jesucristoc ipiñia izan zan, gracia emateco zori gaiztoan gal-du dutenai; eta gueitzeco, zori onez gordetzen dutenai; da pecatariaquin Jaungoicoaren artean paqueac eragui-ten dituen, da gaiztaqueria eta peca-tuzco itsasoan murguildu ciranac, be-tico ondatuac izatetic libratu nai badu-te, itsasi bear zayen ol bacarra; da cris-tari, pecatuac bere animan idiqui diozcan zaurietatic sendatu nai badu



ematen zayon erremedio bacarra; baña jaquin bear dezu, ecen, sasoi onean eta bear dan eran ematen ez dan sendagayac, eriari aurrerapenic eguiten ez dion becela, ala, Penitenciaco Sacramentuac ere ez dituela sendatuco zure animaco gaitzac, artzen ez baldin badezu bere sasoyean, edo orain Jaungoicoa esqueinca dagoquizun edo demborra egoquia eta osasunezco egunac diran onetan; edo gaizqui artzen badezu, esamiñaren, damuaren, proposituaren, confesioaren edo satisfacioaren faltaz; baña probechuarequin artu nayeant icusten zaitudan ezquero, eracustera noaquizu cer moduz eguin bear dezun.

### **Examiña aurreco oracioa.**

¡Oh Jaungoico beticoa eta ezagutu eciña! Zure escu guztiz altsu eta jaquinduria neurrigabearequin gauza guztiac criatu, eta chit leyalqui, eta azcartasun guztiarequin gordetzen duten leguea ba-



coitzari ipiñi diezun orrec criatua  
naiz ni ere ecer ecetic atera nin-  
duzunean, zu amatu eta serbitzeco,  
eta gai onetara nere pensamentu,  
itz eta obra guztiac zucentzeco.  
Onetaraco, Jauna, izandu naiz  
criatua, eta ipiñi didazun legue au  
uztarri biguñ eta carga arin bat  
izan arren: nic criatura esquer  
gaiztoco eta lotsa gabe onec itzez  
ezpada, obraz esan dizut: *etxaitut  
serbituco*.... despreciatu det zure  
legue santua, biurriqueria aundie-  
narequin ishecatu, ofenditu eta in-  
juriatu edo irainatu zaitut, bada  
ausardia izandu det cerorren aur-  
rean pecatu eguiteco.... ¡Cer lo-  
tsagabequeria, ene Jaungoicoa!  
Barcatu, Jauna, barcatu nere cul-  
pac, bada eguin izanaz damutua  
nago: argui ezazu nere adimentua,  
diran becela ezagutu ditzadan,



pizcortu nere memoria, guztizaz oroitu nadin, iracequi ezazu nere borondatea, gorrotatu eta confesio on eta penagarri baten bidez nere animatic bota ditzadan.

Virgiña chit santa, ondu nai duten peccatari errucarrien Ama eta bitartecoa, erregutu ezazu benetan ondu, eta nere peccatu guztia confesatu nai ditudan onegatic; egizu guztia gogora ecarri eta damu egiazcoarequin gorrotatu ditzadala. Nere Aingueru goardacoa, nere debociozco santuac, erregutu ezazute nigatic, badaquizute cein premia aundian arkitzen naizan, confesio on bat eguiteco.

Orain zure conciencia esaminatuco dezu beguiratuaz Jaungoicoaren legueco aguinteai, Eleiz Ama Santarenaí, eta zure vicimoduco eguin-bideai: icusico dezu certan utseguin dezun, eta cembat bider: mandamentu bacoitzaren contra eguin dituzun utseguiteac ciertoro cembat diran jaquin albaditzaquitzu, esango dituzu, ezperen guichi bat gora beera eguin dituzula iduritzen zaizquitzunac



edo cembat demboran iduqui cenduen oitura gaiztoa, eta egunoro edo asteoro cembat bider erori oi cinan.

## MANDAMENTUEN GAÑEAN EXAMIÑA.

LEMBICICOAN. Examiñatuco dezu, ea Erligio Santuaren misterioric ucatu edo dudatu dezun. Fedearen contra itzeguin dezun, iracorri dituzun, edo cere mendean dauzcatzun liburu gaiztoac, edo debecatu bear liraqueanac. Jaungoicoaren misericordiaz etsi dezun. Bere Providenciaz quejatu ceran, beraren eta gauza sagraduen contra gorrotoa artuaz. Ea deabruari deitu diozun, sorguinquerietan parte artu edo sinistu dezun, edo arte gaiztoac usatzen dituztenai iritzia escatu diezun. Aztiengana joan ceran, gauzaren bat jaquiteco, nai cenduen iristeco, edo gaitzen batetic libratzeco, edo sorguinqueria edo aztiqueria oetacoen bat cerorrec artu dezun, edo cerequin darabiltzun.

BIGARRENEAN. Ea juramentu falsoric eguin dezun, naiz chancherian edo lagun urcoaren calte gabe izan. Ea jura-



mentu gaiztoric, eta lagun urcoaren caltean eguin dezun. Ea juramentu eguin dezun eguiaren gañean, baña premia gabe. Ea juramentuetara eman ceran. Ea oitura gaiztoren bat quentzeco confesoreac eman cizun penitenci sendagarria, demagun, juramentu, arnegu edo blasfemia, birau, itz loi, murmuracio, guezur edo beste itz gaiztoren bat saltatzen citzatzun bacoitzean gurutze bat lurrean mingañarequin eguiñ eta muñ eguiteco, eta Ave Maria bat, batez ere, bacarric zaudenean, errezatzeco, aguindutacoa cumplitu dezun. Jaungoicoaren, Virgiña chit Santaren, Aingueru eta Santuen contra blasfemia edo arneguac bota dituzun. Voto edo promesic Jaungoicoari, Ama Virgiñari, Aingueru eta Santuai eguinda, cumplitu ez dituzun.

**IRUGARRENEAN.** Jai egunetan lanic eguin dezun, ea lana ordu bi baño gueyagocoa izandu dan, ea gendeac icusiduen, eta beragatic gaitzeraco bide edo escandaloric eman dezun.

Ea igandeetan eta beste jayetan meza devocioz entzun dezun, edo egondu



ceran jolasean, lo edo arreta gabe zabartua, icusi bear etziñituen gauzai beguira. Ea jai egunetan joan ceran doctrina, sermoi eta beste Eliz-funcioetara. Ea egun oec igaro dituzun beste obra santu batzuetan, edo bacarric beticu utzitzeco itza batayo santuan eman cenduen moduco obra galgarrietan.

Ea zazpi urtera irichi ciñan ezquero urtean bein bederic confesatu ceran, eta ea ondo. Ea amargarren urtetic aurrera Pazcoa-demboran comulgatu ceran. Ea oguei ta bat urte bete ciñituen ezquero, egun señalatueta, non eta etzenduen eragoz penic, barautu ceran. Ea araguaia eta arraya, nastu ecin ditezquean egunetan nastu dituzun. Ea gaizqui eguiteari, utzi, damutu, confesatu eta penitenciazco frutu egoquiac eguin gabe salbacioa irichi uste izan dezun, eta etzeran sayatu ere obra onac eguiten.

LAUGARRENEAN. Ea zure guraso, maisu edo nagusiac, itzez edo eguiguera farragarri eta lotsagabeaquin ofenditu dituzun, edo aen contra marmarretan aritu ceran. Ea obedienciaric ecarri die-



zun edo ez, arratzean campoan ez ibiltzeco, lagun gaiztoaquin ez ibiltzeco, joco-eche eta pecaturaco periltzuac diranetara ez joateco aguindu dizutenean. Ea obeditu diezun edo ez mezatarara, doctriña eta sermoyac aditzera, eta beste Eliz-funcioetara joateco, Sacramentuac artzeco eta gañeraco obra onac eguiteco esan dizutenean. Ea zure bici-modua ateratzeco para zaituzten estudio, lanquintza edo officioa icasten arretaz sayatu etzeralaco, obediencian faltatu diezun. Ea eheco gaucetan obeditu diezun. Ea aguindu dizuten guztia alic azcarren, eta jaquin becin ongui eguin dezun. Ea cerbait aguindu dizutenean arpegui beltza jarri diezun, marmar edo mushinca egondu ceran, eranzuquiac eguin dieztezun, edo ez dezula eguingo esan diezun. Eheco buru edo cargua dezuna bacera, ea zure hume edo mendecoen aciera onaz conturic izan ez dezun, ejemplo gaiztoric eman, edo gaitzeraco bidea lecarquean gauzaren bat beren artean eguiten utzi diezun. Ea madaricatu dituzun. Ea doctriñara biraltzeco, eta



meza ondo entzuten icasi-erazotzeco conturic iduqui dezun.

BOSTGARRENEAN. Lagun urcoari gorrotoric iduqui, edo diosala ucatu diozun, edo berazaz bengantza artu izan dezun. Etsayarequin paqueac eguin nai izan ez dituzun, edo escandalo edo conseju gaiztoren bat eman diozun. Itzez edo obraz iñor lotsaeraci dezun, edo cere buruari, edo besteri, eriotza edo gaitzen bat opa izan diozun.

SEIGARRENEAN. Gogoracio loyetan, obraz eguiteco asmoric ez bacenduen ere, atseguin artu dezun. Ea itz deshonestoac esan, canta loyac aditu edo cantatu, liburu edo paper gaiztoac iracorre dituzun. Ea estampetan, cajacho, alaja eta orratzetan, etc., imagiña ichusiac dauzcatzun. Ea itzez edo obraz pecatu loyera iñor muguierazo dezun, aguertuaz pecatu eraguin nai ciñion personaren estadua eta cerea, eta gai onetan aguertu bear diran gañeraco gauzac. Ea liquitzqueriaren bat cere buruarequin eguin dezun, edo decenciaren contraco modaguin lagun urcoari escandaloric eman diozun.



ZAZPIGARRENEAN. Lagun urcoari ondasunetan calte eguiten sayatu ceran, edo nai izandu diozun. Ea besteren gauzaric ostu, edo cere mendean bidegabe iduqui dezun. Ea zure lanquintzaco eguin-bideai ondo erantzun diezun edo ez, gauza billatua edo biurtu bearrecoa biurtu dezun edo ez. Ea sal-erosietan eguin dezun bidegabequeriaric, dala precioan, dala neurrian, edo dala gauzaren calidadean edo baten ordeze beste bat emanaz. Ea epetan emandaco gauza gatic corritu gueyeguia quendu dezun. Ea artu-eman bat bidezqui eguin ote citequean dudatzen cenduenean, confesoreari iritzia escatu ciñion.

ZORTZIGARRENEAN. Ea guezurric esan dezun, eta izandu dan lagun urcoaren caltean: ea ezcutuan cegoen pecatu larraria, ciertoa izan arren, azaldu dezun, edo echeetan paquea galerazteco bideric jarri dezun. Bide gabeco juicioric eguin dezun, edo zure nagusien bicimodua- ren gañean erausian jardun ceran. Ea lagun urcoari quendutaco honra biurtu, eta satisfacio eman diozun.



Bederatzigarren eta amargarren mandamentuac daude sarturic seigarren eta zazpigarrenean.

Zure estadu edo vicimoduaren contra eguin izan cinitzaquean utseguiteen contua ateratzeco, zuri dagoquizuna beguira ezazu, aurrerago arquituco dezun *Estadu diferenteetaco eguin-bideetan*, eta icusico dezu certan uts eguin dituzun.

Conciencia examinatuta, eguin cituzun pecatuac ezagututacoan, oen damu eguiazcoa ceregan sortuerazoco dezu: bada bestela alperric necatu eta burlatua gueldituco cera, sasiz sasi, eta mendiz mendi eiz alchatzen ibilli, eta arquitzean, zabarqueriz arma disparatu ez diolaco, necatua becin burlatua guelditzen dan eiztaria becela; damu au, bada, escatuco diozu Jaungoicoari Virginea chit Santaren bitartez, errezatuaz zazpi *Aita gure eta zazpi Abe Maria bere doloreen oroipenean*, eta eguingo dituzun contriciozco eta atriciozco actoac, esanaz:

### **Examiña ondoreraco oracioa.**

Jauna jay nere doacabea! ¿cér eguin det?... pecatu eguin det zure contra... ofenditu zaitut, injuria eguin dizut... galdu det gracia eta gloriaraco escu eta derecho guztia, eta infernua irabaci det!...



eta au ez bein bacarric, ezpada  
contatu alnezaquean baño gueya-  
goetan. ¡Ay Jauna! Aingueru chit  
ederrac deabru beltz-ichusi biur-  
tuac izateco, pensamentuzco peca-  
tu larri bat asco izandu zala gogo-  
ra ecartzeac izutzen nau. ¡Cein  
nazcagarria, bada etzan gueldituco  
nere añaia, aimbeste pecatu go-  
gozco, itz eta obrazcoen ondorean?  
Pensatzen dedanean, baldin nere  
pecatuac partituco baliraque bes-  
te aimbeste Aingueruren artean,  
deabru pilla bat eguiteco nerau  
bacarric asco izango nintzaqueala,  
eta eguin ditudan pecatu aibat  
deabruen gaiztaqueria eta ichusi-  
tasuna nere animan badaucadala,  
nere buruaz izu eta icaraz betetzen  
naiz....Aingueruac, pecatu eguin  
zutenean deabru biurtu, eta bera-  
gatic infernuco leizondarreraño



amilduac izan ciran; eta neri, ¡oh nere Jaungoicoa! ichedon ciñidan, penitencia eguin nezan...¿noiz arte, Jauna, gaizqui usatu bear det zure ontasun eta pacienciaz? ¿noiz arte sor eta gor culpagarri onetan oatua egon bear det, beñere peccaturic eguin izan ez banu becela? ¡Ay ene!...peccatu eguin det...mundu guztiac baño gueyago balio duen gracia galdu det...galdu det ceruraco nere escu guztia..infernua merccitu det...eta achi achica noa betico pena eta betico neque-oñacezco toqui izugarri artara..¡Ay Jauna! toqui artzaz oroitzean; arri eta zur eguiñic guelditzen naiz...baña nere negar malco oec dira. eguin dizudan ofensa benetan damu dedalazcoaren señalea. Baldin guizon bati, munduco ondade edo hacien-



daric aberatsena esqueñi izan ba-  
citzayon, pecatu eguiten zuen une  
berean guztia quenduaz gañera,  
armaz pasatua izateco condicioa-  
requin, ¡cér nolacoa ez litzaque  
izango aren pena eta lantua peca-  
tu eguin ondorean, icustean bere  
culpaz guelditu dala hacienda gabe  
ezecic, ēriotzara condenatua! ¡Ay  
ene! cembait aundiagoac ez dute  
izan bear nere negar eta damuac,  
Zuc aguindu ciñidan gloriaraco es-  
cua orain nere culpaz galdu ezecic,  
nere gaiztaqueriac gatic infernue-  
tara condenatua arquitzen naice-  
nean.

¡Ay Jauna! Orain ezagutzen det,  
nere etsairic aundiena nereau izan  
nintzala, eta pecatu eguiñaz nere  
buruari eracarri diozcadan ambat  
calte, iñorc bestec ecin eracarrico  
cizquidala. ¡Cer eroqueria!... Bar-



cacioa, Jauna, barcacioa, bada naucazu benetan damutua. ¡Ah! benic bein pecatuaren gaiztaqueria nigan bacarric guelditu izan babilitz.... baña damugarriena eta gueyen gueyen sentierazotzen didana da, icustea Zugandaño iristen dala, bada eman nizun tratu gaiztoa. Bay nere Jaungoicoa, bay, pecatu eguitean despreciatu zaitut, isecatu zaitut, gurutziltzatu zaitut Juduac baño milla bider gogortasun gueyagorequin oec, alabaña, etzinduen ezagutzen, nic bay ordea; eta ala ere Zu baño maiteago izanduditut Barrabas nere vicioac, eta ¡gauza izugarria! pocic prestatunaiz borrarotzat zuri vicia quentzeco. ¡Ceruac, arritu zaitezte!

¡Barcacioa, bada, Jauna! .. ¡erruquia! ¡misericordia! Zure oñetan auspestzen naiz seme ondatzallea-



ren guisan graciaren soñeco ederra gabetanic, eta nere vicio eta pecatuzco zarpa-zarrez estaliric. ¡Ah nere Aita! ¡Cer da ni doacabe onec eguin nuena? ¡eguin nuen pecatu Zure contra, eta cere arpegui Jaungoicozcoaren aurrean!... Ez det mereci eman zadazula zure semearen iten honragarria; baña zure servitzarien artean bederic ar nazazu.... Emen daucazu Jauna, zure oñetan Magdalenaren antzeco pecatari bat, berarequin berdiña ez bada ere bi gaucetan, ceñac diran, gaiztaquerian nic ari, eta damutasunean arc niri gañez eguitea: baña Jauna zure oñetan, eta zure ministro confesorearenetan nere pecatu aundiac negarrez aitortzen ditudanean, uste det nere utsune au Cerorrec erremediatuco dezula. ¡Oh nere Jesus ona! apai-



zac absolucioa ematen didanean eguizu, nere barrumbean aditu ditzadala araco Magdalenari zucendu eiñiozcan itz biguñ becin consola-garri aec: *Barcatuac dituxu zure pecatuac...zoaz paquean*, eta animaco poz contentuan. Indazu, Jau-na, escatzen dizudan graci au Je-sucristoren merecimentuacgatic, Virgiña Mariaren doloreacgatic, eta ceruco Santu eta lurreco jus-tuen merecimentu eta bitarteaga-tic. Amen.

## CONFESIOA EGUTECO MODUA.

Confesorearen oñetan jarrico cera, seme-onda-t: allea bere aitarengana alderatu zan lotsa eta humilltasunarequin, edo Magdalenac Jesusen ga-natzean aguertu zuen damuarequin. Baldin nor-baitzuec ichedoten badaude, jarrico cera, itzie eta erriertarie eguin gábe, dagoquizun toqui-an: eta emen zure potenci eta sentiduac osotoro cereganduric, piscortuerazoco dezu yugan alegui-ñean cere pecatuen damua, contriciozco eta atri-cio co actoac maiz berrituz.



Confesonariora alderat/eco chanda datorquizunean belaunicaturic, escuac elcarganduco dituzu: guero gurutze santuaren señaleara eguinda, burua oso macurturic, esango dezu *Ni peccataria*, etc., eta confesioari asiera emango diozu era onetan:

Jauna, (edo Aita) onembeste demborada confesatu ez naizala. Cumplitu nuen (edo ez) penitencia. Onelaco estadu eta oficiocoa naiz. Examiñatu det nere conciencia, badacarzquit nere peccatuen damña eta emendatzeco proposita, eta uts-eguin dedan guztiaz acusatzen naiz.

Lembicico mandamentuan acusatzen naiz uts-eguin dedala... *Emen esango dezu ondo examiñatu ondorean arquite dezuna.*

Bigarren mandamentuan acusatzen naiz... *Orobat esango dituzu mandamentu onen contra eguin dituzun uts-eguiteac, ciertoro cembat diran baldin badaquizu, ala esango dezu; ezperen cembat bider guchi bat gora beera illeoro, asteoro edo egunoro erori oi ceran.*

Era onetan joango cera cere burua acusatzen, madamentuai eta zure vici-moduco eguin-bideai beguiratuaz, peccatu bacar bat ere ishili gorde, eta oen larritasuna, dala bildurrez edo dala lotsaz, gui-



chitu gabe; guztia conciençian dauzcatzitzun eran humilqui eta arguiro esaten dituzula, ciertoac ciertoac beçela, eta dudazcoac dudazcoac beçela, adierazoaz nerequin peccatu eguin dezun, edo cere buruarequin, edo beste personaren batequin, eta ea persona hura aidea zan edo ez, eta cer estadu-tacoa.

Baldin azquenengo confesiotic oraingoraño demora guichi igaro bada, ascoco dezu, mandamentu guztiaç banaca pasatzeari alde batera utziric, eguin dituzun peccatuac esatea. Etzera acusatu bear ere condicioaren azpian, esanaz:

Baldin Jaungoicoa amatu ez badet: baldin itz gaiztoren bat esan badet; baldin bear beçelaco debocioarequin, etc., mezatan egon ez banaiz, acusatzen naiz: *quis onelaco acusacioac, alabaña, ez dute deus serbitzen: bacar bacarric uts eguin dan hura sencilloro eta garbiro esan bear da.*

Conciencia garbiarequin zori onez arquitzen bacer, esango dezu:

Jauna, (edo Aita), azquena confesatu nintzanetic, Jaunaren misericordiaz ez det arquitzen gauza larrian uts-eguin dedanic, eta Sacramentu onen gai cierto eta jaquintzat ipintzen det nere bicitza igaroco *onelaco edo alaco* peccatu, ceñazaz acusatzen naizan.



Emen, zure pecatuac gogora ecarri, eta eguin izanen damu berria arturic, acusatueo cera confesaturic dauzcatzitzumetatic larrienetaco bat edo gueyagoaz: a quenic esango dezu:

Acusatzen ere naiz nere bicitza guztico pecatu larri eta venial guztizaz, ceintzuen barcacioa Jaungoico gure Jaunari, bicitza ontzeco asmo sendoa-requin berriro escatzen diodan; eta zuri, Aita, penitencia eta absolucioa, mercei dedala, baldin baderitzatzu, dembora berean, diña ez banaiz ere, escatzen dizut comulgatzeco baimena.

Guero confesorearen on-esanac arreta aundia-requin aditueo dituzu, cerbairetan descuidatu ote ceran, eta beste ecertan ere pensatu baguetanic; eta absolucioa ematen dizun bi artean, esango dezu auspezturic *Nere Jesucristo Jauna*, etc., 17 garren orrian dagoen beceia.

Baña beste peccaturen bat guero gogoratzen bazatzu esango dion confesoreari, absolucioa eman dedizun baño len, bere itz-aldia bucatzen duenean.



Confesio ondoreraco  
oracioa.

Oh Jesus guztiz biotz beraá, Aita ontsu eta consuelo guztiaren Jaungoicoa, cerutic lurrera nere amorez jechi, eta guratze batean il cñan sendaguin guztiz aditua eta onguillea, nere gaitz guztiac sendatzeco, zure zañetaco odolarequin erremedio chit eraguillea. arestian artu dedan Penitenciaco Sacramentuaren bidez aplicaturic, ipiñi cenduena; milla esquer ematen dizquitzut aiñ, oneguín aundiagatic, nai nuque ceru-lurrac alaba zaitzatela eguin didasun mesede aiñ señalatuagatic: aiñ gogoan izango dizut, Jauna, mesede au, non, beragatic orain lurrean eta guero ceruan betiro cantatuco ditut zure misericordiac. Indazu,




nere Aita, eguille eta erredimitza-  
llea, nere pecatu guztien barcacio  
eta indulgenci oso bat. ¡Ay cein  
damu aundia daucadan oec eguin  
izanarena!....Graci au indazu zure  
pasio eta eriotza gùztiz santuaren  
merecimentuacgatic, eta zure Ama  
eta neread. dan Virgíña chit santa-  
renacgatic. Erabaquitzen det pe-  
nitencia eguitea zure Jaungoicozco  
justiciari aldezaquedan ambateco  
satisfacioa emateco; gaurdandic  
eguin eta sufrituco dedan guztia  
esqueintzen dizut, Jauna, zure  
honra eta gloria gueyagoraco, eta  
nere culpa eta pecatuen satisfa-  
cioan. ¡Ah Jauna! Oraindaño ofen-  
sac eta bidegabekeriac eguin ba-  
dizquitzut, emendic aurrera ama-  
tu nai zaitut, eta nere biotzeco  
amorio guztiaz amatuco zaitut.  
Nere argaltasunaz ez ditecela ber-



riz baliatu nere etsayac, eta ez dizadatela berriro irentsierazo nere pecatuen puzoi, confesorearen oñetan errebestatu nuena; orretaraco alde eguingo det, pecatu bide servitu didaten persona eta lecu guztietatic, baliatuco naiz confesoreac eman eizquidan neurri guztizaz, eguiñaz gañera, onetara-co egoqui dala neroni deritzadan guztia. Graci au, indazu, Jauna, bada Maria Virgiña chit santaren, Aingueru eta Santu guztien bitartez escatzen dizut; eta irichi uste det, nere escaera humill au zure merecimentu eta misericordia neurrigabea indartzen dalaco.

Baldin era ona eta beta badituzu, cumplituco dezu bereala confesoreac emandaco penitencia; nun eta berac, noiz cumplitu señalatu etzizun; eta bereala ecin badezaquezu, lembait len eguingo dezu.





## COMUNIORACO PRESTAERA.

**J**aun aundia ondo artzeco, badaqui-  
zu lau gauza chit bearrac dirala, ceñac  
diran: *barau naturala edo oso osoa, con-*  
*cienciaco garbitasuna, artu bear dezuna-*  
*ren ezagüra, eta artzeco zalea.*

1.<sup>coa</sup> *Barau naturala edo oso osoa* da,  
aurreco gau erditic Jauna artu arteraño  
ecercho ere jan eta edan gabe egotea.  
Baña nai det jaquin dezazun, ecen, ba-  
rau au ez dala ausitzen mascatzen ez  
diran gaucen batzuec, demagun orratz  
bat, ari edo locarri bat edo guis one-  
taco beste gauzaren bat aoan sartze  
utzarequin; nola ere ez dan ausitzen  
arpeguia garbitzean asnasea artzeare-  
quin batean aoan sartzen dan ur tanto-



ren batequin; ez ortz-gañetic irten ditequean odolarequin; ez eta ere apaltzean ortz edo aguin tartean guera citezquean condarrac istuarequin batean irentsi-tzearequin. Azquenic, gau guztian lo eguin gabe egoteac ere, ez du eragozten comunio santua artzea.

2.<sup>ena</sup> *Concienciacc garbitasuna* dago pecatu larriric gabe arquitzean. Baña nola deabruac comunio santua ascotan galeraci nai izaten oi duen, confesioan aztutaco uts-eguiteen batzuec gogora ecarri-erazoaz, oarterazo bear dizut, ecen, uts-eguite oec ariñac badira, ascoco dezula beren damua artzea, eta quezca gabe comulgatu zaitecela; baña larriac badira, confesorearengana itzuliric, guztia ezayozcatzu; baña, eroso eta lotsaquizunic gabe au ecin eguin badezaquezu, comulgateguian arquitzen ceralaco, edo zutzaz gaitz-pensatzeco bidea gendeari emango cinioquelaco, asco izango dezu, zauden lecuan biotzez contriciozco acto bat, confesatzeco proposituarequin eguitea eta comulgatu zaitezque batere quezca gabe; cergatic jaquin bear dezu, ecen, guis



onetaco uts-eguiteac barcatuac izan citzaiquitzula confesatu ciñanean cenducan pecatu guztienquico damuaren, confesoreac eman cizun absolucioaren eta Sacramentuac sortzen duen gracia-  
ren indarrez; etzatzu bada gueratzen, pecatu oec Penitenciaco tribunalean aitortu bearra baicic, ceña cumplituco dezun, esanaz diran becela, urrengo confesioan.

3.<sup>ena</sup> Artu bear dezunaren *ezagüera* iduquico dezu, baldin ondo pensatzen badezu, eta badaquizu, cein dan Cristo, hostia consagratuan zuc artu bear dezuna, eta cein ceran zu, bera artzen dezuna.

4.<sup>ena</sup> *Artzeco deseoaz* aditzen da, araco zure animac, Jaunari cere bularrean ostatua emateco iduqui bear dituen amorezco antsi eta zale vici aec, eta jaquizu, ecen, cembat iracequiagoac diran antsi oec, ambat aundiagoac izango dirala Jesucristoc emango dizquitzun gracia.

Persona batzuec galdetzen dute ¿ea egüerdi ondorean Jauna artu ote ditequean? Eta Aita Jaenec (178 garren or-



rian) erantzuten die, bayetz; baita ordu bata, ordu biac edo irurac joac balira ere: eta gendetza aundia biltzen dan egunetan, Jubileo eta Misioetaco demboran, nola gendeac, beren confesioac eguiteco ichedopen luceac Elizan eguin oi bear izan dituzten, dembora oetan beranduago ere comulgatu ditequeala.

Oetacoen batzuec orobat galdetzen dute ¿ea cembat demboran isturic bota gabe egon bear dan Hostia Sagradua artu ondorean? eta Aita Jaen berac (184 garren orrian) erantzuten die, ecen, nola au erabaquitzen duen legueric ez dagoen, gueyentzuenean ascoco dala ordu erdi edo laurden batean egotea, eta are guichiagoan premiaac artaratuco baluque; baña onelaco suertaldietan, eta baldin ecer jan edo edan gabe badago, istua botaco du toqui garbi edo decen- te batera, ez du ordea gai onetan cer quezcatu, Jauna artu zuenetic dembo- ra asco igaro bada.







## Provechu aundiarequin Comulgatzeco modua.

—*noten*—

Comulgatu baño len pensa ezazu arretaz cein dan artzera zoacen Jesucristo, eta zu cein ceran.

Jesucristo da Jaungoico ta guizon eguiatzcoa: Jaungoico danez da Aita beticoaren Semea, hura becela Jaungoico dana: da guztiz altsu, aberats eta jaquintsua; da beraren aurrean ceruco cimenduac icaratzen diran, eta beraren beguirunez Serafiñac beren egoaquin arpeguia estaltzen dioten Jaungoico hura; bera da ecin conta al Aingueruc servitzen dutena; da munduaren Egui-ilea, eta jarri ciozcan legueac leyalta-sun aundienarequin gordeaz, bere Jaun eta Jabetzat errespetatzen eta adoratzen duena.

Guizona danez da, Virgiña chit santaren Semea, guizon guztien artean ederrena eta onena; eta Jaungoico eta guizon zalaric ezcutatu zan oguiaren eta ardoaren antz irudi-pean, era one-



tan gure barrumbean sartu al izan cedin, gure alimentu eta vicitza izateco eta guri ondasun guztiac emateco.

Eta zu ¿nor cera? ¡Ah!...gorputz eta animaz eguiñicaco gauza bat: animaren aldetic cera criatura ez-jaquin bat, pecatuan sortua, Jaungoicoaren on-eguiñai eranzuteco esquer gaiztocōa, oneraco naguia, gaitzeraco azcarra eta macurra, ãimbesteraño, non Jaunaren besoac eutsi ez bacizun, erorico ciñan pecaturic aundienetan; eta are gueyago, gar-eguiten ceuden onezquero infernuetan.

Gorputzaren aldetic etzera, gaitz guztien eta eriotzaren-pean zauden doacabe bat baicic; cera loya, cera lurra, cera autsa, cera errañu bat, cera utsa...

¡Eta Jaungoico ain noble orrec etorri nai du zugana, ceran becin doacabea ceralaric! Beragatic bada, sayatuco cera apaintzen zure anima, uste denanez graciazco estaduan eta chit bearrac dituen virtutez lagundua badago ere, nola diran fedea, errespetoa, bildurra, humiltasuna, confianza, deseo eta amo-



rioa. Gorputza ere prestatuco dezu barau natural edo osoarequin, arpeguia eta escuac eramanz garbiac, eta buruco illea ez mundutarren erara, ezpada onezqui orrazatua, eta soñeco decente batequin jantzia; eta azquenic senti-duac cereganduco dituzu, da esatea, premia beartzen ez bazaitu, egongocera iñora beguiratu, eta iñorequin itzic eguin gabe.

### **Comunio aurreraco oracioa.**

Nere Jesucristo Jauna, cerulurren Eguille eta gordelaria, aitaric amoriotsuena, sendaguin edo medicuric erruquitsuena, maisuric jaquitsuena, gure animen artzairic onguilleena, ona emen nun daucazun, zure aurrean egon bear ez luquean, eta are guichiago zure mai sagrada alderatu bear luquean peccatari errucarri au. ¡Ay Jauna! Zure ontasun neurri gabe orrec nigana etorri nai duela, pen-



satzen jartzen naizanean, izutzen naiz.... eta nere vicitza guztian zure contra eguin ditudan peccatu ugariai beguiratzen dietedanean, osotoro lotsaturic beartuarquitzen naiz zuri esatera: Jauna, ez etorri nigana....alde-eguizu nigandic, bada naiz peccatari errucarri bat.

Baldin San Juan Bantistac bere buruaz uste bazuen, zure oñeta-coen locarriac ascatzeco diña etzalla, ¿ain onra aundi au nola nic merrecico det? Baldin aingueruac, dizuten beldur eta errespetoagatic, beartuac badaude zure aurrean icaraz egotera, ¿nola ez naiz nic icaratuco zure mai Jaungoicozco orretara alderatzean eta bertan eseritzean? Baldin Virgiña chit santac, zure Ama izateco autua, eta criatura uts bategan arqui ditez-



quean doai, privilegio eta gracia guztiaz oroitua egon arren, zure servitzaritzat badauca bere burua, eta zuri, bere errai chit garbietan izatea emateco diña iñola ere ez dalacotzat, ¿izan nezaque nic, peccari errucarri, argaltasunez eta uts-eguitez betericaco onec, zu nere barrumbean artzeco ausardia? ¿Ay Jauna! ¿Etzaitu izutzen gaizquille onec?...etzaitu nazcatzen nigana etortzeac, eta vici-lecu ain despreciagarri eta ciquiñean sartzeac?

Eguia da, Jauna, Zugana alde-  
ratzeco nic viotzic izango ez nuela,  
aurrena cerorrec deitu ez baninduzun,  
ez bein bacarric, ezpada nigana  
etortzeco daucazun gogoa  
agueretzeco barrenge inspiracio edo  
viotz muguidac sentierazotzen diz-  
quidatzun guztian, esaten didazula



beste Zaqueo bati becela: *Jechi zaitex, Zaqueo, bada zure echean gaur ostatu eguin nai det: Baña Jauna, ¿cérc zacartzu nigana? ¿Nere merecimentuac? ¿Nere virtuteac? ¿nola autan artu ditzaque virtuteac eta merecimentuac ni becelaco peccatari batec? ¡Ah! orain conturatzen naiz, Jauna; nere miseriac, nere premia... au da orretaratzen zaituena. ¡Oh amorio ecin aundiagoa!*

Zuc esan cenduen, eriac dirala, ez osasundunac sendaguiñaren premia dutenac; eta orra cergatic etorri nai zatzazquidan: nere premia estua badacutsu, eta erremediatu nayac niganerazotzen zaitu. Eta eguiaz Jauna, ain errucarria da nere animaren izaera, non, garbiro esan dezaquedan; buru gañetic oñ-azpiraño parte sanoric nigan ez da arquitzen: ¡aimbesterañoacoac



dira nere uts-eguiteac! Ala ere,  
emen naucazu, Jauna; aurrean jar-  
tzen naitzatzu, ez Zure diña ba-  
naicela uste dedalaco, ezpada Zu  
gabetanic eciñ bici naicelaco, ba-  
natorquizu bada, beartsu bat abe-  
ratsarengana becela, nere miseri-  
ac estali ditzatzun, eta nere uts-egui-  
te eta argalqueri-  
ac naucaten estu-  
tasunetic libra nazazun: banator-  
quizu, ceren atsedenic ematen ez  
didaten gaitz aundiac zuc bacarric  
sendatu ditzazquidaquizun: begui-  
rada erruquitsu bat indazu, Sen-  
daguin Jaungoicozcoa, eta nere  
potenci eta sentiduac gueldituco  
dira sendatuac.

Emen piscacho batean guelditu zaitez, confianza  
osoarequin aguertu zayo/catzu Jaungoicoari zure  
animaco eta gorputzeco gaitz guztia, eta guero  
esazu:

Virgiña chit santa, Cana-Gali-  
leaco ezcomberriaz cupituric, ar-



quitzen ciran estutasunetic, atera  
ciñituen ezquero, uraren ardo  
biurtze miraritsu hura Jesusgandic  
irichi ciñiengan; esca zayozu nere  
alde ere onen antzeco mirari bat  
eguin dezala, bera ondo artzeco  
bear ditudan graciac emanaz; Zu-  
ri etzizun egundaño arpegui illunic  
jarri; beti aditzen zaitu; empeña  
zaitez, bada, nigatic, eguizu ale-  
guñ guztia, ¡oh cein, premi aun-  
dia dedan!

Aingueru santuac, icusten na-  
zute nola noan mai sagradura, eta  
jatera zuen oguia dan hura bera;  
irichi zadazute joan nadilla orni-  
turic eztai-janciarequin, eta vir-  
tute guztien apaindurarequin.

¡Oh ceruco biztanle santu guz-  
tiac! empeña zaitezte nigatic, eta  
eguizute Sacramentu beneragarri  
orretara alderatu nadilla zuec al-



deratzen ciñaten becela, bertatic atereaz nic ere zuec ateratzen ciñituen frutuac; eguiaz esan dezaquedan: *Ni bici naiz, baña ez ni, expada Cristo da nigan vici dana.* Fede. esperantza. confianza eta amorio onequin Zuganatzen naiz, nere Jaun eta Jaungoicoa.

COMUNIO AURRERACO QARQUERA.

Jaquin bear dezu ecen, Sacramentuac ematen duten gracia, artzen dituenac daucan gai edo neurriaren ambatecoa dala. Cembat eta leorragoa eta errechintsugoa dan sutara botatzen dan egurra, ambat eta berealago piztutzen dan becela, moduren batean esan diteque, Jaungoicozeo su bat dan Comunio Sagraduac ere, ala iracequitzen duela gugan Jaungoicozco amorioaren labea, munduco gaucetatic berecituagoac, eta virtuteen urrin gozoagatic gar-eguin-corrangoac arquitzen gaituen eran: eta emendic contu atera dezaquezu, nolacoa izan bearco dan zure ernaitasuna, biotzetie lur-reco gaucen gogo eta zalea quendu eta virtute guztietaco obretan sayatzen.



Al cindezquean moduric onenean presta-  
tutacóan, eta Comunio Santua eman bear  
duen apaizac, aldarera igota, sagrarioco  
atea idiquitzen duen bitartean, esango dezu  
*Ni peccataria*: guero pizcortuco dezu zure  
fedea eta confianza, eta apaizac copoya  
atera, Hosti Sagradua artu, eta *Ecce Agnus  
Dei* esaten duen bitartean, zuc esango dezu:

Oh Aingueruen ogui vici eta ali-  
mentu çeran Hosti Sagradua, nic  
adoratzen zaitut. Oh nere Salva-  
tzallea, nic adoratzen zaitut: Zuri  
sinisten dizut, Zugan esperatzen  
det, eta Zu amatzen zaitut.

Guero, apaizarequin batean, eta aldezaquezun de-  
vocioric iracequienarequin esango dituzu iru bi-  
der Centurionarem itz oec.

Nere Jesucristo Jauna, ez naiz  
ni, Zure Jaungoicozco Magestadea  
nere eche pobrean sartzearen di-  
ña; baña zure itz guztiz santuac  
izan ditzala barcatuac nere pecca-  
tuac, eta nere anima sendatua eta  
salbatua.



Itz oec bucatutacoan, aoa ishildu bedi, eta viot-  
 zac itz-eguin beza amoriozco eta deseozco acto la-  
 bur, baña iracequiaquin. Hostia Sagraduarequin  
 apaiza datorquizunean burua zucenduric, bi escua-  
 quin zapia cocozpean ipiñico dezu, eta aoa moduz  
 zabalduric, pishcabat ateraco dezu mingaña, bertan  
 eroso Hosti Sagradua jarri ditequean: au artuta-  
 coan, aoa ichita iduqui ezazu, baña mascatu eta  
 deseguiten utzi gabe, eta istuarequin e/atu edo bi-  
 guñduric bereala irentsico de/u. Au guztia arretaz  
 eguin arren, ao-sapayari itsasico balitzayoque, ez  
 dezazula, arren, beatzarequin uqitu; aparta ezazu  
 mingañarequin erreverenciaz; eta au ere asco es-  
 pada, ur pishcabat ar ezazu, eta bustiric pasaco  
 da.

#### COMUNIO ONDORERACO OARQUERA.

Jauna artutacoan cere potenci eta  
 sentidu guztiaac cereganduric, erretira-  
 tucera, edo capillan bertan, edo eli-  
 zaco beste parteren batean, zure ani-  
 marentzat irabaci aundiac ateratzeco  
 muga au, izan dezaquezun onena, apro-  
 vechatu dezazun. Comulgatuta bereala  
 etzaitez irten Elizatic, Judas, deabrua  
 guiari zuela, irten zan becela; ez ezazu  
 eguin ere cristau ascoc, apostolu doa-  
 cabe oni jarraituaz, eguiten dutena, au  
 da, elizatic campora lembait len irte-  
 naz, mesedeac escatzen Jesusequin



egon baño, deabruarequin joan nayago izatea. ¡Ay onelacoen errucarriac!... Ez dago cergatic ishilic egon; onelacoac dira benic bein, gende gaizqui-aci, moldacaitz eta modu gabeac; cergatic ¿gauza jaquiña ez da; ecen, aciera onac eta cortesiac escatzen dutela, personage aundi bat echera gu honratzera datorquigunean, guichienez ondirudien jolasarequiñ arrera ona eguin dezayogula? Eta baldin eseritzen danean, edo aurreneco itzac zucentzen dizquigunean berari utze-aldea emanaz lotsaturic utzico baguenduque, ¿gure portaera ichusi au ez luque artuco moldacaitzqueria batetzat? ¿Cer icen, bada, eman-go diegu comulgatu ta bereala, Jaun aundia ostatuz artu izan ez balute becela, elizatic irteten diranai? ¿Deituco diegu abereac?... ¡Oh! bai, abereac dira; otsoac, ez personac. ¿Ez deritzatzu? icusi dezagun. Otsoa da abere bat arraparia becin irentsillea; mocadu onaren zale beti izanic, ez ditu utzitzen irentsi gabe, arrapatu al ditzaquean arcúme guri guicenac; eta ala ere, gueyenean igar eta argal egon oi da: eta ¿cergatic?



jaten duena ausmartzen ez duelaco:  
orobat, bada, guertatzen zaye esaten  
ari gueran cristauai: jaten dute bay,  
eguiaz edo obeto esateco, irentsitzen  
dute Jesus, munduco pecatuac quent-  
zen dituen Bildots mancha gabea, eta  
mocadu ain indartsua artu arren, beti  
argal icusico dituzu virtutean; eta ven-  
turaz. ¡Ay au eguia ez balitz! venturaz  
beti, pecatu mortalean, eta ¿cergatic ain  
zorigaiztoco desdicha? Ceren otsoac,  
arrapatutaco arcumea ausmartu gabe  
irentsitzen duen becela, ala oec ere ja-  
ten duten Bildots Jaungoicozcoa, aus-  
martu gabe, au da, cér artu duten ecer  
ere pensatu gabe. Zuc bada, ez ezazu  
orrelacoric eguin: contrara, ordu erdi  
batean edo laurdenean, bederic ari zai-  
tez, cere bularrean artzeco zori ona  
izan dezun Jaungoico amoriotsu oni  
agur onac eguiten eta mesedeac esca-  
tzen esanaz:



**Comunio ondoreraco  
Oracioa.**

Milla esquer, Jesus guztiz maitagarria, milla esquer nigana etorri, eta nere viotzeco bici-lecu pobrean sartuaz, orain eguin didazun mesede pare-gabeagatic.....  
¿Eta nondic neri orrembeste dicha? Icusten zaitut nere animaco besoetan anciñaco Simeonenetan becela, eta onelaco ondasun Jaungoicozcoac zoraturic, deadar eguingo det arequin batean: Pozic ilco naiz, bada aimbesteraño deseo nuena irichi det... irichi det mundu onetan irichi ditequean dicharic aundiena. ¿Cér esquer, bada, eman al nizquitzuque nic, gracia guztia ez ecic, oen emallea berequin daucan gracia onegatic? ¡Oh



Aingueru santuac! guztioac Jauna alaba ezazute, eta nere ordezesquerrac eman zayozcatzute.... ¡Oh ceruco Santu eta lurreco justuac! onen mesede aundiagatic Jaunari esquerrac ematen lagun nazazute.

¡Oh Virgiña chit Santa.... Jaungoicoac eguin cizquitzun mesede bereciai ain ongui erantzuten jaquindu cenduena, eguizu, arren, nic ere jaquin dezadala erantzuten, eta bear becelaco esquerrac ematen; baña nola au ecin bai dezaquedan, eman zayozcatzu cerorrec nere ordezes.

Ceruan eta lurrean diran criatura guztia zuri, ¡oh nere Jaungoicoa! nere ordezesquerrac emateanai nuque; baña ondo ezagaturic daucat, onela ere zuri dagoquizun eta zuc mereci becela ecin erantzungo nizuqueala: orregatic bada,



Cerori esqueintzen zaitut nere gorputz, anima potenci eta sentidu guztiaquin, eta ala, emendic aur-rera beti esango det San Paulo Apostoloarequin: *Ni vicini naiz, baña ez ni, expada Cristo da nigan vicidana.* ¡Oh nere Jaungoicoa! gaurdandic zurea izango naiz beti; beragatic, - zure gauza bat becela apaindu nazazu, zu ondo amatzeco bear ditudala daquizquitzun virtute guztiaquin.

Icusten zaitudanean nere animaco ostalari eguiñic, osotoro izuturic eta arrituric guelditzen naiz; eta Magdalenaren guisan neregandic irtenic, ecin aspertuz nago beguira zure misericordia bazter gabei. Nigan, ¿cér icusi ceenduen, Jauna, nigana etortzeco? ¿Virtuteac?...baña, ¿pola virtuteac, baldin batere gabe arquitzen banaiz?



¡Merecimentuac?... ¡ay! pecatari  
errucarri bat naiz ni. ¡Norc edo  
cérc muguitu zaitu, bada, nere  
viotzecoa, nigana etortzera? ¡Ay!  
badaquit: estutzen nauten mise-  
riac, ondatua naucaten premiaac  
¡Oh cein ona ceran, nere Jaungoi-  
coa!...Utzi zadazu, bada, Jauna,  
zure oñ guztiz santuac laztantzen,  
eta biguñtasun eta amoriozco ne-  
gar-malcoz bustitzen, ez naiz al-  
chaco, ez, zure oñetatic, alic eta  
nere pecatuen barcacio oso oso  
bat Magdalenari becela eman di-  
zadazuneraño; ez eta nigandic joa-  
ten utzi ere, zure bendicio santua  
bota zadazun arteraño.

¡Oh eta cein maite zaitudan,  
nere Jaungoicoa! ¡cer penagarria  
beti zu amatu ez izana! Zu ofendi-  
tzeco ausardia izandu nuela gogo-



ratzen dedanean, arpeguia lotsaz betetzen, eta viotza pena vicienez erdiratzen zat. Bay, nere zañetaco odolarequin nai nituzque garbitu nere pecatuac. Zu amatu gabe, eta zu ofenditzen igaro nituen egunac ez nituzque nai sartzea nere vicitzaco urteen contuan. Baña emendic aurrera... ¡ceru-lurrac! nere asmo onen testigu izan zaitzte; emendic aurrera etzaitut geyago ofendituco, eta zure gracia laguntzen naüela, amatuco zaitut nere viotzeco indar guztiaquin.

Eta ez ori bacarric, Jauna, ezpada eguiñ-ala eguingo det mundu guztia ere amatu zaitzan, eta iñorc ofenditu etzaitzan; eta nere viotzean erruquizeco jar-lecuan becela jarri, eta gracia neri emateco prest, eta esca ditzazquizudala beiñ eta berriz leyatuaz gañera,



oraindaño escatu ez dizquitzudalaco espaz icusten zaitudan ezquero, nere nagnitasuna utziric, escatzen dizut lendabici, peccatari errucarriguztiac convertitu ditzatzula: ¿ez dacutsu, Jauna, nola dijoacen peccatuzco leicean gueroago eta gueyago ondatzen? Bigarrena, justuai, zure servitzu santuan azquen-irau-pena daguiezula: asiera onac ¿cerbalioco lieteque, baldin azquen zori gaiztocoa baluteque? Irugarrena, anima bedeincatuac purgatorioco penetatic ateraric, zure gloriara eraman ditzatzula. ¡Ondo daquizu cein maite zaituzten, eta Zuganaco cein eresi bicia daucaten! Laugarrena, nere guraso, aide, adisquide eta onguilleai bear dituzten gra-ciac eman ditzaizquietzula. Bostgarrena, elizac toqui guztietan garaitu dezala, eta gure erreinuac



zori ona izan dezala. Seigarrena, nere oracioen premian dauden guztia bedeinca ditzatzula. Guztioi iguzu zure Jaungoicozco gracia, zure amorio eta bildur santua, eta azquenic Aitarequin eta Espiritu Santuarequin bici ceran eta erreinatzen zauden gloria. Amen.

Oracio au-bucaturacoan, zure vici-moduco eguinquinac betarie utzitzen badizute, egongo eera consideratzen soseguz Jesusec zugatic cembat eguin eta eraman zuen: bildu zaitetz al-eguinēan bularrean daucazun Jesus orren inguruan, béra adoratzēn dauden Aingueruacquin; eta oec eguiten dituzten bederatzí malla edo coroen honran erre-atuco dituzu bederatzí *Aita gurea*, *Ave Maria* eta *Gloria*, aurreneco seyac esqueñico diozcatzu Jesusi, ceñarequin viotzez laztanduco ceran, gogora ecarriaz beraren bost llagac eta arantzazco coroa; eta guero Pio VII garrenac 1821 garren urtean emandaco indulgenci osoa, eta zortzitic ortzira confesatu eta comulgatu oi diranac egunoro irabaci dezaquetela beste aguiari batean erabaqui zuena, irabazteco, esango dezu ondorengo.

### Oracioa.

¡Oh nere Jesus on eta maitea!  
Beguiran nazazu zure aurrean aus-



pezturic: devocioric iracequi ena-  
 requin erregutzen dizut, josi dit-  
 zaizquidatzula nere viotzean fede,  
 esperantza eta caridadezco senti-  
 mentuac, nere pecatuen damua,  
 eta egundaño Zu gueyago ez ofen-  
 ditzeco asmo sendoa, nic zure bost  
 llagac, al dezaquedan erruqui eta  
 amorio guztiaz gogoan darabiltzi-  
 dan bitartean, abiatuaz araco Da-  
 vid profeta santuac Zuzaz ¡oh ne-  
 re Jaungoicoa! esan zuen artatic:  
*Nere escu-oñac zulatu dituzte eta  
 nere ezur guxtiac contactu ditezque.*

Azquenic beste iru *Aita gureac* errezatuco di-  
 tuzu, esqueñiaz Virgiña chit santari, irichi dizazun  
 humiltasuna, garbitasuna eta amorioa:

Betarie badezu, eta devocioac muguitzen zaitue-  
 la baderitzatzu, chit probechu aundiarequin iga-  
 ro dezaquezu dembora pishcaren bat ondorengo  
 meditacio oetacoen batean.

LEMBICICO MEDITACIOA.—*Jesus aurra.*

Baldin Virgiña chit Santac zure be-  
 soetan Jesus aurra ipiñico balizunque,



¿cér esango ciñioque? ¡Oh nola adora-  
tuko cenduquean!....Ez da ipuia edo  
aundiscada, ezpada egui eguia: comul-  
gatu ceranean, cerequin daucazu Je-  
sus... escayozu, bada, bere Jaungoi-  
cozco amorioa.

BIGARREN MEDITACIOA.—*Jesus da ar-  
guia, da justiciazco eguzquia.*

Mundu aũ eguzqui gabe, ¿cér izango  
litzaque? ¡illuntasuna! ¡otztasuna! ¡ga-  
betasuna! Orra bertan egongo litza-  
queana: orobat guizona Jesus gabe,  
mundua eguzqui gabe baño izango li-  
tzaque are desdichatuagoa. Escayozu,  
bada, argui dezala zure adimentua be-  
re graciarequin Jaungoicoaren amorioz-  
co labe bat berotu eta iracequi dezala  
zure bularrean.

Ar zazu zure aitatzat esposotzat,  
amorio-laguntzat, adisquidetzat, mai-  
sutzat, artzaitzat, medicutzat; aguertu  
zayozcatzu zure uts-eguiteac, zure gri-  
ña biu riac, etc., eta escayozu guztien  
remedioa.

Comulgatu ondorean batzuec consi-



deratzen dituzte beren buruac, sentidu eta potencietan eri baleude becela eta Jesus dala sendaguin edo medicua, eta esaten diote: nere begui oec, Jauna, senda itzatzu, bear ez dutenari beguiratu ez dezayoten; senda ezazu nere mingaũ erausi, guezurti, gaizqui esale, etc., au; senda itzatzu nere belarri, escu, oĩ, eta beste sentidu oec; senda ezazu nere adimentua, nere memoria eta borondatea. Senda ezazu nere anima, bada eguindu pecatu. Zori onecoa fede biciarequin comulgatzen dana, eta comulgatutacoan bere barrumbean daucala Jesus uste duena; eta zori onecoa izango da esperantza viciarequin bear duena escatzen diona, bada iri-chico du, itsuac, elbarriac eta gañeraco eriac, Ebangelioac esaten digunez iri-chi zuten becela.

Beste batzuec herriz, comulgatzen diran hecin laster beguiratzen diote Jesusi beren viotzean eseritã balego becela; eta animac bereganatzen ditu bere potenci eta sentidu guztiaç Jesus adoratu dezaten eta bedeincatu ditzan. Eche batean aundizqui bat sartzen da-



nean, eche-jabeac bere hume eta mendecoac Jaun oni aurrera ecarri; eta esqueintzen diozcan becela, ala animac ere bere potenci eta sentiduac Jesusi aurrean jarri, eta ezqueñi bear diozca. Viotz guztiac beti betico emango dio, eta Jesusen amiora, Jesus beneric eta Jesusgatic baicic maitatu gabe, oso oso-ric consagratuco du.

Consideracio oetacoen batean cerbait dembora igarotacoan, joango cera echera modestia guztia-requin, eta mesede ain aundi au ez de/azula aztu egun guztian. Eztayetara goicetic dijoana, egun guztian apaindua ibilli oi da; ala, Jesusen eztayetara joateco zori ona izandu zuenac, egun guztian egon bear du virtute/ apaindua. Baña egun onetan ez ecie, zure vicit/aco guztietan ere sayatu bear cera vicitzen, virtutean eta peccatu larriric eguin gabe, ondorengo guertaldi onetan Indioar galai batezaz iracortzen dan beela:

Indietaco misiolari batec escribit/en du, ecen, gure rligio santura eracarri zuen galai bati doctrina eracutsi, batayatu, eta Comunio sagradua eman cionean, erri artatic alde-eguin zuela joateco beste batzuetan predicatzera: urtea betet/ean misio-laria it/uli zan<sup>o</sup>ostera erri bertara; galayac ez alzuen jaquindu, non, bereala joan citzayon, eta escatu cion Comunio santua. Gogo onez emango dizut, ene seme, misio-lariac erantzun cion, baña preciso dezu aurrena, urtearen buruan eguin dituzun peccatuen<sup>o</sup> confesioarequin prestatzea, —¿Cér aditzen det? galayac erantzun cion: ¡cér! cristau batec Comunio sagraduaren bidez bere viotzean



Jesus artu ondorean, inola izan al diteque, bertatic, pecatuagatic bota, eta aren lecuan deabrua para dezala? ¿esan nazazu, Jauna, aimbesterañoco esquer gabequeriaric...alaco billauqueriaric... gaiztaqueria ain ichusiric baditeque?

Galai onec becela con tu aundia iduqui bear dezu zuc ere, beti gracion irauteco, eta Comunio sagrada artu nai izateco. Are izan ba uen mai/ comulgazeco egoquiera, ¿oh nola eguingo zuen! Zu, bada, confesorearen baimenarequin comulga zaite Sacramentuarquiro al de/aquezun guztian, ceren ala eguiñaz glori aundia irabacico dezu; bada Maria agredaco beneragarriari Virgiña chit santac esan ciola Santa are berac aseguratz en duenez, comulgatu diranetatic ascoc izango duten gloriac comulgatu etziran martiri ascorenac ambat balioco du: baña Jaun aundia Sacramentuarquiro cere bularrean artu ecin dezazuquenean, ordañez, gogoz edo deseoz artuco dezu, edo ber bera dana, eguingo dezu itz-egui/era goacen Comunio espiritualala edo gogozcoa.

## Comunio espiritualala edo gogozcoa.

Comunio espiritualala edo gogozcoa da debocioric erracena, labor eta prochu-garriena, eta dembora berean jar dueraric gozoen eta atseguñena. Eguin diteque nun nai, noiz nai, onetaraco ez daucagu iñori ecer escatu bearric, ez demboraric galdu bearric, ez gure



eguinquizunac utzi bearric, ez eta eritasunac eragotzi dizaiguquean bildurric: nai izatea asco da. Argatic Agueda Guruzeco beneragarria eun bider comulgatzen zan egunaz, eta beste aimbeste bider gabaz; beata Juana Gurutzecoaren bicitza, comunio espiritual edo gogozco beti ciraien bat zala esan diteque: ain da gauza erraza. Berac dacarquian prochuari beguiratzen badiogu, ascoco da esatea, ecen aitatutaco Juanari Jesucristoc, aguertu citzayon batean esan ciola: Gogozco comunioan, eguiaz comulgatzea zanean ambat gracia ematen ciola. Zuri ematen zatzuna aimbesteranocoa ez bada ere, ceren etzeran hura becin devocio iracequicoa, beti izango da aundia, baldin aldezaquezun devocio eta berotasun guztiaz eguiten sayatzen bacera.

Gogozco Comunio au, bada, ez da besteric, ezpada Jesus Sacramentatua eguiaz artzeco. eta mai sagradura alde ratzeco dicha dutenai Berac ematen ditzen gracia eta mesedeetan parte izateco gogo edo zale iracequi bat; baña gogoonec escatzen du conciencia pecatu lar-



ririçigabe iduquitzea, edo bere peca-  
tuen damu eguiazcoa aurrena biotzean  
sortu-erazotzea. Errazago eguin deza-  
zun, ona emen.

### Gogozco comunioa eguiteco modua.

¡Oh Jesus nere Jaun eta Jabea!  
chit firmero sinisten det, eguiaz  
zaudela Zu Aldareco Sacramentu  
adoragarrian. ¡Ay nere Jaungoi-  
coa! ¡cein aundia litzaquean nere  
dicha viotzean artu al bacinduz-  
quet!... Uste det, Jauna, Zu nere  
onetara elorri, eta cere graciaz be-  
teco didazula.

Maite zaitut, nere Jesus guztiz  
gozoa... ¡cein damu dedan Zu be-  
ti maite ez izana!... Ojala egunda-  
ño ofensa eta bidegabekeriaric  
eguin izan ez banizun ¡nere viot-  
zeco Jesus guztiz gozoa!... nere bi-  
ci-lecu beartsuan artu nai zaitut.



BATAYO SANTUAN EGUINDACO AGUINDU  
EDO PROMESEN BERRITZEA, CRISTAUAC  
BERE JAYOTZACO EGUNEAN BEINTZAT  
URTEORO EGUIN BEAR DUENA.

¡Oh nere Jaungoicoa! Milla esquer  
zure antz irudira eguin, batayo Santua-  
requin graciazco bicitza berria, eta Es-  
piritu Santuaren doay eta birtuteac  
eman, eta zure Elizaren hume (seme  
edo alaba) eguin nazulaco.

Neretzat egunain zori oneco artan  
nere aita-pontecoaren aoz Satanas eta  
bere obrac, arroqueria eta banidade  
guztiac utziaz gañera, itz eman nuen  
sinisten nuela Jaungoico bacar bat dan  
Aita, Semea eta Espiritu Santuagan,  
sinisten nuela Eliza Catolicoa, Santuen  
Comunioa eta Zuc aguertutaco gañeraco  
eguia guztiac, eta azquenic, sinismen  
onetan, eta zure aguinte santuac leyal-  
qui gordetzen bici eta iltzeco asmoa ar-  
tzen nuela.

Baña ¡ay nere Jaungoicoa! promes  
santu eta aundi oec ¡cein gaizqui bete  
ditudan! Lecu eman diet nere etsayen



loENCHAI; bicITU naiz Satanasen ban-  
 dera-pean: munduco atseguin eta va-  
 nidadeac ichuturic ibilli naiz deabrua-  
 ren pompa eta zoraqueria galgarrien  
 ondoren: munduco honra, aberastasun  
 eta beste gauza circill galcorrac naya-  
 go izandu ditut, cere humeai Zuc  
 aguintzen dieztezun ondasun ceruco  
 eta beti dirautenac baño, gauza guztien  
 gañean Zu maite izan bearrean, utzi  
 zaitut pecatu eguiñaz, eta despreciatu  
 zaitut gauzaric ecerecenacgatic. Zuret-  
 zat bacarric vici, eta nere pensamentu,  
 itz eta obra guztia zuri esqueñi orde-  
 z, guztia zucendu ditut nere gurari gaiz-  
 toac betetzera, eta bacar bacarric nere-  
 tzat bicITU naiz. ¡Ay ene! ausi ditut zu-  
 re legue Santuac, Elizacoac eta nere  
 bici-moducoac. Baña Jauna, Zuzaz, os-  
 terontzeco guztia berriro utzitzen det,  
 gaurdandic gorrotatzen ditut nere gaiz-  
 taqueria guztia, oen barcacioa humill-  
 qui escatzen dizut; eta uste det zure  
 Seme maitearen merecimentuacgatic  
 barcatuco dizquidatzula.

Viotz onez ar zadazu, nere Jaungoi-  
 coa, nere batayoco egunean eliza guz-



tiaren aurrean eguin nizquitzun prome-  
sen gaurco berritze au, bada arreta eta  
leyaltasun guztiarequin bete nai ditut;  
eta orretaraco, orain ezagüera gueyago  
daucadan onetan diot, ecen, utzitzen  
dedala betico Satanasi, bere pompaeta  
obra guztiaquin. Ez diot egundaño ni-  
gan lecuric emango Satanasi, ez eta  
berarequin danic guitchiena cutsutzén  
dan beste edocein gauzari ere. Contu  
aundian bicico naiz, arroqueric, guti-  
ciac, loiqueric, iraiñac, gulac, envi-  
diac, alperqueric eta guezurac men-  
deratu ez nazaten, eta pecatu date-  
quean guztia utzico det, daquidalaco  
pecatua Satanasen lana dala.

Arreta aundia jarrico det nere bio-  
tzetic ateratzeco ondasunen, honren,  
munduco aundi-nai eta atseguñen  
amorioa, daquidalaco au guztia ez da-  
la, gure etsay gal-garri infernuc dea-  
bruac gure animac achitzeco asmoa-  
requin paratzen duen lazo, edo zabal-  
tzen duen sare bat baicic. Sayatuc  
naiz gogoan erabiltzen cein ecerezque-  
ria dan vanidadea, eta cein galcorrac  
munduco ondasunac; nere viotzac lur-



reco gaucen gogo eta jayera guztia oso-  
toro utzirik, bacar bacarric Zu nere on-  
dasun guztia, beticoa eta paregabe ona  
ceran ori amatu zaitzadan.

Bay, Jauna, bay, fede, esperanza eta  
caridadean, eta aguindu dizudan obe-  
diencia eta leyalasunean nai det vici  
eta ill. Sinisten det Erromaco Eliza  
Santa, Catolica eta Apostolicuac sinis-  
ten duen guztia, eta gaiztotzat daucat  
berac gaiztotzat daucan guztia.

Gueyagoren gueyago ez det berriz  
nere esperanza jarrico munduco onda-  
sun, honrra, edertasun, gaztetasun eta  
lurreco beste ecertan ere; ezpada Zu-  
gan, nere Jaungoicoa: bay, Zugan jar-  
tzen det nere zorion guztia; Zu bacarric  
cera nere esperanza berri onen gaya.  
Oraindic mundu oneten gueraizen zai-  
quidan egunac, Zu leyalasun eta amo-  
rio guztia: amaten eta servitzen iga-  
roco ditut.

Amatu nai zaitut, nere Jaungoicoa,  
nere viotz guztiaz, nere anima guztiaz  
eta nere aleguin guztiaz: gaurdandic  
esqueintzen dizquitut nere pensamen-  
tu, deseo, itz eta obra guztiac, nere



gorputza, nere anima, nere ondasunac, nic dedan eta dezaquedan guztia; eta erabaquiric naucazu; nere mendean dagoen guztiaz ez usatzera zure honra eta gloria gueyagoraco, eta cerorrec nai dezun erara baicic.

Amatzen zaitut, nere Jaungoicoa, eta beti amatuco zaitut gueroago eta gueyago nere viotzeco amorio guztiarequin, Zu amatzeari iñoiz ere utzi gabe: ez vicitzae, ez eriotzac, ez ondasunen esperantzac, ez gaitzen bildurrac, ez nere adisquideac, ez nere etsayac, eta ez mundu onetaco ecer bestec ausierazo al izango didate Zuri leyal izateco orain eman dizudan itza, eta testigu ipintzen ditudan ceru-lurren aurrean berritzen dizudana. Viotz osoz jartzen naiz ala Zure aguiñduetara, nola nere nagusi eta buru diranac aguintzen didaten guztira.

Oec dira, Jauna nere asmo eta deseo berriac, berétan vici eta ill nai det: eta Cerorrec eman dizquidatzun becela, us-te det, obraz eguiten ere Zure gracia-requin lagunduco didazula; ondo daquizu, alabaña, Zure gracia gabe nic



ecer ere ecin eguin dezaquedala.

Berritu ezazu nigan, oh Erredimitzalle Jaungoicozcoa, Batayoan ishuri ciniñizquidan fede, esperanza, caridade, humiltasun, eta beste gañeraco virtuteen espiritua, laguntz oequin indarturic menderatu dezaquedan peccatura arrasata naraman nai-eraguille, edo gaitzeraco nerezco griña; nere etsayai gogor eguin, eta orain eguin dizudan aguindu edo promesari leyalqui erantzun dezayoquedan; bada au guztia ezcatzen dizut zure odol guztiz preciotsuaren mercedimentuacgatic, zure Ama maitearen, ceruco Aingueru eta Santuen, eta lurreco justuen mercedimentu eta valimentuagatic. Amen.

### **Cristauari erregua.**

Mundu onetan eta bestean zori onecoa izango cera ¡oh cristaua! baldin batoyo santuan Jaungoicoari eguin ciniñiozcan promesac leyalqui cumplitzen sayatzen bacera: baña ¡zure zori gaiz-



tocoa, baldin desleyala bacera! cergatic acabaera gabeco infernu bat da ichedoten dagoquizuna; bada contuetaco egunean, araco erremedio gabe aguertu bearco ceran juicio artan, zure salatzaile aundia izango da buruan para cizuten zapi zuria, ceñac adierazten duen, daquizun becela, zure vicitza guztian izan bear dituzun oitura onaen garbitasuna. Adi ezazu, ezperen onaco guertaldi au. Cõndaira edo historietan iracortzen degu, ecen, Elpidóforo ceritzan batec Batayoa, Murita Cartagoco diacono baten escutic artu zuela, eta guero gure Erligio santua ucatu, eta Arrioren erejia edo doctriña gaiztoac sinisturic, Catolicoen contraco juez izatera eldu zala. Nola Murita zan Jesucristoren gurutz adoratzalle leyal bat, preso artuta eramán zuten Elpidófororen tribunalera; baña Muritac bere burua ez al zuen icusi fede-ucale onen aurrean, non paltricaratic bereala atera zuen Batayoan para cion zapi zuria, eta oroituerazoric berarequin Jaungoicoari orduan eguin ciozcan promes, orain ausita ceuzcanac, esan cion: *Au da,*



*gaiztaqueriaren servitzari zauden Elpidóforo, au da, zure vicitzaren contumatera aguertu bearco ceran eguncan, Jaungoicoaren Magestadearen aurrean salatuko zaituen jan'zi zuria.*

Orobat diotzut cristaiia: ¡zu erruqui-ena, baldin Batayoan aguindu cendue-na leyalqui gorde bearrean, fedea uca-tzen, edo emandaco itza ausitzen ba-dezu! ¡Zu erruquiena, baldin aguindu-tacoa leyalqui ez gordeaz gañera, cris-tau eguiazcoen vici-moduaz gaizqui esaca, murmuracioan, iseca, irri eta farra eguiten aritzen bacera! ¡Zu erru-quiena, diotzut herriz ere cergatic zapi zuriac, eman bear dizun ejemplo ona adierazten duen candela iracequiac, eta Batayo santuan eguiten diran osteron-tzeco ceremonia sagradu guztiac izan-go dituzun, zure salatzaile aundienac eta gogorrenac, orain pecatu eguiñaz perseguitzen dezun Jesusec juzgatuco zaituen egun icaragarri artan! Sinistu dezazula edo ez, onezaz oroitu zaitece-la edo ez, egunen bat etorrico da ¡ven-turaz ez dezu urruti! ceñean ilco ce-ran, juzgatua, eta eguiten dituzun obra



on edo gaiztoai dagocaten eran salva-  
tua edo condenatua izango ceran; eta  
onetatic libratzeagatic eguiñ al guztia  
eguiten badezu ere, libratuco etzera.



DAGOCAT





MEZAREN GAÑEAN ICASBIDEA.

---

SARRERA.

**C**ristaüa ari ditequean gaucetan one-  
na da Meza santua, orain Jaungoicoa  
alabatzeco, orain berangandic artutaco  
mesedeen esquerrac emateco, naiz sal-  
vatzeco bear diran laguntzac iristeco,  
eta naiz eguindaco pecatuen satisfacio  
emateco.

Cristauac ez du mezatan berac baca-  
rric erregutzen, dio San Juan Crisosto-  
moc, arequin batean Aingueruac, San-  
tuac, Jesucristoc berac ere erregutzen  
du. Zori onecoac igande eta beste obli-  
gaciozco egunetan ez ecic, beste gañe-  
racoetan ere meza devocioz entzuten  
dúten personac, bada mundu onetaraco  
eta bestecoraco merecimentu aundiac  
biltzen dituzte. San Luis Franciaco er-



regueac bi entzuten cituen egunoro, San Isidro ere bere lanari equin baño len, entzuten zuen egun guztiefan, beste Santu asco eta ascoc orobat eguiten zuten becela. Zuc ere, cristau chit maitea, eguizu orrela, aberatsa edo eroso vici zeitequeana izan ez arren, eta bay languille beartsu bat, San Isidro zan becela; oroitu zaite araco esaera arzaz: *Mezà entzun eta garagarra emateagatic etzan iñoiz galdu jornadaric.* Meza santua egunoro entzutea eragozten dizun gauza venturaz izango da, zure eguinquinunac atzenduco zaizquitzulaco quezca edo betaric eza baño obeto, mundutarrai eta murmuratzalleai zuzaz itzeguiteco bidea emango diezulazcoaren bildurra. Ala balitz diotsut, ecen, oen erausiac ez ditzatzula ecertan artu, Jesucristoc eracusten digun becela: eguin zaite entzun-gor, bada berac ichuac izanic, ichu-aurreco izan nai dute: azaric ez berac jan, eta besteai jaten utzitzen ez dien baratza-zayaren zacurrac becelacoac dira oec ere. Mesederen baten esque aundizqui bati zoazquionean, eche-atarian zaun-



ca dauden zacurrai ez diezu nozqui casoric eguiten: orobat bada eguin bear diezu zuc ere, gorputzeco eta animaco graci-mota guztia eman bear dizquitzun ceru-lurren Jaun eta Jabearen echean sartu etzaitecen, beren esamesa eta burlazco marruaquin izutu nai cinduztequean munduco zacur oei. Ez ezazu aztu, Eliza dala Jaungoicoaren echea, eta sartu nai izan bear dezun ceruco atea: eta are guichiago, an ez dirala sartuco zacurra, ceñac diran guizon gaiztoac, ezpada contrara. San Juanec dionez, campora botiac izango dirala.

Oroitu zaitez nola San Isidro, San Luis eta beste Santu batzuec ere autan erabilliac izandu ciran; eta alaco erausleai nai nuque nic erantzun dizayezula San Luisen itz cequin; *Ez luteque nosqui itz bat ateraco basoan eicean, edo dado-jocoan dembora doblatua igaroco banuque*: Badaquigu Maria Magdalenari ere esamesaren orde z chaloac eguiten citzayozcala munduco arroqueria, jostaqueta eta zoraquerietan dirua ondazten cebillen bitartean; baña zan guz-



tia Jesucristoren servitzuan consagra-  
tzea osotoro erabaqui zuen becin las-  
ter, milla mingañ cirauaren antzecoac  
beren lerre puzoitsua bota zuten aren  
gañera: eta are arrigarriagoa dana,  
Apostoloac berac, Judasi cerraicatela,  
ain gaizqui artu zuten aren eguiera,  
non Jesucristoc berac irten bear izan-  
du zuen beraren alde, eta defenza egui-  
tera. Sinistu nazazu, bada, cristaiia:  
egunoro Meza entzun ezazu zure con-  
fesorearen iritziarequin, cere eguinqui-  
zunen calteric gabe albadezaquezu, eta  
desprecia ezazu mundutarrac, edo be-  
ren buruac santu-ustecoac dauzcatenac  
esan dezatequean guztia. Etorrico da  
egunen bat Jesus defentsalle ateraco  
zatzuna, dembora batean Magdalenari  
becela.

Meza entzuteco Eleizara zoacenean,  
pensa ezazu zoacela Calvariora, arqui-  
tzeco Jesusec an esqueñi zuen odolez-  
co sacrificioan; bada aldarean esquein-  
tzen dana da Calvariocoa ber-bera, an  
odola eguiatz ishurias, eia emen ishuri  
gabe esqueñia izatea beste diferencia  
gabe: an bein bacarric esqueñi zuen,



eta emen egunoro esqueintzen du; ba-  
ña an becela emen ere esqueintzen dio  
Aita Beticoari gure salvacio eta erre-  
dencioraco: Juduen gaiztaqueriaz, lan-  
cai edo instrumentuzaz becela servitu-  
zan Calvarioan, aldarean ordea, digun  
amorio au gañez-eguiñaz servitzen da;  
amorio au izanic, egunoro esaten diran  
Mezac ambat bider sacrificio berpera  
berrituarazten diona.

Meza entzuteco Eleizara ceranean,  
pizcortu ezazu zure fedea, eta pensa,  
baldin zure aitaren edo senarraren sa-  
cificio edo eriotza icusten egon bear  
bacenduque, ¡oh nolacoa izango litza-  
quean orduan zure viotzeco pena eta  
naigabea! Ez da au ipuia, ezpada egui  
eguia: Meza entzuten dezunean, Jesus  
zure animaren aita eta senarraren sa-  
cificio eta eriotza icusten arquitzen ce-  
ra. ¡Ah! eguia oec cristauac gogoan ba-  
lebiltz uite...ez farraric, ez erausiric,  
ez loric eguingo luteque, ez liraque  
icusico ere erligioaren pena chit vici  
eta cristau sencilloren escandalo aun-  
diarequin gure Eleicetan egunoro egui-  
ten icusten diran ecin conta al uts-



eguite, Jaungoicoari zor zayon beguirune eta errespetoaren contracoac: ¡cerpena! itz gogor oec arpeguira ecin eman litzayezteque cristaiaren antzic icenean bestetan ez duten personai, aimbeste despreciogatic Jaungoico aserretu batec gure gañera descargatzera dijoazquigun castiguen vistan icaratu gabe, eta gure erligio Jaincozcoaren eguinguizun adoragarriena berritzen dan dembora berean eguiten diran gaiztaqueri ain izugarriac zañetaco odola gelatzen duten becela, arpeguia lotsaz estali gabe; cuadro lotsagarri eta izuti oni estalqui bat bota nai nioque nic, inore icusia izan ez dedin...baña gauza cierto eguia da...errespetoaren falta ain aundi, ain aguiricoi eta egunorocoaquin, gure aldareetaco sacrificioa, Calvariocoa berpera dalazcoaren prueba bat, berac uste eta nai izan ez arren, zori gaiztoan ematen dutela; bada Juduac Jesusen iseca eguiteco, Calvarioan, jostaquetan, farraz eta erausian ari, eta aren Jaincotasuna ucatzen zuten becela, ala onelaco cristau, gure Erligio santuaren deshonna diran oec



ere, Jesus berari farra eta burla eguiñ, eta atse-aldea ematen diote. Guis onetan Jesusequin Calvarioan portatzen ciran Juduac, gaiztaqueri ain aundira bultzatzen cituen deabru-pilla batez beteac ceuzcaten beren gorputzac. Eleizan devocio gabe egoten diran cristaiñac, pecatu mortalean daude, eta ala deabruac dirala esan nai ez badegu, benic bein deabruaren mendecoac dira, beren erreverenciaren falta ichusi eta sacrilegiozcoacquin besteac ere muguierazotzen dituztelaco, aec berac eguiten dituzten becelaco burla eta desprecioac eguitera.

Zu, bada, au iracortzen dezun eristau maitea, zaude Eleizan atencio eta devocioz, naiz meza entzutecoan, naiz beste devocioren bateraco sartzen ceranean, iñoiz ere bertan itzquetan egon gabe, bada Jaunaren echea da oracioracoa, eta ez erausiracoa. Baña premiaren batec itz eguitera beartzen bazaitu, eguizu ishilchoric, eta alic itz guichienacquin; eta baldin iñore cerbait galdetzen badizu, erantzun ere zayozu laburqui, eta arc bestec aditu ez



dezaquean eran: bada bestela itz-eguiten dizunaren pecatuaren culpan zuc ere parte izanic, descargatuco luque Jesusec zure gañean arenean becela azotezco euri jasa bat, orain Eleizatic, eta guero gloriatic botaco cinduqueana, Judu Jerusalengo templo-deshonrazalleac beste dembora batean bota cittuen becela.

Chit erregutzen ere dizut, egon zaitecela Eleizan jantzi decente eta honestasunari dagocan moducoarequin, amilla beintzat jantziric, eta egundaño ez mauca utzean, edo bizcarretic cincilic amilla edo elasticoa dezula, guizacumea baldin bacera; eta emacumea bacera, ez soñeco escotatu, honestasunaren contracoarequin, eta besoac ontzi garbitzalleen guisan aguirian dituzula, eta burua ere, ez belo edo zare meaz, ezpada zure alderdietan usatzen dan manteliñaz estalia, eta iñola ere etzera joango buru utsean, cergatic ala joatea, gaiztotzat dauca San Pabloc, eta onequin Elizaco Gurasoac. Premiatic edo beste eguitecoren batec beartzen bazaitu aundizquiren baten edo errico buru-



en aurrera joatera, ¿ez dezu aleguiña eguiten garbi, chucun eta decencian aguertzeco? ¿cergatic bada, guichienez bere bat eguingo ez dezu Erregueen Erregue, eta Jaunen Jaun dan Jesusen aurrean aguertzeco Elizan sartzen ceranean? azquenic oarterazotzen dizut, ecen, Elizara zacurric ez dezazula egundaño cerorrequin eraman, gauz ichusi eta decenciaren contracoa dala-co.

Apaizac aldaretic Meza emanda aldeguin, eta cere errezo bereciac eguiten dituzunean, modesti aundian irtengo cera elizatic; ontzitic ur bedeincatua artu eta sartzean becela ciñaturic Jau-nari eguingo diozu erreverencia (be-laun biacquin baldin Jauna patente edo aguirian badago, batequin sagrarioan ichita badago eta aldare nagusico ima-giña principalenari buru macurtze bat, eliza guztian Jaun Sacramentaturic ez badago): gurutzearen señalea eguizu devocioz, ez presaca, eta euli quentzen ari danac eguin oi dituen becelaco qui-nuacquin, Satanasi atseguin eman ez dezayozun, bada ematen zayo gaizqui



eguiten dan guztian. Gendea eroso ir-  
ten dedin, zaude cere lecuan, bultzaca,  
eta elizac azpian artu bear bacinduz-  
que becela, presaca, eta bereala andic  
iguez eguin nayeana ibilli gabe: iche-  
don ezazu bada, genderic gueyena irten  
arteraño, eta orduan irten al izango ce-  
ra sosegu onean, nola ere izango de-  
zun lecua devocioz ciñatzeco; eta ala  
eguin dezaquezun, ematera noaquizu  
cristaüaren señaleari onen adiera labur  
bat.

Ciñatzea eta santiguatzea da; gure  
Erligio chit santuaren misterio aundie-  
nen aitormen labur bat: ciñatzen gue-  
ranean eguiten ditugu iru gurutze, edo  
iru bider gurutzearen señaleari, ceñare-  
quin aitortzen degun Jaungoico bat iru  
personetan; becoquian edo copetan  
eguiten dan gurutzeac señaleari du  
Aita; aocoac Semea; eta bularretacoac  
Espiritu Santua. Santiguatzen guera-  
nean, becoquitic guerriraño eta ezquer-  
reco sorbaldatic escuicorañoco gurutze  
bat eguiten degu: becoquitic guerrira  
escua jechitzeac adierazten du, Trini-  
dade guztiz Santuaren bigarren perso-



na edo Semea. Aita Beticoaren albotic Maria Virgîna chit santaren sabelera jechi zala; eta ezquerreco sorbaldatic escuicora escua pasatzearequin adierazten degu, Espiritu Santuaren obra izan zala encarnacioco misterioa; escuac azquenic elcargana biltzen dira, eta elcar-biltze onequin adierazten degu, ecen, Jaungoicozco eta guizionezco izate biac, Cristo dan persona bacar bategan bat-eratu cirala. Escu onela bilduac arrimatzen dira bularrera, edo muñ eguiten zaye, adierazteco, ciñatzean eta santiguatzean eguiten ditugun gurutze eta eguierac señalatzen dituzten misterio aundiai nolaco errespeto eta beneracioa zor zayen; eta eguiten dan gurutzeac adierazten du Jesus gurutz-iltzatua.

Cristaüac, santiguatzeco demboran cer esan eta eguiten, eta gurutzeac cer adierazten duten, ondo pensatuco baluteque, joh cembañ maizago, eta ceñen devocio gueyagorequin eguingo lutequean gurutzearen señalea, San Luisec becela, ceña chit maiz ciñatzen zan, esanaz, bere amac ala eracutsi izan



ciola! ¡Ah, cembat gaitz ala animaco, nola gorputzecoetatic libratuco liraquean, bada au da bete betean, ciñatzen gueranean esaten ditugun itzacquin Jaungoicoari escatzen dioguna; aitatu nitzaquean beste ascoren artean San Benitoc, prestatu cioten edari puzoituz betericaco ed-ontzi edo vaso baten gañean gurutzearen señailea eguin da eriotzatic libratuaz, beregan probatu zuen becela! Beragatic bada, Jesucristogan nere senide chit maitea, on-esan oec ar itzatzu; gurutze santua maiz usa ezazu; baña batez ere eguin bear dezu oeratzean eta jaiquitzean, echetic irtetzean, elizan sartu eta ateratzean, eta edocer lan asitzean. Maisuac beren icasleai, ait-amac beren humeai, eta nagusi echecoandreac beren mirabeai eman bear lietequean lecio edo icasbide aurrenengoetacoa, au nai nieteque nic izatea; bada aurta-sunetic icasico baluteque, ¡oh eta cembat gaitzetatic danoc gordeco liraquean!...



## Mezatan berritzen diran misterioen adierazte laburra.

Ornamentu Sagraduac jantzia dagoen *Apaizac* iduritzen du Cristo gure Erredimitzallea bere pasio santuan.

Ornamentuac jazten abiatzean, burutic beera ipintzen duen *Amitoac* adierazten du arantzazco coroa, eta *asma ezazu norc jo zaituen* esanaz, isecatzen ari citzayozcanean, arpeguia estaltzeco jarri cioten eun-zapia.

*Albac* adierazten du Herodesen echean ero bati becela desprecio eguiñaz, para cioten soñeco zuria.

*Cinguloac*, Jetsemanico baratzen Jesus lotu zuteneco soca.

*Estolac* oroituazten digu, preso ceramatenean lepotic ceucan socac.

*Manipuloa* da azoteac emateco pillareari estutu cioten cordelaren señalea.

*Casullac* adierazten du Pilatosen echean, arrantzaz ccroatua cegoalaric, jantzi cioten granazco soñecoa.

*Calizac* adierazten du Jesusen obia edo sepultura; eta *Corporalac*, bere



gorputz guztiz santua meztitua izan  
zan maindirea.

*Introito* edo Mezaren sarrerac adie-  
razten du, Limboan ceuden justuac,  
berac eta gu erredimitzeco Cristoc  
mundura eguin bear zuen etorrera  
ichedoten zuten eresi edo deseoa vicia;  
eta aen deadarrac adierazteco bereala  
esaten dira *Kirieleisonac*, ceñac gure  
itzcuntzan esan nai duten: *Jauna, izan  
ezazu guzaz erruquimentua.*

*Gloria in excelsis*-ec gogora eracar-  
tzen digu; Aingueruac eta artzayac  
Cristo jayo zanean izan zuten poza.

*Dominus vobiscum*-en ondorean apai-  
zac esaten dituen *Oracioac* adierazten  
digute, gugatic cembat bider erregutu  
zuen Cristoc bere vicitzaco demboran.

*Epistolac* adierazten du Profeteen  
predicua, batez ere San Juan Bautista-  
rena.

*Gradualac*, edo Epistola ondorean  
iracortzen danac adierazten du, Cris-  
toren eremuco bacartasuna; eta Ale-  
luyac iduricatzen du, deabruac tentatu  
eta garaitutacoan, Aingueruac eguin  
ciozcaten servitzuac.



*Evangelioac* adierazten du Cristoren predicua. Eta Evangelioa esateco Meza-Liburua aldarearen ertz batetic bestera aldatzen da, adierazteco, Cristo Evangelioa predicatzen erriz erri cebillela. Evangelioa iracortzean zutic egon oi guera adierazteco, nolaco azcartasuna-requin artu bear degun, Evangelioan eracusten zaigun Cristoren leguea; eta bucatzean esaten da: *Laus tibi, Christe* buru-macurtze bat eguiñaz, gure mendetasunaren señalean.

*Credoa* da, cristauac sinistu bear duen guztia bertan bildua dagoen oracio labur bat; eta apaiza, *Et Homo factus est* esaiean belaunicatzen da adierazteco, cembait humildu zan Jau-na gure izatea artzean, eta beragatic, gu ere cembait humildu bear gatzazcan gure Jaun eta Jabe dan Jaungoicoari.

Apaizac eguiten duen hostia eta calizaren ofrenda edo esqueñiac gogora eracitzen digu, gugatic neque-oñaceac eramateco eta iltzeco, Cristoc aguertu zuen vorondate chit azcar eta oso osoa.

Apaizac, gendea-ganontz beguira jarrita, *Orate, frates* esateac oroitu-



arazten digu araco pauso hura, ceñean Cristoc, odolezco icerdia ceriola b araztan oracio eguindacoan, bere icasleac-gana joan da esan cien: Zaute ernai, eta oracio eguizute, tentacioan erori etzaitezten.

*Prefacio*-ac eta *Sanctus*-ec adierazten dute, Erramu egunean Cristoc Jerusalenen eguindaco sarrera ospatsu eta victorea, eta erriac eguin cion arrera atseguñezcoa.

*Canon*-ean oracioac ishilic esaten ditu apaizac, gogora eraci dizaigun, Cristo Juduacgandic alde-eguin, eta bere icaslequin Efren-era ezcutuan joan zala, eta baita errespeto aundi bat sortuarazteco ere gure viotzetan, cergatic gauza bat navarbenegui eguiten baldin bada, gauza jaquiña da ecen, bereala barreatzen dalaco, erraz despreciatzen dala.

*Hostia eta caliza alchatzen dira* gogora ecarri dezagun, Cristo gurutzean alchatua izan zala.

*Pater noster*-ac adierazten ditu, Cristoc, ill zan baño lensheago, Aita Beticoari zucendu ciozcan itzac; eta *Pater*



*noster*-a esandacoan apaiza ishiliic da-  
goen dembora pisca arc, Cristoren gor-  
putza obian egondutacoa, eta Abraha-  
nen seno edo limbora bere animac  
eguin zuen jechiera, ari ichedoten ceu-  
den Santuac andic ateratzeco, adie-  
razten duen becela.

*Pax Domini*-c esan nai du, Cristoc  
piztu ezquero, bere icasleai eta Mariari  
eguin cien aguerquera.

*Agnus Dei*-c oroituarazten digu, nola  
Cristo, bere piztuera ondorean igo zan  
ceruetara an gure bitarteco izateco.

Apaizac esaten dituen *azqueneco ora-  
cioac* dira, Cristoc Aita Beticoari ceruan  
gugatic zucentzen diozcanac adierazten  
dizquigutenac.

*Ite, missa est*-ec adierazten du apai-  
zac, sacrificio hura Eliza guztia gatic,  
Purgatorioco animac gatic, eta guztion-  
tzat ceruco graciac iristeco esquein-  
tzean, Jaungoicoaren bialdu eta mi-  
nistro baten lana eguin duela. Apaizac  
azquenean ematen duen *Bendicioa* da,  
Cristoc azquen-juicioco egunean jus-  
tuai emango dienaren adigarri bat.







MEZA SANTUA DEVOCIOZ ENTZUTECO  
**MODUA.**

——  
ESQUEÑIA.

Oh nere Jaungoicoa, nic esqueintzen dizut Jesucristo gure Jaunaren gorputz eta odolaren sacrificio au, nere Jabe bacar eta Eguilletzat ezagutzen zaitudalazcoaren seña-lean; neri eta beste gañeraco criaturai eguin dizquigutzun mesede guztien esquer onean; nere peccatuen eta guizon guztienen satisfaccioan, purgatorioco animen, batez ere premia aundiena daucatenen, eta ni gueyen zor, naiz ayenen sufragioan; eta azquenic peccatariai on-viurtzeco gracia eta justuai iraupena zure erruquimentu Jaungoicozcoagandic iristeco, guztioz zure gracion vici eta ill gaitean.  
Amen.





*Adierazten du, gure pecatuac Cristoc  
nola bere gañ artu eta aecgatic  
pagatu zuen.*



## Confesioan.

Apaiza aldarera iristean ciñatuco cera,  
esango dezu *Ni peccataria* eta ondorengo

## ORACIOA.

Nere Jesucristo Jaun Jaungoicoa, zure pasioa alderatu citzatzunean, nigatic atsecabetua eta penatua, eta Jetsemanico barat-zan Aingueru batec consolatua izatea nai izan cenduena; indazu, nere pena eta neque guztia vorondate onez eramateco gracia, Zurequin batean orain padecituric, guero zure pasio guztiz santuaren merecimentuetan partartzeco dicha izan dezadan. Amen.





*Adieraxten du limboan ceuden anima  
zantuac Jaungoicoaren Semea guizon  
eguiñic icusteco ceuzcaten deseoaç.*



Introitoan.

ORACIOA.

Oh nere Jesus pacienciaz be-  
tea, Judas galduaren laztanaz  
zure etsayai saldua eta entrega-  
tua, armadunac preso artuta, lo-  
tua, eta Anasen echera eramana  
izatea nai izan cenduena; ez na-  
dilla ni, arren, guizon biurriren  
batec edo aidur gaiztoco espiri-  
tuac lilluraturic, pecatu batean  
ere erori, eta ain guichi lagun  
urcoari salduqueriaric eguin eta  
calteric eracarri, ezpada eguin  
dezadala guztian zure vorondate  
santua. Amen.





*Adierazten du Trinitade guztiz San-  
tua, ceñari iru bider escatz en zayon  
misericordia.*



**Kirieleison-ean.**

ORACIOA,

Oh nere Salvatzalle guztiz viotz beraa, erruquizco beguirada bat eguiñaz penitencia eguiazcoaren negar samiñac Pedrori, iru bider ucatu bacinduen ere, eman ciñiozcana; beguirada erruquitsu bat neri ere eguidazu, Zure aurrean nere pecatuacgatic negar eguin, eta Zu ez pensamentuz, ez itzez eta ez obraz egundano ez ucatzeco bear ditudan graciac zure ontasunetic mereci ditzazquidan. Amen.





*Adierazten ditu Jesusen jayotza can-  
tatzen zuten Aingueru eta Serafiñac.*



**Gloria in excelsis-ean.**

ORACIOA.

Oh, nigatic sufritzeari asiera emateco, Aingueruac lurrean paquea Zu jayo ciñanean publicatuaz, gloria eta alabanzac cantatu cizquitzen nere Eguille chit maitagarria; zure amorioarequin lagun nazazu, estrabiatic asita gurutzeraño sufritu cenduen guztiagatic, amatu eta alic onguien alaba zaitzadan; eta indazu, Zurequin eta nere lagun urcoacquin beti bat eguiñic egoteco bear dedan animaco eta gorptuzeco paquea. Amen.





*Adierazten du Jaungoicoaren ongu-  
naya guizonai beraren ezagüera ema-  
tean, eta iru Erregueen adoracioa.*



**Aurreneco Dominus vobiscum-ean.**

ORACIOA.

¡Oh Aita beticoaren argui distiatzallea! Erregue Magoac, Zu adoratzera joan citecen arguitu ciñituena, eta nigatic padecitu eta odola ishurtzeco circuncidatua izatea nai izan cenduena; argui ezazu nere anima, zu adora zaitzadan guztiz altsu edo poderosotzat; mortificacioaren mirra, oracioaren incensua, eta caridade eguiazcoaren urrea esqueintzen dizquitdala, guelditu nadin circuncidatua, eta mundu onetaco gauza guztietatic apartatua. Amen.





*Adierazten du nola Apostoloac predi-  
catu zuten penitencia.*



**Epistola eta Gradual-ean,**

**ORACIOA.**

¡Oh, zure erligioco eguiac  
guizonai eracusteco Apostoloac  
iracasi baciñituen ere, Pilatoren  
tribunalera eramana, eta guezur-  
retan salatua izatea nai izan cen-  
duen Maishu guztiz jaquintsua;  
eracutsi zadazu guizon galduen  
Doctrina gaiztoetatic bereci, eta  
zure ministroen bidez eracusten  
dizquidatzun eguiac sinistu eta  
obraz eguiten. Amen.





*Adierazten du Cristoc munduan pre-  
dicatu zuen doctriña.*



**Evangelio-an.**

ORACIOA.

¡Oh Jaquinduria ondo gabea!  
guizonai pecatutic alde-eguiteco  
predicatu ciñiena; eta Pilatoren  
echetic Herodesenera, beren ar-  
teco paqueac eguiñic, adisquide-  
tasun estuenean vicitzeco nere  
amorez eramana izatea nai izan  
cenduen; indazu, arren, nere  
animaren etsayac jartzen dizqui-  
daten lazo eta sareac azpiraturic,  
oezaz balia nadilla, guero eta  
gueyago menderatu nadin zure  
vorondate santura. Amen.





*Adierazten du Evangelioaren frutua,  
eta aitortzea aoz viotzac sinisten duena*



**Credo-an.**

ORACIOA.

¡Oh, zure fede santua neri  
eracusteco aibeste pena pade-  
citu, eta borrheroen arrabi amor-  
ratua ventzutzecc, Martiriai ain  
irmotasun sendoa eman ciñien  
nere Erredimitzalle guztiz mai-  
tea! fede vici bat indazu, Zuc  
eracutsi cenduen guztia, eta ala-  
tztat Eliza Santac aipatzen eta si-  
nisteco aguintzen diguna sinistu  
dezadan, fede santu onetan ber-  
tan vici eta ill nadin. Amen.





*Adierazten du Cristoren doctriñac da-  
carrela fedea, eta aitortzeco laguntza.*



Caliza aguertzean, eta ofer-  
torio-an

ORACIOA.

¡Oh borrero viotz gabeac larru  
gorrian ipiñia, azotatua; eta  
arantzaz coroatua izatea nai izan  
cenduen Jesus guztiz inocentea!  
indazu, arren, lurreco gaucen  
gogo eta jayera guztia nere vio-  
tzetic quenduric, Zugan nere  
quezca eta amorio guztia ipintze-  
co gracia, zure Majestade Jaun-  
goicozcoaren honra eta gloriara  
vorondate osoarequin neque eta  
atsecabe guztia sufritzeco prest  
egon nañin. Amen.





*Adierazten du nola Pilatos-ec Jesus  
incentetzat aitortutacoan, escuac  
garbitu cituen.*



**Lavatorio-an.**

ORACIOA.

Nere Jesucristo Jauna, eta Jaungoico viciaren Semea, innocente eta culpa gabetzat Pilato aguintariac aitortua ceundelarie, Judu esquer-gaiztocoen uju eta deadar arrabiatuac aditu nai izan ciñituena; arren, zure Jaungoicozco gracia indazu, nere animaren etsayen tartean beti garbi vici naitequean, eta pensamentu gaiztoen eta guizon galduen vorondatearen bidez egundaño tristetua eta naigabetua izan ez nadin Amen.





*Adierazten du Jesucristoren Jerusalem-  
go sarrera, eta nola Juduac Sanctus  
cantatzen cioten.*



**Prefacio eta Sanctus-ean.**

ORACIOA.

¡Oh Israelco Erreguea! garaila-  
ri baten guisan Jerusalenen sartu  
ciñanean, pozcario eta chalo aun-  
diaquin artu bacinduzten ere, er-  
ri arc berac despreciatua, eta  
gurutze batean iltzera Pilatoc  
sentenciatua izatea nai izan cen-  
duena; eguizu, nie ere munduco  
atseguin guztia gorrotatu, eta  
desprecioac viotzez laztanduric,  
nere gloria guztia arqui dezadala  
mortificaciozco gurutzea erama-  
ten, eta nere pecatuen peniten-  
cia eguiten. Amen.





*Adierazten du Cristo gure Jaunaren  
pasioaren asiera.*



Canon-ean.

ORACIOA.

¡Oh gure animen artzai chit leyala! zure pasioan ecin conta al desprecio eta billauqueria berac-gatic, sufrituaz gañera, vicia emateraño maitatu ciñituena; indazu, arren, Jauna, bidegabekeria eta persecucio guztia zure amorez sufritzeco gracia, nere vicitz onen ondoren Zugan descansatu, eta beticoera guztian bedeinka zaitzaquedan. Amen.





*Adierazten du Pazcoa-arcumearen  
irudia, eta beste gañeraco guztien  
acabaera.*



## Consagración

### ORACIOA.

¡Oh azqueneco avarian legue  
zarreco irudi guztiai bucaera eta  
Apostoloai Sacramentu guztiz  
Santuan cere gorputza, anima  
eta Jaungoicotasuna eman ciñien  
Jesus guztiz gozoa! arren, gueya-  
go peccaturic ez eguiteco, eta ce-  
ruco Ogui orren biguntasun eta  
gozotasunean part-artzeco gra-  
cia indazu: ¡jala vici gaitecela,  
Zu nigan, eta ni Zugan! Amen.





*Adierazten du nola Cristo gooratua  
izan zan gurutzean.*



**Hostia alchatzean.**

**ORACIOA.**

¡Oh gurutzeco aldarean mundu guztico erredencioaren diñaco sacrificioa izan ciñan Jesucristo nere Jaunaren gorputz sagradua, nic adoratzen zaitut.





*Adierazten du Cristoren zaurietatic  
ishuri zan odola.*



Caliza alchatzean.

ORACIOA.

Gure salvacioraco Aita Beti-  
coari esqueña izan ciñan guru-  
tzean ishuritaco Jesucristo nere  
Jaunaren odol preciotsua, nic  
adoratzen zaitut.





*Adierazten du Cristoren pasioac orain-  
dic badirauela, eta beraren eriotza.*



Hostia eta caliza alchatu  
ondorean.

ORACIOA.

Nere Jesucristo Jaun Jaungoicoa, escu-oñac gurutzeari josiac cenduzcala, Aita Beticoari guizon guztiacgatic, eta batez ere gurutz-iltzatu cinduztenac-gatic erregutu ciñiona: biguntasun eta pacienci eguiazco bat, arren, indazu, nere etsayac zuc nai becela amatu ditzadan, eta gorrotatzen nautenai eta gaitz eguiten didatenai on eguin dizayedan.  
Amem.





*Adierazten du nola Josec eta Nicodemoc Cristo gurutzetic erachi zuten.*



Omnis honor et gloria esatean.

ORACIOA.

Oh Jesucristo nere Salvatza-  
llea, zure Ama chit santa Juan  
zure icasle maiteari, eta au zure  
Amari gurutzean odola ishuriaz  
gomendatu ciñiona; ni ere, aei  
biai aguindu ciñien elcarganaco  
amorio estuari narraicala, Zuri  
gomendatzen naitzazu; amorio-  
señale ain bidezcoaren sarian Zu-  
requin amorez, bat eguitea, eta  
aen bien bitartez perill eta des-  
gracietan gaitz guztitic gordea  
izatea mereci dezadan. Amen.





*Adierazten du nola Cristo limbora jechi, eta anima justuac andic atera cituen.*



Sed liberanos a malo esatean.

ORACIOA.

Oh nere Jesus guztiz gozoa:  
Jaungoicotasunarequin batean zure  
anima limbora, Guraso Santu-  
tuen animai libertadea emateco  
jechi zan becela, escatzen dizut  
nerea ere infernutic libratuaz, pe-  
catuaren limbotic atera dezazula,  
mundu onetatic irtetzean, lembait  
len, joan dedin zure alabantzac  
glorian Guraso Santuacquin ba-  
tean cantatzera. Amen.





*Adieraxten du nola Emausco icasleac  
ezagütu zuten Cristo oquia partitzean.*



**Hostia, partitzean.**

ORACIOA.

Oh Jaquinduria cabu gabea,  
piztu ondorean Emausco icasleai  
aguertu, eta chit arritu eta poz-  
tuac utziaz, cein ciñan oguia par-  
titzeco moduan ezagüerazo ciñie-  
na; aguert zadazu, arren, Jauna,  
nere salvacioraco on nuqueala  
daquizun guztia, zure piztuera  
edo Erresurreccioaren frutu mira-  
garriac goza ditzazquidan Amen.





*Adierazten du Cristo piztu ondorean,  
bere icasleai paquea emanaz, eguin  
cien aguerquera.*



**Pax Domini esatean.**

ORACIOA.

Oh Jesus gloriaz betea, zure piztuera miragarrian icasleai aguerturic, paquea eta elcarrequico armoni ona bein eta berriz encargatu ciñiena; graciazco vicitzara piztu ezazu, arren, Jauna, nere anima, zugandic egundaño bereci gabe beti amatu zaitzadan, eta beti dirauen paquea eta descansua gozatzeco, Zurequin ceruerrira igotzea mereci dezadan. Amen.





*Adierazten du nola Cristoc pecatuac  
barcatzeco escubidea bere icasleai  
eman cien.*



**Agnus Dei esatean.**

**ORACIOA.**

Nere Jesucristo Jauna, zure tormentu eta eriotza lotsagarrian aguertu cenduen pacienci arrigarria icusi zutenetaco asco, bularrac joaz, beren pecatuacgatic negar eguiñic Zugana convertitu ciran ezquero; zure pasio eta eriotza guztiz santuen bitartez escatzen dizut, arren, indazula nere pecatuen eguiazco damu bat, eta gueyagoren gueyago Zu ez ofenditzeco gracia. Amen.





*Adierazten du nola Cristoc, cerura  
igo baño len, bere icasleaquin jan zuen*



## Comunioan eta ondorean.

### ORACIOA.

Oh Jesus guztiz garbia, nere amorez arrizco obi berri batean ipiñi izatea nai izan ciñana; lurpetutaco irugarren egunean piztu, eta berrogei egunean Apostolu maiteai ascotan aguertuaz, zure Pizte eguiazcoaren prueba aguirienac ematen ciñien bitartean, berac eta beren ondorengoac pecatuac barcatzeco zure escu-bidez ornitu ciñituena: indazu, nere Jaun eta Jaungoicoa, zure ministroai eguiten diedan confesio on baten bitartez graciaren vicitzara pizturic, nere viotza izan dedilla garbitua eta berritua, egunen batean aguertu nadin jantzi zuriarequin ceru-errian anima santuen artean. Amen.





*Adierazten du nola Cristo ber-bere  
vtrtutez ceruetara igo zan.*



**Atzeneco Dominus vobiscum-  
ean.**

ORACIOA.

Nere Jesucristo Jauna, zure  
Pizte gloriatsuaren ondorengo be-  
rroquei egunac beteric, icasleac  
beguira cegozquitza cerura igo  
ciñana; indazu, arren, zure amo-  
rez munduco gauza guztizaz nere  
anima gogaitu, eta cerucozaz ba-  
carric zaletu dedilla, nere dese-  
guztia jarriric Zugan, ó nere Jau-  
na, dicha osoaren iturri, eta ani-  
ma cristauaren descansu guztia  
ceran lecu santuan becela. Amen.





*Adieraxten du nola Cristoc aguindu  
becela, Espiritu Santua bialdu zuen.*



**Apaizac bendicioa ematean.**

**ORACIOA.**

Oh zure icasleai, oracio iracequienean ceuden demboran Espiritu Santua bialdu ciñien Jesus guztiz amoriotsua; nere viotza, arren, osotoro garbi ezazu, Jaungoicozco Espiritu orrec berac nere animan vici lecu atseguña arquituric, bere graci eta doai Jaungoicozcoaz apaindu eta consolatu dezan. Amen.





*Adicrazten ditu Cristoren Jaungoico-  
tasunezco eta quizatasunezco miste-  
rioac.*



**Azqueneco Evangelioan,**

ORACIOA.

Oh Jesus, animen salvacioaren celatari guztiz iracequia. Meza-ren sacrificio santuan berritu diran zure Jaungoicotasunezco eta guizatasunezco misterioac, Apostoloen bidez munduco erri guztiai adieraci ciñiena; al dedan humilltasun guztiaz escatzen dizut, nere Jauna, eramán nazazula gloriara, an, arpeguiz arpegui Zu icusiaz, beti beti alaba zaitzadan. Amen.



Evangelioa bucatutacoan belauncaturic, esango dezu:

Milla esquer Jaun Soberanoa; orain Mezaren sacrificio santu au entzuten utziaz eguiñ didazun mesedeagatic: bertan eguiñ ditudan uts-eguiteac barca zaizquidatzu, zure pasio eta eriotzaren oroipena nere viotzean josia guera dedilla, eguiñaz, zure penac nere peccatuac eracarri cizquitzen ezquero, oen damu eguiazco bat iduqui dezadan. Amen.

Orain erreza ezazu *Aita gurea, Ave Maria, eta Credo*, guero *Acto eontriciozcoa*, eta azquenean esango dezu:

Nere viotza uzten dizut, Jauna: zure bendicioarequin joango naiz nere eguitecoetara, indazu, bada, Jauna; *eta cianatuaz, esango dezu*: Jaungoico guztiz altsu dan Aitaren, Semearen eta Espiritu Santuaren bendicioa betorquit, eta beti bego nigan. Amen.

Virgiña Maria, izan zaitzaquit beti nere amparua eta guiaria. Amen.

*Gloria edo Credo* Me:atan apaizac esaten ez ba-



ditu, berai dagozaten oracioac zue ere utzi ditzaquit u. Oracio mental edo ishiliacacoan ari nayago bacenduque, Meza entzun dezaquezu pasioco pausoren bat meditatzen, edo Errosario santua errezatzen, batez ere dolorezco misterioac gogoan darabiltzquitzula. Eta au errazago eguin dezaquezun, lembicico misterioa errezatutacoan, contu eguini barat aco agonietan Jesusi beguira zagozcala, cere buruari itz eguiozu era onetan:

¿Céin da, nere anima, orraco padecitzen dagoen ori? nere amorez guizon eguin zan Jaungoicoaren Semea... Aita Beticoaren Semea... ceru-lurretaco Erreguea... nere Jaungoicoa... nere Aita.. nere Eguillea... nere Erredimitzallea...

*¿Eta céer padecitzen du? ¡Ay céer pena gogor eta icaragarriac!... naita naiez izan bear zuten gogorrac eta izugarriac, aen oroipen utsac, odolezco icerdi ugari bat atera erazo cion agoni estueanean para zuenean... Ene Aita, gure Jesus onac bere Aita Beticoari deadar eguiten cion: caliz au nigandic aparta ezazu, albaditeque, edan bearric izan ez dezadan... baña ez bedi eguiñ nere vorondatea, espada zurea. Emen jarri citzayozcan beguien aurrean bere pasio eta eriotzaco tormentu guztia, bizcar sagradua idiqui eta zauritu bear cioten*



bots milla azoteac, buru guztiz santua batetic bestera zulatu bear cioten irurogueita amabi arantzac, masallecoac, istuac, isecac, desprecioac, gurutzea, iltzeac, beazun ospiñac, arrencurac, eta guztiaz gañ gure esquergabequeria.

*¿Eta au guztia noren gatic padecitzen du?* Ni pecatari doacabe onegatic; aimbeste billauqueria eta ofensa eguiñ diozcadan onegatic; pecatu larrian erori naicen baçoitzean, nigan cegoenez, aditu ez becelaco gogortasunarequin berriro gurutz iltzatu dedan onegatic...

*¿Eta cergatic padecitzen du?* cerura eramam nai naüelaco; ni condenatzea nai ez duelaco, nere pecatuacgatic beticoera guztian amorratu... desesperatu.. eta gar eguiñ bearco nuquean suzco labe goritu aetan ni erortzea nai ez duelaco...

Eta au guztia ala izanic, ¿ez det nic estimatuco, aimbesteraño maitatu nauen nere Jaungoicoa? ¿Ez ditut nic gorrotatuco, negar gogotic eguiñaz, nere Jaun eta Jaungoicoari aimbeste pena eracarri diozcaten pecatuac? ¿Nola paciencian eramam al izango ez ditut



nere pecatuen satisfacióraco bialdu nai  
dizquidan nequeac, daquidalaric, infer-  
nuco pena izugarriac aimbeste bider  
aecquin irabaci izan ditudala? ¡Ay nere  
Jaungoicoa!..., Bai, illico naiz pecatu  
eguiñ baño len... berriz etzaitut egun-  
daño ofendituco... nere pena eta neque  
guztiac penitenciaco espirituz artu as-  
mo ditut, eta esqueintzen dizquitzut,  
nere amorez zuc eramán ciñituenac-  
quin batean, oecquin nereac bat egui-  
ñic servitu ditzaizquidaten, eguiñ ditu-  
dan pecatu chit ascoren satisfacioan.  
¡Ay nere Jaungoicoa eta Aita ona!...  
¡Ah iñoiz ere ofenditu izan ez bacindu-  
dan!... ¡Ah beti servitu eta amatu izan  
bacindudan!...Jaungoicoaren Ama Vir-  
giña chit santa, peccarién gordelecu eta  
Jaungoicozco amorioaren Ama ceran  
ezquero, zure Semeagandic irichi zada-  
zu, orain nere pecatuac, castiguaren  
bildurrez baño obeto, ontasuna bera  
dan Jaungoicoaren contraco ofensac  
diralaco gorrotatuaz, eta beragatic ne-  
gar eguiñaz, aren gracia eta adisquide-  
tasuna iristeco bear dedan laguntza,  
eta guero betico gloria. Amen. Eta



onetara gueyago beartu zaitzadan, agur eguingo dizut *Aita gurca* bat eta amar *Ave Mariacquin*.

Pensamentu santu oec gogoan ondo erabltzen badaquizquitzu, naiz ecer besteric Meza guztian ez eguiñ, naiz Errosarioaren amarreco bat bacarra ere ez errezatu, Meza izango da ondo entzuna, eta bitarteco dembora labor au Jaungoicoaren servitzu santuan ondo igaroa. Baña consideracio santu oetan egotēñ ez badaquizu, orain sabartua edo arreta gabe arkitzen ceralaco (gogoz etzauden bitartean) orain viotzeco otztasunez, edo devocio-ceñaleric ceregan sentitzen ez dezulaco, edo naiz beste motivoen batzuecgatic; ceintsuen bidez Jaunac ascotan probatuco zaituen, bereci dezazun viotza munduco gaucetatic ez ecic, cerequico amorio gueyeguitic ere, etzera tristetu bear, ezpada alaitu paciencia artzera, gogora ecarriaz, nola Jesucristo ere baratzan, eta gurutzean, iru orduz egon zan bacartasun negargarrienean, eta pasaco cera erreztzera falta zatzun gañeracoa, lengo modu bera seguituaz, eta devocio-muguida viciagoa senti-uste dezun puntu aetan gueldituaz.













## IRUTASUN EDO TRINIDADE GUZTIZ SANTUARI TRISAGIOA.

---

### Trisagioaren sortzea.

Trisagio guztiz Santuaren devocioa ez da guizonac bere buruz sortutacoa, ezpada Jaungoico beraren obra, bada berac inspiratu edo somaerazo cion Isaias profetari, aditu zuenean nola cantatzen cioten Serafiñac, aundiscatzeco Eguillearen gloria.

Eleizaco historia edo condairac esaten digutenez, Serafiñen eta beste Aingueru-coroen escolan icasi zuen, ceruetara bat batetan San Paulo becela alchatua izan zan aurrac. Teodosio Gaztea Sort-aldeco emperadore zan demboran, Jesucristoren jayotzatic 447 garren urtean, lecu ascotan sentitu zan lur-icara chit aundi bat, ala bere irau-



penagatic nola eracarri cituen ondamen  
 izugarriacgatic eguin zana, arteraño  
 icusi izan ciranetan gogoangarriena,  
 sei illabete aldean iraun zuen eta bien  
 bitartean Costantinopla-urico eche ga-  
 lantenetan eta Quersonesoco murru  
 sendo guztian eguindaco calteac, ecin  
 conta alacoac izandu ciran. Toqui asco-  
 tan lurra idiqui zan, eta bere errayetan  
 uri osoac guelditu ciran ondatuac; itur-  
 riac lecu batzuetan agortu, eta bestee-  
 tan berriac aguertzen ciran; lur-icaren  
 colpeac ain indartsuac ciran, non sua-  
 ritziac aundienac sustrayetic ateratzen  
 cituen, lenago erriberac ciran lecuetan  
 mendiac, eta mendiac baicic etzirane-  
 tan leice-zulo aundiac aguertzen ciran.  
 Ichasoac u-bazterrera botatzen cituen  
 arraitzar aundiac; eta urac legorrean  
 utziric itsas bazter edo playac eta on-  
 tziac, estaltzera cijoacen isla edo ugar-  
 te aundiac.

Onelaco estutasunean uste izan zan  
 errietatic alde-eguitea zala gauzaric  
 onena; eta ala eguin zuten Constanti-  
 noplaco biztanleac Teodosio emperado-  
 rearequin, onen arreba Pulqueria, San



Proclo ango obispo eta bere clero edo eliz-guizon guztiacquin batean. Bilduric *Campo* ceritzan lecu batean, erregu iracequi eta deadar aundiac zucentzen cituzten cerurontz laguntz esque estura ain larrian: baña egun batean goiceco zortzietatic bederatzien tartean lurrac eman zuen astindua izan zan ain oi ez becelacoa, non guichic eguin zuen, nola etzituen berritu anciñaco diluvio edo ugaldeac eracarri cituen ondame-nac. Susto onen ondoren icusi zan, guztiac arrituric utzi cituen guertacari au. Bat batetan aidean jasoia izan zan urte guichico mutilcho bat *Campoan* ceuden guztiac goronz nola cijoan beguira cegozquotela, alic eta beguietatic escutatu citzayoteneraño. Cerbait dembora igarotacoan, lurrera jechi zan, cerura alchatua izan zan era berean, bereala eramane zuten Obispoaren, Emperadore eta oraindic osotoro arritua cegoen gendetzaren aurrera, eta contactu cien nola ceruco coroen artean arquite izan zan, eta Aingueruai aditu cien cantantzen onaco itz oec: *Jaungoico Santua*, *Jaungoico portitza*, *Jaungoi-*



*co illezcorra, izan ezazu guzaz erruqui-  
mentua: eta nola aguindu citzayon, an  
bilduric ceuden guztiai emateco, icus-  
quera onen berria. Aurra, itz oec esan  
da, ill zan.*

Guertacari au aditutacoan, San Pro-  
cloc eta emperadoreac aguindu zuten  
canta sagradu au anche guztic batean  
canta cezatela, eta lur-icara bertatic  
guelditu, eta lur guztia sosegatu zan.  
Emendic asiēra izan zuen dembora estu  
eta negargarrietan Trinitade guztiz  
Santuari deitzeco, Calcedoniaco Con-  
cilio edo batzarre aundientsuac cristau  
fededunai erregu-bidetzat jarri cien  
Trisagioaren devocioac; emendic dator  
Obispo ascoc devocio au indulgencia  
ugariaquin aberastuaz, ontzat emana  
izatea; eta emendic, azquenic, dator,  
devocio au modu egoqui batean jarria,  
aimbeste bider eta beti guztien baimen  
eta poz aundiarequin moldizquidatua  
izana, beguiratuaz escut-arma sendo  
bati becela, Jaungoicoac gure pecatuen  
castiguan lurrera bialtzen dituen gaitz  
guztien contra.



Trisagioa errezatzen dan guztian  
indulgenciac irabazteco

ESQUEÑIA.



Erregutzen dizugu, Jauna, Elei-  
za santaren estaduagatic eta bera-  
ren gobernatzalleacgatic; fede  
santua gueyago eta gueyago za-  
baltzeagatic, heregiac desegui-  
teagatic, principe catolicoen arte-  
co paque eta elcartasunagatic, fe-  
degabeen, herege eta peccatari  
guztien conversiogatic, iltzen dau-  
den eta bidean dabiltzanacgatic;  
purgatorioco anima bedeincatuac-  
gatic eta gure Ama Eleiza santa-  
ren gañeraco motivo piadosoac-  
gatic. Amen.

ÿ. Trinite Santua eta bat  
dana bedeincatua izan bedi, orain,



eta beti, eta dembora guztien dem-  
boretan.

℞. Amen.

ŷ. Jauna nere ezpañac idiqui  
itzatzu.

℞. Eta nere aoac zure alaban-  
tza eguingo du.

ŷ. Nere Jaungoicoa, amparuz-  
co beguirada eguidazu.

℞. Jauna, laſterca lagundu na-  
zazu.

ŷ. Gloria Aitari,  
Gloria Seme Beticoari,  
Gloria Espiritu Santuari,  
Dembora guztien dembore-  
tan.

℞. Amen. Aleluya.

*Garixuma demboran esaten da:*  
Alabantza Zuri, betico gloriaren  
Jaun Erregue ceran orri.



### Contriciozco actoa.

Iru personetan Jaungoico guztiz maitagarri bat ceran Aita, Semea eta Espiritu Santua, Zugan sinisten det, Zugan esperatzen det, eta Zu amatzen zaitut nere viotz guztiaz, nere gorputz, anima, sentidu eta aleguiñ guztiaz; Zu ceralaco nere Aita, nere Jabea eta nere Jaungoico ecin gueyago ona, eta gauza guztiaz gañ amatua izatea mereci dezuna, damu det, Trinitade guztiz Santua, damu det, Trinitade guztiz erruquitsua, damu det, Trinitade guztiz maitagarria, cerana izanagatic bacarric Zu ofenditu izana: erabaquia nago, eta itz ematen dizut egundano gueyago ofendituco etzaitudala, eta berriz pecatu eguin baño lenago illco.



naizala: uste osoa daucat zure ontasun guztiz aundi eta misericordia neurri gabea, barcatuco dizquidatzula nere pecatu guztia, eta emango didazula gracia irauteko zure Irutasun edo Trinitade guztiz maitagarriaren eguiazco amorio eta devocio chit viotzecoan Amen.

### Himnoa.

Eguzqui erretzalleac du alde-eguin:  
Zuc, betico argui cerana,  
Viotzetara ishuri zaiguzu,  
Zure amorioaren gar bana.

Egun sentian eta egüerdian,  
Bay zaitugu alabatzen,  
Ceruan beti Zu icusteagatic,  
Gaudelaco suspiratzen.

Glori guztia orain ta beti,  
Aitari eta Semeari,  
Eman bizaye, eta orobat  
Espiritu Santuari. Amen.



### Aitari oracioa.

¡Oh Aita Beticoa! nic ez det icusten lecu guztietan tristura eta atsecabea baicic Zu ez bazauzcat, besteric badiote ere mundu-jarrai-leac. ¿Cér dit neri gurari loyetan etziña dagoenac esatea, araguia-ren atseguñac gozatzea dala bere zorion guztia? ¿cér dit, aundi nai batec orobat esan dezala, deseo duen gloria aul-utsezcoa gozatzea dala bere atseguñic aundiena? ni beintzat, dagoquidan aldetic beti arico naitzatzu esaten zure Profeta eta Apostoloacquin batean, ecen, nere zorionic aundiena, nere ondasun eta gloria guztia dala, nere Jaungoicoarequin bat eguitea, eta



beti bere ondoan, iñoiz ere alde-  
guingabe egotea.

*Aita gurea eta Ave Maria bat, eta guero  
bederatzi bider:*

Santua, Santua, Santua, martiz-  
tietaco Jaun Jaungoicoa ceru-lur-  
rac daude zure gloriaz beteac.

Eta coruac-eranzuten du:

Gloria Aitari, gloria Semeari,  
gloria Espitu Santuari.

### Semeari oracioa.

Oh betico eguia, ceñazaz ostean  
engañoia eta guezurra beste gau-  
zaric nic icusten ez dedana. ¡Oh  
nola guztia iduritzen zadan sami-  
ña zure limurcari biguñen aldean!  
¡Oh cein guezurtitsuac eta ichusi-  
ac deritzaizquidan guizonen jolasac,  
aditzen zaituztenen viotzetara zu-



centzen dieztezun vicitzaco itzen  
parean! ¡Ah! ¿noiz elduco da es-  
talqui edo iruripen gabe tratatuco  
nazun ordua, eta zure gloriaco  
atseden-lecuan garbiro itz-eguingo  
didazuna? ¡Oh céz trataera! ¡céz  
edertasuna! ¡céz arguitasuna!

*Aita gurea eta Ave María bat, eta guero  
bederatzi bider:*

Santua, Santua, Santua, etc.

**Espiritu Santuari oracioa.**

Oh amorea, oh Jaun guztiz aun-  
diaren doaya, Jaungoico beraren  
atzeguiñen eta zoriontasunaren  
billcuya: ¡céz atseguña dan anima  
batentzat egotea zure ontasunaren  
leice ondo-gabea, eta zure con-  
suelo ecin esan becelacoaz dan  
guztia betea! ¡Ah atseguñ enga-  
ñagarriac! ¡céz dezute zuec cer



icusi, Jaungoicoac anima leyal bat-  
tegan, on deritzayonean ishuritzen  
daquien gozotasunic chiquienaren  
parean? ¡Oh! oetaco apur bat ain  
gozoa baldin bada, ¿cembait go-  
zoagoac izango ez dira ugaldea be-  
cela neurri gabe eta guztiz oparo  
Zuc ishurico dituzunean? ¿noiz  
izango da au nere Jaungoicoa,  
noiz?

*Aita gurea eta Ave Maria bat, eta guero  
bederatzi bider:*

Santua, Santua, Santua, etc.

### Antifona.

Zu, Aita Jaungoico sortu gabea,  
Zu Seme bacar sortua, Zu Espiritu  
Santu pozquidatzallea, Irutasun  
Santu eta bereci-eciña, viotz guz-  
tiaz aitortzen, alabatzen eta be-  
deincatzen zaitugu. Gloria dagui-



zula Zuri dembora guztien dem-  
boretan. Amen.

ŷ. Bedeincatu dezagun Aita,  
eta Semea, eta Espiritu Santua.

Ŕ. Alabatu eta alchatu deza-  
gun secula guztietan.

### Oracioa.

Iru personetan Jaungoico bacar  
bat ceran Jauna, zure gracia, zure  
amorioa eta zurequico elcartasuna  
betiro iguzu, mundu onetan eta  
bestean amatu eta gloria eman di-  
zazugun Zuri Aita Jaungoico, Se-  
me Jaungoico, eta Espiritu Santu  
Jaungoicoari, bada Jaungoicotasun  
batean vici cera dembora guztien  
demboretan. Amen.





# TRINIDADE GUZTIZ DOATSUARI

## ERREGU IRACEQUIA,



Ÿ. Aita Betico, eta guztia dezaquezun  
Jaungoicoa:

. *Criatura guztia amatu eta glo-  
riaztu zaitzatela:*

Jaungoicoaren itz-aundi, Jaungoico  
neurri gabea: *Criatura guztia*, etc.

Espiritu Santu, Jaungoico cabu gabea:  
*Criatura guztia*, etc.

Trinidad guztiz Santu, eta Jaungoico  
eguiazco bat bacarra: *Criatura guz-  
tia*, etc.

Ceruetaco Erregue, ill-ezcor eta icus-  
eciña: *Criatura guztia*, etc.

Sortutaco gauza guztien Eguille, gor-  
detzalle eta gobernaria: *Criatura  
guztia*, etc.

Degun vicitz au zugar, zugandic eta  
zurea dan gure vicitza: *Criatura  
guztia*, etc.

Iru personetan vicitza Jaungoicozcoa  
eta bacarra: *Criatura guztia*, etc.



Aunditasun garayeneco ceru Jaungoi-  
cozcoa: *Criatura guztia*, etc.

Guizonentzat ezcutatua dagoen cerua-  
ren ceru goyena: *Criatura guztia*,  
etc.

Eguzqui Jaincozcoa eta sortu gabea:  
*Criatura guztia*, etc.

Inguru oso-eder muga gabea: *Criatura  
guztia*, etc.

Aingueruen janari Jaincozcoa, *Criatu-  
ra guztia*, etc.

Erruquizco uztargui ederra: *Criatura  
guztia*, etc.

Mundua arguitzen dezun argui lembici-  
coa eta irucoia: *Criatura guztia*, etc.

Animaco eta gorputzeco gaitz guztietat-  
tic: *Libra gaitzatu*, *Jaun irucoia*.

Pecatutic eta gaitz-bide guztietatic: *Li-  
bra gaitzatu*, etc.

Zure aserre eta sumiñetic: *Libra gai-  
tzatu*, etc.

Supituco eta uste gabeco eriotzatic: *Li-  
bra gaitzatu*, etc.

Deabruaren sare, lazo eta ingurueta-  
tic: *Libra gaitzatu*, etc.

Loiqueriaco espiritutic, eta onen piz-  
corgarrietatic: *Libra gaitzatu*, etc.



- Araguiaren gurari charretatic: *Libra gaitzatzu, etc.*
- Iraiñ, gorroto eta borondate gaizto guttic: *Libra gaitzatzu, etc.*
- Izurte, gosete, guerra eta lur-icaraetic: *Libra gaitzatzu, etc.*
- Ichasoco eta leorreco ecaitzetatic: *Libra gaitzatzu, etc.*
- Gure fede santuaren etsayetatic: *Libra gaitzatzu, etc.*
- Gure etsayētatic, eta oen lazoetic: *Libra gaitzatzu etc.*
- Betico eriotzatic: *Libra gaitzatzu, etc.*
- Zure Irutasuneco Batasunagatic, eta Batasuneco Irutasunagatic: *Libra gaitzatzu, etc.*
- Zuen personetaco berdintasun berezcoagatic: *Libra gaitzatzu, etc.*
- Zure Trinitadeco misterioaren aunditasunagatic: *Libra gaitzatzu, etc.*
- Zure Trinitadearen icen esan ecin dittequeanagatic: *Libra gaitzatzu, etc.*
- Zure icen miragarri, Bat eta Irucoi onegatic: *Libra gaitzatzu, etc.*
- Zure Trinitade guztiz Santuaren anima devotoai diezun ongui-nai ain aundiagatic: *Libra gaitzatzu, etc.*



Zure Trinitade maitagarriaren devotoen batzuec arkitzen diran erriac gaitzetatic libratzen dituzun amorio aundiagatic: *Libra gaitzatzu, etc.*

Deabruac beren contra zure Trinitade guztiz Santuaren devotoengan eza-gutzen duten virtute Jaincozcoagatic: *Libra gaitzatzu, etc.*

Gu peccatarioc: *Erregutzen dizugu, adi gaitzatzu.*

Deabruari gogor eguiten jaquin dezagula zure Trinitadearen ganaco devociozco armacquin: *Erregutzen dizugu, adi gaitzatzu.*

Gure animetan dagoen zure imagina egunoro eta gueyago edertu dezazula zure graciaren apaingarriaquin: *Erregutzen dizugu, adi gaitzatzu.*

Fededun guztiac saya ditecela zure Trinitade guztiz Santuaren chit devotoac izaten: *Erregutzen dizugu, adi gaitzatzu.*

Guztioc irichi ditzagula zure Trinitade eciñ esan alaco orren devotoentzat gordeac dauden zoriontasun ugariac: *Erregutzen dizugu, adi gaitzatzu.*

Fede-gabeen uts-eguiñac des-eguin di-



tecela, aitortzean guc zure Trinidadearen misterioa: *Erregutzen dizugu, adi gaitzatzu.*

Purgatorioco anima guztiaç zure Trinidadeco misterioaren virtutez alaitasun aundia senti dezatela: *Erregutzen dizugu, adi gaitzatzu.*

Zure erruquimentuz diña zaitecela guri aditzera: *Erregutzen dizugu, adi gaitzatzu.*

Jaungoicō Santua, Jaungoico portitza, Jaungoico ill-ezcorra, gaitz guztietatic libra gaitzatzu, Jauna.  
*Au iru bider esaten da.*

## TRINIDADE GUZTIZ SANTUARI ESQUEÑIAC.



1. ¡Oh Trinitade guztiz doatsua! nere anima zure antz-irudira, eta ceruraco eguin cenduen ezquero, itz ematen dizut, bera salvatzen empeñu eta aleguin guztiaç eguingo ditudala. Zure amo-



rez sayatuco naiz ere nere lagun  
urcoen animen salvacioan.

2. Nere anima salvatzeco eta  
zuri gloria eta alabantza emateco  
badaquit zure Jaungoicozco leguea  
gorde bearrean nagoela: itz ema-  
ten dizut, bada, nere beguetaco  
niñiac becela gordeco dedala, eta  
besteac ere bere bat eguin dezaten,  
aleguñean sayatuco naizala.

3. Zu alabaten arico naitzatzu  
emen lurrean, eta uste det, lan be-  
rau obetoago eguingo dedala gue-  
ro ceruan: orregatic maiz Trisa-  
gioa errezatuco det, eta esango det  
verso au: Gloria Aitari, Semeari,  
eta Espiritu Santuari. Eta beste  
gañeracoac ere alaba zaitzaten,  
aleguña eguingo det. Amen.

ÿ. Aita eta Semea Espiritu  
Santuarequin bedeinca dezagun.




ñ. Dembora guztietan alabatu  
eta alcha dezagun.

**Oracioa.**

¡Oh guztia dezaquezun eta beti  
diraun Jaungoicoa, zure Magestade  
beneragarrian Batasuna adoratzeco,  
-fede eguiazcoaren aitor-memean  
zure servitzariai cere betico Irutasunaren  
gloria aguertu nai izan ciñiena!  
iguzu, arren, Jauna, gaitz eta  
perill guztietatic fede onen beronen  
indarrez beti libre arqui gaitecela,  
Cristo gure Jaunagatic. Amen.















# ALDARECO SACRAMENTU GUZTIZ

## Santuari

### VISITA.



*Jaun Sacramentatua* *visitatzea* da, dudaric gabe, cristaiac dauzcatzin devocioen artean Jaungoicoaren gogocoe-netacoa becela, beretzat prochugarri-netaco bat.

Devocio au ain biguña da, non, irte-tzen dan Jaungoicoa maite duen animagandic, moduren batean berac jaquin gabe nola; ceren viotzez Jaungoicoa maite duen anima berez dijoa bere amorioen atseguña eguiten duenaren billa, ceña dan Jesus bere amorio-labe-an, edo Aldareco Sacramentu guztiz Santuan.

Evangelioac esaten digu, ecen, gorputza dagoen lecuan, an bilduco dirala



arranoac. Arranoac lur guztiaz gañ be-  
cela, virtute eta santutasunean alcha-  
tzen diran anima onac, biltzen dira Je-  
susen gorputz Sacramentatuaren ingu-  
ruan.

Eta nola Sabaco erreguiña joan zan  
Jerusalena Salomon bere Jaureguian  
eta erregue-aulquian visitatzera, ala  
beren griña edo gurarien erreguiña eta  
aguintari diran anima onac ere, datoz  
visitatzera Salomon baño jaquintsua-  
goa dan Jesus bere Jaureguian, au da,  
Eleizan, eta bere erregue-aulquian, er-  
ruquimentuaren aulquia dan Aldareco  
Sacramentuan.

Eta Sort-aldeco Erregueac Belenen  
Jesus adoratzeco lecu urrutietatic etor-  
rita, urrea, incensua eta mirra doayac  
esqueñi ciozcaten becela, cristau onac  
berebat eguiten dute: nola bai diran  
orain bere griñen erregueac, guero ce-  
rucoac izango diran becela, datoz ado-  
ratzera Jesus Aldareco Sacramentuan,  
eta esqueintzen diote neque-penen edo  
mortificacioren mirra, oracioaren in-  
eensua eta caridadearen urrea, guera-  
turic Jesus poz-contentuz eta viotzeco



maitatzalle oengana esquer onez beteric. Adisquide bat bere adisquide batzuec visitatzen duten becela, bera ere oec visitatua icustean, betetzen ditu graciaz, eta ematen die misericordia orain, eta guero azquen-juicioco egunean esango die: Atozte, nere Aitaren bedeincatuac, atozte prestatua dagoquizuten ceruetaco erreinoaren jabe eguitera, bada zuec etorri zatzaizquidate visitatzera amorez preso eta eri becela Aldareco Sacramentuan nengoenan.

Au iracortzen dezun cristaüa, Jaun Sacramentatua egunoro visitatzeco aleguiña eguizu, albadezu Jauna patente edo aguirian dagoela, edo bestela sagrarioan ichia dagoenean; eta Eleizara ecin baciñaque, eguingo diozu visita cere echetic, edo arquitzen ceran toquitic, Sacramentu guztiz Santua dagoen Eleizara beguira jarriaz.



**Oracioa.**

Nere Jesucristo Jain Jaungoico viciaren Semea, ona nola natorquizon Virgiña chit santarequin, Aingueru, ceruco santu eta lurreco justuacquin batean Zu visitatzera eta adoratzera Hosti Sagradu onetan, nun, ceruan becin eguiazqui, almen edo poderez eta gloriaz betteric zaudela men menetan sinisten dedan; eta zure merecimentuen bitartez irichi uste det betico gloria, jarraitzen badiet cintzo zure dei Jaungoicozcoai: eta zuc didazun amorio ondogabearen esker onez amatu nai zaitut nere viotz eta anima, sentidu eta aleguiñ guztiarequin.

Zure Circuncisioan eta Pasio guztiz santuan ishuri cenduen odol preciotsuagatic escatzen dizut, ó



nere animaren Salvatzallea, Salvatzalle-lan au eguin dezazula nerequin, zure Ama chit santaren viltartez emanaz oraciozco eta devociozco doayac iraupenarequin batean, emengo vicitz au aitzen zadanean, guis nazazun ceruan gozaten dezun beticora. Amen.

Oh zure pasioaren oroipena Sacramento miragarri orretan utzi cinguzun Jauna; iguzu zure gorputz-odolac bertan adoratzeco gracia, eta zure misericordia neurri gabearen señalean eguizu irabaci dezagula Jubileo santu onetaco indulgenci oso osoa, ceñaren bitartez escatzen dizugun osasuna eta zoriona Erromaco Aita Santuarentzat, gure Obispo jaunarentzat, gure Erregue catolico efa bere Erregue-echetarrentzat eta erreinuco gobernatzalle eta cargudun guzti-



entzat. Baita ere erregutzen dizut, ó nere Jaungoicoa; purgatorioco anima bedeincatuen betico atsedegatic; eta azquenic iguzula gutioi gure salvacioco bidetic egundano alde ez eguiteco gracia, vicitza negargarri onen ondoren, gloriaco doatsueran Zu betiro icusi eta goza zaitzaguquean. Amen.

### Aita Beticoari oracioa,

Oh nere Jaun Jaungoicoa; ceruetan vici ceran jar-lecu goititu eta santutic beguirada bat emanic, icusi ezazu gure Apaiz-aundi eta zure Seme Jesucristoc, bere senideen pecatuac eta gure gaiztaqueria ugariac borratuac izateagatic esqueintzen dizun Jauscañi edo Victima guztiz santu ori. Gure senide Jesucristoren odola deaderca



dagoquizu Hosti sagradu onetatic. Entzun zayozu, Jauna, itzali ezazu zure aserre bidezcoa; beguirada erruqui eta biguñ bat eguiguzu, eta barca zaguzu. Zure icena erri onetan eta zure fededunen artean deitua izandu dan ezquero, etzaiguzu luzatu graci au, diguzun amorio orregatic beragatic escatzen dizugu, oh nere Jaungoicoa, eta zure erruquimentu aundia gurequico usa ezazu. Ala izan dedilla.

### Oracioa.

Oh ceruco Aita Jaungoicozcoa! fede eta confianzarequin escatzen zatzun guztia ematen dezuna: nere viotzeco amorio eta animaco esperanza guztiarequin escatzen dizut, bada, nic, peccatarien conversioa, justuen iraupena, eta purgatorioco



anima bedeincatuen alivioa; escatzen dizguitzut guztiontzat zu gueyago amatzeco eta servitzeco bear dituzten graciac. eta bereciro nerretzat escatzen dizut Jaungoicozco amorioa, eta gauza guztietan beti eguin dezadala alic ondoen zure vorondate chit santua.

Graci oec errazago irichi, eta nere uts-eguite, culpa eta peccatuacgatic satisfacio emateco, esqueintzen dizut Jesucristo zure Semea, lurrera bialdu cenduenean, eta gure Salvatzalletzat eman ciñigunean cenducan caridade neurri gabeco eta beticoarequin batean. Esqueintzen dizut beraren guizatasuna, vicitza pasio eta erio-tza guztiz santuac. Esqueintzen dizguitzut beraren virtute miragarriac, eta gugatic eguin eta sufritu zuen guztia. Esqueintzen dizqui-



tzut beraren lanac, nequeac, oña-  
ceac eta odola. Esqueintzen dizut  
Mezaren sacrificio santuan esqueñi  
dan eta esqueñico dan ambat bi-  
der. Esqueintzen dizut Comunio  
sagraduan artu izandu dan eta  
izango dan, eta Aldareco Sacra-  
mentu guztiz santuan adoratua  
izandu dan eta izango dan beste  
aimbeste bider. Esqueintzen dizut  
beraren paciencia eta amorioa, su-  
fritzen guizonen esquergabequeria  
desprecioac, arneguac eta sacrile-  
gioac. Esqueintzen ere dizquitzut  
Maria Virgîna chit santaren mere-  
cimentuac, ceruco Santu eta lur-  
reco justu guztienac. Zure ontasun  
eta misericordia neurri gabeaga-  
tic, eta Jesucristoren, Maria chit  
santaren eta Santuen merecimen-  
tuacgatic uste det, oh nere Aita  
ona, escatzen dizquitzudan gracia



oec, orain emango dizquidatzula,  
eta guero dembora guztien dem-  
boretan vici ceran eta erreinatzen  
zauden betico gloria. Amen.





Sacramentu guztiz be-  
neragarriari eta Maria chit  
Santaren viotz sagraduari ani-  
ma onac bederatzi Coroetaco  
Aingueruacquin batean  
eguiten dioten

ADORACIOA.

Aurrera pasa baño len jaquin bear da,  
ecen bederatzi Aingueru-coroac daudela iru  
mallatan partitucac: lembicicoan daude Se-  
rafiñac, Querubiñac eta Tronoac; bigarren-  
goan daude Dominacioac, Virtuteac eta Po-  
testadeac; eta irugarrengoan Principaduac,  
Arcangel edo Goi-Aingueruac eta Aingue-  
ruac.

Aurreneco bi mallacoacquin adoratzan  
dute Jesus bere bost ilagatan eta arantzazco  
coroan; eta irugarrengoacquin escatzen diote  
Mariari humiltasuna, garbitasuna, eta amo-  
rioa era onetan:

Adoratzan det, nere Jesus, Se-  
rafiñen coroarequin batean zure



escuico escuco llaga, eta escatzen dizut indazula Jaungoicozco amorioa, amorezco gar vicienacquin amatu zaitzaquedan Serafiñac amatzen zaituzten becela. Amen.

*Aita gurea eta Ave Maria.*

Adorätzen det, nere Jesus, Querubiñen coroarequin batean zure ezquerreco escuco llaga, eta escatzen dizut indazula jaquiundea, ezagutu eta amatu zaitzaquedan Querubiñac ezagutzen eta amatzen zaituzten becela. Amen.

*Aita gurea eta Ave Maria.*

Adorätzen det, nere Jesus, Tronoen coroarequin batean zure escuico oñeco llaga, eta erregutzen dizut indazula barrengo paque eta sosegua, nere viotza izan dedin erregue-aulqui eguiazco bat Zu, paquezco Erregue ceran ori atsed-



teco, Tronoen coroan atsedeten  
dezun becela. Amen.

*Aita gurea eta Ave Maria.*

Adoratzen det, nere Jesus, Do-  
minacioen coroarequin batean zu-  
re ezquerreco oñeco llaga, eta es-  
catzen dizut indazula nere griña  
guztiac ventzutu eta mendean idu-  
qui al izateco gracia, amatu eta  
servitu zaitzadan Dominacioac  
amatzen eta servitzen zaituzten  
becela. Amen.

*Aita gurea eta Ave Maria.*

Adoratzen det, nere Jesus, Vir-  
tuteen coroarequin batean Zure  
viotzeco llaga, eta escatzen dizut  
indazula bear dedan gracia, irmo-  
tasun aundiarequin eguiteco virtu-  
te guztietaco obrac. Amen.

*Aita gurea eta Ave Maria.*



Adoratzen det, nere Jesus, Potestadeen coroarequin batean zure arantzazco coroa, eta erregutzen dizut indazula animaren etsayen contra lazqui peleatzeco bear dedan al, graci eta indarra, onela irichi dezadan gloriaco coroa. Amen. . .

*Aita gurea eta Ave Maria.*

## ALDARECO SACRAMENTU GUZTIZ

SANTUARI ESQUEÑIAC.

---

1. Egunoro visitatzera etortzeco itza ematen dizut, Jauna, eta Eleizara ecin banetorque, ehetican eguingo dizut visita.

2. Itz ematen dizut, Jauna, urtean bein beintzat etorrico naitzatzula Zu artzera, Eleizac aguinduric daucan becela, eta urte barrum-



bean aldedan maicena artuco zaitut Sacramentuarquiro, eta erlojuac egunoro jotzen duen ordu bacoitzean eguingo det Comunio espirituala edo gogozcoa.

3. ¡Ay Jauna! Sacramentu orretan ematen didazu zure viotza, zure gorputza, zure odola, zure anima, zure Jaungoicotasuna eta dezun guztia; eta ordañez, nere viotza escatzen didazu. ¡Ay nere Jesus! men menetan diotsut:

Nere gorputz ta anima,  
Viotza oecquin,  
Ara, Jauna, or dituzu  
Naicen guztiarequin.  
Zurea naiz, Nere Arguia,  
Esqueñi nintzatzun,  
Aguindu nai guztia,  
Eguin dizadazun.



# ALDARECO SACRAMENTU GUZTIZ

SANTUAREN BERSOAC,

SACRIS SOLEMNIS-EN DOÑUAN CANTATZECOAC.

---

¡Oh arrigarria  
Icusten dedana!  
Da-zoragarria  
Sinisten dedana;  
Ecer ez batean  
Aundiena dana  
Dago mundu zabalean.

Anima nerea,  
Considera ezazu,  
Cristau chit maitea,  
Arren, pensa ezazu,  
Ta zure buruan  
Beti iduqui ezazu  
Dagoena onela munduan.

Gauza chit chiquian  
Danic aundiena,  
Hostia batean  
Gauzaric onena,  
Onela arkitzen da  
Eguin cinduena,



Iñor guichi oroitzen da.

Oh cer pensatzen det

Nic egun guztian,

Cér nic eguiten det

Egun ta arratsian?

Ez det nic pensatzen

Mirari ain aundian,

Ala ez det adoratzén.

Jaun paregabea,

Adoratzén zaitut,

Jaun guztiz maitea,

Nic amatzen zaitut;

Bada aldarean

Or icusten zaitut

Modu guztiz humillean.

Aundia izan ta ere

Guztien gañean,

Ez dezu bat ere

Ezagun hostian;

Zu or sinisturic

Modu ain humillian,

Gaude guztiz arrituric.

Baña Jesus ona,

Itz-eguin bear dizut

Izanic guizona,

Au galdetzen dizut,

Cer gusto cenduen



Aditu nai dizut,  
Orrela guelditzeco emen.

Ay cristau maitea,  
Esaten didazu,  
Naiz zure Jabea;  
Bada adizazu,  
Amorez nintzala,  
Arren sinist zazu  
Jarri nagoen bezala.

- Nere atseguñac  
Dira personacquin,  
Nere aleguñac  
Egotea beracquin;  
Ala nai izan nuen  
Milagro aundiacquin  
Guelditu zuequin emen.

Amorio onezaz  
Nor da acordatzen?  
Mundu ero orrezaz  
Cerate zoratzen;  
A esquer gabeac,  
Nola da au pasatzen?  
Esquer gaizto emalleac.

Gabaz ta egunez  
Ni beti elizan,  
Zuec casoric ez  
Baicican guchitan



A cristau zoroac,  
Nai dezute izan  
Orren esquer gaiztocoac?

Munduco aundiac  
Ondo lagunduac,  
Ta nizaz guztiac  
Zaudete aztuac;  
A viotz gogorrac,  
A engañatuac,  
Zaudete neretzat gorrac.

Lagun onarequin  
Egon nai dezute,  
Baña guichirequin  
Logratzen dezute;  
Ona emen nago,  
Ni nai banazute,  
Ni becin onic ez dago.

Emendic aurrera  
Maizago joango naiz,  
Jauna, zure echera;  
Orchen egongo naiz,  
Zu acompanyatzen;  
Ta gozatuco naiz,  
Aleguiña zu alabatzen,

Ecín dedanean  
Zugana allegatu,  
Ceren nere echean



Bear dedan gueratu,  
Andic eguingo det,  
Zu or adonatu,  
Zugan maiz pensatuco det.

Oraindic gueyago  
Anima garbia,  
Orrecquin ez dago  
Eguina guztia;  
Ni emen naucazu  
Zure janaria;  
Ala maiz artu bear nazu.

Ya nere goseric  
Ez dago zuetan,  
Ni maiz artzalleric  
Guichi guztietan,  
¿Cér arrazoirequin  
Vici ceruetan,  
Uste dezute nerequin?

Zuen amorioz  
Emen zoraturic,  
Zuen suspirioz  
Emen humilduric;  
Baña naucazute  
Despreciaturic,  
Arren artu nazazute.

Zuen premiaric  
Ez det nic izpiric,



Zuen onagatic  
Onela jarriric;  
Arquitzen naiz emen  
Janari eguiñic,  
Jartzeco zuen barrrenen.

Ondo daquizute  
Dala au eguia,  
Baña daucazute  
Viotza naguia,  
Beti paraturic  
Mundura beguia,  
Zuen animac galduric.

Indar guichirequin  
Anima da arquitzen,  
Ez banau berequin  
Maiz errecibitzen;  
Etsayac argatic  
Asco du eguiten,  
Zuec ni ez artzeagatic.

Argui zaitezte bein  
Au ezagutzeco,  
Atozte lembaitlen  
Ni errecibitzeco,  
Jarriric gracion,  
Ala mantentzeco,  
Mayaric dan onenian.  
Arrazoya dezu



Jaun maitagarria,  
Ondo esan dezu  
Jaun zoragarria;  
Zuc beti daucazu  
Gure egarria;  
Ta zuzaz guera gu aztu.

Nic ezagutzen det  
Nere esquer gaiztoa,  
Bertatic artzen det  
Zuganaco asmua;  
Orain daño egon naiz  
Zuzaz chit aztua,  
Baña ya egongo ez naiz.

Aldan ondoena  
Zugan viurturic,  
Al dedan maicena  
Ondo prestaturic,  
Or izango nazu,  
Culpa claraturic.  
Zure gracia indazu.

Zu artuarequin  
Maiz modu onetan,  
Izatea zurequin  
Ceru altuetan,  
Esperatuco det  
Nere egunetan;  
Baita ere logratuco det. Amen.



## ESTRIBILLOA

edo cant-astea.

Muguitu gaitecen  
Jauna adoratzera,  
Anima gaitecen  
Maiz visitatzera,  
Bai Sacramentuan,  
Eta artutzera  
Anima ondo garbituan.

Artutaco mesede guztien, ala  
ceruco nola lurecoen

## ESQUER EMATEAC.



I. Eman al esquer guztiaç nere vi-  
otz eta anima guztiarequin ematen diz-  
quitzut, nere Jauna, ez izanetic orain  
daucadan zure anz-irudi onetara ate-  
reaz, criatu ninduzulaco, utziaz beren  
ecerezean beste ecin conta al anima,  
nerea becela criatu izan baciñitzaquean  
ere, iñoiz criatu etziñituenac.



Milla esquer ematen dizquitzut mesede onegatic, eta ni criatzean ciñidan amorioagatic.

II. Ematen dizquitzut al ditudan esquer guztia cristau eguin ninduzulaco. Nere anima criatu cenduen eguñean, beste asco criatu ciñituen, batzuec fedegabeen artean, besteac heregeen artean; nerea cristauen artean, eguiñaz n̄ ere oetatic bat. ¿Nore, Jau-na, nigatic erregutu cizun, besteacgatic baño gueyago? Edo ¿noiz merecitu nuen nic besteac baño gueyago? Esquerrac ematen dizquitzut mesede onegatic, eta eguitean ciñidan amorioagatic.

III. Esquerrac ematen dizquitzut, nere Jaungoicoa, eta bear becelacoac ematen lagundu daquidala erregutzen diot ceru guztuari, zure Seme guztiz santua eman ciñigulaco diguzun amorio aundiaren señalean, bada ona cera, eta neurri gabea da zure misericordia. Eta gañera eman diguzu, izan ere dedin gure ispillu, gure maisu, gure Erredimitzalle eta gure Salvatzalle.

IV. Eta Zuri, nere Jesus, esquer berperac ematen dizquitzut, gu guz-



tiocgatic, eguin eta sufritu dezun or-  
rembestegatic.

V. Esquerrac ematen dizquitzut; ne-  
re Jesus, didazun amorez guizon eguin,  
Maria Virgiñagandic jayo, abere-ascan  
paratua, circuncidatua eta Egiptora de-  
serritua izan ciñalaco.

VI. Esquerrac ematen dizquitzut,  
nere Jesus, nere amorez batayoa artu,  
tentatua izan, Evangelioa predicatu,  
eriac sendatu, eta illac ere piztu ciñi-  
tuelaco.

VII. Esquerrac ematen dizquitznt,  
nere Jesus, ogueita amairu urtean, la-  
nac, nequeac, desprecioac persecuci-  
oac, bidegabekeriac eta injuriac nere  
amorez sufritu ciñituelaco.

VIII. Esquerrac ematen dizquitzut,  
nere Jesus, zure icasleacquin Pazcoa,  
nere amorez celebratu nai izan cen-  
duelaco, berai oñac garbitu, eta humil-  
tasuna eracutsi ciñielaco; Aldareco Sa-  
cramentu guztiz beneragarria ipiñi, eta  
bertan munduaren acabaeraraño gure-  
quin egongo ciñala aguindu ciñielaco.

IX. Esquerrac ematen dizquitzut,  
nere Jesus, nere amorez Jetsemanico



baratzan odola eta ura icerditzerañoco agonian egon ciñalaco, eta ill nai ezean ceundela Aingueruac alaitu cinducelaco, eta Aita Beticoaren vorondatearequin bat-eratu ciñanean Judasec saldua, gañeraco Apostoloac utzia, Juduac lotuta preso Jesusalengo carricaetic eramana izatea sufritu cenduelaco.

X. Esquerrac ematen dizquitzut, uere Jesus, nere amorez lembici Anasen aurrera masallecoa artzeco, eta guero Caifasen echera desprecioz eta chistuz betea izateco eramana izatea nai izan cenduelaco, bada Apaiz nagusiac aitortu zuen ill bearra ciñala, gendea galdu etzedin,

XI. Esquerrac ematen dizquitzut, nere Jesus, nere amorez guezurrezco testiguac salatua, eta desprecioz, bur-laz eta chistuz bete cinduzten Jerusalengo aundizqui aen guztien batzarre aundientsuac eriotzara condenatua izatea sufritu izan cenduelaco; gañera sufritu ere cenduen gau artan arpeguia estalita, masallecoac eman eta profeta guezurtitzat tratatzen cinduzten guizon billauea mendean egotea:



eta zure penen pena gueyagoraco izan zan Pedro Apostoloac eguin cizun ucoa.

XII. Esquerrac ematen dizquitzut, nere Jesus, nere amorez preso artu eta Jerusalengo carricac barrena gendearen uju eta iscambilla tartean Pilatoren echera, andic Herodesengana, eta onec ero bat baciña becela zuriz jantzierazoric, berriz Pilatogana bialduerazotzea sufritu cenduelaco; eta onec, culpagabea ciñala aitortu arren, azotazerazotzea, arantzaz corozotzea, zu utzita Barrabas auqueratzea, eta azquenic eriotzara condenatua izatea nai izan cenduelaco.

XIII. Esquerrac ematen dizquitzut, nere Jesus, nere amorez gurutzea sorbaldan artuta Calvarioraño eraman cenduelaco, bidean zure Ama chit santarequin topo eguiñic, eriotzara lagundu cizulaco, gurutzearen pisutzarrac oso aulduric, ascotan erori ciñalaco urratuaz arpeguia, escuac eta belaunac, eta gueratuaz ichusitua eta ichuragabetua gorputzean eta soñecoan cenducan odolari itsasten citzayon autsarequin.



XIV. Esquerrac ematen dizquitzut nere Jesus, Calvariora iristean nere amorez larru gorritua, gurutzean josia, eta alchatua izatea nai izan cenduelaco, bertan esan ciñituen zazpi itzetatic batean zure Ama gure Amatzat emanic, eguin cinitzaguquean graciatic aundienetaco bat eguin ciñiguzulaco; eta gañera ospina ete beazuna edan ciñituelaco, eta Profetac Zuzaz esana ceucaten guztia eguin eta sufritu cenduenean, nigatic ill nai izan ciñalaco.

XV. Esquerrac ematen dizquitzut, nere Jesus, nere amorez gurutzean lapur biren erdian illa ceundela, soldadu bati zure sayetsa lantzarequin idiquitzen utzi ciñiolaco, andic irten ciran ur-odolacquin Eva berria dan zure Esposa Eleizaren zazpi Sacramentuac ipintzeco: gurutzetic erachi ta Maria zure Amaren besoetan jarria, eta guero obi edo sepulcro batean paratua izatea nai izan cenduelaco.

XVI. Esquerrac ematen dizquitzut, nere Jesus, irugarren egunean nere amorez piztu ciñalaco, zure Ama chit santari, beste Mariai eta icasleai ascotan



aguertu ciñitzayelaco, eta oei mundu guztian predicatu eta eracutsi bear zutena, eracutsi nai izan ciñielaco.

XVII. Esquerrac ematen dizquitzut, nere Jesus, nere amorez, piztu ciñanetic berrogueigarren egunean, icasle guztia beguira cegozquitzula cerura ciñalaco, nun zauden eserita Aita Jaungoicoaren alde escuitic, arequin gure alde bitarteco eguiten.

XVIII. Esquerrac ematen dizquitzut, nere Jesus, cerura igo ciñanetic amargarren egunean, nere amorez Maria chit santaren, Apostoloen eta icasleen gañera Espiritu Santua bialdu cenduelaco, eta guztia aren doai eta graziaz beteac gueldituric, Jaungoicoaren gauza miragarriac adierazten asi ciralaco.

XIX. Esquerrac ematen dizquitzut, nere Jesus, nere amorez zure Aitac Zu bialdu cinduen becela, zuc ere Apostoloac munduz mundu bialdu ciñituelaco; baita ere ematen dizquitzut, Pedroren gañean zure Eleiza fundatu: eta infernuco ateac beraren contra egun-



daño garaituco etzutela promestu cenduelaco.

XX. Esquerrac ematen dizquitzut, nere Jesus, nere amorez zure Eleiza San Pedroren ondorengoa dan Aita Santuz, Obispoz, Apaicez, eta Eleiz-guizonez beti ornitu izan dezulaco, cintzo eta zure icenean gobernatu ditzatzen zure odol preciotsuarequin erredimitu dituzun anima guztiac.

XXI. Al ditudan esquerrac ematen dizquitzut nere pecatuac barcatu dizquidatzun aldi guztiacgatic, oetatic eta oen bideetatic gorde nazunacgatic, Aldareco Sacramentu guztiz santua eta beste gañeracoac artu ditudanacgatic, eman dizquidatzun graci eta doai guztiacgatic, zure laguntzarequin ala barrendic nola campotic eguin ditudan obra on guztiacgatic, eman didazun nere Aingueru guardacoagatic, eta mesede oec guztiac eguitean aguertu didazun amorioagatic.

XXII. Ematen ere dizquitzut al ditudan esquerrac, vicitz au igarotzeco, eta Zu servitu al izateco eman dizquidatzun osasun, mantenu eta munduco



ondasunacgatic, arquturic beste asco ni baño obeac, nic becelaco osasunic eta mantenuric ez dutenac. Damu det au guztia zure servitzu santuan obeto empleatu ez izana, eta ematen dizquitzut esquerrac on-eguin oec guztiacgatic, eta mesede oec eguitean aguertu didazun amorioagatic.

XXIII. Azquenic, esquer guztiac batean ematen dizquitzut, eguin dizquidatzun mesede, ala ceruco nola lur-reco, gorputzeco eta animaco, daquizquidan aguirico eta ez daquizquidan ezcutuco guztiacgatic; al ditudan esquer guztiac ematen dizquitzut, zor zaitudan guzti guztiagatic, eta mesede oec eguitean aguertu didazun amorioagatic.

### **Jaungoicoari escatu bear dioguna.**

I. Jauna, ni doacabe baño Zu erruquitsuagoa, eta ni artzeco baño Zu emateco zaletuagoa zauden aiñ escu-emalle eta onguillea ceran ezquero, humillqui escatzen dizut barca zaizquidatzula nere



pecatu guztiac, bada damu det nic Zu ofenditu izana, cerana izanagatic, ontasun ondo gabea ceralaco, eta escatzen dizut indazula eriotzco pecatuan egundano ez erortzeco, eta pecatu veniale-tatic gordetzeco gracia, Jesucristo zure Semeagatic.

II. Erregutzen dizut, nere Jauna eta Aita, salya nazazula, eta ez condenatu ezpada eraman nazazula cerura Santuacquin eta Aingueruacquin batean azquen gabeco vicitzan Zu bedeinca-tzera, amatu eta gloriaztutzera, Jesucristo zure Semeagatic.

III. Erregutzen dizut, nere Jauna eta Aita, indaizquidatzula Zu obeto amatzeco, servitu eta on-iristeco nere animac bear dituen graci, doai eta laguntza guztiac, batez ere azqueneco as-nasea emango dedan arterano iraupena; escatzen dizut indazula nere lagun-urco guztiaquico paquea eta amorioa; eta guero eta zure gogo gueyagocoa izan nadin, escatzen dizquitzut humilltasuna, garbitasuna eta osterontzeco virtuteac, Jesucristo zure Semeagatic.



IV. Erregutzen dizut, nere Jauna eta Aita, conveni bazaizquit, indaizquidatzula munduco ondasunac, vicia, osasuna, mantenua, honra, poz-contentua, eta gauz oec guztietatic escatzen dizut bacar bacarric zure gloria gueyagoraco eta nere animaren oneraco izango dana, Jesusristo zure Semeagatic.

V. Erregutzen dizut, nere Jauna eta Aita, aldedan guztia, pecatu mortalean daudenacgatic, egoera ain errucarritic irten ditecen; iltzen edo agonian daudenacgatic, beren pecatu guztien onezco damu aundi bat iduqui dezazen, iñor ere ez dedilla joan beste mundura Sacramentu santuac artu gabe, ezpada guztia ill ditecela paquezco laztanean, escatzen dizut purgatorioco anima bedeincatuacgatic, irten ditecen bereala neque-penazco toqui artatic: baita ere escatzen dizut, ene Aita, lagun urcoen premia guztienquico eta bacoitzarenquicoacgatic; eta bereciro nere aide, onguille, adisquide eta etsayacgatic, nere oracio argaletara gomendatu diran guztiaacgatic, eta az-



quenic, erregutzeco itza eman dietedan aec guztiacgatic, Jesucristo zure Semearen icenean.

VI. Al dedan guztia erregutzen dizut, nere Jauna eta Aita, fede gabeen eta peccatarien conversioagatic, heregeac bide onera eracartzeagatic, fede eguiazcoaren alchaeragatic, Aita Santuagatic, Cardenal, Arzobispo, Obispo, anima-zai, eta beste apaiz eta eleiz servitzariacgatic, persona erligioso eta beren buruzayacgatic, emperadore, erregue eta beste gaineraco aguintariacgatic: guztiocgatic escatzen dizut, nere Jauna eta Aita, eta nai det guztioc menmenetan Zu amatu eta servitu zaitzagula, Jesucristo zure Semeagatic.

VII. Erregutzen dizut, nere Jauna eta Aita, ugaritu ditzatzula zure Eleizan apaiz on eta celotsuac, aleguinean landu dezaten zure matstiya; eman zayezula gende guztiai Jaungoicoaren itza aditzeco gogoa, aditu eta berazaz provechatu ditecela, zure legue santuaren aguinteac eta Evangeliocono conselluac gorde ditzatela, confesioco eta comunioco Sacramentu santuac ondo



eta maiz ar ditzatela; gogozco eta aozco oraciora zaletuac eta emanac izan ditecela; Maria chit santari devocio aundia izan dezayotela; gorputzeco eta animaco obra misericordiazco guztietan saya ditecela; guztia viciditecela ondo ezaguturic zure bildur eta amorio santuaren balioa, Jesucristo zure Se-meagatic.

VIII. Azquenic, nere Jauna eta Aita, escatzen dizut oraingo guiz-aldia violetzeraño quiratstua eta cutsatua daucan min-viciaren erremedioa, eta nai nuque desaguertu dedilla gure artetic orgullqueria eta envidiazco deabru-espiritu ori, iñoren mendean eta obediencian bera egon gabe, guztiai aguindu eta mendean iduqui-nayeco deseo eragabe ori, orrezaz gañera, edocein eratan eta beti gozatu naya, ecer ere eta iñoiz ere sufritu nai ez izatea, nondic datorren ez beguiratzea norc bere ondo izateari baicic, guticia, bidegabequeriac eta gaitz guztia, des-aguertueroaz paquea, leyalasuna, caridadea eta elcartasuna: eguizu Jauna, piztu ditecela guizonen artean Jesucristo zu-



re Semeac eracutsi cizquigun jarraicai edo ejemplo, icasbide eta virtuteac, bada Bera ere vici da eta erreinatzen du Zurequin eta Espiritu Santuarequin dembora guztien demboretan. Amen.

### **Jaincozco amorioaren jarduera edo ejercicioa.**

Amatzea ongui nai izatea becela da, dio Santo Tomasec; eta nola ecin opa ditzazqui-ozcaguquean Jaungoicoari, dauzcatzian ondasunac baño aundiagoac, oec nai izan dezayozcaguque Jaungoicoari, izan ditzala atseguñ artuaz, ceña dan bera amatzeco modu chit egoqui bat, eta eguingo da odela:

I. Nere Jaungoicoa, izan zaitez Jainco, ceran becela, orain eta beti betico; bada Zu ala izateaz, ni viotzez poztutzen naiz. Zuc daucazu escual cabu gabea; izan zaite Jaungoico guztiz altsu, ceran becela. Zuc dezu jaquiunde neurri gabea; izan bedi chit ordu onean, izan ezazu jaquiunde neurri gabea, dezun becela. Zuc dezu ontasun neurri gabea, caridade neurri gabea, erru-



quimentu neurri gabea; izan itzatzu, Jauna, ontasun, caridade eta erruquimentu neurri gabeac, dituzun becela. Zuc, Jauna, dezu misericordia, providencia eta liberaltasuna; izan itzatzu, Jauna misericordia, providencia eta liberaltasuna, dituzun becela. Zu Jauna, cera azquen gabe gloriatsua eta doatsua, izan zaitez muga gabe gloriatsua eta doatsua, ceran becela.

II. Zu, Jauna, cera Irucoi eta Bat, Aita, Semea eta Espiritu Santua, iru persona bereci eta eguiazco Jaungoico bacar bat, izan zaitez Irucoi eta Bat, ceran becela. Cera gauza guztien Eguille eta Gordetzalle, cera aingueruen eta gure Salvatzalle eta Glori-emalle; izan zaitez ordu onean, ceran becela, bada orrezaz nic chit atseguin artzen det.

III. Zu, Jauna, ezagutzen cera cerori neurri gabeco ezagüerarequin; ezagutu zaitez Cerori ezagüera neurrigabearequin, ezagutzen ceran becela, bada ezagüera neurri gabea chit dagoca neurri gabeco izateari. Zu, Jauna, amaten cera neurri gabeco amorioarequin; amatu zaitez, Jauna, amorio neurri ga-



bearequin, amaten ceran becela, bada amorio neurri gabea ondo dator neurri gabeco ontasunarequin. Zu, Jauna gozaten cera azquen gabeco atseguinarenquin; goza zaitez Jauna, atseguin azquengabearequin, bada atseguin azquen gabea ongui dago azquen gabeco gloriarequin. Ezagutu zaitez. nere Jaungoicoa, ezagutzen ceran becela, amatu zaitez amaten ceran becela, goza zaitez gozaten ceran becela orain eta beti betico, eta izan zaitez Jaungoico, ceran becela.

IV. Zu, Jauna, cera guztien Jabe bacar, Aingueruac eta doatsuac ceruan eta guizonac lurrean amaten, alabatzen eta servitzen zaituztena; izan zaitez guztien Jaun eta Jabe, eta guztioac amatu, alabatu eta servitu zaitzagula ceruan eta lurrean inoiz utzi gabe.

V. ¡Oh Jauna! norc convertitu al litzaquean arkitzen diran fede gabeco eta pecatari guztia, eguinaz etzaitzala inorc ofenditu, eta guztia, gugandic naidezun ambat amatu, alabatu, bedein-catu eta servitu zaitzatela! Onetara-co nere odola eta milla bider vicia nic



emango det, nerez ecer ecin badezaquet ere. Cerorrec eguizu, Jauna, bada nic deseaten det, guztiac ari ditecela zure servitzu santuan orain beti betico: nai eta deseio det Jauna, criatura guztiac, ala icusten diranac nola ez diranac, eta criatuac eta oraindic criatu gabeac egunoro eta uneoro ambat bider amatu, alabatu eta bedeincatu zaitzatela cembat bateco atera ditezquean orretaraco jarriac dauden amar lumero jaquiñacquin; Jauna, eguizu zuc, bada nic ecin dezaquet.

¡Oh Jesusen viotza, ama ezazu Jaungoicoa nere orde!

¡Oh Mariaren viotza, ama ezazu Jaungoicoa nere orde!

¡Oh Santu guztien viotzac, ama ezazute Jaungoicoa nere orde!

¡Oh Aingueru coro guztiac, ama ezazute Jaungoicoa nere orde!

¡Oh criatura guztiac, ama ezazute Jaungoicoa nere orde!

¡Oh Jaungoicozco su, beti garretan zauden eta iñoiz itzaltzen etzerana! ¡Oh Jesusen viotz, beti iraquiten zauden eta iñoiz oztutzen etzerana! eguizu,



nere viotza egon dedilla beti iraquiten  
eta gar eguiten Jaungoicoaren amo-  
rezco sutan.

¡Oh nere Jaungoicoa! urtu nai nuque  
zure amorioan, des-eguindu nai nuque  
zure amorioan icatz gorituen gañera  
botatzen dan incensua quietan des-egui-  
ten dan becela. ¡Oh nere amorioa! ¡oh  
amorio nerea!







DEBEANY









## MARIA CHIT SANTARI.

### VISITA.

¡Agur Maria, Virgiña eta Jaungoicoaren Ama! pecatari errucarri bat banaiz ere, confianza aundienarequin auspestzen naiz zure oñetan, sinismen osoan egonic, Zu cerala guizonai Jaunaren gracia guztiac cere valimentu indartsuarequin iristen dieztezuna. Zu cera; chit aberatsa, eta ni beartsu bat. Zu cera Ama, eta ni gaiztoa bederic, naiz zure humea; *Exagüeraxn zadaxu, nere Ama cerala.* ¡Ceio amac izango luque viotzie utzitzecu bere humeari sufritzen, socorrital balezaque! Eta Zuc, ain escualdi aundia izanic, ¡ez nazu socorri



tzen? Oroitu zaitez, ¡oh Maria Vir-  
 giña chit beraá! laguntza esque eta  
 amparu billa Zugana joan dirane-  
 tatic iñor Zuc utzia izandu danic,  
 egundaño aditu izandu ez dala: eta  
 ¿nic izan bear det, guztientzat beti  
 idiqui zan ate au ichia arquite bear  
 dedan aurrenecoa eta bacarra? ba-  
 ña, ala balitz ere, ez det etsico,  
 contrara uju aundiagoa eguingo  
 det, eta ez naiz ishilduco, alic eta  
 escatzen dizudana ematen didazun  
 arteraño. Bai, nere Ama eta Seño-  
 ra, adi ezazu nere erregua, irichi  
 zadazu zure servitzu santuan irau-  
 teco gracia, eta Jaungoicoari nai  
 ez daquiola, baña guertatuco bali-  
 tzaquet pecatuan erortzea, eguizu  
 ez dezadala arquite descansuric,  
 alic eta confesio on bat eguin, eta  
 nere pecatuaren barcacioa irichi  
 dezadan arteraño.



Escatzen ere dizut justuen irau-  
pena eta peccatarien conversioa.  
¿Cér nai dezu eguitea nic oecgatic?  
gogo onez prestatzen naitzatzu oen  
conversioraco al ditzaquedan bide  
guztizaz valiatzera. Orobat esca-  
tzen dizut purgatorioco anima be-  
deincatuacgatic, nere guraso, ai-  
de, adisquide, onguille, eta nere  
oracioetara gomendatu diran guz-  
tiacgatic; Aita Santuagatic eta gu-  
re Obispo Jaunagatic; Cardenal,  
Arzobispo, Obispo, animazai eta  
beste gañeraco apaizacgatic; guizon  
eta emacume erligiosoacgatic, be-  
rac santu batzuec izan, eta ala ga-  
ñeraco guztiac santutu ditzaten;  
era berean escatzen dizut zure la-  
guntza, fede santu catolicoa gue-  
yago eta gueyago zabaltzeagatic,  
heregien, cisma eta vicioen des-  
eguimentuagatic; Erregueagatic,



eta erreinuco, provincietaco, uri eta errietaco gobernari eta cargudunacgatic, iduqui dezaten Salomonen prudencia, jaquiunde eta aciertu guztia, hura becela sayatu, eta irichi ditzaten erreinuraco ondasunac, paquea eta zoriontasuna; eta, azquenic, erregutzen dizut nere lagua-urco guztiacgatic, batez ere eriacgatic; ichian eta des-erri-tuac daudenacgatic, eta leorrear eta urean bide eguiten dutenacgatic, eman zayeztezun guztiai bear dituzten graciac.

Zure viotza are gueyago cuturtu dezadan, graci oec guztiac escatzen dizquitzut Trinitade guztiz Santuari beti izan diozun amorioacgatic. Aldareco Sacramentu guztiz adoragarriarenganaco zure amorioacgatic, San Joaquin eta Santa Ana zure gurasoai, San José zure senar-



rari, San Juan Apostoloari, San Ildefonso, Santo Domingo, San Buenaventura, San Bernardo, San Ignacio eta San Ligorio zure devoto bicañenai izan ciñien eta diezun amorioagatic; eta oec guztia acasco ez baldin badira, ipintzen ditut bitartecotzat bederatzi coro Aingueruac, Patriarcac eta Profetac, Apostoloac eta Evangelariac, martiriac, obispoac eta confesoreac, Virgiñac eta alargunac, ceruco Santu Santac eta lurreco justu guztia. Bay Virgiña chit Santa eta Jaungoicoaren Semearen Ama, ain valimentu indartsuarequin ecin utzico nazu nere erreguac aditu eta escatzen dizudana irichi gabe. Amen, Jesus.

Trinidad e guztiz doatsuari iru *Aita gurea*, *Ave Maria* eta *Gloria*, Maria chit Santari eman ciozcan graci en esquer onean.



Bedeincatua izan bedi, Maria,  
Zure garbitasun ori,  
Bada Jaungoico bera da gozatzen  
Beguira edertasun orri.  
Zuri, ceruco Princes aundia,  
Gaurtic esqueintzen nago ni  
Anima, vicitza eta viotza,  
Ez utzi, arren, zure hume oni.

*Verso oecgatic emanac daude 39600 egu-  
neco indulgēnciac, eta Ave Mari chit gar-  
bia esanda irabazten dira 2580 egunecoac,  
eta beste aimbeste: Pecatu gabe sortua eran-  
tzutean.*















MARIAREN VIOTZ SAGRADUARI

ADORACIOA.

---

Adoratzen det ¡oh Virgiña eta Jaungoicoaren Ama! Principaduen coroarequin batean zure Viotz sagradua, eta escatzen dizut irichizadazula zure Seme Jesusengandic viotz manso eta humillecoa beti izateco gracia. Amen.

*Aita gurea eta Ave Maria.*

Adoratzen det ¡oh Virgiña eta Jaungoicoaren Ama! Goi-aingueruen coroarequin batean zure Viotz sagradua, eta erregutzen dizut irichizadazula zure Seme Jesusengandic nere gorputzeco, animaco eta viotzeco garbitasuna.

*Aita gurea eta Ave Maria.*



Adoratzen det ¡oh Virgiña eta Jaungoicoaren Ama! Aingueruen coroarequin batean zure Viotz sagradua, eta erregutzen dizut irichizadazula zure Seme Jesusengandic nere lagun urcoacquin caridadea, celoa eta gañeraco obra misericordiazcoac; - eguiten jaquiteco, eta eguin al izateco gracia. Amen.

*Aita gurea eta Ave Maria.*

BESTE ORACIO BAT MARIA CHIT SANTARI.

Oroitu zaitez, oh Maria Virgiña chit beraá, laguntza esque eta socorru billa Zugana joan diranetatic iñor Zuc utzia izandu danic, egundano etzala aditu izandu. Confianza onequin alaituric Zuganatzen naiz ni ere, oh Virgiñen Ama Virgiña, eta nere pecatuen pishupean lantuac emanaz, venturatzen naiz jartzen zure begui beneragarrien



aurrean. ¡Oh Jaungoicoaren Ama!  
ez itzatzu, arren, despreciatu nere  
erreguac, ezpada viotz onez aditu  
eta ar itzatzu. Ala izan dedilla.

Aita Santu Pio IX garrenac eman cituen  
500 eguneco indulgenciac, oracio au devo-  
cioz errezatzen dan aldi bacoitzagatic; eta  
egunoro errezatzen baldin bada, irabazteu  
da illean indulgencia oso bat, confesatu eta  
comulgaturic visitatzen bada Eleiza bat, er-  
rezatuaz bertan Aita Santuaren intencioraco.

### **Maria chit Santari agurrac eta Esqueñiac.**

1. Chit ondo daquit, Virgiña guztiz  
santa, gauza bearra dedala zure devoto  
eguiazcoa izateco pecatu-mota guztie-  
tatic alde eguitea, zure virtuteac jar-  
raitzea, Sacramentu Santuac maiz ar-  
tzea, gogoco dituzun obsequioen bat-  
zuec zuri esqueinizea, eta errezoac eta  
zure servitzuco gañeraco gauzac ondo,  
gozoro eta aspertu gabe eguitea; onetan  
guztian arico naiz, bada, zure lagun-  
tzarequin, Zuri, nere Ama, atseguin  
emateagatic.



2. Ordu oro errezatuco det Ave Maria bat. Ogunoro Errosarioaren parte bat. Asteoro larumbatetan barautuco naiz, edo cerbaitetan mortificatuco det nere gorputza. Illaren lembicico igandeetan artuco ditut Sacramentu Santuac, eta errezatuco det Errosario osoa.

3. Zurē amorez eta zure honran sayatuco naiz, dezaquedaneraño, misericordiazco amalau obretan.





## MARIAREN GORTEA.



Mariaren Gortea icendatzen  
dan billadan sartuac daudenac  
Virgiña chit Santari eguiten  
diozcaten visitetan esan  
ditzatequen

### ORACIOAC.



Gurutze Santuaren señaleagatic,  
etc.

ŷ. Nere Jaungoicoa, zure la-  
guntza indazu.

Ŕ. Jauna bereala socorri na-  
zazu.

ŷ. Gloria Aita Beticoari.

Ŕ. Gloria Seme Soberanoari.

ŷ. Eta dembora guztietan.

Ŕ. Gloria Espiritu Santuari.

Amen.



Oracioa.

Ceru-lurretaco Erreguiña Soberrana, Jaungoico guizon eguiñaren Ama eguiazco eta guizon guztien Ama erruquitsua, nere icenean eta zuri Gortea eguiteco billada piadosoan sartuac dauden guztienean natorquizu nere visita au esqueintzera, viotz viotzez erregutuaz, beguirada biguñ eta erruquitsu bat gu guztioi eguin dizaguzula. Irichi zaguzu, Señora, zure Seme onagandic gure pecatu guztien barcacioa, Zuri atseguñ eguiñic mundu onetan anima garbi eta amorio biguñarequin, irichi dezagun Zu icusi eta zurequin gozatzea ceruan. Ala uste degu, ó Ama ona, confianza osoa jarriric zure amorio biguñ eta amparu indartsuan, eta dembora guztien demboretan Ai-



tarequin eta Espiritu Santuarequin  
vici dan eta erreinatzen duen zure  
Seme eta gure Jaun Jesusen me-  
recimentu cabu gabeetan, Amen.

## AGURRAC.

1.<sup>ena</sup> O Maria, Aita Jaungoicoa-  
ren Alaba maitea; Maria, Seme  
Jaungoicoaren Ama virgiña; Ma-  
ria, Espiritu Santu Jaungoicoaren  
Esposa garbia: zure Sortze man-  
chagabearen bitartez erregutu eza-  
zu zure Gorteco billada onetan  
sartuac dauden guztiacgatic, bada  
aen icenean eta nerean agur egui-  
ten dizut, esanaz Ainguere-  
quin:

*Ave Maria, etc.*

ÿ. Santa, Santa, Santa cera  
Maria, infernuaren, doctriña gaiz-  
toen eta pecatuaren garailea, zure



gloriaz beteac daude ceru-lurrac.

᝚. Gloria Aita Jaungoicoaren Alaba maite Mariari; gloria Seme Jaungoicoaren Ama virgiña Maria-ri; gloria Espiritu Santu Jaungoicoaren Esposa garbi Mariari.

2.<sup>ena</sup> O Maria, gure bitarteco ernai eta Ama biguña, zure amatasun Jaungoicozco eta virgiñtasun chit garbiaren bitartez erregutu ezazu billada onetaco guztiacgatic, bada oen icenean eta nerean agur eguiten dizut, esanaz Ainguerua-requin:

*Ave Maria, etc.*

ŷ. Santa, Santa, Santa cera Maria, Jaungoico eguiazcoaren Ama eguiazcoa, zure gloriaz beteac daude ceru-lurrac.

᝚. Gloria Aita Jaungoicoaren Alaba maite Mariari; Gloria Seme Jaungoicoaren Ama virgiña Maria-



ri; Gloria Espiritu Santu Jaungoicoaren Esposa garbi Mariari.

3.<sup>ena</sup> O Maria, naigabetuen consolatzallea, eta zure Eleicetan eta Aldareetan zu visitatuaz atseguin ematen dizuten guztien amparatzalle maitea; zure eriotza doatsuren eta gorputz eta animan Ceruratze gloriatsuaren bitartez erre-gutu ezazu billada onetaco guztiac-gatic, bada oen icenean eta nerean agur eguiten dizut, esanaz Aingueruarequin.

*Ave Maria, etc.*

ŷ Santa, Santa, Santa cera Maria, ilcor errucarrien gordele-cua; zure gloriaz beteac daude ce-ru-lurrac.

Ŕ. Gloria Aita Jaungoicoaren Alaba maite Mariari; Gloria Seme Jaungoicoaren Ama virgina Maria-



ri; Gloria Espiritu Santu Jaungoicoaren Esposa garbi Mariari.

### Oracioa.

¡Oh Jaungoicoaren Semearen Ama chit garbi, ceruco Erreguiña; eta guizonen vicitza eta esperanza gozoa! Aditu zayozu, arren, Señora, lagundu eta salvatu gaitzatzula, billada onetaco guztien icenean humillqui erregutzen dagoquizun oni. Zure escuetan dago nor nai salvatu, dio San Buenaventurac. ¡Oh deitzen zaituztenen osasuna, esango dizut Santu berarequin: *O salus te invocantium!* Salva gaitzatzu; Señora, salva gaitzatzu.

Emen Virgiña chit Santa geyago guganontz limurtzeco, eta gure alde jarrierazotzeco, esango dira beraren *Letaniac eta Salvea*.



Ondorean aldan devocio iracequiena-  
requin eta confianza osoarequin escatuco  
zayo Ama ain biguñ eta erruquitzu oni,  
itzuli dizagula egunoro eguiten diozcagun  
visitaetatic bat, berac ere gu visitatuaz  
guere eriotzaco orduan, mundu onetatic  
besteraco gure pausoa izan dezagun ariña  
eta ona Jaunaren beguetan. Onetaraco  
esango da ondorengo.

### Oracioa.

O Maria, Virgiña chit gozoa,  
zure Seme Jaun Jaungoicoac guru-  
tzean azqueneco asnasea eman zu-  
en aurretic, San Juan icasle mai-  
tearen personan zure amorio bigu-  
ñera gomendaturic utzi ninduen  
becela, indazu neri ere baimena  
utzitzeco zure escuetan nere ani-  
ma, nere gorputza, nere vici guz-  
tia, nere pensamentu, itz eta obra  
guztiacquin: baña batez ere, araco  
beticoera guztiraco nere patua  
erabaquico dan azqueneco une eta



trance estu hura. Eta zure eriotza zorionecoan cere Seme guztiz santuac visitatua, eta aren laguntzarequin cerura eramana izan ciñan ezquero, erregutzen dizut, ó Amorrio ederraren Ama biguña, asistitu nazazula nere eriotzaco trancean, ama cariñosa batec bere er-rayetaco semeari asistitzen dion becela, une bat bacarrean ere nigandic alde-eguin gabe. ¡Ah, Señora! zure laguntzarequin eriotza santu bat eguingo dedalazco esperanza osoa daucat; baña laguntzori gabe, nago betico galduco nai-celazco bildur aundi batequin. Eta eguiatz, nere argaltasun eta ecereza icusiric, ¡nola gogor eguin al izango diot infernuco legoyari, eta atzeratu al izango ditut beraren eraso ain aundiac, ain portitzac eta aimbesterañocoac, baldin Zuc,



infernuaren garaile ceran orrec nere aurrean jarriaz, pelean sartzera alaitzen ez banazu? ¿Nola sufritu al izango det nic juicio estu eta cheche hura, baldin Zu Jueza- ren eta nere Ama ceran orrec laguntzen ez badidazu, bitartecotasuna nere alde eguiñaz? ¿Nola eramán al izango det nic, nere peccatuzar eta conta al baño gueyagoen contuartze icaragarria, baldin Zuc escusatzen ez badizquidatzu zure Seme Jaungoicoaren tribunalean, irichiaz guztien barcacioa?

Entzun itzatzu, bada, nere erregu humillac, ó Ama chit maitagarria, lagundu nazazu nere azqueneco agonian, eta ez nazazu desamparatu trance ain estu eta izugarrian. Nere viotz guztitic escatzen dizudan mesede au etzadazu ucatu, Señora, indazula erre-



gutzen dizut, zure Semeari agonian cegoela lagundu ciñion amorio aundiagatic, nere amorez burua macurtzen eta gurutzean iltzen icustean ishuri ciñituen malco ugarri eta samiñacgatic. Eguizu, ó nere Ama,-ez dedilla izan neretzat alperric galdua beraren odol guttiz preciotsua; ezpada des-eguiñduric orain eta nere eriotzaco orduan deabruaren lazo eta engañoac, eta libraturic beraren erasoetatic, eman dezadala nere azque-neco asnasea zure laguntza eta amparupean, gozatzeco Zurequin batean betico atseguñac ceruco glorian. Amen.

Ama graciazcoa, Ama misiricordiazcoa, gure etsayetatic gorde eta ampara gaitzatu orain eta guere eriotzaco orduan.



Anima galtzalleac  
Nere agoni tristean  
Testiguanza gogorra  
Eguiten didanean,  
Betico ni galtzeco  
Ipintzen duenean  
Bere astruci guztia  
Menaz ta aleguiñean:  
Trance larri estu artan,  
Nere Ama on, Maria,  
Zu izan bearco zazquit  
Amparu ta alegria,  
Etsai guztien contra  
Indazu vitoria,  
Gracia mundu onetan  
Ta ceruan gloria. Amen.







DEBENT





# VIRGIÑA CHIT SANTAREN HONRAN

## ERROSARIOA.



### SARREBA.

Errosarioa icendatzen dan oracioa da, Meza santuaz ostean Jaungoicoaren eta Virgiña chit Santaren devocio-ric gogocoena, guizon guztientzat prochugarriena dan becela: esanarequin Jaungoicoaren Amac berac eracutsi ciola aita Santo Domingo aundiari, munduco premiatic estaltzeco esremedio eraguilletzat, eta emateco guizonai beren buruac salvatzeco bear dituzten graciatic: eta bera errezatzen esaten diran amarrecoac dirala, animac cerura joatean igotzen diran escallera aundico mallac becela, eguiña dago Maria-renganaco devocio bicañena dan onen



alabanza, zori onecoac milla bider, araco Mariari devociozco zor au pagatu gabe egunic utzitzen ez duten persona eta familia aec; bada graci aundi eta ugariac artuco dituzte Ama on onegandic vicitzan, are bereciagoac erioztaco orduan, eta azquenic betico gloria.

Eguia da ascoc egunoro, edo beintzat gueyenetan errezatu oi dutela, baña ain gaizqui, non, uste izan ditequean, Maria honratzeco baño obeto bera isecatzeco eguiten dutela, eracarriaz beren buruai Virgiña orren graci en orde z be raren aserre bidezcoa; zuc bada, desgraci au ceregan sentitu bearra izan ez dezazun, aditu nazazu, ala baña esatera noaquizu, laburcho bederic; cer moduz errezatu bear dezun.

Errosarioa errezatzen asitzean jarri co cera modu egoqui eta devociozcoan, utziaz Aingueruen eta guizonen Erreguiñarequin itz eguiteco ongui ez diruditen egoera guztiac; ez dezu egon bear itz-eguiten, edo lo, edo ao-zabalca, edo bucatu besteac baño lenago edo gue roago, ez eta errezatu ere cantuan ari



baciña becela, bada orrec dacar loalea edo devocioa galeraztea; lan santu oni ez dagocan gauzaric ez dezu galdetuco, eta errezatzen etzera asico besteac beren partea errezatu arteraño; bada goragalea ematen duen gauza da aditzea batzuei *Santa Maria* esaten, besteac *Ave Mariaren* erdiraño oraindic irichi baño len, guztia alperric galduaz, eta itzcuntza naspillatu bat elcarren artean erabilliaz, ceñarequin aditzera ematen duten, ez Jaungoicoaren Ama honratzeco, ezpada deabrua jostatzeco bildu dirala. Ez ezazu, bada, zuc orrela eguin: para ezazu arret aundia itzac esateco sosegu onean, osoac eta ez erdijanac edo ebaquiac becela, beta eman zayezu lagunai eguin dezaqueten bere bat, eta guztia joan dedin devocio onean. Itz-eguin bear baciñoque lur-reco erreguiñaren bati etziñaque nosqui nola nai egongo beraren aurrean ezpada alic errespeto aundienean eta modutsuenean, eta gañera contu aundia jarrico cenduque, ala cerorrec itzeguin bearco ciñoquenean, nola aditzeco arc erantzungo lizuqueana: piztu



ezazu, bada, zure fedea, eta jaquizu, ecen, Errosarioa errezatzen zaudenean, ceru-lurretaco Erregue eta Erreguiña diran Jaungoicoarequin eta Mariarequin itz-eguiten dezula, eta pensamentu onec moduz eta contuz egonerazoco zaitu. Eta irichi ditzaquitzun devocioz errezatzen dutenai eman oi diezten gracia, ala gorputzeco nola animacoac, mundu onetaco eta bestecoac, ecarri itzatzu gōgora meditatzen dezun misterio bacoitzean part-artzen duten personac, eta onec ere lagunduco dizu, zu salvatzeco Jesus eta Mariac cembat eguin duten ezagüerazotzen: gogoracio oecquin zure viotza erdiratuco da peccatu eguiñaren, eta mesede aundienai esquergabequeri ichusienaquin erantzunaren damuz; iracequico cera Jesus eta Mariaren pausoai jarraitzeco deseovicietan, eta escatuco dieztezu bear dituzun gracia, eta ez dudatu emango dizquitzutela; eta sayatuco cera cerorren salvacioa iristen ez ecic besteena ere, ceña escatu, eta aen bitartez irichico dezun. Erreza ezazu, bada, Errosario santua devocioz eta atencioz, eta



uste det, obraz jarrico dezula ala egu-  
teco contura ecarrierazo dizudan guz-  
tia.

Errosarioa errezatzean loalea bada-  
torquizu, alcha zaitez bereala, eserita  
baldin bazaude eta erreza ezazu ibi-  
llian, edo beguiac urez busti itzazu.  
Baña canic onena litzaque echecho guz-  
tiac belaunicatzea, guelan beti iduqui  
bear dezun Virgiña chit santaren ima-  
giña aurrean, ceñari agur eguingo dio-  
zun sartzen eta irtetzen ceran guztian,  
esanaz benic bein: *Agur, Maria chit  
garbia, pecatu gabe sortua.*

Astelen ostegunetan errezatzen dira *Gozozco* mis-  
terioac; astearte ostiraleetan *Dolorezcoac*; eta as-  
teazquen, larumbat eta igandeetan *Gloriazcoac*:  
baña egun oetacoen batean guertatzen balitz Jesu-  
cristo gure Jaunaren edo Ama Virgiñaren jai, mis-  
terioaren bat oroituazten diguna, esaten dira mis-  
terioari dagozcanac, eta ez asteco egunari begui-  
raturic esan bear ciranac; demagun: ¿Jesucristo-  
ren jayotzaco eguna guertatzen da asteartean edo  
ostiralean? *Dolorezcoac* utzirik, mediatu bitez  
*Gozozcoac*. ¿Ama Virgiñaren Asuncioa edo cerura  
igo zaneco jaya dator astelenean edo ostegunean?  
utzi bitez *Gozozcoac*, eta mediatu *Gloriazcoac*,  
etc., etc., eta orobat eguin bedi urte barrunbeco  
beste gañeraco jayetan.



## ERROSARIOA ERREZATZECO MODUA

---

Gurutze Santuaren, etc.

Jauna, nere ezpañac idiqui itzatzu.

Eta nere mingañac zure alabantza eguingo du.

Nere Jaungoicoa, amparuzco beguirada eguidazu:

Eta nere etsayetatic gorde nazazu.

Gloria Aitari, Semeari, eta Espiritu Santuari.

Dembora guztien demboretan Amen,

## ESQUEÑIA.

Gure pensamentu, itz eta obra guztiac zucendu eta ontzat ar itzatzu, gure Jaun Jaungoicoa: eta Zuc, Virgiña Soberana, irichi zaguzu zure Errosario chit Santua devocioz errezatzeco gracia.

*Gaur mediatu bear ditugun misterioac dira....*





## Lembicico misterio Gozozcoa.

Lembicico misterio Gozozcoa da, Maria chit Santaren errai garbi garbietan Jaungoicoaren Semea Guizon eguitea: misterio onen erreverencian errezatuco ditugu *Aitagure* bat, amar *Ave María* eta *Gloria* bat.





### Bigarren misterio Gozozcoa.

Bigarren misterio gozozcoa da, Maria chit Santa bere lengusu Santa Isabel visitatzera joan zane-coa: misterio onen erreverencian errezatuko ditugu *Aita gure* bat, amar *Ave Maria* eta *Gloria* bat





## Irugarren misterio Gozozcoa.

Irugarren misterio gozozcoa da, Jaungoicoaren Semearen Jayotza Belengo escaratzean: misterio onen erreverentzian errezatuko ditugu *Aita gure* bat, amar *Ave Maria* eta *Gloria* bat.





### Laugarren misterio Gozozcoa.

Laugarren misterio gozozcoa da, Maria chit Santaren Purificacioa edo Garbiquera, eta Jaungoicoaren Semea Elizan sartzea: misterio onen erreverencian errezatuko ditugu *Aita gure* bat, amar *Ave Maria* eta *Gloria* bat.





## Bostgarren misterio Gozozcoa.

Bostgarren misterio gozozcoa da, Maria chit Santac bere Semea galdu ondorean, legue-jaquintsu-acquin argüimenduan Elizan arquite zuenecoa: misterio onen erreverencian errezatuco ditugu *Aitagure* bat, amar *Ave Maria* eta *Gloria* bat.





### Lembicico misterio Dolorezcoa.

Lembicico misterio dolorezcoa da, odola eta ura icerditzerañoco agonian Jesucristo gure Jaunac eguin zuen baratzaco oracio triste eta cupigarria: misterio onen er-reverencian errezatuco ditugu *Aita gure bat, amar Ave Maria eta Gloria bat.*





### Bigarren misterio Dolorezcoa.

Bigarren misterio dolorezcoa da Cristo gure Jauna pillare bati loturic, gogortasun aundiarequin odola lurrera ishurtzeraño azotatua izandu zanecoa: misterio onen erreverencian errezatuko ditugu *Aita gure bat*, amar *Ave Maria* eta *Gloria* bat.





### Irugarren misterio Dolorezcoa.

Irugarren misterio dolorezcoa da, Jesus gure Erredimitzallea arantzaz coroatua, istuz betea, masallean joa eta lotsagarrero tratua izandu zanecoa: misterio onen erreverencian errezatuko ditugu *Aita gure* bat, amar *Ave Maria* eta *Gloria* bat.





### Laugarren misterio Dolorezcoa.

Laugarren misterio dolorezcoa da, Cristo gure Jaunac pena eta neque aundiarequin Calvarioco mendiraño bere bizcar gañean gurutzea eramán zuenecoa: misterio onen erreverencian errezatuko ditugu *Aita gure* bat, amar *Ave Maria* eta *Gloria* bat.





## Bostgarren misterio Dolorezcoa.

Bostgarren misterio dolorezcoa da, Cristo gure Erredimitzalleac escu-oñetatic gurutzean josia izandu zanean, bertan gure amorez vicia eman zuenecoa: misterio onen erreverencian errezatuco ditugu *Aita gure bat*, amar *Ave Maria* eta *Gloria bat*.





### Lembicico misterio Gloriazcoa.

Lembicico misterio gloriázcoa da, Cristo gure Jaunaren Pizte garaya: misterio onen erreverencian errezatuco ditugu *Aita gure bat*, amar *Ave Maria* eta *Gloria bat*.





### Bigarren misterio Gloriazcoa.

Bigarren misterio gloriázcoa da, gorputz eta animan Cristo gure Jaunaren Ceruratze miragarria: misterio onen erreverencian errezatuko ditugu *Aita gure* bat, amar *Ave Maria* eta *Gloria* bat.





## Irugarren misterio Gloriazcoa.

Irugarren misterio gloriázcoa da, Espiritu Santuaren etorrera Apostolu Bilcui sagraduaren gañe-  
ra: misterio onen erreverencian  
errezatuko ditugu *Aita gure* bat,  
amar *Ave Maria* eta *Gloria* bat.





## Laugarren misterio Gloriazcoa.

Laugarren misterio gloriázcoa da, Maria chit Santa gorputz eta animan cerura zanecoa: misterio onen erreverencian errezatuco ditugu *Aita gure* bat, amar *Ave María* eta *Gloria* bat.





## Bostgarren misterio Gloriazcoa.

Bostgarren misterio gloriazcoa da, Maria chit Santa ceru-lurreta-co Erreguiña Soberanatzat coroa-tua izan zanecoa: misterio onen erreverencian errezatuco ditugu *Aita gure* bat, amar *Ave Maria* eta *Gloria* bat.



## AGURRA.

Agur Maria, Aita Jaungoicoaren Alaba; agur Maria, Seme Jaungoicoaren Ama; agur Maria, Espiritu Santuaren Esposa; agur Maria, Trinitade guztiz Santuaren Eleiza eta Sagrarioa; agur Maria, jatorrizco pecatuaren mancha gabe gracion sortua. Amen.


### ESQUER EMATEAC.

Milla esquer ematen dizquitzugu, Erreguiña Soberana, zure escu onguilletic egunoro artzen ditugun mesedeacgatic: iduqui gaitzatzu, arren, Señora, orain eta beti cere amparu eta mantupean, eta gure deseo onetara are obeto jarrierazo zaitzagun, agur eguingo dizugu Salve batequin.

*Salvea, Jaungoicoac salva zaitzala, etc.*



## AMA VIRGIÑAREN LETANIAC.



Jauna, erruqui zaitez guzaz.  
Cristo, erruqui zaitez guzaz.  
Jauna, erruqui zaitez guzaz.  
Cristo, adi gaitzatzu.  
Cristo, entzun gaitzatzu.  
Ceruetaco Aita Jaungoicoa, Erruqui zaitez guzaz.  
Munduaren Erredimitzalle Seme Jaungoicoa, Erruqui, etc.  
Espiritu Santu Jaungoicoa, Erruqui, etc.  
Trinidad Santu Jaungoico bat cerana, Erruqui, etc.  
Maria Santa, Erregutu ezazu gugatic  
Jaungoicoaren Ama Santa,  
Virgiñen Virgiña Santa,  
Cristoren Ama,  
Jaungoicozco graciaren Ama,  
Ama chit garbia,  
Ama chit casta,  
Virgiña ceralaric Ama,  
Ama tacha gabea,  
Ama sertzez garbia,

*Erregu ezazu gugatic.*



Ama maitagarria,  
Ama miragarria,  
Eguillearen Ama,  
Salvatzallearen Ama,  
Virgiña chit beguiratua,  
Virgiña beneragarria,  
Virgiña alabagarria,  
Virgiña escual aundicoa,  
Virgiña beraá,  
Virgiña leiyala,  
Virtute guztien ispillua,  
Jaquinduriaren eser-lecua,  
Gure atseguin ecarlea,  
Ontzi espirituala,  
Ontzi honragarria,  
Devociozco ontzi bicaña,  
Arrosa misteriozcoa,  
Daviden dorrea,  
Marfillezco dorrea,  
Urrezco echea,  
Elcartasunezco cucha,  
Ceruco atea,  
Egun sentico izarra,  
Erien osasuna,  
Pecatarien gorde-lecua,  
Atsecabetuen pozquidatzallea,  
Cristauen laguntza,



Aingueruen Erreguiña,  
Patriarcaen Erreguiña,  
Profetaen Erreguiña,  
Apostoloen Erreguiña,  
Martirien Erreguiña,  
Confesoreen Erreguiña,  
Virgiñen Erreguiña,  
Santu guztien Erreguiña,  
Jatorrizco pecatuaren mancha gabe sor-  
tutaco Erreguiña,

Errosario chit Sagraduaren Erreguiña,  
y. Munduco pecatuac quentzen di-  
tuzun Jaungoicoaren Bildotsa.

R/. Barca zaguzu, Jauna.

y. Munduco pecatuac quentzen di-  
tuzun Jaungoicoaren Bildotsa.

R/. Adi gaitzatzu, Jauna.

y. Munduco pecatuac quentzen di-  
tuzun Jaungoicoaren Bildotsa.

R/. Erruqui zaitez guzaz.

y. Jaungoicoaren Ama Santa, erre-  
gutu ezazu gugatic.

R/. Cristoren aguinduen diña eguin  
izan gaitean.



## Oracioa.

Erregutzen dizugu, Jauna, ishuri dezazula gure animetan zure gracia, Jesucristo zure Semearen Guizon eguitea Aingueruac adierazoric ezagutu guenduenoc, beraren pasio eta eriotzagatic eramanaic izan gaitean gloriaco piztuerara. Gure-Jaun Jesucristo berperagatic. Amen.









MARIA CHIT SANTAREN

**ZAZPI DOLOREETACO COROA.**

---

Gurutze Santuaren, etc.

Jauna, nere ezpañac idiqui itzatzu.

Eta nere mingañac zure alabantzaz eguingo du.

Nere Jaungoicoa, amparuzco beguirada, eguidazu.

Eta nere etsayetatic gorde nazazu.

Gloria Aitari, Semeari eta Espiritu Santuari.

Dembora guztien demboretan.  
Amen.

PRESTAERACO ORACIOA.

Virgiña manchagabea, Ama er-  
ruquitsua, penaz eta samintasunez  
betea; viotzeco mendetasun guz-



tiarequin erregutzen dizut, argui-  
tu dezazula nere adimentua eta  
iracequi nere vorondatea, viotz vi-  
ci eta cupidacorreze erabilli ditza-  
dan gogoan Coro santu onetan ai-  
patzen diran Doloreac, irabaci al-  
izateco lan santu onetan aritzen  
diranai aguindutaco graci eta me-  
sedeac. Amen.







### Lembicico Dolorea.

Zuzaz Señora cupitzen naiz, zure Semearen pasioan zure viotza batetic bestera pasatuco zuen dolorezco ezpata Simeonec adieraci cizunean sentitu cenduen doloreagatic. Indazu, nere Ama, sentiditzadala nere viotzean zure Semearen pasioa eta zure doloreac. Dolore onen oroipenean artaratzen zaitudalaric *Aita gurea*, zazpi *Ave Maria* eta *Gloria* batequin.





### Bigarren Dolorea.

Zuzaz, Señora, cupitzen naiz,  
Egiptora igues-eguitean, biraje lu-  
ce artan pobre eta premiaz beteric  
sentitu cenduen doloreagatic. In-  
dazu, Señora, nere etsayen perse-  
cucioetatic libra nadilla: artara-  
tzen zaitudalaric dolore onen oroi-  
penean *Aita gurea*, zazpi *Ave Ma-  
ria* eta *Gloria* batequin.





### Irugarren Dolorea.

Zuzaz, Señora, cupitzen naiz, zure Semearen galeran Jerusalemen iru egunez izan cenduen doloreagatic. Indaizquidatzu, arren damu eguiazcoaren malcoac, zure Semea aimbeste bider galduerazo didaten pecatuacgatic negar eguin, eta bético arquite dezadan: artaratzen zaitudalaric dolore onen oroipenean *Aita gurea*, zazpi *Ave Maria* eta *Gloria*. batequin.





### Laugarren Dolorea.

Zuzaz, Señora, cupitzen naiz, zure Semea gurutzearequin cargaturic Calvariora, iseca, burla eta eroricoen artean bide eguiten icustean izan ceduen doloreagatic. Indazu, Señora, nere pena eta neque guztien gurutzea paciencian eramate-teco gracia: artaratzen zaitudalaric dolore onen oroipenean *Aitagueua*, zazpi *Ave Maria* eta *Gloria* batequin.





### Bostgarren Dolorea.

Zuzaz, Señora, cupitzen naiz, zure Semea lapur biren erdian gurutzean josia icustean izan cenduen doloreagatic. Eguizu, Señora, ni ere nere vicio eta griñac gurutziltzaturic vici nadilla: artaratzen zaitudalaric dolore onen oroipean *Aita gurea*, zazpi *Ave Maria* eta *Gloria* batequin.





### Seigarren Dolorea.

Zuzaz, Señora, cupitzen naiz, zure Seme guztiz Santuaren gorputz illa, eta aimbeste llagaz eta zauriz odol-ustua cere besoetan artzean izan cenduen doloreagatic. Eguizu Señora, vici dedilla nere viotza Jaungoicoaren amorioac eritua, eta munduco gauza guztietaraco illa: artaratzen zaitudalaric dolore onen oroipenean *Aita gurea*, zazpi *Ave Maria* eta *Gloria* batequin.





### Zazpigarren Dolorea.

Zuzaz, Señora, cupitzen naiz, zure Seme maitea lurpetutacoan, cere bacardadean izan cenduen dolo-reagatic. Eguizu, Señora, lurreco gauza guztietaraco illic gueraturic, Zuretzat bacarric vici nadilla: artaratzen zaitudalaric dolore onen oroipenean *Áita gurea*, zazpi *Ave Maria* eta *Gloria* batequin.



Zure begui chit garbiac cere Seme maitearen vicitza, pasio eta eriotzan ishuri cituzten negar malcoen oroipen eta erreverencian esqueintzen dizquitzut iru *Ave Maria*.

### Oracioa,

Maria Virgiña chit garbia, Simeon profetac aldeaurrez aditzera eman cizun dolorezco ezpataz violetza erdiratua; Egiptora igues eguitean ernaitsu eta premiaz inguratua; Seme galdutacoa billatzen triste eta atsecabetua; gurutzearequin cargatua cijoala topatzean samintasunez eta negarrez betea; agonian eta iltzen icustean naigabetua eta antsiatua; Seme illa besoetan cenducanean penaz eta oñacez gañ eguiña; lurpetua utzitzean bacardadean eta consuelo gabe guelditu ciñana: humillqui er-



regutzen dizut, ecen, baldin esca-  
tzen dizudan gracia balitz Jaun-  
goicoaren gloria gueyagoraco eta  
nere animaren oneraco, irichi za-  
dazula beraren Jaincozco Mages-  
tadeagandic, eta bestela, eguin  
dedilla guztian beraren vorondate  
santua, eta nic iñoiz ere ofenditu  
ez dezayodala. Orobat escatzen di-  
zut erregutu dezazula Erromaco  
gure Aita Santuagatic, principe  
cristaüen arteco paque eta elcarta-  
sunagatic, fede santua gueyago eta  
gueyago zabaltzeagatic, herejiac  
des-eguiteagatic, fedegabeen con-  
versioagatic eta turcoen beerape-  
nagatic: beguira zayezu erruquiz  
zure devotoai, eta eman zayeztezu  
graciazco laguntza bereci bereciac  
Jaungoicoaren eta zure gloria gue-  
yagoraco. Amen.

Acabaera emango zayo *Salvearequin*.





## CRISTAU GUZTIAI ERREGUA,

erabilli dezaten goputzean

Virgiña chit santaren escupla-  
rioa, errosarioa edo medalla.

Chit ona eta alabagarria da Maria Virgiña chit santaren escuplario, edo errosario, edo medallaren bat nor berac soñean edo berequin erabiltzea, ceren orrela Maria honratzen da, eta gu guera socorrituac, ala gorputzeco nola animaco premietan. Liburuetan iracortzen danez, Maria Virgiñaren escuplario, errosario edo medallaren bitartez sendatutaco personac, eta gorputzeco gaitzetatic ere gordeac izandu diranac,



conta al baño gueyago dira. Eguiaz, beraren virtutearen indarra ain aundia eta anciñacoa da, non, testamentu zarrean arquitzen dan nolerebait señalatua eta iduritua; bada Erregueena deitzen dan III garren liburuan, II garren capituloco 26 garren biursachoan iracortzen da, Abiatar libratua izan zala merecitu izan zuen eriotzatic, Salomonec esan cion beçela: eta ¿cergatic? ceren eraman izan zuen Mariaren ichura edo irudia zan Testamentu zarreco cucha.

Asco dira animaco gaitzetatic sendatu diranac ere, baña Virgiña chit santaren medalla gorputzean ipiñi edo erabiltzearequin convertitu dira: ondo zabaldua, jaquiña eta urte guichiz ononzoa da Ratisbona juduaren conversio sonatua: eta ¿cembat eta cembat convertitzen diran egunoro, Mariaren Viozeco Archicofradi edo elcartasunean sartutacoac partitzen dituzten medallaen bitartez, beste asco gueyagoc gauz au bera dala bide gracion irauten eta virtutean aurreratzen duten bitartean!

Beragatic, bada, zuc, cristau chit



maitea, erabiltzu beti cerequin Maria chit santaren escuplario, errosario edo medalla, eta adora ezazu goicetan oetic jaiquitzean, bada bidezco gauza da; zuc ere gai onetan hume onai jarraitzea, au da, goicean jaiquitzen diranean, escuetan muñ eguita beren gurasoai: eguizu berebat arratsean esnatzen baldin bacera, eta bidezquiago tentacioren batec atsecabetzen bazaitu, ceren estura artan Mariari benaz deitu ezquero, ez dezu cerzaz bildur izanic, eta alimoa galtzeco bideric; alabaña, baldin berari deica irmo irauten badezu, nic segurutzen zaitut, beti gara ateraco cerala. Eta escuplarioa, errosarioa edo medalla cerorrec erabilli ez ecic, cere partetic eguin bear dezu aleguiña besteac ere erabilli dezaten, era onetan gordeac izan ditezquean gorputzeco eta animaco gaitz guztietatic, eta parte izan ondasun ain aundian.



## VEZPERAC.



### LENENGO SALMORACO EJERCICIOA.

*Animac̄ deitzen dio Jaungoicoari eta humi-  
llatzen da.*

Atoz, atōz nere Jaungoico viotzeco; atoz, eta ez luzatu neri aleguin eguin gabe.

Zu cera nere Aita, eta ni zure semea esquer gabea banaiz ere; atoz Jauna, eta etzaitzala guelditu nere gaizqui eguiñac bada damutua arquitzen naiz.

Nic deitzen dizut Jauna nere ecerez-tasunaren barrendic, izan dezazula er-ruquimentua nere anima tristeaz.

¿Cer aldezaquet nic zu gabe nere viotzeco Jaungoicoa? surtaraco dagoan mats adarra becela erremedio gabe galduco naiz.

Ni naiz peccatari pobre errucarri bat: indazn bada zure gracia, bada au gabe ecin dezaquet eguin gauza onic; baña bai peccatua.



Pecatua da bacarric icaratzen nabien gauza; cergatic galeracitzen diran Jaungoicoa eta au galdu ezquero gal-tzen det guztia.

Gauza guztiac aitutzen dira mundu onetan; baña Jaungoicoa beti bicico da eta eguingo du nere zori ona edo gaiz-toa nic bera maitatzen edo ofenditzen deran guisan.

Nere Jaungoicoa nic sinisten ditut eguia oyec guztiac eta humillatzen naiz zure magestade cabu gabearen aurrean.

Zu cera nere Jaungoicoa, eta ni zure servitzari ecerez bat, eta ala laguntza escatzen dizut barren barrendic.

Ez det mereci Jauna castiguac bes-teric; baña guztia esperatzen det, zure ontasuna gandic, cergatic zure odolaz irabaci ninduzun.

Bacarric gauza bat deseatzen det, eta bacarric gauza au asco det, eta da nere Jaungoico aundia neretzaco izatea, lur-rean eta ceruan.

Gloria Aitari, gloria Semeari, gloria Espiritu Santuari, dembora guztien demboretan. Amen.



## BIGARREN SALMORACO EJERCICIOA.

*Jesucristoren merecimentuac eman bear  
digute confianza aundi bat.*

¡Oh Jaungoico eta Aita eternoa! baldin nere-gaiztaqueriac ematen badizquidate motivoac beldurtzeco, zure Semea Jesucristoren merecimentuac esqueintzen dizquidate motivo ascoz aundiagoac zugan esperanza iduquitzeco.

Motivo oyec dira ascoz eraguilleagoac ni salvatzeco, nere pecatuac diran baño ni condenatzeco.

Eguia da nic pecatu eguin nuanean firmatu nuala betico nere condenacioa: baño eguia ere da nere Redentore maitteac urratu zuala nere condenacioco papera eta bere odolarequin erosi ninduala.

Nere culpac nere contra deadarrez daude; baño Jesusen odol balio aundi-coac nere favore deitzen du eta Jaungoicoaren gorrotoa aplacatzen du.

Odol guztiz precioso au Jaungoicoa-



ren misericordia irabazteco indar aundiagocoa da, Cain galtzeko Abelena izan zan baño.

¿Nola nic etsico det barcacioaz, Jesus nere amorioagatic gurutzean josita ill bada?

Chit uste osoa daucat ni salvatzeagatic aimbeste sufritu zuanac, emango dirala gracia cerua irabazteco.

Asi gaitecen anima nerea graciaren billa barcacioa eta misericordia iristeco asmo osoarequin.

Baña asi bear degu bereala, ez dezagun demboraric galdu, cergatic guero bear bada lecuric izango ez degu.

¡Oh nere Jesus! errecibitu ezazu nere amorioa, vorondatea eta viotza; bada chit asco nai dizut eta guero ere eternidade guztian alashen naico dizut.

Gloria Aitari, gloria Semeari, etc.

## **IRUGARREN SALMORACO EJERCICIOA.**

*Trabajuetan paciencia.*

Jaungoicoaren semea guizon eguiñic



jechi zan lurrera guri eracusteco bere hitzez eta ejemploz pacienciarequin emengo nequeac sufritzen.

Ecín chit doatsuac izango guera cerura joan arteraño; lurra trabajuzco eta dolorezco lecu bat dalaco.

Lurrean laburra da gure vicia, eta dembora guchi au, penaz eta dolorez betia dago.

Oyec pacienciarequin eramaten dituana salvatuco da, eta onela eguiten ez duana betico condenatuco da.

Trabajuzco galbayan pasatzen da alea Jaungoicoaren Elizan.

Trabajuac pacienciarequin eramaten dituana, ceruraco apartatutaco alea da; baña beste aldera eguiten bada Jaungoicoac usten du infernucó sutaraco apartatutaco lastoa becela.

Redentorearen llaga guztiac dira beste aibeste mingaiñ eracusten digutenac eramaten bere amorez neque ta doloreac.

Jesucristoc gugatic padecitu zuan eta iltzan: Santuen jaquinduria da, Jesucristogatic padecitzea.

Jesucristo amatzen eta aren amorez



penatzen dago, animen merecimentu guztia.

¡Oh nere Jaungoico Redentorea! eza-güerara ecarri zadazu cembat nai izan didazun eta cembat ni gatic padecitu dezun, nic ere maitatu zaitzadan eta padecitu dezadan zugatic.

Jauna zure graciarequin lagundu eguidazu, bada espiritua pronto egon arren, aragua gashoric arquitzen da.

Sufritu bear det nola nai mundu onetan; bada padecitu nai det nequeac eta trabajuac pacienciarequin eramana.

Gloria Aitari, gloria Semeari, etc.

## LAUGARREN SALMORACO EJERCICIOA.

*Lagun progimoaganaco caridadea.*

Jaungoicoa maitatzen duan animac, amatzen ditu ere guizonac, cergatic diran Jaungoicoaren antzera eguiñac.

Caridadeac gure antzecoac socorritzeco eta consolatzeco billatzen ditu bide guztia.

Caridadea da virtute guztietan one-



na, Jaungoicoac asco escatzen diguna; beragatic eguin bear degu dembora eta lecu guztietan.

Eguin bear degu caridadea beartsuenac diranaquin, ceren ascotan diraden despreciatuac munduco arro ta soberbioac gandic.

Eguin bear degu caridadea gaisho arkitzen diranaquin, cergatic dauden naigabez beteric eta gueyenean inoren laguntzaric gabe.

Eguin bear degu caridadea onguille eta adisquideaquin, cergatic au escatzen digun ezaüera onac eguiteco.

Eguin bear degu caridadea gure etsayaquin: bada Jaungoicoac ala escatzen digu cergatic gure antzecoac diran.

Aborrecitu bear degu pecatua, errorea eta fedean utseguitea; bañan ez peccataria, ez herejea, ezta ere religio gabea, cergatic diran Jaungoicoac eguinan.

Pacienciarequin eta humildadearequin garaitzen dira arroqueric eta soberbia: eta gorrotoa biguntasunarequin eta amorioarequin.

Espiritu caridadezco au da Jaungoi-



coaren espiritua; hitzez eta obraz eracusten digu Jesucristoc berac.

Santuac iduqui zuten espiritu au; eta bear degu guc ere iduqui, parteric nai badegu izatea ayen triunfoan eta co-roan.

Gloria Aitari, gloria Semeari, etc.

## BOSTGARREN SALMORACO EJERCICIOA.

*Jaungoicoaganaco amorioaren gañean.*

Maitatu bear degu Jaungoicoa gauza guztiac baño gueyago, eta deseatu bear degu maitatzea gure maitagarria dan becela.

Jaungoicoa da iturria eta asiera amorioarena, eta ala amatu bear ditugu criaturac Jaungoicoagatic eta berac nai duan becela.

Gure etsayac aleguiña eguiten digu criaturaganaco amorioa galeraztea, eta deseo oni lecuric ematen dionac galtze-co peligro aundian arkitzen da.

¿Cér balio dit criaturac maitatzea eta ayec ni maite izatea, baldin Criadoreac gorrotoa badit?



¿Cér galtzen det nic munduac gorrotoa izanagatic, baldin Jaungoicoac estimatu eta maite banau?

Nic esango det guelditu gabe; nere consuelo guztia dala Jaungoicoa maitatzea, eta bera servitzea nere eguiteco guztia.

Nere Salvatzalle gozoa, gogoz artu, eta añaditu dezazu nere deseo au, eta galdu eguidazu zure antzecoa ez dan amorio guztia.

Zure ontasun paregabean pensatzen, ni consolatzen naiz, bada ontasun aundi onec beregandic pecatari damutua beñere botatzen ez du.

Zuc, Jauna, maitatua izatea chit asco mereci dezu, eta mesederic asco nic zure escutic artu eta artutzen ditut eta maitatu nai zaitut beti.

Nere Jaungoicoa, ona emen ni zure amoriora oso biurtuba, eta zure amorean empleatuco nituque milla viotz banitu ere.

Zuc nai dezu nere amorioa, nic nai zaitut maitatu orain eta beti eternidade guztian.

Gloria Aitari, Gloria Semeari, etc.



## HIMNORACO EJERCICIOA.

*Jaungoicoari entregatua dagoan anima  
baten afectoac.*

Zuri deadarrez nago ¡Oh Jaungoico guztia dezaquezuna! Atoz eta ez luzatu neri laguntzea eta socorritzea.

Nere etsayac erasotzen dirate beti; baña zuc lagunduco dirazu, Jauna, eta ni asco peleatuco naiz ill arteraño.

¡Ay cein dulcea dan zure adisquidetasunean vicitzea! ¡Ay cer consueloa zure escuetan iltzea!

¡Oh Jauna! ¡Zu cera nere Aita, nere Ama eta nere Anaya!

Baña ¡Cér Aita, cer Ama eta cer Anaya?

Aitaric gozoena eta poderosoena, Amaric dulceen eta biguñena, Anayaric leyalena eta onena.

¡Oh Aita beticoa! ni izango naiz beti zure seme eta servitzari leyala.

¡Ah Jauna eta nere Jabé gozóa! nic nai dedana da zurequin vicitzea, ta



zure adisquidetasunean iltzea; eta zure glorian erreinatzea nic nai nuqueana.

¡Oh nere ondasun viotzeco! ¡Zu cerra edertasun miragarria!

Nic maitatuco zaitut, eta beñere zutzaz aztuco ez naiz.

Artu zaizquidazu, Jauna, esqueintza oyec eta indazu zure aunditasunac ondo ezagutzeco gracia.

Jauna, -nic ezagutzen det nere ustasuna: nic aitortzen det nere indignida-dea.

Baña esan dezu zuc cerorrec: «Utzi zayezute chiquichuenai nigana etortzen, eta ni nator zure adisquidetasunaren billa.»

Jauna iracequi zazu nere barren au: nere vorondatea indartu zazu, zu beti alabatu zaitzadan eta beti zugan pensatu dezadan.



## MÀGNIFICARACO EJERCICIOA.

*Maria Santisimari alabantzac animac emanaz bere laguntza escatzen dio.*

¡Oh Maria, Jaungoicoaren Ama! Zu cera Aingueru guztiaç baño aundiagoa virtutean eta aguintean, baita ere gure esperanza Jaungoicoaren urrena.

¡Oh Erreguiña mundu guzticoa! Zu cera affigituen consueloa, gaishoen osasuna, peccatarien esperanza, eta justuen atseguña.

Señora, Zu cera virtutezco ramillete edo lorapilla ederra; irichi zaizquigtzu humildadeco lorea, garbitasunaren lirioa; eta arrosa caridadezcoa.

¡Oh Jesusen Ama maitea! Zure Semeac aditzen zaitu eta hitzeguin zayozu, eta escatu neretzat gracia aundiac.

Auzpez jarriric zure oñetan escatzen dizut nere peccatuen barcacioa irichi deguidazula, eta zure Seme ta nere Redentorearequin bat eguiteco zori ona.

¡Oh Maria beti miragaria! gogora ecarri ezazu nola Jaungoicoaren Semea zure entraña garbietan eguin zan guizon, peccatariac ez galtzeco, baicican salvatzeco



Nere Ama eta bitartecoric onena, zure servitzari leyalen artean artu nazazu.

Zure ondasunac eta erregaloac eman zaizquidatzu, bada Aingueruac graciaz betea agur eguiten dizu.

Jaungoicoa poztutzen da bere servitzari leyala goratzen: beratzen dituan bitartean lurreco aundi nai eta arroac.

Erreina eta erri guztia zori onecoa esaten dizute, eta guizalditic guizaldira zure icen santua escogituen consueloraco goratuaz joango da.

Gloria Aitari, gloria Semeari etc.

## ORACIOA.

¡Oh nere Jaungoico Salvatzallea! pagatzea gatic nere pecatuen zorra, izan ciñan socaz lotua, iltzez josia, eta gaizquille bat becela gurutzean illa: escatzen dizut nere culpacgatic, negar eguiñaz, eman deguidazula zu servitzeco, eta beñere ez ofenditzeco bear dedan gracia. Jauna zure escuetan ni jartzen naiz eta artu nazazu eta iduqui zure amorioan dembora guztietan. Amen Jesus.



# GURUTZE BIDE EDO CALVARIOCO EJERCICIO SANTUA.



## OARQUERA.

Cristauac eguiten dituen devocio guztien artean aundiena eta onena, eta Jesusec bere bizcar argalduetan gurutze aztuna eramanez Calvarioco mendira igo zanean eguin cituen gueraaldi edo estacioac, eta bidea Jerusalem joan da visitatzen dituztenentzat señalatuac dauden ecin conta al indulgenciac irabazteco moduric erracena eta erosoena, da *Gurutze-bide* edo Calvarioa icendatzen dan ejercicioa; ceren eguiñ dezatequen persona-mota guztiac noiz nai eta nun nai, beren eche, famili eta eguinquizunic utzi gabe; bada onetaraco asco da, devocio au fede vici eta pecatuen damuarequin eguitea, Aita Santu Clemente XII garrenac erabaquia eta ontzat emana daucan becela.



Cristau guztiac beguiratu dezayoten devocio oni, gai chit egoqui bati becela viotzetan iracequitzeo gugatic aimbeste eguin eta padecitu zuen Jesusi izan bear diogun amorioa, ¿ez degu asco izango gogoratzea, Maria Virgiña chit santa izan zala devocio oni asiera Jerusalemene eman ciona, munduan igarodan guertacari negargarriena guertatuzan egunean bertan, bere Seme viotze-coa obi edo sepulcroan utzi zuenean, eta guero bere gañeraco vicitza guztia, Maria Agredaco beneragarriac dionez, onetan pasatu zuena? ¿Ez da asco izango jaquitea, Luis Blossioc aseguratzen duenez, Cristoc bereservitzarietaco bati itz oec esan ciozcala: *Ez dago beste gartzaric neretzat ain gogoco danic, nola icustea, devocioz eta humillqui meditatzen dutela animac nere pasioa?* Edocein cristauc ar beza, bada, gogotic devocio au, eta icusico du cein gauza ciertoa dan, ondasun guztiac beronequin etorrioco zayozcala.

Baldin devocio au eguiteco persona asco biltzen badira, chit egoquia izango da apaiz batec laguntzea, eta ala



ecin ditequeanian, escatuco diote Jaungoicoari eman dizayotela devociozco espiritu iracequi bat, berritu al izateco Beraren Jaungoicozco Magestadeac gugatic bide ain necosoan igaro cituen pena, naigabe eta tormentu guztien oroipena.

Devocio au nola bai dan ain eguin erraza, uste det cristau on guztia eguingo dutela guichienez igandeetan, jaya santutzeco bide egoquienetaco bat becela, cembait errietan oitura dagoen becela, obeago balitz ere ostiral guztietan, eta oraindic are obeago egunoro eguitea. Puerto Mauricioco Leonardo beneragaria misiotan cebillela irichizan bertaco bistanle gueyenac Calvarioco ejercicio santua egunoro eguiten zuten alderdi batera, eta doatsu onec dio, ecen, orregatic vici cirala garbi pecatuetatic, aurreratuz virtuteco bidean, eta bilduaz gloriaraco merecimentu ugariac. ¿Izango da, bada, norbait au adituric, devocio santu au eguingo ez duenic? eta doatsu onec berac dio, ecen, Jesucristoen pasioa de-



vocioz meditatzeac prochu eta irabaci aundiagoac dacartzquiala ur eta ogui barautzeac, odola isurtzeraño gorputza azotez ceatzeac, eta Daviden Salmo guztiaac errezatzeac baño. Ez det uste, bada gueratuco dala iñor, dembora piscacho bat consideracio onetan egunoro igaro gabe, ain prochugarria, ain erraza, eta edoceñec, bere lanean ari dan demboran, eta dagoen lecutic irten gabe eguin dezaqueana dan ezquero.

Jaquin bear da, ecen, apaiz batzuec badaucatela, Aita Santu Gregorio XVI garrenac emanic, Jesucristoren imagiñac bedeincatzeco escubidea, eta ala, Eleizara edo Calvarioco gurutzeetara joan ecin ditezqueanac, eguin dezateque devocio au apaiz oec bedeincatutaco imagiñen aurrean, eta irabaci indulgenciac.

Estacio bacoitzeraco ipintzen diran oracioac ez dira bertan dauden becelanai ta nai-ez esan bearreacac indulgenciac irabazteco; oec ez dira ipiñi, devocio au persona mota guztiai erraztutze-co baicic, bada asco da consideratzea estacio bacoitzean, Cristoc bertan pa-



decitu zuena, ceña dan devocio au eguiten duanari batez ere escatzen zayona, eta indulgenciac irabazteco bear dana.

Nola Jaungoicoaren gracion egotea dan gauzaric lenena eta bearrena indulgenci oec eta beste edoceñ irabazteco, devocio oni eta beste onelacoai asiera eman baño len, prestatuco da cristaua contriciozco acto iracequi batequin; eta guero errezatuco du, naiz bere devocioac eracusten dion moduan, edo naiz emen ipiña dagoen becela; eta azquenean ezqueña edo ofrecimientua, gurutzearen señaleara beti aurretic eguinda.

## **SARRERA.**

Gurutze santuaren señaleara, etc.

### **CONTRICIOZCO ACTOA.**

Nere Jesucristo Jauna, Jaungoico eta guizon eguiatzcoa, nere Eguillea, Aita, eta Erredimitzallea, Zugan sinisten eta



esperatzen det, eta Zu; ontasun neurri gabea eta ecin gueyago erruquitsua cerealaco, amatzen zaitut gauza guztien gañean, eta nere amorez gurutzeco arbola santuan ishuri cenduen odol guztiz preciotsuagatic, diot, damu dedala Zu ofenditu izana; damu det, nere Jaungoicoa, damu gueyago ez izana, eta bildur-izateco infernuric eta esperatzeco gloriaric ez balitz ere, damutzen naiz bacar bacarric Zu cerana izanagatic, gorrotatzen ditut nere pecatuac, oec eguiñaren damu det, eta gaitz guztiac, baita eriotza bera ere nayago nuque gañera baletozquit, Zu berriz ofenditu baño len: erabaquitzen det, Jauna, pacaturic gueyago ez eguitea, eta zure ofensaco bide guztietatic apartatzea; eta esqueintzen dizquitut nere vicitza, lan eta nequeac, nere pecatu guztien satisfacioan; eta escatzen dizudan becela, ala esperatzen det zure ontasun eta misericordia neurrigabea, barca-tuco dizquidatzula, eta emango didatzula gracia emendatzeco, eta irauteco zure adisquidetasunean eta gracian nere eriotzaco orduraño. Amen.



ESQUEÑA.

Jaun Soberanoa, humilltasun guztiarequin esqueintzen diot zure Jaungoicozco Magestadeari ejercicio santu onetan eguin, consideratu eta errezatucoco dedan guztia, izan dedin Zuretzat atseguñezcoa, eta neretzat cerbaiten baliocoa; batez ere lurrean zure ordecoac diran Erromaco Aita Santuac, zure ontasun neurri gabea dala bide nic irabaci nai ditudan indulgenci guztiac ematean iduqui duten intencio, asmo eta motivoac gatic; eta era berean nere pecatuen barcaciuraco, eta cecgatic mereci ditudan penen paguraco, eta purgatorioco animen, bereciro zor gueyago dietedan aen alivioraco, caridadeac edo justiciac aguintzen didan eran, edo zure Jaungoicozco Magestadeari obeto deritzayon moduan. Amen.









### Lembicico Estacioa.

Pensa ezazu, anima cristaua,  
lembicico Estacio onetan, nola  
munduaren Erredimitzallea go-  
gorquiro azotatua izan zanean Pi-  
latoaren echean, juez gaizto onec  
eman zuen eriotzaco sententia vici-  
tzaren Eguillearen contra; eta  
esango dezu ondorengo



ORACIOA.

Oh Jesus guztiz gozoa, esclavo  
 billau bat baciña becela humillta-  
 sun aundienarequin padecitu, eta  
 erri desleyal aren aurrean cate go-  
 gorrez loturic, zure Jaincozco Ma-  
 gestadearen contra juez galdu arc  
 eman zuen eriotzaco sentenci bide  
 gabea aditu nai izan cenduena; in-  
 dazu, Jauna, zure ejemploarequin  
 nere arroqueria beeraturic, eta  
 mundu onetaco desprecioac umill-  
 qui eramanic, guera nadilla libre  
 etsayac anima lotu nai didaten ca-  
 teetatic, oec zure graciarequin de-  
 seguinduric. irichi naitequean glo-  
 riaco atseguñac gozatzera. Amen.

Errezatuco dezu *Aita gurea*, *Ave Maria*  
 eta *Gloria*, eta guero esango dezu

Jauna, eguin det pecatu; damu



det Zu ofenditu izana: misericordia, nere Jesus guztiz gozoa: zure graciarequin artzen det egundaño gueyago peccaturic ez eguiteco asmoa. Amen.


Ondorean muñ eguingo diozu lurrari, humilltasunezco señale onequin Cristo gure Jauna adoratzeco intencioarequin, esanaz:

Adoratzen eta bedeincatzen zaitugu Cristo, ceren zure gurutze santuarequin ni peccatari au eta mundu guztia erredimitu guinduzun.

Bedeincatua eta alabatua izan bedi Jesucristo gure Jaunaren passio eta eriotza, eta gure Ama Andre Maria chit Santaren sortze garbi garbia, bere izatearen lembicico unean jatorrizco peccatu gabe sortua; *eta erantzuten da*, Amen.

Estacio bacoitzean esango da *Aita guretic onerañocoa*.





### Bigarren Estacica.

Pensa ezazu, anima cristaua, bigarren estacio onetan, nola Jesusi ipiñi cioten bere sorbalda argal eta minberatuan gurutzearen pishutzarra; eta emen esango dezu ondorengo




ORACIOA.

Oh Jesus gloriaco Erreguea,  
Juduen vorondatera, gogorquiro  
atormentatua izateco, entregatua  
izatea sufritu, eta zure etsayen  
deadar arrabitsuac aditzeaz batean  
gurutzearen pishu astuna artu cen-  
duena; indazu, Jauna, nere voron-  
datea zurera menderatzeco, eta  
penitenciaco gurutzea pocic gañean  
artzeco gracia, nere pecatuacgatic  
men menetan eguiñaz, irichi nadin  
gloriaco atseguñac betico goza-  
tzera. Amen.

*Aita gurea eta gañeracoac, lem-  
bico estacioan becela.*





### Irugarren Estacioa.

Pensa ezazu, anima cristaua,  
irugarren estacio onetan, nola ci-  
joan emen Jesus negarrez eta sus-  
pirioz here gurutzearequin, eta  
onen pishutzarrac menderaturic  
lurrera erori zan; eta zucenduco  
diozu ondorengo




ORACIOA.

Oh Jesus guztiz maitagarria, gurutzearequin necatu eta aulduric, beraren pishutzarrac lurra jo-erazo cizuna, ezagutu guenezan gurutze orretan iruditua ceuden gure pecatuen larritasuna; zure Jaincozco erruquimentuagatic, escatzen dizut, arren, indazula pecatutic jaiquitze, eta zure mandamentuac irmo eta leyalqui gordeaz nere gorputza mortificatzen beti vicitzeo gracia, Zu amatzea izan dedin mundu onetaco nere eguinquizun guztia, gozatzeco guero gurutze santuaren frutu ederrac glorian. Amen.

*Aita gurea eta gañeracoac, lembicico estacioan becela.*





### Laugarren Estacioa.

Pensa ezazu, anima cristaua, laugarren estacio onetan, nola gure Jesus maiteac, gurutzearequin cargaturic cijoala topatu zuen bere Ama chit santa pena eta naigabez betea, eta bata besteari beguiratzean, dolore eta samintasunaren indarrez biai viotzac erdiratu citzayezcatela; eta esango dezu ondorengo



ORACIOA.

Oh Erreguiña Soberana, eta andre guztien artean Amaric tris- teena eta naigabetuena; zure Seme Jesusi, bere beguietaco arguia illunduric, arpeguia ichusituric, gurutzearen pishu astunarequin neque-oñacez cegoela beguira ce- gozquionean zure viotza batetic bestera pasatu zuen dolorezco ez- pata gogorragatic, arren, irichi zadazu, Ama guztiz naigabetua, aimbeste pena eta oñaceen moti- voa nere pecatuac izandu ciran ez- quero, oecgatic negar samiñac eguin al izateco gracia, confesio eta penitenciarequin anima garbi- turic, arqui nadin zure aldean ce- rucó glorian. Amen.

*Aita gurea eta gañeracoac, lembicico esta- cioan becela.*





### Bostgarren Estacioa.

Pensa ezazu, anima cristaua. bostgarren estacio onetan, nola Simon Cirineoarra artu zuten juduac emen Jesusi gurutzea eramaten laguntzeko, ez arren Magestadearen erruquiz, ezpada bidean ilco citzayelazcoaren bildurrez gurutzearen cargatzarrac erasanic, eta emen errezatuco diozu ondo-  
rengo



ORACIOA.

Oh Jesus guztiz maitagarria,  
Calvario bidean gurutze chit astu-  
na eramam ececic, gurutzeco onda-  
sunetan parte izan dezagun, Ciri-  
neoaren personan eramaten guc  
ere laguntzea nai izan cenduen-  
a; indazu, Jauna, gracia, espiritu ira-  
cequi eta devocio aundiarequin  
laztantzeco nere buruaren ucatze-  
an dagoen gurutzea, eta utzitzeco  
osotoro oitura gaiztoac, zure pau-  
soai era onetan jarraitzen diozca-  
dala, irichi ditzadan betico gloria-  
co atseguñac. Amen.

*Aita gurea eta gañeracoac. lem-  
bico estacioan becela.*





### Seigarren Estacioa.

Pensa ezazu, anima cristaua, seigarren estacio onetan, nola Jesusi bidera atera citzayon Veronica ceritzan emacume santa hura, eta ain auldua, eta arpeguia icerdiz, autsez eta masallecoz ain ichusitua icustean, aren Jaungoicozco Magestadeaz cupitu zan, eta bere buruco zapia escuetan arturic, onequin arpeguia garbitu cion; eta emen errezatuco dezu ondorengo



ORACIOA.

Oh Jesus, edertasun paregabeco-  
coa, istu loyez ichusitua cenducan  
arpeguia emacume erruquitsu arc  
bere buruco zapiarequin garbitu  
cizunean, zure arpegui guztiz san-  
tuaren imagiña bertan estampa-  
turic utzi ciñiona; estampa ezazu,  
arren, Jauna, nere animan zure  
arpeguiaren imagiña, eta indazu,  
caridade eguiazcoarequin beti ni-  
gan gordetzeco mesedea eta gra-  
cia, egunen batean aguertu deza-  
quedan ala zure betico glorian.  
Amen.

*Aita gurea eta gañeracoac lem-  
bico estacioan becela.*





### Zazpigarren Estacioa.

Pensa ezazu, anima cristaua, zazpigarren estacio onetan, nola Jesus gure Jauna, gurutzearen carga aundiarequin osotoro argaldua eta auldua cegoelaco, lurrera erorizan bigarren aldian Jerusalendic irteteco ate batean; eta emen eguingo diozu ondorengo




ORACIOA.

Oh Jesus guztiz santua, gurutzearen pishutzarrarequin bigarren aldian lurra jo erazotzeraño, zure gorputz beraac sentitu zuen neque ain aundiagatic, erregutzen dizut, nere viotzeco laztana, argui deza-zula nere adimentua, eguiten ditudan pecatuen larritasuna ezagutze-co, eta indazula gracia, amilldu ez nazaten betico penatara, ezpada vici dedin nigan beti Zu amatzeco, servitzeco eta alabatzeco gogoa, ala mundu onetan nola ceruco glorian. Amen.

*Aita gurea eta gañeracoac, lembicico estacioan becela.*





### Zortzigarren Estacioa.

Pensa ezazu, anima cristaua, zortzigarren estacio onetan, nola emacume erruquitsu butzuec eguiten cituzten negar samiñac icustean Jesus, culpa gabea izan arren, gurutz-iltzatzera ceramatela, eta nola Jaunac consolatu cituen, esanaz: «Jerusalengo alabac, ez niga-  
«tic negar eguin, ezpada ceronga-  
«tic eta ceron humeacgatic;» eta emen errezatuco dezu ondorengo



ORACIOA.

Oh Jaungoicozco Maishu Sobe-  
ranao, Calvarioco bidean pena  
ecin aundiagoarequin cijoacenean,  
zure egoera errucarriaz cupitzen  
ciran emacume piadosoai beren  
buruacgatic eta beren pecatuacga-  
tic negar eguiten eracutsi ciñiena;  
indazu, Jauna, contriciozco negar-  
malco samiñac ishuriaz, eguin di-  
tudan pecatuzco obra guztiac be-  
racquin borratzeco gracia, nere  
anima orrela garbituac, iraunaz  
beti zure gracia eta adisquidetasu-  
nean, goza ditzan acabaeraric izan-  
go ez duten gloriaco atseguñac.  
Amen.

*Áita gurea eta gañeracoac, lem-  
bico estacioan becela.*





### Bederatzigarren Estacioa.

Pensa ezazu, anima cristaua, bederatzigarren estacio onetan, nola Jauna gurutzearen pishu aundiarequin irugarren aldian erori zan emen lurrera, bere ao santua-requin muñ-eguiteraño; eta jaiqui eciñic cebillela berriro erori zan; eta esango diozu ondorengo




ORACIOA.

Oh Jesus guztiz beraá, irugarren aldian lurra jotzeraño zure persona sagradua bultzaca erabil-tzen juduai utzi ciñiena; indazu, nere Jaungoicoa, zure gracia, nere etsayen bidegabequeriác sufri-tzeco, eta zure amorez nere vorondateari contra eguiteco, erama-naz paciencian mundu onetaco ne-que eta atsecabeac, irichi nadin gloriaco atseguñac gozatzera Amen.

*Aita gurea eta gañeracoac, lem-bicico estacioan becela.*





### Amargarren Estacioa.

Pensa ezazu, anima cristaua,  
amargarren estacio onetan, nola  
Jesus gure Erredimitzalleari Cal-  
varioco mendira irichitacoan, bere  
soñecoac quendu ciozcaten cupida  
gabe, eta ospinez nastutaco ardoa  
edaten eman cioten; eta esango  
dezu ondorengo



ORACIOA.

Oh Jesus guztiz ona, zure soñe-  
co santuac tiraca quentzen judu  
odolguiroai utzi nai izan ciñiena,  
berrituaz orrela zure zauriac, eta  
guztien aurrean larrugorrian gue-  
ratuaz; zure oñace eta pena oec-  
gatic, eta beazunez nastutaco ar-  
doa ematean sufri-eraci cizutena-  
gatic escatzen dizut, arren, Jauna,  
ez ditzadala edan nic munduac es-  
queintzen dizquidan atseguin, pe-  
catuzco beazunez nastutacoac, ez-  
pada nerequico amorio era gabea  
utziric, jarraitu dezayodala guru-  
tzeco arbolan larrugorrian nigatic  
egon nai izan zuenari, guero bera  
icusi dezadan glorian. Amen.

*Aita gurea eta gañeracoac, lem-  
bico estacioan becela.*





### Amaicagarren Estacioa.

Pensa ezazu, anima cristaua, amaicagarren estacio onetan, nola gure Jesus onari gurutzearen gañean etzan erazoric escu-oñac josi ciozcaten, eta beraren Ama eta gure Andre Maria oñacearen indarrez naigabetua guelditu zan lembicico mallu colpea aditzean; eta erreza ezazu emen ondorengo



ORACIOA.

Oh Jesus guztiz erruquitsua, gurutzean etzinda zure escu-oñ sagraduac bertan iltzez josierazotze-raño viotza erretzen cenducan amorio ecin aundiagoagatic, escatzen dizut, nere Jaungoicoa, zure caridade esan al baño aundiagoco orren bidez ez ditzadala luzatu nic egundaño gaiztaqueriara nere escu oñac, ezpada zure Jaincozco amorioac nere viotza zulaturic, zure gracia eta misericordia neurri ga-beagatic vici nadilla beti gurutziltzatua edo osotoro emana zure servitzu santura, erreinatzeco guero Zurequin glorian. Amen.

*Aita gurea eta gañeracoac, lembicico estacioan becela.*





### Amabigarren Estacioa.

Pensa ezazu, anima cristaua, amabigarren estacio onetan, nola Jesucristo gure Jauna, gurutz-iltzatutacoan, sartu zuten colpez gurutzearcaitz baten zuloan, eta bere Ama chit beraá guelditu zan samintasunezco ichaso bat eguiñic, egoera ain errucarran bere violetzeco Semea icustean; eta erreztuco dezu ondorengo



ORACIOA.

Oh Jesus gure animen esposo maitea, lapur biren erdian gurutze santuari josi cinduztenean, lurretican jasota mundu guztiac icusi ciñitzan moduan ipiñiric, tormentu gogorrenac padecitu ciñitena; senda itzatzu, arren, Jauna, nere animaco gaitzac, eta eguizu, aleha dedilla nere anima Jaungoicozco gaucetan eta beti dirautenetan pensatzera, despreciatuaz mundua bere arroqueria eta zoraqueriaquin, zu bacarric maitatu zaitzadan, eta zure amorez, glorian icusico zaitudan arteraño mundua eta nere burua gorrotatu ditzadan. Amen.

*Aita gurea eta gañeracoac, lembicico estacioan becela.*





### Amairugarren Estacioa.

Pensa ezazu anima cristaua,  
amairugarren estacio onetan, nola  
Aingueruen Erreguiñac artu zuen  
besoetan Jesus gure Salvatzallea-  
ren eta bere Seme guztiz maitea-  
ren gorputz illa, Joséc eta Nicode-  
moc gurutzetic erachi zutenean;  
eta emen errezatuco dezu ondo-  
rengo

### ORACIOA.

Oh Aingueruen Erreguiña Sobe-



rana, eta Ama dolorez gañ eguiña,  
zure Seme guztiz Santu, aimbeste  
tormentuen indarrez illa gurutze-  
tic erachita cere besoetan artu cen-  
duenean zure viotza bete zuten  
ecin conta al pena aecgatic, erre-  
gutzen dizut, Ama chit erruqui-  
tsua, cere besoetan arturic nere  
anima, gorputzetic berecitzen da-  
nean, eraman dezazula zure Seme  
guztiz santuaren aurrera, oroituric  
cembat padecitu cenduten bera-  
rengatic Zuc, Señora, eta aren  
Jaungoicozco Magestadeac, juzga-  
tu nazan, ez nere culpac mereci-  
duten becela, ezpada nere amorez  
ishuri zuen bere odol Jaungoicoz-  
coaren, eta zure pena ecin aundia-  
goen merecimentu cabu gabeai da-  
gocan moduan; lagundu zaitzadan  
guero gloriaco atseguñetan Amen.

*Aita gurea eta gañeracoac, lembicico es-  
tacioan becela.*





### **Amalaugarren Estacioa.**

Pensa ezazu, anima cristaua,  
azqueneco estacio onetan, nola  
emen lurpetu zuten Cristo gure  
Salvatzallearen gorputza; eta esan-  
go dezu ondorengo



ORACIOA.

Oh gure animen Erredimitzalle  
Jaungoico Soberanoa, gure peca-  
tuacgatic gure contra emana ce-  
goen eriotzaco sententia zure odol  
Jaincozcoarequin borratzeco, gu-  
rutze lotsagarri batean lapur biren  
erdian vicia emateraño, amorio  
ecin aundiagoarequin aimbeste pe-  
na eta tormentu padecituta guero,  
betico vicitzaraco piztutzeco, obian  
ipiña izatea nai izan cenduena;  
zure pasio, eriotza eta lurpetze  
guztiz santuen merecimentu cabu-  
gabeacgatic erregutzen dizugu,  
Jauna, egon ditecela guretzat lur-  
petuac eta betico utziac mundu  
onetaco atseguñ guztia, eta da-  
goela gure viotzetan beti viciric  
zure pasio eta eriotz guztiz santuen  
oroipena, eta vicitz onetan Zu



amatu eta servitzeco gogoa, ondo-  
rean pizturic sar gaitezquean zure  
glorian. Amen.

*Aita gurea eta gañeracoac, lem-  
bicico estacioan becela.*

Gurutze-bide edo Calvarioco ejercicio au  
devocioz eguiten duenac irabaci ditzaque  
oguei indulgencia oso, osoac ez diranac  
conta al baño gueyago, eta gañera, atera  
purgatoriotic anima bat. (Icusi bedi *Ferra-  
ris* Indulgencien gañean 5 garren capitu-  
loan.






DEVOCIOZCO ESPIRITUZ

GURUTZEA ERAMATEN JESUCRISTORI

JARRAITZECO MODUA.



Jesucristori gurutzea eramaten jarraitu nai dion cristauac jaquin bear du, ecen, *cristau* icen onec, Cristoren icasle edo jarraile esan nai duela, eta icen noble eta honra aundico au egoqui eramana nai baldin badu, eguin bearrean dagoela, Jesusec bere Evangelio santuan aguintzen diguna, da esatea, baldin berari jarraitu nai badiogu, guere buruai contra edo uco eguin, gurutzea artu, eta seguitu bear diogula. Itz oequin, Eleizaco azaldariac diotenez, Jesucristoc escatzen digu barrengo eta campoco illdura edo mortificacioa, seguitu nai baldin badiogu. Animaco edo barrengo mortificacioa dago sartua itz oetan: *uca dezala bere burua*, edo vici dedilla, gogo duena eguiteco vorondateric ez balu becela; eta gorputzeco edo campoco mortificacioa, beste oetan: *ar*



*dezala bere gurutzea.* San Francisco Salescoac dionez, araguiac ondo gordetzeco gatzá becin premiazcoa degu illdura edo mortificacioa: bada gatzarequin aragui illac urte guztian ondo gordetzen badira ere, gatzic gabe galzteratzen, usantzen eta arrez betetzen diran becela; ala, mortificacioaren gatzarequin guc ere iráungo degu virtutean, eta gatz au gabe vicio guztien bazcatzat servituco degu, eta azquenean osotoro galduco guera: eta ona emen cergatic cion San Pabloc aimbeste segurantzia requin: *Senideac....araguiaren nayerara vici bacerate*, berari atseguin eguinaz, eta mortificatu gabe, *illco cerate*, condenatuco cerate; *baña araguiá mortificatzen badezute*, vicico cerate, salvatuco cerate, Nic bada, zuen animaco prochua opa izanic, uste izandu det convenico zazutela aguertzea, cer dan mortificacioaren icenez aditzen deguna, eta bera eguiteco modua, onela lagundu dezaqueyozuten Jaunari gurutzea eramaten.

Mortificatzea bada, ez da iltzea, ezpada ecitzea eta mendean iduquitzea;



eta ala, mortificacioa da, guizonaren  
 griña eta barrengo muguida eragabeen  
 gobernu eta guiari on bat becela, oec  
 beñere azaldatau gabe egon ditecen beti  
 fedearequin arguitutaco arrazoyaren  
 mendean. «¿Cer gauza da mortifica-  
 «cioa?» galdetzen du devoto batec (Aita  
 Croisset, bigarren liburua, Garizumaco  
 aurreneco ostiralean); eta erantzuten  
 du: «Da amoriozco eriotza bat, vicitza  
 «gaiztoa iltzen duena, sentiduetatic ani-  
 «ma des-itsasi, gorputzetic bereci, eta  
 «espirituz vicierazotzen duena: da amo-  
 «riczco sacrificio bat, ceñean apaiza  
 «edo sacrificatzallea dan Espiritu San-  
 «tua, ilcaya edo victima gorputza, al-  
 «darea viotza, ganibeta penitencia, sua  
 «amorioa, eta onen frutua gloria: da  
 «gaiztaqueriaric eta borrero gabeco  
 «amoriozco martirio bat, ez fedeagatic  
 «sufritzen dana becin odoltsua, baña  
 «bay luceagoa eta penagarriagoa, norc  
 «bere nayez, eta moduren batean  
 «vorondate gueyagorequin artzen due-  
 «na bada ere: da Jesusen sacrificioaren  
 «seguimentua, bada mortificacioan osa-  
 «tzen du bere pasioa, gure gorputzac



«eguiten ditu berearen bizacai edo  
 «miembroac, animatzen gaitu bere  
 «espirituarequin, parte ematen digu  
 «bere neque-oñaceetan, merecizen diz-  
 «quigu bere graciaren ondasunac, eta  
 «alchatzen gaitu gloriaco erregue-aul-  
 «quira.» Au da aitatutaco jaquintsuac  
 diona: eta uste det esana dagoen one-  
 tatic conturatuco cerala, ecen, ez dala  
 legoya pintatzen duten becin odol-  
 guiroa, eta lenago izu eta icara ematen  
 cizuna, orain gauza ariñtzat artuco  
 dezula; beragatic, bada, noaquizu,  
 mortificacioa cembat modutacoa dan  
 aditzera ematera.

Au da bi modutacoa, obligaciozcoa  
 bata, eta devociozcoa bestea. Obliga-  
 ciozco mortificacioaren eguitecoa da,  
 Jaungoicoaren legueco aguinteac eta  
 guere vici moduco eguimbideac bete-  
 tzeco eragozpen edo arazotzat izan  
 dizaguquean guztia ecitzea edo quen-  
 tzea. Vorondatezcoa edo devociozcoa  
 da, berez pecatu edo gaiztoac ez diran  
 gauzaen batzuec ez eguitera muguie-  
 razten gaituena, bada onelaco gauzac  
 pecatu gabe eguin baditezque ere, pro-




chu aundicoa da eguin gabe utzitzea, Jaungoicoari esqueintzeco chit gogoco zayon sacrificio bat: demagun, berez ez da pecatu, jardin edo lorategui zoragarri bati beguira egotea, ur prescoa edatea, etc.: ala ere ecin esan diteque cembaterañocoa dan, gauz oec Jaungoicoaren eta Mariaren amorez eguin gabe utzizetic animari datorquion prochua. Eta esan det, mortificacio guisa onen prochua dala esan al baño aundiagoa, ceren dan moduren batean naita nai ez eguin bear deguna; bada gauza jaquiña da, vorondatezco edo devociozco gaucetan mortificatzen ez daquienac, edo nai ez duenac, ez duela jaquingo, edo ecingo duela obligaciozcoac diranetan ere.

Devociozco mortificacio au da bi modutacoa, bata mortificacio-eguillea, eta bestea sufrigarria icendatzen dana. Eguillea dago, billatzean norc bere gogoz, eta Jaungoicoari eta Virgiña chit santari dien amorio aundiagatic, nequepena eta lotsa sentierazteco gai diran gauzac, era onetan erregali edo menequio bat berai esqueintzeco. Sufrigarria



dago, sufritzean pacienciarequin, eta Jaungoicoaren vorondatera osotoro jarri eta menderaturic, gueroc billatu eta nai izan gabe penatuarazten gaituzten gauzac, nola diran persecucioac, bidegabequeric, injuriac, lapurretac, eritasunac, otz-beroac eta guis onetaco beste gauzac. Barrengo mortificacioa onena eta bicañena bada ere, beste guztien anima edo muguitzallea dalaco, alaz guztiaz ere, arguitasun gueyagoraco aurrena cerbait esango degu campoco edo gorputzeco mortificacioaren gañean, eta emendic, bide idiquitic begela, pasaco guera gañeracora.

### **Campoco edo gorputzeco mortificacioa.**

——

#### **BEGUIEN MORTIFICACIOA.**

Inocenciaren partea da ichu izatea, cion Senecac; eta eguiaz, esperiencia negargarri batec eracutsi digu, ecin conta ala dirala, beguietatic inocencia galduric, vicio eta gaiztaquerietan



amildu diranac, ceñaren pensamentuac jaquintsu fede gabe bati nastu cion centzua aimbesteraño, non, irichi zan, Tertulianoc contatzen duenez, bere beguiac escuacquin ateratzera. Eguia da, cristau batec ez dezaqueala, eta ez duela eguin bear, gaiztaqueria bat beste gaiztaqueria batequin quentzeco doacabe arc eguin zuena; baña eci edo mortificatu bear ditu, bay, beguiac, Jesucristo gure Jaunac becela, ceñac ain gordiac iduquitzen cituen beti, non, Evangelariac contatzen digute cembat bider alchatu cituen, adierazteco begui alchazte au zala argan, noiz beñetaco eta oi etzuen becelaco gauza bat. Beragatic zuc ere illduratu edo mortificatuco beguiac, onaco aldi oetan:

1.<sup>coa</sup> Ez dituzu icusico pecatuzco pensamentuac zure animan pizcortuerazo ditzatequean gauzac, nola diran, irudi edo imagiña deshonestoac, descenciaren contraco comediac, endamas dantzarequin eguiten diranean, bada dantza eguiteco modua eta orretaraco usatzen dan jazquera iduqui bear dira pensamentu loyen pizcorgarrizat: eta



eguiaz asco eta asco, comediac iraun  
 zuen bitartean beren gurari liquitsac  
 lotan becela iduqui izan cituztenac,  
 dantza asitzearequin batean senti ciran  
 pensamentu loi samalda batec erasoac,  
 ceñac atseguin limurizco sutan erreaz,  
 eraguin ciezten beste aimbeste pecatu  
 larri. Ascoi guertatzen zaye Alipiori  
 guertatu eitzayona, ceña, San Agustiñec  
 contatzen digunez, bein batean joan  
 zan comedira gauza gaiztoai ez begui-  
 ratzeco asmoarequin, baña beiñ ara ez-  
 quero, beguiratu cien, pecatu eguin  
 zuen, eta besteai ere eguiñerazo cien.  
 Etzaitez, bada, joan zu, honestasun  
 guichirequin jantzita personac egon oi  
 diran billadaetara, diot dantza eta jos-  
 taldietara; eta carrica eta placetatic zoa-  
 cenean, etzayozu beguiric ezarri ema-  
 cumeai, guizonezcoa bacera, orobat  
 guizonai, emacumea bacera, batez ere  
 bear becelaco descenciarequin jantzita  
 ez badaude; eta gai onetan zure quezca  
 eta erreceloa aundiagoa izan dedin,  
 esan bear dizut, ecen, persona batzue-  
 zaz servitzen dala deabrua, animac in-  
 fernuraco inguratzeco, soldadutzaraco



gende billa edo erosten ibilli oi diranac becela.

2.<sup>ena</sup> Baita ere apartatuco dituzu beguiac gauza arro, icusmirazco eta importa etzaizquitzunetatic, esanaz Profetarequin: *nere beguiac, Jauna, aparta itzatzu, arroqueria icusi ez dezaten*. Gauz oetan eta beste onelaco, danic inocente eta honestoac izan ditezqueanetan beguiac ecitzen edo mendean iduquitzen jaquitea, da laguntza chit indartsu bat onean aurreratzeo. San Francisco Borjacoagatic esaten da, ecen, mirotsaquin eicean eguiten zuenean, oec eizari itsasten citzayozcanean, beguiac beerraturic etzuela icusten: eta San Luis Gonzagacoaren vicitzan iracortzen da icusgarri miragarrienetan arquite bearizaten zuenean, aec icusteco atseguña beguiac etziela ematen. Zuc ere noicean beiñ berebat eguizu, batez ere carrica, plaza eta gende asco biltzen dan toquie-tatic ibilli bearra izaten dezunean. Noicean beiñ diotsut, ez beti, ceren aguinduco banizunque beti ala ibiltzeo, ez nuque ecer aurreratuco, gueyegui escatuco nizuquealaco. Aurrenean go-



gorcho eguingo zatzula, badaquit; baña guerora sentituco dezu erraztasun aundia, eta berarequin paquea, atseguña eta merecimentua mundu onetan, eta sari bicañ bat bestean.

3.<sup>ena</sup> Zure beguiac illduratu edo mortificatu nai ez badituzu, eta bay cerbait egurastu, loreac, arbolac, baratzac, echeac eta berengan pecaturaco perillie ez duten guis onetaco beste gauza onac icusiaz, oitu zaitez anima Eguillearen ganonz jasotzen; gogora ecarriaz Bera dala edertasun, apainduria eta egoquitasun guztiaren iturri eta asiera, eta Beragandic artua dala munduco criatura edo gaucetan distiatzen icusten dezun edertasun, doai eta egoquitasun guztia, ota pauso bat aurreraturic, eza-zu: *Baldin des-erri bat baicic ez dan mundu onetaco gaucen edertasuna aimbesterañocoa bada, inolacoa izango da ceru-erricoarena?*

#### BELARRIEN ILLDURA EDO MORTIFICACIOA.

1.<sup>coa</sup> Sayatu bear cera belarriac illduratzen inoiz ere aditzeric eman gabe



ipui loyai, jolas eta canta deshonestoai, ceñac diran, San Pabloc dionez, oitura onac galtzen dituztenac, eta egungo egun triste oetan zori gaiztoan sobra aditzen diranac. Deshonesto eta gaizquiesale oezaz amuaz becela baliatzen da deabrua animen arrantza eguiteco, edo eiztaria deicari edo erreclamoaz becela gaitzic uste ez duten chori chiquiac sarean achitzeco. ¡Oh! cembaiti aditzen zayen esaten egunoro: nic ez nuen egundaño pecatu eguingo, ez ere alaco liquitsqueriatic jaquingo, baldin araco itzqueta, canta jolas hura, etc., aditu izan ez banu. Alde eguizu, bada, persona zabar eta gaizqui-esaleetatic.

2.<sup>ena</sup> Etzera egongo ere aditzen murmuracioac, personen tacha eta jaquitea ecerere importa etzatzun munduco beste gauzac, ceñac, beste calteric ez bada-carquizute, ere beintzat zure burua milla cheaqueriaz bete, barrengo paquea galerazo, eta distraitu edo zabartuco zaituzte ecin gueyagoraño oracioan, mezatan eta beste devocioac eguiten zaudenean. Orrela jolastutzen diranen artean arkitzen ceranean, sar-erazo



itzatzu modu onarequin beste itz-pide-  
ren batean, albadezu, lengo jolasa  
aldatuaz edo galdeera prochugarrien  
bat berai zucenduaz: eta ataca estal-  
au zuc nai beciñ ongui ateratzen ez  
balitzatzuque, bereci zaitez albadezu,  
eta ecin badezaquezu, arpegui beltz eta  
copeta illuna jarri zayezu, adierazteco,  
onelaco jolasac ez dituzula ontzat ema-  
ten; eta duda gabe, centzatuco dira,  
cergatic Espiritu Santuac esaten digu,  
ecen: *Ifarrac lañoa garbitzen duen be-  
cela, arpegui illunac atzeratzen duela  
murmuratzallearen mingaña.*

#### SUDURREN MORTIFICACIOA.

Sudurrac illduratuco dituzu aldegui-  
ñaz usai gozoa banatzen duten gauce-  
tatic, nola diran essenciac, pastillac,  
balsamo belarrac, usai-urac, etc; ce-  
ren emacumequeri oec usatzen ditue-  
nac, ondo aditzera ematen du aragu-  
atseguñcoi bat dala. Bidezco gauza da  
Jaungoicoari, gauza guztien Jaun eta  
Jabe eguiazcoari becela, incensuz eta  
urrin gozozco beste licurtaz honra ema-



tea; baña oec usa ditzala illcor batec, sarri quiratstu eta nazcagarrituric arren janari izan bear duenac, da ecin gueyago ichusia dirudiena. Ez ezazu izan bada usai gozoen conturic, contrara sufri itzatzu pacienciarequin hospitaletaco usai gaiztoac, oatuac daudenen guelatacoac, carceletacoac, etc., etzaitez gueratu toqui oetara visitac eguin gabe bertaco usai gaiztoa ez aditzeagatic, bada Jaungoicoac saristatucozaitu obra on orregatic bere Evangelio santuan aguindua daucan becela.

#### MINGAÑAREN MORTIFICACIOA.

Contu aundia ipiñi bear dezu mingaña ecitzen, irristatu ez dedin itz arro, alper, loi edo cere buruaren alabanza-coetan, birau, arnegu edo blasfemietan, edo beste gauza, Jaungoicoarentzat iraintsuac, eta cerorrentzat edo lagun urcoarentzat caltegarriac izan dittezqueanetan. *Mingañarequin pecatu equiten ez duena, da quizon on on bat, dio Santiago apostoloac, eta Origenesec itz oec adierazteco, dio, ecen: Bere bu-*



*rua mingañezco pecatuetatic gordetzeco patu ona duenagatic bayeztu ditequeala, eguiatz on ona dala; eta uste izan diteque mingaña escuratzera irishi danac, erraz zucenduco eta gobernatuco detuela bere barrengo muguidac. Eta eguiatz, esperienciac eracusten digu, mingaña gaiztaqueri-bilcui bat dala, eta persona devotoac ere Satanasec achituac izaten dirala mingañaren lazoetan. Orregatic beraren gobernuan ipiñi bear da arret aundia chit, baliatuaz onetaraco San Bernardoc ematen duen consejuaz, dionean: *Limaz pasa dedilla bi bider mingañac bein bacarric esan bear duena; ceñarequin adierazotzen dizun, ecen, itz-eguin baño len, beguiratu bear dezula soseguz, ea esatera zoacena dan edo ez Jaungoicoaren vorondateari dagocan eracoa, ea izango dan lagun urcoaren prochuan edo caltean. Oarquera onec libratuco zaitu, eguingo ez baceduque, esan izana damu izango cenduquean asco itzetatic. Itz-eguizu, bada, guichi, seguituaz Senecaren consejua, ceñac cion: *Ez det izandu egundaño ishillic egonaren damuric, bay or-***



*dea itz-eguiñarena.* Eta Espiritu Santuac segurutzen du, ecen: *asco itz-eguitean, ez dirala pecatuac faltatzen.* Zau-  
de, bada ishillic, diotsut berriz ere, eta ez ezazu itz-eguin premiatic, caridadeac edo obedienciatic beartzen ez bazaitu; eta orretaraco baliatu zaitezque ondo-  
rengo oarquera oezaz:

1.<sup>coa</sup> Pensa ezazu, Jaungoicoac itz-  
cribatu eguiten dituela zue esaten ditu-  
zun itzac, eta juicioco egunean escatuco  
dizula guztien contua, baita alper edo  
gaitzgabecoena ere, bere Evangelio  
santuan esaten digun becela.

2.<sup>ena</sup> Itz-eguin bear dezun aurrreti-  
jaso ezazu viotza Jaungoicoagana, etc  
escayozu gracia ez mugaraitzeco, esa-  
naz Profetarequin: *Para zayozu Jauna,*  
*sillu bat nere aoari, eta nere ezpañai al-*  
*de guztietatic ichitzen dituen ate bat,*  
itz-eguiteco bear becelaco centsuare-  
quin.

3.<sup>ena</sup> Igues eguizu, jolasean irrista-  
tzen edo gueicho pasatzen cerala, oitu-  
raz daquizun jolas, persona eta toquie-  
tatic.

4.<sup>ena</sup> Etzaitez ari chancherian, ez



ezazu iñor ciricatu jostaqueta larrieta-  
ra, eta ez usatu adigarri gaiztoan artu  
ditezquean itz estaliriz, edo lagun ur-  
coa tristetu ditzaquetenic.

5. ena Itz-eguizu sencill eta garbi,  
engaño gabe, eta ez itzatzu aguertu  
egundaño lagun urcoaren faltac; eta  
oec baldin ondo jaquiñac eta zabal-  
duac, edo berez sortuac badira ere, beti  
on izango da artzea bideric onena, nola  
dan ishiltzea, ez baidu, alabaña, iñorc  
ondo eramaten bere tachac zabaltzea,  
edo autan erabiltzea.

6. ena Gorrota itzatzu erriertac, edo  
cerean beti irmo egon naya: zure iri-  
tzia eman bear dezunean, eguizu modu  
onez eta gozoro, eguiac garaitzeco  
deseoarequin, eta iñoiz ere ez cereare-  
quin irtetzeagatic edo gogoac ematen  
dizuna eguiteagatic: contrara, cere  
setarequin irtetzea baño nayago izan  
bear dezu, conciencian albaditeque,  
besteen iritzira jartzea, emendican eto-  
rrico zatzun animaco prochu aundia-  
gatic; ceren gauza jaquiña da, ohea  
dala, modotsua izatea setatsua baño.  
¡Cémbat despitatic, icusi-ecin eta pe-



catuetatic gordec<sup>o</sup> ceran on-esan oec  
eguite nbadituzu!

7. ena Itzic ez ezazu esan iñoiz cere  
alabanzan, eta ez contatu ere cere bu-  
rua jaquintsutzat, indartsu edo virtu-  
tetsutzat iduquitzeo asmoan esan edo  
eguin dezun gauzaric, bada nola ez  
dan ondo norc bere burua alabatzea,  
eguingo ciñaque despreciagarria. Eguin  
ez dezazun, bada, utsic aimbeste im-  
portanciaco gauzan, oroitu zaitetz Jaun-  
goicoa beguira dagoquizula, aditzen  
zaituela, eta itzeguiten dezun guztiaren  
contua escatuco dizula.

#### MIGUSTOAREN MORTIFICACIOA.

Milla modutan eci diteque migustoa,  
eta da ain importanci aundicoa, non  
San Gregorioc batere zalantza gabe  
asegurutzen du, ecen: *jan-edaneraco  
zale queyegua aurrena menderatzen sa-  
yatzen ez danac, alperric ventzutu uste-  
co dituela gañeraco vicioac.*

Iduqui bedi, bada, gauza ciertotzat  
guizonac ez duela bici bear jateco eta  
edateco, ezpada jan eta edan bear due-



la vicitzeco. Jan eta edan bear da vicia gorde eta irosotzeco, ez sentiduai atseguin eguiteco; eta egui oec artu bear ditugu guiaritzat gure jan-edanen cembate edo cantidadea eta calidadea neurtzeco. *Janean mortificatzen ez danac, cion Santa Catalina Senacoac, ecin datequean gauza, gorde dezaqueala bere innocencia, bada jateco zale eragabeac galdu zuen Adan gure lembicico gurasoa.*

Jan-edanetan gueicho igarotze guztia, gorputz-animentzat da caltarquitsua. Dudaric ez dago, eritasun gueyenac dirala jan-edan eragabeen ondoreac. Sorreria ede apoplejiac, beruntzacoac, gorputzetic eguin eciñac, sabeleco miñac, sayetsecoac eta beste asco eta asco, gueyenean ase-beteac dacartzquienac izan oi dira. Baña gorputzeco eritasun oec, berez gaitz aundiac izan arren, ez dira ecerezqueria batzuec baicic, jateco zale gueyeguiac eracartzen dituen animaco gaitzen parean.

*Sabela betea daucan batec, tentacio loiric ez sentitzea, ecin datequean gauza, cion Casianoc; eta ona emen cergatic chit contuz escuratzen zuten jan-edan*



etaraco zale gueyeguia, garbitasuna  
aimbesteraño estimatzen zuten San-  
tuac. Santo Tomasec esaten digu, ecen:  
*deabruac zale onequin, persona bat tenta-  
tu eta ventzutzen duenean, gueroz ez due-  
la tentatzen loiqueriarequin.* San Gero-  
nimoc Eustoquia virginari itzcribat-  
zean, esaten cion: *ardoac eta gartzetasu-  
na dira sucarrí bi, atseguin loyen gogoa  
viotzean pizcortzeco.* Eta beste gauza ba-  
tzuen artean ciosan: *gartzigatzen dizut,  
ecen, Jesucristoren esposa nola bai ceran,  
igues equin dezayozula ardoari, puzoyari  
becela.* Eta Salomonec dio Proverbioe-  
taco liburuan: *Ardoac da araguiaren  
atseguin ecarlea: da oen pizcorgarri bat;  
eta guero galdetzen du: ¿Norentzat  
izango dira lantu eta negarrac? ez dira  
izango ardotara emanac diranentzat, eta  
ed-ontzichuac ustutzen daquitenentzat?*  
Nola au guztia ondo baidaquien mun-  
du onetaco eta besteco gure zori-gai-  
tzaz chit atseguin artzen duen Satana-  
sec, idiquierazo ditu aimbeste ardande-  
gui, sagardotegui, cafetegui eta edari  
vicitegui, ceñac diran beste aimbeste  
su-arma becela castidadeari eta gañera-



co virtuteai guerra eguiteco; bada gaita-  
taqueria guztia, baita herejia edo fede-  
ucatzea ere loiqueriatu dagoz, gaitela-  
co esaera batec dion becula: *Ez da he-  
rejeric emacume gabecoric.*

Eta ala, cere burua gaitz aundi oeta-  
tic gorde dezazun, zabiltza contuz jan-  
edanaquin: etzaitez egundaño sartu  
premia gābe tabernan, cafetegui edo  
jan-edanac saltzen diran echeetan; ez  
ezazu jan eta ez edan ordu jaquiñaz  
campora: eta orduan ere, jaten asteraco  
bota zayozu bedeincacioa jaquiari eta  
bucatzean, eman zayozcatzu esquerrac  
Jaungoicoari mesede onegatic. Etzaitez  
izan araco abere beltz, arte arbolapean  
ezcur jaten, erregali hura norc bialtzen  
dien icusteco bururic alcha gabe ari-  
tzen diran aen antzecoa; contrara, jaso  
ezazu anima Jaungoicoaganontz jaten  
asitzean, eta noicean bein esayozu vio-  
tzez: *Jauna, ez det jaten, eta edaten,  
gauz oetan atseguin artu dezadan, ezpada  
vicia gordetzeco eta zu servitzeco indar-  
rac izan ditadan.* Ez det, ordea, esan  
nai onequin, pecatu dala janean atse-  
guin artzea, ceren ori dan gauza bat



izatez deguna, eta Jaungoicoac orretara ondo zucendua; baña bay izango litzaque, baldin gusto artze utsagatic bacarric joango balitzaque. Gustoarequin jatea, eta gusto artzeagatic jatea ez dira gauza berebat: lembicicoa cillegui da, ¿norc, alabaña, jango luque gustoaren pizcorgarri gabe? Bigarrena da pecatu edo falta bat, ceren dan contraco aldera gauza eguitea: da, gauza beratzat artzea, bera iristeco bide edo bitartea baicic ez dana; da, servitzea besteric eguin bear ez dan gauzaz gozatzea; da des-eguitea, azquenic, ciertozat jarria utzi degun esaera hura; ecen: *quizonac ez duela vici bear jateco eta edateco, espada jan eta edan bear duela vicitzeco.*

Jateco edo edatecoaz iñoiz ez quejatztea, da mortificatzeco modu bat chit alabagarria: bidezco gauza da eheco buruac iduquitzea bere mendecoen contra; baña onelacoac ez beza esan iñoiz jaquia dagoela ondo edo gaizqui maneatua, otza edo beroa, gueza edo gacia; espada jan beza dacarquiotena, eta dacarquioten moduan, nun eta igartzen



ez dion gaitz eguingo diola gorputzari edo animari, nola litzaquean gorputze-co ondo-ez bat eracartzeaedo gure legue santuco mandamenturen bat aus-tea. Santo Tomasec etzuen escatu iñoiz beretzat bacarricaco jaquiric, eta beti esaten zuen, ecen, ematen ciotenare-quin contentu gueldi zen zala. San Ignacioc etzuen aguertu egundaño aur-rean parataco jaquia artu nai-ezic, eta egosi gabea edo gaizqui maneatua egon arren, etzuen ezparic ematen. San Juan Climacoc, ere guztitic jaten zuen eta gañeracoac jan arteraño chit soseguz ichedon oi zuen, danoc batetan buca-tzeco. Baita ere da mortificacio gañ ga-ñecoa, utzitzea jan gabe araco zale vi-cia ematen diguten jaqui edo fruta aec, eta mortificacio-modu au iñor oartu ga-be eguiten danean, virtutezco obra asco eguin ditezque, zucenduaz edo esque-ñiaz Jaungoicoari sacrificio edo on-iriste oec Cristoren gurutzea darama-gun bitartean; izan gabetanic araco aec becelacoac, ceintsuezaz negar malcoac-quin quejatzen dan San Pablo, esanaz,



dirala Cristorea gurutzearen etsayac,  
beren sabela Jaincotzat daucatenac.

UQUITZE-SENTIDUAREN MORTIFICACIOA.

Ez ezazu iñoiz eguin edo uquitu gauz  
ichusiric, badaquizu, alabaña, ori da-  
la pecatu nazcagarri bat; utzico ere de-  
zu elcarri elduric eta guis onetaco bes-  
te jostalluetan ibiltzeco batzuec dau-  
caten oitura ichusia eta ondo ez dana;  
ceren dan decenciaren contraco gauza  
eta iñola ere eramán ecin ditequeana;  
iduqui ezazu gogoan beti araco esaera  
hura: *Esca jooa, billau jooa*. Eta ema-  
cumeacquin ez ecic, cere moduco la-  
gunacquin ere ez dezu eguin bear ala-  
co gauzaric; bay aciera onac eragozten  
duelaco, eta are obeto garbitasunaren  
contra dalaco.

GORPUTZ GUZTIAREN MORTIFICACIOA.

Guere gorputza edo araguaia da gure  
animaren etsairic gogorrena, odolgui-  
roena eta icaragarriena, orain berare-  
quin bat eguiñic dagoelaco, eta orain



setatsuena dalaco; alatan non, esan di-  
tequean, egunoro armatzen diozcala  
lazoac pecatuan amilduerazotzeco. Da  
brincoca erraz asitzen dan saldi eci ga-  
be bat, frenoa artzera, edo animaren  
servitsura, ceñetaraco eguiña izan zan,  
nequez jartzen dana: bada frenoa da-  
nic guichien ascatzen bazayo, ez baca-  
rric naiño du bidezcoa dan eta naita  
naiez zor dioguna, ezpada eramango  
gaitu arrastaca becela aragui gurarie-  
tara. Ez aztu, gorputzari, laneraco abe-  
re bati becela contu eguin bear diogu-  
la, emanaz jaten gure servitzua eguite-  
co bear duena, eta ez erregaloan idu-  
quitzeco, gueyegui guicenduric, uzta-  
rria artu edo paratzen zayon zama era-  
man nai ez-ean jarri ez dedin: orobat,  
bada, eguin bear degu gorputzarequin,  
au da, eman bear diogu jaten vicitzeco  
eta laneraco bear duen ambat, ez or-  
dea erregaloraco, abereac becela guri-  
guri jarriric, nai ez badegu ecicaitz  
eguitea, eta eraman gaitzala arrastaca  
eragabequeria guztietara, vicierazoaz  
ez centsu-dunari dagocan eran, ezpada  
grñen mendean abereen guisan, edo



are eta oquerrago, ceren oec badute berezco argui bat guzti guztian guiatzen dituena, baña argui au ere des-aguertzen da, dudaric gabe; bere griñen mendean vici danagan. Eri bati, aren sendaera bere gañ artzen duen sendaguiñ edo medicuac bereala dieta aguintzen dion becela, au da, dagoela jan eta edan gabe, edo arditzala neurri laburragoan eta aulagoac, calte eguingo diotela ezagutzen dituen alimentu batzuec, encargatuaz ere gorde dedilla osasungarriac ez diran aiceetatic eta gueyegui itz-eguitetic, dembora berean errecetatuaz botica edo sendagai egoquienac, eta osasuna berriz iristeco artaracoenac deritzaizcanac; alashe, eta ez beste moduz tratatu bear da gure gorputz, griñaz eta jayera macurrez gashotua dagoena: beraren sendaerari equin bear zayo dietarequin, griñac pizcortu edo indartu ditzatequean janedanac quenduaz edo urrituaz, alde-eguiñerazo bear zayo animaco calteren bat eracarri dezayotequean persona eta toquietatic, dembora berean errecetatuaz mortificacio batzuec, ceñac artuco



dituen boticacoac becela, confesore prudente eta jaquintsu batec aguintzen diozcan eran, edo benic beiñ eramango ditu paciencian eta quejatu gabe, gueroz billa ez gabiltzala atsecabetzen gaituzten gauzac, naiz izan ditecela oec lagun urcoacgandic, naiz abere, pizti eta elchoetatic, eta naiz, azque- nic, muñduco elementuetatic datoizqui- gunac; nola dan, neguan otza pacien- ciarequin eta penitenciaco espiritua- requin nocitzea, eta ecin berotua edo sutara ecin alderatua; uda berrian bu- ruco miña; udan beroa, euliac, arcacu- soac, etc., uda atzenean elchoac edo chimichac, etc.

Nic ezagutzen det persona bat, arca- cusoac ozca eguiten diotenean, bere buruari esaten diona modu onetan: «Ots, aberecho oec picatzen die guizo- «nai onela, lembicico eta guztien gu- «rasoac pecatu bacar bat eguin zuela- «co: orain bada, baldin persona baten «pecatu bacarragatic picatzen badie «guztiai, ¿cembat arrazoi gueyagore- «quin guztiac picatu bear lizuteque, «aimbeste pecatu eguin dituzun orri?»



Eta utzitzen die ari zayozcala beren bearra eguiten, picatuaz eta odola chupatuaz eta mortificacio au sufritzen du pacienci aundienarequin eta penitenciazco espirituan. Zu aimbesteraño iristen ez bacera, virtute guichiago dezulaco, sufri ezazu beintzat oraindaño baño cerbait gueisheago; pensa ezazu, ecen, baldin pecatu larrian il zeco desgracia izaten badezu, gueyago padecituco dezula infèrnuan, nora joango ceran; edo bestela purgatorioan, bada ara joan bearco dezu nai ta nai ez, baldin orain mortificatzen ez bacera, edo pecatu benialen edo confesaturic dauzcatzun larriac mereci duten penaren penitencia eguiten ez badezu; oroituco cera, alabaña, nola doctriña liburuac dion, Penitenciaco Sacramentuarequin barcatzen dirala peccatariac mereci diten infèrnucos penac, ez ordea purgatorioco guztiac.

Gauz ona eta chit prochugarria cenduque ere beste mortificacio gogozcoren bat eguitea, San Pabloc eguiten zuan becela, cionean: *Nere gorputza castigatzen det, animaren servitzura be-*



*artu dezadan*; baña gogozco mortificacioac eguiten asi baño len, zure asmoa aguer zayozu humilqui eta garbiro cere confesoreari, ceñac ondo beguiraturic zure osasunari, eguinquizun eta vicimoduari, esango dizun cer dan, Jaungoicoaren gusto gueyagoraco zuc eguin dezaquezuna.

### **Barrengo mortificacioa.**

#### NAICUNDE SENTICORRA.

Naicunde senticorrac dauzcatzi bi almen edo potencia: bata deitzen da aserregarria, eta bestea zalagarria; bi almen oec dira pasio edo griñen eserlecu. *Griña* itz onezaz aditzen ditugu naigarri sentitzallearen muguida eragabeac; bada guzaz camporaco gauzac edocein motivorengatic eguiten dute nean uquitze guisaco bat gure senti duetan, orduan oec muguierazotzen dute naicunde senticorra, eta emendicator muguida oni deitzea griña edo pasioa.

Griñac dira amaica: sei zalegarriaren



aldecoac; eta bost aserregarriarenecoac. Lembicico seirac dira: amorioa, gorrotoa, deseoa, iguesa, poza eta tristura. Aserregarriaren parteco bostac dira: esperanza, etsimena, billdurra, ausardia eta iraiña.

Griña edo pasioac ez dira berenez ez onac eta ez charrac. Esan dezaquegu dirala gorputzeco ezavici edo humore-en guisacoac, ceñac, bere neurrian dandenean gorputzari osasuna eracarri eta gorde, baña gueitu edo guichitu ezque-ro, eritasunac, eta azquenic eriotza dacarquioten becela: ala griñac ere, arrazoyaren mendean, eta onec zaituac baldin badaude, dira virtute guztien meatze bat, baña azaldatzen badira, contu eguin diteque, vicio, culpa eta pecatuzco osin bat dirala. Orregatic hitz conveni da iduquitzea guztia oso-toro escuratuac arrazoyaren leguetara, eta baldin iñoiz, oartu gabea, beraren contra alchatzen badira, zaldi ecicabeac becela, oartu becin laster arrazoi beraren bridacquin menderatu eta escuratzea. Era onetan griñac mortifica-



tuac iduquitzetic datoꝝ animaco sose-  
gua, eta viotzeco paquea, ceñac diran  
ondasun paregabecoac, mundu onetan  
ere ceruco zorientasuna lendanaz go-  
zaerazotzen digutenac.

## IRUDIGUIÑ EDO IMAGINACIOAREN

### MORTIFICACIOA.

Irudiguiña edo imaginacioa ecin da-  
goque gueldiric; orregatic conveni da  
adierazotzea beti gauza on eta prochu-  
garrietan, eta onetaraco servituco dizu-  
te ondorengo gaztigu oec.

1.<sup>coa</sup> Gogoraeracico diozcatzu pen-  
samentu on eta prochuzcoac, gaiztoac  
bereala burutican quentzeco contu aun-  
dia iduquiaz, cergatic bein sartzen ut-  
zitzen badiezcatzu, guero zuc uste be-  
cin erraz ez dituzu botaco.

2.<sup>ena</sup> Contu eguin zayezu gorputze-  
co sentiduai, ichita iduquiaz animari  
caltea eracarri lezayoquean guztiraco;  
bada jaquin bear dezu, imaginacioa  
illduratzeco necatzen danac alperrica-  
co lana eguingo duela, baldin aurretic



gorputzeco sentiduac illduratzen sayatzen ez bada.

3.<sup>ena</sup> Egundano etzaitez egon alperic: ari zaitez beti Jaungoicoaren seruitzuc gaucetan, lagun urcoaren prochuzcoetan eta zure vicimoduari dagozcan eguinquizunetan; ceren imaginacioa era onetan arazotua egon ezquero, ez da zabartuco ecerezquerietan eta gauza caltegarrietan.

4.<sup>ena</sup> Pensa czazu, zure itz eta obrac ez ecic, pensamentuac ere juzgatu bear dituen Jueza dan Jaungoicoaren aurrean zaudela. ¿Eta zure gogoai igarrico liequean guizonaren aurrean venturatico etziñaqueana, venturatico cera pensatzera Jaungoico Juez onen aurrean?

#### ADIMENTUAREN MORTIFICACIOA.

Guizonagan dagoen on eta char guztiaren sustraya, adimentua da, Sacrificio aundia eguiten dio Jaungoicoari, norc bere centsu edo adimentua menderatzen dionac, batez ere onaco aldi oetan.



1. <sup>coa</sup> Norc beregan sentitzen duen naguitasuna, quendu edo ventzutzean, obligacioz jaquin bear dituen gauzac icasteco; bada bacoitzac chit ondo jaquin bear ditu gauz oec, baldin eracarrri nai ez badu bere gañera Jaungoicoaren ira eta aserrea, Apostoloac itz oecquin dion becela: *Ez daquiena izango da ez ezagutua.*

2. <sup>ena</sup> Ber bere iritzia nagusiagoenera jartzean, ontzat emanaz aec aguintzen dutena, eta beti obedituaz, nun eta aguindutacoa ez dan Jaungoicoaren leguearen contracoa.

3. <sup>ena</sup> Ber bere iritzia utzitzean besteren iritzia, beste hura bera becin jaquintsua eta nagusiagoa izan ez arren, aditzen da, gauza gaiztoen gañean ez danean, ceren alacoetan ez dezaquezu, eta ez dezu bear ere menderatu; baña suertaldi onezaz campora, ez ezazu sortu despitarie eta etzaitez leyatu, ezpada jarri bestearen iritzira. cergatic San Francisco Salescoac dion becela, bestec nai duenera jartzea da caridadearen frutua, familietan eta gañeraco



lagun urcoetan paquea eta amorioa sortzen eta sendotzen duena.

4.<sup>ena</sup> Gauza caltegarri eta ecerezqueriez jaquin-naya mortificatzean, naiz izan dedilla jaquin-nai au ala libru gaiztoac eracusten duten gaucen, nola murmuratzalleac echean, auzoetan eta errian pasatzen dan guztia banatzen dutenen gañean.

5.<sup>ena</sup> Besteren itzac eta obrac ez juzgatzean, baldin nagusi izateac onetara beartzen ez badu, bada ala danac egon bear du ernai, eta celatatu bear du bere mendecoac esaten eta eguiten dutena, edo dezatequena, gaizqui esan edo eguin badute, centzatzeco, eta bestela aldeaurrez eragozteco; baña gañera-coan, iñorzaz juzgatu bear da beti alic ondoena; eta argui arguiro gaiztoac diran gaucetan ere, beti juzgatu bear da erruquiz, gogora ecarriaz, uts-eguiteric asco gueroc ere baditugula, eta lagun urcoaren lecuan arquituco baguiñaque, eta Jaungoicoac eutzico ez baguinduzque, hura baño gaiztoagoac izango guiñaqueala.



OROIPEN EDO MEMORIAREN MORTIFICACIOA

Oroipena illduratu bear da ondorengo gauz oetan:

1.<sup>oa</sup> Escuratu pensamentu galduac, eta sayatu lagun urcoac eguin dizqui-gun charqueriac aztutzen; eguin orobat icusi edo aditu izan diran gauza loyac-quin, eta beste edocein gauza gaizto, gogoratzen zagunarequin.

2.<sup>ena</sup> Ez lecuric eman viotzean, iduripen gaiztoz anima betetzen, eta oracio demboran arreta galerazten duten pensamentu arro eta balio gabecoai.

3.<sup>ena</sup> Burura datozquigun pensamentuai, danic onenac badira ere, ez eman lecuric, demboraz campora datozquigunean, nola dan oracioan, mezatan eta beste devocioetan gaudenean, baldin obra ber oecquin ondo eratzten ez badira, eta oroipena beti ondo empleatua iduqui dezagun, gauzaric onena da chit maiz gogoratzea, Jaungoicoa beti beguira dagoquigula.



GUEREQUICO AMORIOAREN ETA VORONDA-  
TEAREN MORTIFICACIOA.

Blosio beneragarriac itz-eguitean vorondatea mortificatzearen gañean, dio, ecen, Jaungoicoari ecin esqueñi deza-yoqueala inorc, bere vorondatearen sacrificioa becin beraren gogoco sacrificioric, eta beste toqui batean dio, Jaungoicoaren gloriaraco edo amorioraco norc bere vorondatea, besterena eguiteagatic, mortificatzen duenac ematen diola Jaunari atseguin bat, ogui eta ur dembora lucean barauturic, eta bere gorputza azotez gogorqui cealaturic emango lioquean baño aundiagoa. Eta contrara, vorondate illduratugabeac animari eracartzen dion caltea da aimbesterañocoa, non, San Bernardoc dienez: *ez litzaque izango infernuric, ez balego guerequico vorondateric.*

Guerequico vorondatearen mortificacioa eguingo degu ondorengo aldi oetan:

1. <sup>coa</sup> Eguin bear dan lan bacoitzean jaquindu ezazu, edo para arret aundia



jaquiten cein dan Jaungoicoaren vorondatea.

2.<sup>ena</sup> Escatu Jaungoicoari mortificacio au, cere buruaz desconfiatuaz, eta beragan confianza osoa jarriaz, uste izanic guztia baditequeala bere graci santuarequin.

3.<sup>ena</sup> Esan sarritan oracio labur oec, edo oen antzecoen batzuec: *¡Cér nai dezu, nere Jaungoicoa nic eguitea? Eracutsi zadazu, Jauna, nere gogoa ucatzen, eta zurea eguiten. Zure vorondatea eguin bedi, ala ceruan nola lurrean. Ez det nai, nere Jaungoicoa, zue nai dezuna baici: Jauna, egizu niza: on deritzatzuna,*

4.<sup>ena</sup> Sayatu zaitez eguiten zure vorondatea baño obeto besteena, pecatu gabe eguin edo utzi ditezquean gauce-tan, eta modu batera edo bestera eguitea ecer importa ez dutenetan, jartzen ceralaric guztien mendean Jaungoicoaren amorioagatic. Eguite santu au da prochu aundicoa, bada orrela nor bere mendetasunezco acto edo obrac dijoaz lagunduac beste virtutezcoenacquin; eta unetic unera sortzen zaizquigun



era onac contuz aprobechatzen baditugu, Jaungoicoari chit atseguin emanaz gañera, asco aurreratuco guera perfectioco bidean. Gai onetan faltatzen dute asco persona, beren buruac santutzat eta perfeccio nayecotzat dauzcatenac, eguiac chit guichi badira ere: inoren mendean eta ecertan contrarie eguin gabe berac nai dutena, eta gogoac ematen dien moduan eguin dezaqueten bitartean dira chit onac eta contuzcoac; baña cerbait gogor edo contra eguiten badiezu, icusico dituzu bereala chimpartac darizcatela jartzen; itz zorrotzac esaten, quiñuca eta arpegui illunarequin beren gozacaitza aguertzen, eta lembicico itzean aserre vician sartzeco gai obean daudela, fosforo candelacho bat gauza latz batequin chalacatzean iracequitzeo baño. Onelacoacgatic esan diteque, araco ain egoqui datorquin en esaera hura. *Santu campoan, eta deabru echean*, gogaicarriac diralaco, nondic edo nola irabazten edo galtzen diran somatuco duenic ez dalaco. ¡Doacabeac!

5. ena Sayatzea eguiten guere voron-



datearen contraco eguiñ-aldi asco, gure barrumbe gaiztoa griñatzen edo zale dan gauz aetan ez ecic, baita berez gaiztoac ez diranai jayeraren bat diete-gunetan ere, eta au da egui eguiaz, norc bere buruari uco eguitea.

6.<sup>ena</sup> Artzea Jesucristo, gure eguiñ-quizun guztien ispillutzat, viotz viotzean deseño aundi bat sortuaz humil-dua eta despreciatua izateco, eta bera-gatic aguinte eta honratatic itzuli ibilli ez ecic, lambide despreciagarriac eta iñorc opa ez dituenac nai izatea. Bere buruari alabanza ecarri lezayoquean gauzaric egundaño ez contatzea, nun eta Jaungoicoaren gloriac eta lagun urcoaren prochuac artaratzen ez duen. Erreprensioaren bat, culpahun izan ez arren ematen zayonean, ishiltzea bere burua garbitu gabe, guztia Jaungoico-ari esqueñiaz, eta pensatuaz ori eta are gueyago mereci dutela bere pecatu or-ducoac edo lenagocoac: eta orretan guztian ez nai izatea iduqui dezatela persona humilltzat eta virtutetsutzat, ezpada culpahun eta uts-eguille bat balitz becelacoa.



7.<sup>ena</sup> Gogo prestu eta erabaqui bat iduquitzea, nagusiagoac aguintzen diona eguiteco ez ecic, baita naico dutela igartzen diona ere, aguertu edo aguindu dezayoten arteraño ichedon gabe.

8.<sup>ena</sup> Quentzea viotzetic munduco gauzaen jayera edo naitasuna, Jaungoicoa, edo Jaungoicoagatic baicic besteric amatzen ez dan moduan. Munduco gaucen utzitze au chit conveni da perfeccioan aurreratze. Beragatic jarri bear da arret aundi bat gauzaric chiquien eta ecerez-enai ere jayeraric ez artzeco, ceren ascotan onelacoac viotza betetzen dute aundiac, baliosoac, ederrac eta banacacoac ambat edo gueyago. Emendic ezagutzen da, ecen, jayera au alaco gauza chiqui edo cheaquerietara batec sentitzen duen becin laster aye-natu bear dituela, viotza beracquin itsatsi dedin baño len, bada criaturetaraco jayera eragabeac sarrera isten dio Jaungoicoaren amorioari, idiquiaz gue-requicoari; eta jaquin, ecen, mundu onetan daucagun edo usatzen degun guztia iduqui bear degula batere jayera



edo viotza berarequin itsatsi gabe, beti prest egonaz guztia utzitzeco, ala conveni dala dirudigunean, eta ez dirala estimatu bear, Jaungoicoa servitzeco gai onecoac diranez baicic.

9. ena Artzea nequeac, penac, bidega-bequeric, lotsaquizunac eta desprecioac osotoro jarriric Jaungoicoaren vorondatera, eta beraren escu onguille-tic datoqũigun erregali batzuec becela, eta perfecciora bide-eguiteco, eguin bear da ondorengo lau modu oetara.

1. coa Gauzaric necosoenac eta gaitzenac ere sufritu paciencian, gogoan iduquiaz San Pabloren esaera au: *In tribulatione patientes*, paciencitsuac naigabezco demboran.

2. ena Pacienciarequin sufritu ez ecic, eman esquerrac Jaunari, beretzat eta bere adisquide maiteenentzat gorde zuen caliz samiña guri edanerazotzean eguiten digun mesedeagatic.

3. ena Sufritu pacienciarequin eta esquer onez ez ececic, baita pocic ere apostoloac becela, *ceñac*, Liburu santuac diotenez, *pocetz beteric irtetzen ciran aucitegui edo tribunaletatic*, Jesusen ice-



*nagatic desprecioac eramateco dicha izan zutelaco.*

4. ena Sufritu pacienciarequin, es-  
quer onez eta pocic ez ecic, baita Jesu-  
cristoc becela, beraren amorez gueyago  
eta gueyago padecitzeco deseoarequin  
ere, bada Jaun oni, aimbeste pena des-  
precio eta naigabeacquin gurutzean jo-  
sirie cegoela, are gueyago padecitzeco  
egarriac erretzen cion viotza. Eta Jaun-  
goicoa men menetan maite dutenen-  
gan, amorioa dan becin vicia da sufri-  
tzeco gogoa ere, eta atsecabeac artzen  
dituzte gloriatzat, San Pauloc bere bu-  
ruagatic segurutzen duen becela, esa-  
naz: *Nic ez dezadala atseguñic artu Je-  
sucristo nere Jaunaren gurutzean baicic.*

Emen daucazu aguerturic, ó cristau  
chit maitea, cer eguin bear dezun, Je-  
sucristori jarraitu nai badiozu: cere  
buruari uco eguin bear diozu, eta gu-  
rutzea arturic aren atzetic joan bear  
dezu; au eguiten ez duena, ez da izan-  
go egundano on ona edo perfectoa. Gu-  
re izateari au gauza gogorra iduritu ar-  
ren, ez dauca erremedioric, orretara  
jarri bearrean arquitzen da. Baña joh



gauza negargarria! au da eguiten ez dana. Asco dira, bai, Jesucristori Taborco mendira seguitzen diotenac, baña ¡cein banacac! Calvariocora. Esan nai det, guztioac Jaungoicoaren adisquideac guerala, ondasunac eta atseguñac ematen dizquigunean, baña eritasunac, atsecabeac edo beste gaitz batzuec biraldu ezquero, orduan atzealdean ematen zayola. Etzaitez izan zu oetacoa, ezpada ar ezazu ematen dizuna. Ondasunac bialtzen badizquitzu, etzaitez aspertu esquerrac ematen, miretsiaz beraren zugaraco ontasuna; eta neque edo atsecabeacquin probatzen bazaitu, jarri zaitez osotoro beraren vorondatera, uste izanaz ori dala zuri conveni zatzuna, eta berac, mereci ez bazuen ere, zugatic are gueyago sufritu zuela; eta era onetan irichi al izango cera, azquenic, aiñ menetan opa dizudan ceruco gloriara. Amen.



## Paciencia.

### BERA IRISTECO BIDEAC.

¡Cristaua! negar eta penazco valleda onetan deserritu bat cera, eta ona emen cergatic ain premiazcoa dan zuretzat paciencia, nola jaten dezun oguia. ¿Nai dezu menetan irichi? nic promestutzen dizut eceztatuco nazun bildur gabe, eguiten badituzu, ondorengo gaztigu oec:

1. <sup>coa</sup> *Aserre zaudenean, ishildu zaitetz.* Aserre viciac dirauzun bitartean ez ezazu ecer eguiñ, ez itzic esan, ceren esan edo eguiñ dezunaz, guero artuco cenduquean damuaz gañera, venturaz erremediatu eciñac izango liraque zure berotasun orrec lecarzquian calteac.

2. <sup>ena</sup> Oroitu zaitetz, ecen, baldin Jaungoicoac vicia quendu izan balizu aurreneco pecatu eguin cenduenean, orañ arquituco ciñala infernuan gar eguiten, eta padecitzen emen orañ baño gueyago; eta emen padecitzen de-



zun eta an padecituco cenduqueanaren arteco auquera emango balitzatzuque, ¿etzentzuque autuco emengoa, utziric infernucoa? Eguizu bada contu, emengo penac Jaungoicoac ematen dizquitzula, an padecitu bear cenduqueanaren ordañez. ¿Eta ez dituzu sufrituco?..

3.<sup>ena</sup> Alcha ezazu cerura zure pensamentua, eta beguira, ceñ aundia dan an ichedoten dagoquizun gloria, pacienciarequin emen sufritzen baldin badezu: ez dute ez cer icusiric vicitz onetaco penac, ordañez Jaungoicoac guero emango dizun gloria eta sariarequin, eta jaquin bear dezu, ecen, ceruco sari aundi aec, San Gregorioc dion becela, ecin inore irichi ditzaqueala neque aundien bidez baicic; eta neque oec eraman bear dira paciencia eta Jaincoaren gracion, ez aute bestela deus servitzen ceruraco.

4.<sup>ena</sup> Pensa ezazu, pacienciarequin eta Jaunaren gracion sufritzen ez duenic ez dala izango gloriáz coroatua; argatic San Juanec icusi zuen, nola ceruco Santu guztiaç ceramazquiten uetan palma adarrac, ceñac adia-



razten duten martirioa, edo vicitz onetaco penac sufritzen izan zuten paciencia. Iracorri itzatzu Santuen vicitzac, Jesus eta Mariarenac, eta icusico dezu, nolaco pacienciarequin sufritzen cituzten lotsa gaiztoac, persecucioac, miseriac eta tormentu mota guztiac, batere culparic ez bazuten ere; eta zu pecatari errucarri, aimbeste dembora onetan infernuan gar eguiten egon bear cenduquean orrec, ¿ez dezu sufrituco?

5. ena ¿Ejemplo oec asco ez dituzu artaratu zaitecen? jartzera noaquizu, bada, beguien aurrean beste bat, deritzadanaz, muguituco zaituena: atoz nerequin, goacen Calvariora.....¿Icusten dituzu Jesusen aldamenean dauden araco bi guizon aec? biac dira lapurrac: biac daramazquite pena berdiñac; biai Justiciaren bidez quentzen zaye an vicia... baña ¿cein beneric dan bata bestearen patua! Bata urcamenditic paraisora dijoa. eta bestea, gurutzetic infernura; ¿eta cergatic? ceren au desesperatzen dan, paciencia artu nai ecic, besteac bere sententia pacienciarequin sufritzen duen bitartean. Jaquizu, ba-



da, guizon guztia daramatela beren gurutzea mundu onetan; baña diferenci onequin, au da, gurutzea paciencian, Jaunaren gracion eta humillqui daramana, osotoro sinisturic, ori eta are gueyago bere pecatuacgatic mereci due-la, joango da cerura lapur onarequin; baña arrabiz, arneguz eta desesperacioz beteric daramana, lapur gaiztoarequin, joango da infernuetara, beticotasun guztian amorratzen egotera.

6.<sup>ea</sup> Pacienciaren virtutea irichico dezu, Jesusi eta Maria chit santari humillqui escatzen badiezu, onetaraco griceoro errezatuaz *Aita gurea* batequin iru *Ave Maria*. Nequeetan maiz esango dezu: *Nere Jesus socorri nazazu; Virgīna chit Santa, lagundu nazazu: Jaungoicoaren icenean izan dedilla; izan dedilla nere pecatuen pagu eta satisfacioan.* Arratzean beguiratuco dezu, ea egunaz ecertan uts-eguin dezun, eta uts eguñic arquitzen badezu, oec aimbat *Ave Maria* esango dituzu.



## Oarquera.

Paciencia prochugarria ta merecimentuzcoa izateco, gauza bearra da neque-penac Jaungoicoaren gracion sufritzea; cergatic pacienciarequin asco sufritzeac ez dion ecer servitzen ceruraco pecatu larriarequin dagoenari: bacarric servitzen dio lurreraco, esan nai det, munduco ondasunac iristeco. Eta au obeto aditu dezazun, gogoraerazo nai dizut Jesucristoc hare icasleai, guztia paciencian eramatera jarriazotzeco ipiñicien antz-esande edo ejemplo bera, esanaz, mundu onetan ceuden bitartean cirala, aurdun dagoen emacumearen antzecoac, bada onec arguiteco unean miñ vici viciac badaramazqui ere, guero arguitaratu duen aur ederra icusteac sentierazotzen dion pozaren pocez, guztia ontzat ematen dituela. Orobat cristau eguiazcoac ere, mundu onetan dauden bitartean, dira arguiteco dauden amac becelacoac; eramanzunnic asco ematen diezte negarrezco valleda oni dichecaten pena eta nequeac cerbait tristura sentierazoaz beren viotzetan; baña poztuco dira chit vicitzaren acabaeran, ceru-erriraco obra ain aundi eta onac arguitaratu dituztela icusten dutenean. Baña arguite ona-



gatic poztutzen dan amac naigabe chit samĩnac sentituco lituzquean becela, baldin aimbeste sufritu ondorean icusico baluque bere errayetaco frutu, consuelotzat izan bear citzayona, illic, arren janari baicic servitu bearco ez duela, era berean edocein cristauc, nolerebait esateco, arguitaratzen du ceru-erriraco, aur vici eta guztiz eder batzuec becela, Jaungoicoaren gracion dagoela eguiten duen on eta paciencian daraman gaitz guztia; baña pecatu mortalean dagoen bitartean eguiten dituen obra onac eta paciencian daramazquian neque-penac dira, mundu onetaco oñaceen artean arguitaratzen dituen beste aimbeste aur becela, aur illac ordea; lurraren janari izateco, da esatea, munduco ondasunac iristeco baicic servitzen ez dutenac, eta iñola ere ez cerucoac, obra illac edo gai-ezac diralaco. Bera-gatic bada, bear dira Paciencia eta Gracia, eta graci au noiz edo noiz galtzeco, edo pecatuan erortzeco argaltasuna izaten badezu, eguizu lembait len contriciozco acto iracequi bat, eta confesatu al dezun lenena, aimbeste obra ill, ceru-erriraco esrvitzen ez dizquitzen moduan arguitaratzeco patu charra izan ez dezazun. Alaz guztiaz ere, ez dedilla egon peccataria obra onac eguiñ, eta neque-penac eta gaitzac paciencian era-



man gabe. Jaungoicoagandic irichi dezan  
benic bein on-biurrera eguiazcoa, baña si-  
nismen osoan bego, ecen, obra onac egui-  
ten, eta neque-penac sufritzen baditu ere,  
egundaño ez duela merecituco ceruric,  
Jaungoicoaren gracion ez dagoen bitartean.









## SAN JOSERENGANACO DEVOCIOA.

Ceruco Santuen artean San José gloriatsua da, dudaric gabe, cristauari devocio eta confianza aundiagoa gogaerazo bear diotenetatic bat. Bay; confianza aundia iduqui bear du beragan, jaquitean, Jaungoicoac autu zuela guizon guztien artean, virgiñtasuna galdu gabe Jesusen Ama izan zan Mariaren senartzat; eta nola Jaungoicoac bacoitzari ematen diozcan bear dituen laguntza eta graciac, aren bitartez eguiñ asmo duena ondo betetzeco, ¡ceñen graci aundiac emango ciozcan San Joseri, ondo bete cezaquean bere contura utzitzen cion lambidea! ¡Cer humilltasun sendoa, cér garbitasun ainguerucoya, cér caridade iracequia etzan arquituco San Joserengan, Mariaren senar izateco diña zan persona bacarric cegocan becela!

Onezaz gañera, San Joséc beste eguimbide bat bazuen, bada eman citzayon Mariari, beraren senar becela gorde, amparatu eta laguntzeco ez ecic, baita escutatze ere deabruari Jaun-



goicoaren Semearen Guizon-eguitearen misterioa: nola aur aguertu nai izan zuen Jaungoico guizon eguiñ onec, bere Aita ordecoztat autu zuen San Josē, uste onetan asi, eta beraren coatua izan cezan: ceña guztia San Josec chit ondo bete zuen, eta Jesus ordañez, bere mendean osotoro egon citzayon.

Orain, bada, baldin ain ondo contu eguin bacien lurrean bere emazte Maria Virgiñari, eta Mariaren Seme Jesusi, biac beraren mendean egonaz, uste izan bear degu, valimentu aundia iduquico duela ceruan; eun doblatuan saristatuco ciola Jaungoicoac bere le-yaltasun tacha gabea; eta Jesus eta Mariac chit atseguñ izango dutela San Joseran bitartez graciac partitzen, beragandic artu cituzten servitzuen trunque; eta pensatu ere diteque, Jaungoicoa bera izango dala cristauac muguerazoco dituena graciac escatzera, esaten-dielaric Faraon Egiptoco erregueac ciona: *Zoazte Joségana.*

Eta eguiaz, aundia da, chit aundia, San Joseran valimentua, esperenciaz gañera Eleizaco Iracasleac, batez ere



Santo Tomasec, San Bernardinoc, San Francisco Salescoac, Gersonec, Isolanoc eta beste ascoc eracusten diguten becela; eta Santa Teresac, bere vici-tzaco liburuaren bostgarren capituloan dio bere buruagatic: «Ain gaz-«tea, izanic, nola icusi nintzan ain el-«barritua, lurreco sendaguiñac para«ninduten becela, cerucoenganatzeco«asmoa artu nuen....Nere bitarteco eta«Jauntzat artu nuen San José gloria-«tsua, eta berari gomendatu nintzayon«chit: arguiro icusi nuen nola nere«Aita eta Jaun onec premia onetatic ez«ecic honraren eta animaren galeraco«beste aundiagoetatic ere atera nin-«duen, nic escatzen jaquin nezaquean«baño prochu aundiagoarequin. Orain-«dic ez det gogoan, escatu diozcadan«gaucetatic bat irichi gabe utzi dida-«nic....Badirudi premia batean lagun-«tzeco doaya eman ciela Jaunac beste«Santuai; baña esperenciaz daquit.«Santu gloriatsu onec guztietan lagun-«tzen duela, eta Jaunac adierazo nai«digula, ecen, nola lurrean egon zan«aren mendean, eta contu artzallea



«baicic ez bazan ere, aitaren icena ceu-  
«calaco aguindu cezayoquean, ala egui-  
«ten duela ceruan ere escatzen dion  
«guztian. Orobat icusi dute beste per-  
«sona batzuec, berarengana gomenda-  
«tzeco nic esaten nienac....Beraren de-  
«voto eguiazcoa dan eta servitzu bere-  
«ciac eguiten diozcan personaric ez det  
«ezagutu dagoenic gueldi, virtutean  
«gueyago aurreratu gabe. Baldin itzal  
«aundico personaren bat banintz, po-  
«cic arico nintzaque bat banaca esa-  
«ten, neri eta beste ascori Santu glo-  
«riatsu onec eguindaco mesedeac....si-  
«nisten ez didanari ez diot beneric es-  
«catzen, ezpada, Jaungoicoaren amorez  
«eguin dezala prueba, eta esperenciaz  
«icusico du, ceñ ondasun aundia dan  
«Patriarca gloriatsu oni gomendatzea  
«eta devocio izatea....»

Beragatic, ó au iracortzen dezun  
cristauna, baderitzat zaudela erabaquia  
San Joserren devoto izatera: eta ala, ja-  
quizu, ecen, San Joserren devocio egui-  
azcoa dagoela batez ere oracio irace-  
quiacquin berari deitzean; confesio  
eguiazco baten bidez anima garbitzean



bere gogocoen diran servitzuen batzuec eguitean eta bere virtuteac jarraitzean. San José da eguiaz vicimodu guztietacoac beguien aurrean beti iduqui bear duten ispillua. Ezcongayac icasi bear dute San Josegandic garbitasuna eta ezcontza on bat izateco modua; ezconduac, nola vici bear duten beren alderdiarequin, eta beren humeen gañean cer contua iduqui bear duten; apaizac, Jesus nola tratatu bear degun aldarean; eta cristau guztia, nolaco aleguñarequin adonatu bear duten comulgatzera dijoacenean. San Joseren vicitzaco ispillutic guztioac artu bear degu lanera-co gogoa, gaitz eta persecucioetan paciencia, Maria chit santarenganaco devocioa, eta azquenic guztioac joan bear degu San Jose rengana, amparatu gaitzan vicitzan, eta batez ere eriotzaco orduan. Eta gu socorritzera San José patriarca gueyen limurtzen duen gau-cetatic bat, nola baidan errezatzea berac izandu cituen zazpi dolore eta gozo aundienac, orregatic emen ipintzen dira, jaquin dezaten nola errezatu bear diran.





# SAN JOSÉ PATRIARCAREN

ZAZPI DOLORE ETA GOZO AUNDIENEN

## ERREZOA.

---

Devocio vicienarequin aurrena errezatzen da contriciozco actoa, lembaitlen confesatzeco proposito sendoarequin, iristeco eraconetan animaco eta viotzeco garbitasun aundiena, esanaz: *Nere Jesucristo Jauna.*

¡Oh San José patriarca gloria-tsua! fede vici latec muguituric alderatzen naiz zure jar-lecu gloriazcora, ceñean, Jesusen eta Mariaren merecimentuacgatic, eta cerorren merecimentu eta virtute bereciacgatic Jaungoicoac ipiñ zaituela, irmero sinisten dedan Irichi zadazu, arren, pecatuer



zazpi itur-buruetatic libratzeco, oen contraco virtuteetan irmo eta sendo irauteco, Espiritu Santuaren zazpi doayez nere anima apaintzeco, eta vicitasun aundia-requin Jesus eta Maria amatzeco gracia, eta zure viotz erruquitsua are gueyago orretaratzeco, oroitu-arazten dizquitzut Jesusequin eta Maria zure emazte chit santarequin batean igaro ciñituen zazpi dolore aundienac eta izan ciñituen gozoac, cere naigabe eta atseguiñaz oroitzen cerala, erruquitu zaitecen nizaz, eta indazun escatzen dizudana, eta Jaungoicoa obeto servitzeco eta amatzeco, eta nere anima salvatzeco bear dedala Zuc ezagutzen dezuna. Amen.

LEMBICICO DOLOREA.

Cupitzen naiz zuzaz, ó San José



patriarca, Jaungoicoaren? Semearen Guizon eguitearen misterioaren berri gabe, zure emazte chit garbia aurdun icustean izan cenduen doloreagatic; eta part-artzen det sentitu cenduen poz eta atseguñean, - Jaunaren Ainguervari aditzean itz ain consolagarri aec: *José Daviden semea, ez quezcaric izan Maria zure emaztearequin vicitzeco, ceren bere errayetan daramana, Espiritu Santuaren obrax sortua dan.* Dolore eta gozo onen oroipenean erregutzen dizut, iríchi zadazula gracia, arroqueriatic libre arqui-nadin, eta humilltasunaren virtutez apaindua, eta Jaungoicoaren bildurrezco doayarequin aberastua (1).

*Aita gurea eta Ave Maria.*

(1) Espiritu Santuaren doayac era onetan jartzen dira pecatuen zazpi itur-buruen contra Icusi bedi Gaume, *Catecismo de perseverancia*, tom. 3, pág. 268



BIGARREN DOLOREA.

Cupitzen naiz zuzaz, ó San José patriarca, Jesus eta Maria ostatuz estalpe batean icustean izan cenduen doloreagatic, eta part-artzen det, Aingueruac, artzayac eta erregueac Jesus adoratzen zutela icusteac sentierazo cizun poz eta atseguñean. Dolore eta gozo onen oroipenean erregutzen dizut, irichizadazula gracia, guticiatic libre arqui nadin, eta liberaltasunezco virtutez apaindua, eta conselluzco doayarequin aberastua.

*Aita gurea eta Ave Maria.*

IRUGARREN DOLOREA.

Cupitzen naiz, ó San José patriarca, Circuncisioco egunean Jesusi cerion odola icustean izan



cenduen doloreagatic; eta part-artzen det, Jesus icena ipintzeac sentierazo cizun poz eta atseguñean. Dolore eta gozo onen oroipenean erregutzen dizut, irichi zadazula gracia loiqueriatric libre arqui nadin, eta garbitasunezco virtutez apaindua, eta jaquinduriazco doayarequin aberastua.

*Aita gurea eta Ave Maria.*

LAUGARREN DOLOREA.

Cupitzen naiz zuzaz, ó San José patriarca, Maria zure emaztearen anima batetic bestera dolorezco ezpata batec pasaco zuela esaten Simeoni aditzean izan cenduen doloreagatic; eta part-artzen det Simeonec eta Anac Jesusi eguiten ciozcaten alabanzac aditzean sentitu cenduen poz eta atseguñean. Dolore eta gozo onen oroipenean



erregutzen dizut, irichi zadazula gracia irain griñatic libre arqui nadin, eta pacienciazco birtutez apaindua, eta Jaincozco ezagumentuaren doayarequin aberastua.

*Aita gurea eta Áve Maria.*

BOSTGARREN DOLOREA.

Cupitzen naiz zuzaz, ó San José patriarca, Jesus Herodesec perseguitua icustean izan cenduen dolo-reagatic; eta part-artzen det, Egiptoco Jaungoico guezurrezcoac erortzen icustean sentitu cenduen poz eta atseguñean. Dolore eta gozo onen oroipenean erregutzen dizut, irichi zadazula gracia jan-edaneraco zale gueyeguitic libre arqui nadin, eta templanzazco vir-



tutez apaindua, eta adimentuzco doayarequin aberastua.

*Aita gurea eta Ave Maria.*

SEIGARREN DOLOREA.

Cupitzen naiz zuzaz, ó San José patriarca, Herodes erreguearen toquian Arquelao cegoela jaquittean izan cenduen doloreagatic; eta part-artzen det, Nazareten seguru egon cindezqueala uste izatean zure viotzac sentitu zuen poz eta atseguñean. Dolore eta gozo onen oroipenean erregutzen dizut, irichi zadazula gracia, envidiatic libre arqui nadin, eta caridadez apaindua, eta piedadezco doayarequin aberastua.

*Aita gurea eta Ave Maria.*



ZAZPIGARREN DOLOREA.

Cupitzen naiz zuzaz, ó San José patriarca, culpa gabe bederic Jesus galdu cenduelaco izan cenduen doloreagatic; eta part-artzen det, Eleizan arquitean sentitu cenduen poz eta atseguñean. Dolorre eta gozo onen oroipenean erregutzen dizut, irichi zadazula gracia, naguitasunetic libre arqui nadin, eta ernaitasunez apaindua, eta irmotasunezco doayarequin aberastua.

*Aita gurea eta Ave Maria.*

Jesus, José eta Maria, ematen dizutet viotza eta anima nerea.



**JOSEREN AGURRA.**

Agur, José, guizon zucena eta graciaz betea, Jauna da zurequin, eta zu cera zorionecoena guizonen artean, ceren mantendu, sailu eta goardatu cinituen Maria Virgiña, eta bere sabeleco frutu cerucoa Jesus.

San José Jaungoicoaren Amaren senar garbia eta Jesusen aita uste-coa, erregutu ezazu gu peccatarioc-gatic orain eta gure eriotzaco or-duan. Amen Jesus.





# SAN ANTONIO PADUACOARENGANACO

## DEVOCIOA.



Fede dunac San Antonioren ganaco duten devocioa eta confianza beti izandu da chit aundia, bada guztiac icusten dute beragan Santu aundi bat Jaungoicoac honratu duena beste asco ez becelaco moduan. Mirestuac izandu dira beti bere virtuteac, bere humilltasun aundia, bere garbitasun Ainguerucoya, aur Jesusenganaco bere amorio biguña, Aldareco Sacramentu guztiz santuarenganaco bere fede iracequia, animac salvatzeco bere celo vicia, herejeac arrazoira ecarrierazotzeco bere erru indartsua, ceñagatic zan, eguiaz aec izan cezatequean etsairic gogorrena, eta guztienquico bere caridade iracequia; emendic datoz Santu onen aimbesterañoco nequeac, gauz arrigarriac eta milagroac, bada obratzen cituen lurrean vici zan demboran, eta erriz erri cebillenean, eta obratzen ditu orain ce-



ruan Jaungoicoarequin vici dala ere. Bera da, fedez eta confianzaz deitzen dioten guztien consueloa: aren bitartez arkitzen dituzte galdutaco gauzac, bai irichi ere gorputzeraco eta animaraco, mundu onetaraco eta bestecoraco bear duten guztia.

San Antoniori bere devotoac eguiten diozcaten obsequioen artean gogocoenetaco bat da, beraren virtuteac jarraituaz gañera, Trinitade guztiz Santuari errezatzea iru *Aita gurea eta iru Ave Maria* eman ciozcan graci eta ornituzuen doayacgatic, eta ala Maria chit Santari, nola aur Jesusi eta Aldareco Sacramentu guztiz adoragarriari izan cien devocioaren oroipenean.

### ORACIOA.

Nere Aita San Antonio beti iduqui det nic zugar, escatzen dizudan onetan lagundu eta ont-artuco nazulazco fedea eta confianza, chit maite izan cenduen Jaunagatic,



eta cere besoetan aimbeste bider  
iduqui, cenduen aur Jesusgatic.  
Vicitzan eta eriotzan eguiñ ciñitu-  
en mirariacgatic erregutzen dizut,  
Santu doatsua, irichi zadazula es-  
catzen dizudana, baldin izan bear  
badu Jesucristo gure Jaunaren  
servitzuraco. Amen.

Orain eguiten da escaria, eta guero erre-  
zaten *da Aita gurea* bat.





# ZUCEN-BIDE LABURRA ETA ERRAZA,

EDOCEN SANTUREN HONRAN

IRU EGUN EDO BEDERATZI-URREN

BAT CONSAGRATZECO, ETA JAI AUNDIREN

BATERACO ONDO PRESTATZECO.



1. Iru edo bederatzi egun oec igaro itzatzu al dezaquezun bacartasun eta devocio aundienarequin, baña au dala bide, lendican dauzcatzun piedadezco ejercicioac gueitu, edo guichitu, edo oi dituzun orduaz campora eguin gabe.

2. Saya zaitetz egun oetan, zure lan jaquiñac obeto eta arreta gueyagorequin eguiten, eta esqueñi zayozcatzu, iru eguneco edo bederatzi-urren au eguiten diozun Santuari. Escayozu zure uts-eguiñac ordaindu ditzala, eta zure erreguac eta eguiñac Jaunaren aurrean ipintzeaz mesede eguiñ dizazula.

3. Egunoro dembora piscacho bat igaroco dezu Santuaren vicitza consideratzen edo iracortzen. Zure uts-eguiteac paraco dituzu aren virtute, jarraitzera aleguiñean sayatuco ceranen pa-



rean, eta lotsatu eta humillduco cera, icustean zaudela aimeste utseguitez betea.

4. Baldin ez badaquizu iracortzen eta meditatzen, benic bein entzungo dezu Meza santua beraren honran, zure eguinquizunac beta ematen badizute.

5. Esandaco egunetan errezatuco diozcatzu iru *Aita gurea*, *Ave Maria* eta *Gloria*, Trinitade guztiz Santuari, esquerrac emateco Santu oni eguindaco mesedeacgatic; ondorean escatuco diozu, Santu orren bitartez irichi uste dezun graci berecia.

6. Eta errazago iristeco, on izango da mortificacio edo penitenciaren bat egun aetan eguitea, eta gañera Santuaren jai vezperan barau ateratzea. Auguztia, aditzen da, eguin bear dezula cere confesorearen baimenarequin.

7. Bederatzi-urren edo iru eguneco oni acabaera emango diozu confesio on eta comunio iracequi batequin; eta ez ezazu dudatu, cere partetic aleguina eguitera, irichico dezula escatzen dezu-na, conveni baldin bada zure betico salvacioraco.



## GURE DEVOCIOZCO SANTUREN BATEN

JAYA BEAR BECELA CELEBRATZECO  
MODU EGOQUIA.

---

Egun onetan Santuaren devotoac Meza entzungo du beraren honran, besteetan baño devocio gueyagorequin, aurretican artuaz, al baditzaque, Confesioco eta Comunioco Sacramentu Santuac. Guero dembora piscacho bat igaroco du Santuaren imaña baten aurrean ondorengo afecto oec eguiten...

Gauza guztien Jaun eta Eguille Soberanoa, Aingueruac humillqui errespetatzen, Goi-aingueruac ichu ichuan obeditzen, Serafiñac eta Santuac gogozco adoracioac eguiten dizquitzena, nic adoratzen zaitut perfeccio guztien billcui, on eta santutasun guztiaren iturri beti dirauzun, eta beñere agortzen etzerana becela. (*Emen esango dio-*



*zu iru bider, guero eta devocio  
gueyagorequin: Adoratzen zaitut,  
Jauna; bai, adoratzen zaitut erres-  
peto eta beneracioric aundienare-  
quin).*

Esquerrac ematen dizquitzut,  
Jauna, zure servitzari maite eta  
leyala San N. emen lurrean, apain-  
du cenduen izatezco eta graciazco  
doai bereciacgatic, eta ceruan  
eman diozun gloriagatic. (*Eta doai  
oec zureac balira becela, esango  
dexu iru bider: Esquerrac, Jauna,  
milla esquer beragatic.*

Ni criatura billau eta peccatari  
argal onec poz artzen det, ó San-  
tu chit gloriatsua, cere griñac aiñ  
osotoro eci ciñituelaco, escualdi  
ain aundiac eta santutasun ain ga-  
ñecoa merecitu izan dituzulaco.  
Dembora berean lotsatzen naiz,  
ó nere Amparatzalle maitagarria,



zure antz ain guichi dedalaco. (*Arzazu atseguin menetan aren irmotasun eta iraupenagatic, eta lotsa zaitex zure bildur eta naguitasunaz, esaten diozula iru bider: Ó Santu almentsua, balia nazazu, nerrau ventzutzen eta santututzen jarraitu zaitzadan*).

Miragarriac dira, eguiac, zuc utzi cizquigutzun virtutezco ejemploac, asco eta aundiac, nic eta zure devotoac cerutic zure valimentu indartsuaren bidez arturic dauzcagun mesedeac. Zure mesede oen esquer onac aecquin batean emanic, atseguin aundi batequin esqueintzen dizut, ó nere Bitarteco gozoa, mundu guztian gaurco egun onetan ematen zatzun honra eta beneracioa, erregutuaz irichizadazula gracia jarraitu ditzadan nic ere, zuc ain era miragarrian



izan ciñituen virtuteac, batez ere;  
(*Señalatu ezazu emen, jarraitu nai  
dexun virtutea*).

O nere Jesus Jaungoico guztiz maitea, ar zazu, arren, zure Santu onen berotasuna nere epeltasunaren ordañez, bere merecimentu aundiac nere pecatu larri eta nazcagarrien satisfacioan, bere ejemplo arrigarriac nic eracarri izan nitzaquean escandaloen erremedioan. Eta zuc, Trinitade guztiz Santu eta doatsua, indazu baimena esqueintzeco zuri nere argaltasunen leiz-ondo quirastutic, zure servitzari chit leyalaren viotz garbi eta biguña, eta emen lurrean zu amaten aguertu zuen caridade chit iracequia, nere viotz gelatuac oraindañocoan amatu zaituen oztasun negargarriaren ordaintzat. Eguizu, Jaungoico bacar eta Iru-



coya, nic ere mundu onetan na-  
goen bitartean, arc becela servitu  
eta alabatu, amatu eta honratu  
zaitzadala, irichi dezadan arequin  
batean zu icustea, amatzea, alaba-  
tzea eta gozatzea betico vicitzan.  
Amen.

Bucatuco dezu iru bider esanaz soseguz,  
arretaz eta devocioz:

Gaitz guztiaç nigandic,  
Jauna, quendu itzatzu;  
Zure Santua bitarte,  
Graci au eguidazu:  
Arc becela nic ere,  
Zaitzadan honratu,  
Canta beticoarequin  
Glerian alabatu. Amen.



## BICI-MODU DIFERENTEETACO

### OBLIGACIOAC.

---

#### ECHEETACO BURUEN OBLIGACIOAC.

1. Beren bici-moduari dagocan eran familia acitzea.
2. Joco eta eraquerietan hacienda ez ondatzea.
3. Mirabeai, languilleai, etc., beren irabaciak bear becela pagatzea.
4. Beren humeen eta mendecoen oituren gañean ernaitasun aundia iduquitzea.
5. Jaungoicoaren itza aditzera eta Sacramentu Santuac artzera maiz joan ditecen neurri egoquiac jartzea.
6. Prudenciarequin leciatzea.
7. Irari edo beste griña gaiztoaren bati lecuric eman gabe castigatzea.
8. Ongui-nayarequin tratatzea.
9. Cererebaitetan aritzen beti iduquitzea.



10. Beren eritasunetan laguntzea.
11. Ondo esan eta eguiñacquin onezco bidea ematea.
12. Jaungoicoari beracgatic gomen-datzea; eta maishu, nagusi edo eche-coandre, etc., onac egoquitzea.
13. Semeac eta alabac, mutillac eta nescachac lecu batean elcarrequin egon ez ditecen bear diran neurriac artzea.
14. Bere itzacquin edo beste edocēñ guisatara gaitzeraco bidea familiari eman dezayoquean personaric echean ez artzea.

#### HUMEEN ETA MENDECOEN OBLIGACIOAC.

1. Gurasoai eta nagusi eche-coandrei Jaungoicoaren ordezcō batzuei becela beguiratzea, eta alatzat iduquitzea.
2. Viotzez maitatzea.
3. Bear becelaco errespetoa ecartzea, eta naiz beren aurrean egon ditecela, naiz ez, beracgatic beti ondo itz-eguitea.
4. Azcarqui obeditzea.
5. Leyalqui servitzea.



6. Premietan laguntzea.
7. Aen uts-eguiteac sufritzea, beti ishillic egonaz.
8. Aecgatic Jaungoicoari erregutzea
9. Echecho gaucen contua iduquitzea.

SENARREN OBLIGACIOAC.

1. Emaztea maite izatea, Jesucristoc Eleiza becela.
2. Ez despreciatzea, ceren dan iñola ere utzi ecin dezaquean laguna.
3. Bere mendeco bati becela guiatzea.
4. Bere persona gordetzallea dalaco, aren contua iduquitzea.
5. Decenciarequin mantentzea.
6. Paciencia guztiarequin sufritzea.
7. Amorioarequin laguntzea.
8. Ongui-nayarequin leciatzea.
9. Tratu gaiztoric, ez itzez eta ez obraz ez ematea.
10. Humeen aurrean, chiquiac izan arren, berai gaitzeraco bidea izan ditzayequen gauzaric ez esatea eta ez eguitea.



EMAZTEEN ORLIGACIOAC.

1. Senarra estimatzea.
2. Errespetatzea bere buru-zaya becela.
3. Obeditzea bere nagusi dan becela
4. Azcartasun guztiarequin asistitza. - -
5. Beguirune aundiarequin laguntzea.
6. Biguñtasunarequin erantzutea.
7. Ishiltzea aserre dagoenean, eta aserreac dirauen bitartean.
8. Beraren uts-eguiteac pacienciarequin eramatea.
9. Senarra erreceloan sartzeco gairizan ditequean elcartasunic iñorequin ez artzea.
10. Humeen aciera onean senarra-requin batean sayatzea.
11. Echeco gauzac eta bere ondasunac alperric ez galtzea.
12. Aitaguiarraba-amaguiarrabac errespetatzea gurasoac becela.
13. Coñatacquin humilla izatea.
14. Echeco guztiacquin armoni ona gordetzea.



GALAYEN OBLIGACIOAC.

1. Doctriñara joatea.
2. Adintsu edo persona zarrai errespetoa ecartzea.
3. Jostaqueta perilsuetatic aldeeguitea.
4. Alperqueriatic, eta suspichazco lagunetic igues eguitea.
5. Arratsetan berandu ez echeratzea,
6. Bere gorputza ilduratzea edo mortificatzea.
7. Amorio limurietic eta canta loyetic igues eguitea.
8. Ecercho ere, bere ehecoa izan arren, ezcutuan ez aritzea.
9. Jaungoicoari erregutzea; eta guizon censuzcoen on-esan edo consellua aditzea aciertu on bat izan dezan artu bear duen vici-moduan.

DONCELLEN OBLIGACIOAC.

1. Edoceñ eguiqueratan modesti aundia aguertzea.



2. Itzetan chit beguiratua izatea.
3. Ñor icusteco, edo bera bestec icusia izateco zaleric ez izatea.
4. Jantzian vanidaderic ez iduquitzea.
5. Guizonezcoacquin bacardadean itz eguitetic igues eguitea.
6. Naïtasun limuriai, dantzai, comediai, etc., gorroto izatea.
7. Erligiozco obrac maitatzea.
8. Une batean ere alperric ez egotea.
9. Bere vici moduari dagocan eraco illdura edo mortificacioen bat eguitea.

#### ANDRE ALARGUNEN OBLIGACIOAC.

1. Virtutezco ispillu bat izatea andre ezcondu eta ezcongayentzat.
2. Erretiroaren nayecoa.
3. Alperqueriaren contrarioa.
4. Mortificacio maitatzallea.
5. Oraciora emana.
6. Bere icen onaren celotsua.



ABERATSEN OBLIGACIOAC.

1. Beren ondasunacgatic Jaungoicoari esquerrac ematea.
2. Oetan confianza ez ipintzea.
3. Logreriacquín ez gueitzea.
4. Beren mendean bide gaiztoz ez iduquitzea.
5. Beren griñai atseguin eguiteco oezaz ez servitzea.
6. Beartsuacquín eta Eleizarequin onguille izatea.
7. Maiz pensatzea, ecen, aberatsac, beren ondasunac gaizqui empleatzen dituztelaco, chit arriscu aundian dau dela condenatzeco.

BEARTSUN OBLIGACIOAC.

1. Bere pobrezan jartzea osotoro Jaungoicoaren vorondatera.
2. Premian dagoelaco aitzaqueria-requin besteren gauzac ez beretzea.
3. Sayatzea vici-modu honesto bat eratzen.



4. Betico ondasunetan aberastutze-  
co aleguina eguitea.
5. Oroitzea Jesucristo eta Maria chit  
santa ere pobreac izan cirala.

MERCATARIEN OBLIGACIOAC.

1. Contentatzea irabaci moderatu  
batequin.
2. Guztiai bear adiña ematea pi-  
shuan eta neurrian.
3. Sal-gauzac, onac charraquin ez  
nastutzea.
4. Sal-gauza genero bat berac ba-  
carric ez artzea, eman ez daquion er-  
riari pobrezan erortzeco bidea.
5. Edocein trampia edo engaño-  
modu eguitetic bere burua apartatzea.
6. Pobrequin erruquitsua izatea.

OFICIALE ETA LANGUILLEEN OBLIGACIOAC.

1. Bere nequeac eta ez izanac Jaun-  
goicoari maiz esqueintzea.
2. Ernaitasun eta cintzotasun guz-  
tiarequin lan eguitea.
3. Jai egunean lanic ez eguitea: ez



ernegatzea eta blasfemiari ez botatzea.

4. Besteren gauzac ez iduquitzea.

5. Beren nagusiai gastuac eta calteac ez eraguitea.

6. Dembora alperric ez galtzea.

7. Itz emana ez faltatzea.

8. Lanean ari danean murmuracio-ric ez eguitea, jolas lasairic ez iduquitzea, etc.

### Lau gastigu San Ignaciorenac.

1. Iduqui ezazu, al dezaquezunera-ño, zure viotza Jaungoicoagan, eta Jaungoicoa zure viotzean, egonaz beti beragan pensatzen.

2. Jaungoicoaren vorondate guztiz santua izan bedi zure deseo guztien muga, eta lambide guztien asiera.

3. Ez ezazu quendu iñoiz Jaungoicoa zure beguien aurretic, naiz egon zaitecela lagun artean, naiz bacardadean.

4. Jesucristoren vicitza izan bedi zurearen ispillua lecu guztietan, eta arquite zaitequean edoceñ estaduan.



## Importanci aundico pensamentuac.

1. Ill bearra cera, eta zuc guichien uste dezun orduan. Onetan penza dezazula edo ez dezazula, sinistatu dezazula edo ez dezazula, illico cera, eta juzgatusa izango cera, eta salvatuco edo condenatuco cera, ona edo gaizquia eguiñ izango dezun eran; eta esan edo eguiñ al guztiacgactic ere, onetatic escapatuco etzera.

2. ¿Eta cér balioco dizu aberastasun guztiac inguratzeac, eta honra guztiac iristeac, eta gorputzari atseguñ guztiac emateac, zure anima galtzen badezu?

3. Aberastasunac eta honrac munduan guertatuco dira, gorputza obian, arrac jana izan dedin; eta pecatuan dagoen anima, infernuan. Evangelioaco aberats jaletzar arena obiratua izanduzan becela.



## Illaren egun bacoitzeraco sentenciac.

1. Jaungoicoac icusten nau. Jaungoicoac aditzen nau. Jaungoicoac juzgatu bear nau.

2. Jaungoicoa da nere Eguillea, nere Erredimitzallea, nere Onguillea, nere Aita, ¿Venturatuco naiz, bada, bera ofenditzera?

3. Anima, nerea da, bacarra da, beticoa da.... ¿nere zorigaiztocoa galtzen baldin badet!

4. Anima salvatuta, guztia salvatua dago; anima galdu ezquero, guztia galdua dago, eta galdua betico.

5. Mundu guztia irabazteac ¿cér balioco dio guizonari, anima galtzen baldin badu?

6. Ez dago paqueric, ez zorionic eta contenturic Jaungoicoagandic apartatua vici danarentzat,

7. Eriotza etortzen da, guichien us-te izaten dan orduan.

8. Istampatean eguiten da pecatu,



istampatean illtzen da, eta istampatean erortzen da infernuan.

9. Vicitza nolacoa, eriotza alacoa.

10. Eguiñac izandu guera bacar ba carric Jaungoicoarentzaco eta ceruraco.

11. Jaungoicoa amatzeaz osterontzeco guztia vanidadea da.

12. Une bateco atseguña..... ¿eta guero?... guero, neque-oñaceen beticotasuna.

13. ¿Céin vici al izango da infernucosu erretzallearen erdian, eta beti dirauten garren artean?

14. Condenatu batec ¿cér eguingoluque, nic dedan dembora baleucaque? Eta nic ¿cér eguiten det?

15. Obraz eguiñ gabeco deseo onez betea dago infernua.

16. Estua da ceruco bidea, eta guichi araco bidetic dabiltzanac: infernucoa zabala da, eta asco ara bide-eguiten dutenac. Guichiacquin vicitzea conveni da, guichiacquin salvatzeco.

17. Neque-eraman laburra, eta betico gozaera.

18. Pecatu venialac despreciatzen dituena, larrietan sarri erorico da.



19. Eriotzaco orduan, obra onac baicie ez gaituzte consolatuco, eguindaco gaizquiac beste ecere ez digu penaric emango.

20. Conveni izan zan Jesucristoc padecitzea, eta ala bere glorian sartzea.

21. Cristo barauric, ni ase-betean; Cristo larru-gorrian, ni ondo jantzia; Cristo penetan, ni leporañooco atseguiñetan...

22. Orain eguizu, eguiñ izana eriotzaco orduan naico cenduqueana; bada une artan naico dezu, baña demboraric izango ez dezu.

23. Zaute ernai eta oracio eguizute, erori etzaitezten tentacioan: Jesucristo da gaztigatzen zaituztena.

24. Oracio eguin bear da atsedengabe.

25. Ez da sartzen ceruetaco erreinoan, norc bere buruari gogor eguiñgabe.

26. ¡Ay munduaren zori gaiztocoa, gaitzeraco ematen dituen bideacgatic! baña are zorigaiztoagoa gaitzeraco bide emallea. Jesucristo da au diona.

27. ¿Cér poz sentitzen dute conde-



natuac oraiñ, mundu onetan gozatu cituzten, eta infernua eracarri cien atseguinetic?

28. Bere anima salvatzeco aleguiña eguiten ez duenac, edo federic ez du, edo eroa da.

29. Salvatzeco conveni da, eternidadea iduquitzea buruan, Jaungoicoa viotzeañ, eta mundua oñ-pean.

30. Ceruan sartu nai baldin bade-gu, iduqui dezagun beti gogoan Maria dala *ceruco atea*.

31. Gurequin dago beti Aingueru goardacoa: errespetatu dezagun bere presencia, aguertu dezayogun digun amorioaren esquer-ona, ar dezagun confianza bere laguntzan, eta devocio biguiña izan dezayogun San Joseri.

Ez gaitecela egundaño aztu oracio eguiteaz purgatorioco anima bedeinca-tuacgatic, peccatarien conversioagatic, eta Eleizaren eta Erreinoaren premiagatic.



## BOST ESAERA ESPIRITUZCOAC

IRISTECO AZQUEN-IRAUAUPENA JAUNGOI-  
COAREN SERVITZUAN, BADA AU DA  
VIRTUTEEN OSANDEA, ETA CERU-ERRIRACO  
GURE BIDEAREN MUGA.

Nola ez digun ecer ere proechatuco ce-  
ruraco bidea artzeac, baldiñ bucaeraraño  
ez bagabiltza beti bertatic, Madrida joan nai  
luquean bati, erri-buru artara joateco dese-  
oac eta bidean abiatzeac ecer ere balioco  
ez liotequetean becela, baldin bidean guel-  
dituco balitzaque, eta ara iristeco bear di-  
ran gañeraco neurriac artuco ez balituzque;  
era berean, guera etzaitecen burlatua gure  
bidajearen muga dan eriotzaco orduan,  
eguiteco guztien gañecoa dan betico salva-  
cioa, iristeco sayatuco cera obraz jartzen  
bost esaera oec, ceñac leyalqui gordetzen  
badituzu, baceudezque seguru, ondo allega-  
tuco cerala doatsuen errira, Jaungoicoaz  
gozatzeco bertan beticotasun guztian. Amen.

Lembicicoa da: *Lenago ill, ecen ez  
pecatu equiñ.* Bai, ala iduqui bear dezu  
erabaquia: utzi guztia Jaungoicoa utzi  
baño lenago. Onetan dago Jaunaren



legueco lembicico aguintea gordetzea. Orregatic San Alfonso Ligorio deadar eguiten zuen: *Galdu dedilla guztia, Jaungoicoa galdu baño lenago, eta mundu guztia mincailtu dedilla, Jaungoicoa izan dedin baño lenago...* Baña gure argaltasuna dala bide, pecatu larriren batean erortzeko desgracia izaten badezu, etzayozula orregatic lecurie eman desconfianzari, eta aidur gaiztoco espirituac, zu engañatzeko sortuerazoco dizun barrengo illuntasunari. Eguin bear dezuna da, piztuerazotzea bereala biotzean, céreguin dezun ondo beguiraturic, zure culparen damua, eta gorrotatzea amorio guztia zor diozun Jaungoico baten ofensa dalaco, ceren ofenditu dezun ori dan zure Jaungoicoa, zure Eguillea, zure Erredimitzallea, zure Aita... eta erabaqui lembait len confesatzea. Portatu bear cera puzoya edan duen persona bat becela; onelacoac aleguiña eguiten du bereala puzoya gombitatzeco goragarri indartsu batequin, vicia quendu dezayon baño len: era berean, pecatu mortal bat desgraciaz eguiten badezu, bereala



gombitatu bear dezu confesio santu eta damutsu baten bidez, pecatu orrec, puzoi indartsu batec becela infernuco obi izugarri eta beticora amildu zaitzala, nai ez baldin badezu. Ala ezeguitera, bildurtu zaitez, cristaua: beguira, anima bat baicic ez dezu, eta galtzen badezu ;zure zori gaiztocoa! jechico cera infernura, nondic iñoiz ecin irtengo ceran. Pensa ezazu ondo, beti iraunde guztian izan bear dezula, edo doatsua ceruan, edo condenatua infernuan... Pensa ezazu, ecen, condenatzen bacera, ez dizutela servituco deus aberastasunac, atseguinac eta honrac, eta mundu onetaco ecererequin ecin trucatuco dezula zure patu zorigaiztoa.

Bigarrena da: *Pecatuaeren bideetatic apartatzea*. Orrela eguiten ez badezu, seguru erorico cera pecatuan, bada Espiritu Santuac dionez, perilla nai duena, perillian galduco da. Erori nai ez badezu, eguin bear dezu abereac eguiten dutena, bada pasa bear dutenean miñ artu duten, edo erori diran toquirren batetic, erretiratzen dira, orretara-



co chircu luceagoa eguingo badute ere. Beste moduz eguiten badezu, guertatucoco zatzu eche batean, danic maicen garbitu eta autsa quendu arren, armiarmac iltzen ez badira guertatzen dana, au da, oec eguiten dituzten sareaz betea guelditzea bereala, lenago becela: edo guertatucoco ere zatzu, belar gaiztoac ebaqui dituen necazariari guertatzen zayona, zañetic atera ez baditu, errotzea bereala berriz, lenago becela. Beragatic, bada, baldin igarri badiozu erori ciñala Jaungoicoaren aserrean beraren ofensarequin dantzan, jocoan, nescach-mutillen arteco itzqueta limurietan, onelaco edo alaco personarequin daucazun trataeran, araco toqui edo eche artan, igues eguin bear dezu andic, eriotza billatu cenduen lecu quirastu batetic becela.

Irugarrena da: *Jaunari oracio eguita, eta Maria chit santari devocio izatea.* Azquen iraupena, gure Ama Eleizac eracusten duenez, da Jaungoicoaren doai chit bereci bat, eta nola doai au Jaungoicoac ez dien ematen escatzen diotenai baicic; orregatic Santo



Tomasec eracusten du, ceruan sartu alizateco, beti escatu bear zayola. Bai, beti esan bear diogu Jaunari: Betor gurgana zure erreinoa, orain Jaungoicoaren graciazcoa, eta guero betico gloriazcoa. Doai oec iristeco, Maria chit santarenganaco devocioaz baliatu bear degu, bideric indartsuenetaco batezaz becela. Bera da ceruco canale edo odia, gaitzetic apartatzeco eta ona obratzeco bear ditugun graci guztiac ishuritzen zaizquiguna. Bera da ceruco atea, Eleizac eracusten duen becela, eta Jaunaren misericordiaric ez du inore iristen, aren bitartez baicic, dio San German Constantinoplaco obispoac. Orregatic gomendatu bear zatzaizca egunoro Maria chit santari eta eguin bere gogoco servitzuen batzuec, nola diran, Errosario santua devocioz errezatzea, eta bederatziurren bat eguitea edo barauren bat ateratzea, osasunac eta zure lanac eragotzico ez balizuteque; gauz oec ecin eguin badituzu, utzi ezazu beintzat eguin gabe, eguitea cillegui cinituzquean gauza aetacoen bat edo bes-



te, demagun, lore bat usantzea, baso bat ur edatea, naico cenduquean toqui artara beguiratzea edo joatea, etc., guztiaz gañ saya zaitez jarraitzen beraren virtuteac, humilltasuna, biguntasuna, garbitasuna eta Jaungoicoari eta lagun urcoari izan cien amorioa. Chit encargatzen dizut esan dezayozula goiceoro, araco egunoroco ejercicio edo eguique-raen artean para dizudan oracio hura, Laburra bada ere, ceñagatic beñere ez dezun utzi bear, nic aseguratzen dizut, ecen, baldin irauten badezu errezatzen, beraren bitartez irichico dezula orain gracia, eta guero betico gloria.

Laugarrena da: *Mais artzea Sacramentu santuac, batez ere Comunio sagrada*. Berac dira Jaincozco graciaren odia, araco animac sendatzen dituen graci sendagarriarenac. Jesucristoc ipiñi cituen gure animen eritasunac sendatzeco, eta aetan berriz erortzetic gu gordetzeco. Gasho dagoenac bere gaitzetatic sendatzeco boticacoa artu ez ecic, berriz gaizquitu ez dedin janari sano eta sendoaz bazcatzen sayatzen dan becela; era berean zuc ere zure



animaco gaitz aldietan bert-erori, eta betico iltzea nai ez badezu, artu bear dituzu maiz Penitenciaco eta Comunioco Sacramentuac aurrenecoaren bitartez iristeco zure pecatuen sendaeraco gracia, edo graci sendatzalle onen gueitzea eta aen barcacioa, baldin graci hura lenagotican bacenducan irichia; eta bigarrenaren bidez, zure anima bazcatzen, eta pecatuan erortzetic gordetzeco indartzen duena. Comunioco Sacramentuan arkitzen da vicitzaren oguia. Au da cerutic jechitaco ogui vicia, gozotasun guztia beregan daucana eta ceña bear becelaco prestaerarequin jaten duena, dio Jesucristoc, betiro vicico dala: ogui au da bere gorputza, guizon guztien espirituzco vicitzaraco eman zuena. Ez duenac, bada, jaten Jaungoicoaren Seme guizon eguiñaren gorputza, da esatea, maiz comulgatzen ez danac, ¡ceñ gauza nequesa izango duen, inola ere eciña ez esateagatic, graciazco vicitza eguitea! ¿Vicico al litzaque luzaroan, gorputzeco janaria berandutic berandura, demagun, urte-tic urtera baicic artuco ez luquean gui-



zon edo emacumea? ... Baña bear be-  
 celaco prestaeracquin comulgatzen da-  
 nac (ez det esan nai, Jaungoicoaren  
 aunditasunari dagozcanacquin, bada  
 oec ecin irichi ditezque, ceren Jaun-  
 goicoa cabu gabea dan, eta gu ecerez-  
 tasuna bera; ezpada gracion egotea,  
 eta cerbait berotasunarequin comulga-  
 tzea) comulgatzen danac, diot, bear  
 becelaco prestaerarequin, eta maiz,  
 jah! nola corri eguiten duen ceruco bi-  
 dean osasunez eta vicitzaz beteric. Or-  
 regatic San Francisco Salescoac cion,  
 ecen, animac guiatu cituen ogueita  
 bost urteetan beste ecererequin etzuela  
 ezagutu izan aimbesteraño santutut-  
 zen, eta moduren batean Jaincotitzen,  
 nola Comunio sagraduarequin. Baña  
 contu maiz artzearequin Jaungoicoa-  
 ren aserrean, ezagüeraz eguindaco pe-  
 catu venialacquin, oituraz, vanidadez,  
 edo bidezcoac eta honestoac ez diran  
 beste motivoen batzuecgatic. Contu....  
 eta contu aundia engañatu ez dezazun  
 cere burua, engañatuaz (guichi costa-  
 tzen dan gauza) zure anima-guiaria,  
 ceñari escatu bear zayon beti baimena



eta iritzia orretaraco... Maiz comulgatzea da cristauerentzat gauzaric prochugarrienetacoa, eta Maria chit santaren atseguin aundicoa ez ecic, bera gueyen cuturtzen dutenetaco bat, bada Señeri Gazteenac dio, ecen, amabi igande seguituetan comulgatzeco voto edo promesa (lenago maiz comulgatzen bazan) edo urtearen ill guztietan utsic eguin gabe, edo illean bein (lenago maiz comulgatzen ez bazan) Maria chit santaren honran eta glorian eguiten duenac, aren burua coroaturic San Juanec icusi cituen Apocalipsis-co amabi izarren oroipenean, graci en Erreguiña eta Señora aundi onengandic iristen duela escatzen zayon edoceñ gracia; eta nai litzaquean hura iristen ez baldin bada, ori izango da conveni etzayolaco; baña orduan emango dio beste graci bat, escatutacoa baño aundiagoa eta prochugarriagoa, esperenciac eguiztatzen duen becela. ¡Ay fededunac; eguin oi dituzten beste voto edo promesen orde, au eguingo balute, eguiaz obeto irichico luteque escatzen dutena.



Bostgarrena eta azquenecoa da: *Pizcortzea*, *Jaungoicaren aurrean zaude-lazcoaren fedea*. Arretaz consideratzen badira Abraham patriarca santuari, on ona edo perfectoa izan dedin, Jaungoicoac zucendutaco itz oec: *zabiltza nere aurrean* mirabe leyal bat becela, *eta izan zaitoz perfectoa*; naita naiez ecarri-co dute ondore onena. ¿Nore, alabaña, ez du berealatic icusten onen importanci aundia? Gogoratu eta sinistatu eguia oec: *Beguirozu*, *Jaungoicoac icusten zaituela...* *Beguirozu*, *pensamentu ezcutatuenac ere beguien aurrean dauzcala...* *Beguirozu*, *bera ofenditzeco naiterun lecuric gordecnera joaten bacera ere, bñti bere aurrean egongo cerala*, eta pecatu eguin nait izatea, ecin comprehenditu diteque...

¿Arquitu diteque, erregue almentsu bati bere aurrean iseca eguin nait loquen guizonic, jaquiñic bere ministroac armatuta daudela, señailea ematendien becin prest iseca castigatzeco? centsua galdua, edo griña portitzen batec ichutua ez egotera, deritzat ez datequeala. Ala ere, au da gauza bat egunoro, or-



duoro, uneoro guertatzen dana... ¡Cem-  
bat pecatu eguiten dira uneoro, eta  
guztiac aunditasunean eta majestadean  
caburic ez duen Jaungoico baten aur-  
rean!... ¡eta ecin conta al criaturaen  
beguien aurrean, obratuco lutequelaric  
Jaungoico beraren justiciaren servitza-  
ri batzuec becela, aguinduco balieque  
bere escubideac vengatzeco!.... Jaun-  
goicoaren queñada bat beste gabe, pe-  
cataria, pecatua eguiten dagoen bitar-  
tean, aireac estutuco luque, lurrac  
irentsico luque, urac itoco luque, suac  
auts biurtuco luque... itz batean, cria-  
tura guztiac jazartuco luteque Jaun-  
goicoaren alde peccatari centsu gabeen  
contra... Beragatic, bada, ¿egui au ez da  
izango, ondo beguiratzen bazayo, bear  
baño indartsuagoa peccatutic zu aparta-  
racitzeco? Pizcortu ezazu, bada, bero-  
nen fedea, cergatic ondo consideratzen  
badezu, peccatuan erortzetie gordeaz ga-  
ñera, eguingo zaitu santu, ez beste as-  
coen moducoa, ezpada santu aundi  
bat. Ala izan dedilla.



## BICI-MODU DIFERENTEETACO

GJERTACARI EDO EJEMPLOAC.



Oraindaño aipatu dizudana, cristau maitea, izāndu da seguitu bear dezun bidea, irauteco neurriac, eta desgraciaz erortzen bacera, alcha zaitequean modua, ceña dan Penitenciaco Sacramentua; alaz guztiaz ere, Sacramentu onec prestaera aundia escatzen du bear becela eguiteco, ceren bestela, alchatu bearrean are ondorago joango ciñaque gaiztaquerian, cargatuaz zure pecatuac sacrilejiozco pishu astunarequin; eta era onetan gaizqui confesaturic alderatuco baciñaque mai sagradura, ¡ay ene! ¡inolaco gaiztaqueri berria eguingo cendunquean! Eguingo ciñaque Jesucristoren gorputz odolen culpahun, eta San Pabloc dion becela, condenacioa irenchico cendunque. Aparta zaitecen, bada ain bidegabekeria izugarritic, contatzera noaquizu vici-modu diferenteeta-



co guertacari batzuec, *Erriaren icasbi-  
dca* icendatzen dan San Ligorioen li-  
burutic atereac.

1. <sup>coa</sup> Guertacari au da confesio gaiz-  
toac eguiten cituen guizon batena, ceña  
arquitu zan confesatu eciñic, confesio  
on bat eguiñ nai izan zuenean; bada  
Jaungoicoac berac ala adierazten du,  
esaten duenean: *Ibillico cerate nere bi-  
lla, eta ez nazute arquituco, eta ceron  
pecatuan illico cerate.* San Ligorioe dio  
ecen, Aita Capuchinoen condairetan  
esaten dala guizon bategatic, persona  
virtutetsutzat ceucatela gendeac baña  
gaizqui confesatzen zala. Gaitz aundi  
batean erori zanean, oarterazoric con-  
fesa cedilla, deituerazo zuen sacerdote  
bat, ceñari esan cion bereala: *Nere  
Aita, esan beza confesatu naicela, baña  
nic ez det confesatu nai.* — *¿Eta cergatic?*  
Sacerdoteac arrituric erantzun cion. —  
*Condenatua nagaelaco, eriac berriz esan  
cion, bada nola beñere ez ditudan conse-  
satu osotoro nere pecatuac, Jaungoicoac  
eragozten dit orain, castiguz, ondo con-  
fesatu al izatea.* Au esanda: oan asi zan  
marru icaragarriac ematen eta minga-



ña chiqui chiqui eguiten, esanaz: *¡pori-  
gaiztoco mingaña, pecatuac confesatu  
etzinñituena, cinñitzaqueanean!* Eta ala  
eman cion anima deabruari, mingaña  
chiquituaz eta marru icaragarriac ate-  
reaz; gueraturic bere gorputza icatza  
becin beltz, eta adituzan ots izugarri  
bat sufri ecin citequean quiratsarequin  
batean.

2.ena Damu gabe eta etsimen osoan  
ill zan doncella baten guertacaria. Aita  
Martin del Rioc contatzen du, ecen,  
nescach gazte indiar bat, Catalin ceri-  
tzana cegoela servitzen Señora on ba-  
tequin Peru-co provincian, Señorac be-  
rac eracarri zuena batayatua izatera  
eta Sacramentuac maiz artzera. Asco-  
tan confesatzen zan baña pecatuac  
ishilic gordetzen cituen. Eriotzaco  
trancera eldu zanean, confesatu zan  
bederatzi bider, ordea guztietan gaiz-  
qui, eta confesioac bucatzean lagunai  
esaten cien, ecen, gorde eguiten cituela  
pecatuac. Part-eman cioten ehecoan-  
dreari, baña orduraco jaquiñaren gañe-  
an cegoen, bere nescame iltzen cegoa-  
naren pecatuac cirala loiquerien batsu-



ec, berari aditu izan ciolaco. Gaztiga-  
 turic, bada, berriz confesorea etorri  
 zan eria exortatzera, confesio oso bat  
 eguiñ cezan; baña Catalin jarri zan se-  
 taz pecatu aec confesoreari esan nai  
 ez-ean, eta ain etsimen aundian erori  
 zan, non, esan cion azquenic: *Aita,*  
*utzi naza, ez bedi necatu queyago, bada*  
*dembora galtzen dago.* Eta confesoreari  
 atze-aldea emanic, asi zan canta loyac  
 cantatzen. Eta azqueneco asnasetan  
 cegoenean, lagunac erreguturic ar ce-  
 zala Gurutze santua, erantzun cien:  
*¡Cen Gurutze santu eta Gurutze santu!*  
*Ez det ezagutzen, eta ez det nai ere eza-*  
*gutu.* Eta ala ill zan. Gau artatic ber-  
 tatic alaco uju eta quiratsac asi ciran  
 sentitzen toqui artan, non, Señora  
 beartu zan eche-aldatzera; eta guero  
 condenaturic aguertu citzayon nesca-  
 me lagun bati, eta esan cion, ecen be-  
 re confesio gaiztoacgatic infernuan ce-  
 goela.

3.<sup>ena</sup> Galai baten guertacaria; emen  
 arguiro icusten da araco esaera aren  
 eguia, *edo confesioa, edo condenacioa*  
 pecatu mortala eguiñ duenarentzat;



eta pecatuzco egoera negargarritic irte-  
 tzezo ez dutela deus balio obra on eta  
 penitencia guztiac, aurretican confesi-  
 oric eguiten ez baldin bada, non eta  
 confesatzeco deseo eraguille eta egui-  
 azco bat ez dan iduquitzen orduan  
 confesatu ecin ditequeanean. Arrazoya  
 da ecin arguiagoa: pecatu larriac dauca  
 gaiztaqueria neurri gabe bat; neurri  
 gabeco erremedio bat bear da naita nai  
 ez zauri neurri gabe au sendatzeco:  
 neurri gabeco erremedio oec dira Sa-  
 cramentuen bidez aplicatzen diran Je-  
 sucristoren merecimentuac: emendican  
 dator, bada, baldin Sacramentuac ar-  
 tzen ez badira, artu alditezqueanean,  
 odo benic beiñ artzea benaz deseaten  
 ez bada, artu ecin ditezqueanean, ez  
 dala egundaño iristen erremedioa, Pela-  
 gio doacabeari desgraciaz suertatu ci-  
 tzayon becela.

San Benitoren condaira laburretan  
 esaten da, ecen, Pelagio ceritzan ere-  
 mutar batec, ganadu contuan bere gu-  
 rasoen agunduz egondu zan bitartean;  
 vici modu arrigarria eguiten zuela,  
 alacoa non, guztiae ceucaten santutzat,



eta ala vicitu zan urte ascoan. Gurasoac ill citzayozcanean, salduric utzi ciozcaten ondasun apurrac, jarri zan eremutarren vicitza eguiten. Bein batean lecu eman cion viotzean, bere zorrigaiztoan, loiqueriazco gogoracio bati. Pecatuan eroritacoan, tristura aundi batenpean ondoratua becela icusi zuen bere burua, ceren guisajjo arc etzuen confesatu nai izandu, galdu etzezan ceucan santu-fama. Seta onetan cegoen demboran pasa zan peregrino bat, eta esan cion: *Pelagio confesa zaitetz, Jaungoicoac barcatuco zaitu, eta berriro ceretuco dezu galdu cenduen paquea;* eta desaguertu zan. Onen ondorean Pelagioc erabaqui zuen eguitea bere pecatuaren penitencia, baña confesatu gabe, bada losenchatzen zan, Jaungoicoac venturaz barcatuco ciola confesio gabe. Sartu zan comentu batean, nun chit ondo artua izan zan bereala ceucan fama onagatic, eta an igaro zuen vicitza latza, barauac atereaz eta penitenciac eguiñaz. Etorri citzayon erioztzaco ordua, eta eguiñ zuen azqueneco confesioa; baña nola vicitzan utzi izan



zuen bere pecatua lotsaz confesatu gabe, ala utzi zuen eriotzan ere. Jauna arturic ill zan, eta lurpetu zuten vicitzaco santu-uste berean. Bigaramon ariatsean obi gañean topatu zuen sacristauac Pelagioren gorputza, lurpetu zuen berriz, baña ala bigarren arratsean nola irugarrenean arqutu zuen beti lurpetu gabea, eta beragatic gaztigatu bear izandu cion Abadeari cër pasatzen zan, eta onec, beste fraileacquin ara joanda, esan cion: Pelagio, vicitzan obedille izan ciñan becela, izan zaitez illda ere; esan nazazu Jaungoicoaren partetic ¿ea dan beraren vorondatea jarria izan dedin zure gorputza toqui bereci batean? Eta illdacoac, marru icaragarri bat emanaz erantzun cion: *¡Ay ene! ¡condenatua nago, confesatu gabe utzi nuen culpa bategatic; icusi ezazu Abadea, nere gorputza!* Eta une artan aren gorputza aguertu zan, chimpant izugarriac banatzen cituela, burni gorituac becela. Bereala guztiac eman cioten iguesari; baña Pelagioc Abadeari deituta aguindu cion quen cezayola aotic, oraindic bertan ceucan Hostia



sagrada. Au eguiñic Pelagioc esan cien Eleizatic atera, eta urdategui batera bota cezatela, eta ala eguiñ zuten.

4.<sup>a</sup> Inglaterraco erregue baten alabaren guertacaria: au ere arestian esan danaren antzecoa da. Aita Francisco Rodriguez-ec contatzen du, ecen, Inglaterraco erreinoa gure Erligio santuaren mendean cegoenean, ango erregue Augubertoc ceucala alaba bat ain edertasun zoragarricoa, non principe ascoc escatua izan zan. Galdetu cion aitac, ea ezcondu nai zuen, eta erantzun cion, castidadeco voto beticoa eguiña ceucala. Aitac erastu cion Erromaco dispensa, Baña arc iñola ere etzuen ontzat artzen, esanaz, Jesucristo beste senarric nai etzuela: eta aitari etzion escatu beste gauzaric, ezpada utzi cezayola erretiroan vicitzen bacardadeco eche batean, eta nola aitac maitte baizuen, etzion atsecaberic eman nai izan, eta aseguratu cion bear ambateco errenta, vici cedin erregue baten alabari cegocan moduan. Bere erretirora zanean, asi zan eguiten barau, oracio eta penitenciazco vicitza santu bat, as-



cotan confesatzen eta comulgatzen zan, eta chit maiz joan oi zan hospital batera eriac servitzera. Vici modu au cerman demboran, eta oraindic gaztea zala gaizquituric, ill zan. Aren servitzuan egondu izan zan Señora batec gau batean aditu zuen, oracio eguiten cegoela, dumbateco aundi bat, eta guerro icusi zūen anima bat emacume ichuran su aundi baten erdian, eta deabru ascoc cateatua ceucatela, eta esan cion: Jaquin bear dezu, ni naicela Augubertoren alaba doacabea.—¡Cér! servitziariac erantzun cion, ¿zu condenatua, vicitz ain santuaren ondoren?—Bai nere culpaz condenatu naiz, animac berriz esan cion.—¿Eta cergatic?—Jaquizu ecen, aurra nintzanean gusto artzen nuela, nic gogoa nion pajeac libururen bat iracortzen cidanean. Paje onec bein batean, iracortzearen ondorean escua artu, eta muñ eguin cidan. Deabrua asi citzadan tentatzen alic eta arequin Jaungoicoa ofenditu nuen arteraño. Joan nintzan confesatzera, asi nintzan nere pecatua esaten, eta confesore centzugabeac ishilduaraci ninduen, esa-



naz: ¡Cér! ¿erreguiña batec au eguiten du? Orduan nic lotsaz esan nion, amets bat izan zala. Gueroenean asi nintzan penitenciac eta limosnac eguiten, Jaungoicoac barcatu cizadan, baña confesatu gabe. Itzeco nengoenean confesoreari esan nion, ecen, ni, peccatari aundi bat izan nintzala: confesoreac erantzun cidan, gogoracio hura ayenatu bear nuela tentacio bat becela, guero eman nuen as-atzena, eta orain arkitzen naiz condenatua beticotasun guttiraco. Eta au esanda des-aguertu zan ain dumbateco aundiarequin, non, cirudien mundu guztia ondatzen zala, utziaz guela artan quirats aundi bat, egun ascoan iraun zuena.

Doacabe onec, alderatu izan balitz Penitenciac Sacramentura bear becelaco prestaerarequin, alabanzazco cantac zucenduco liozcaque Jaunari ceruan, baña bere lotsa despreciagarri eta zorigaiztocoagatic, illatitzat servitzen du orain infernuan. Eta ¿cembat persona ala guizonac nola emacumeac vici-modu mota guztietacoac daude, beren gañean castigu berpera sentituco



dutenac, baldin ez badijoaz damutasu-  
narequin Sacramentu au artzera?

5.<sup>a</sup> Emacume ezcondu baten guerta-  
caria, oraiñago esandacoaren chit antz  
aundicoa, eta San Ligorioe ere dacar-  
rena. Aita Serafin Razzie dio, ecen,  
Señora noble bat vici zala Italiaco uri  
batean, ezcondua, eta santutzat ceu-  
catena. Eriotzaco trancean artu cituen  
Sacramentu guztiac, eta chit oñ onean  
utzi zuen bere virtuteen fama ill za-  
nean. Jaungoicoari erregutzen ari ci-  
tzayon beti alaba, aren animaren atse-  
denagatic. Oracioan cegoen egun ba-  
tean, ots aundi bat aditu zuen atearen  
aldetic; itzuli zan, eta icusi zuen suzco  
cerriaren ichura lardascagarri bat, su-  
fri eciñezco quiratsa banatzen zuena,  
eta icuscarri arc alaco izua eman cion,  
non bacijoan botatzera leyotican bere  
burua: baña gueratu zan, adituric ots  
bat, ceñac esan cion: *Guera zaitez, ala-  
ba, ni naiz zure ama doacabe, santutzat  
ceucatenaa; baña Jaungoicoac condenatu  
nau infernura, zure aitarequin iguiñ ni-  
tuen pecatuacgatic, eta lotsaz iñoiz con-  
fesatu ez ditudalaco; etzayoru, bada, er-*



*regutu gueyago nigatic Jaungoicoari, ce-  
ren ematen didazun tormentu aundiagoa.*  
Eta itz oec esanda, marruac eguiten  
des-aguertu zan.

Galdetuco aezu venturaz, cristau  
maitea: ¿Badateque aguertzea anima  
condenatua? Erantzungo dizut, bayetz:  
eta dudatic atera zaitzadan, eman nai  
dizquitut arrazoyac. Entzun nazazu,  
bada, eta goacen partezca. ¿Sinisten  
dezu Escritura Sagraduetan eta Cre-  
doan? Uste det, bayetz erantzungo di-  
dazula, edo eta bestela esango nizu-  
que, fede-ausle edo herejea cerala. Es-  
critura edo Credotic daquigu, bada, gu-  
re anima dala ill-ezcorra, Guerezco  
arrazoya deadarca esaten dagoquigu,  
ecen, gure animac vici bear duela gor-  
putza illdacoan ere, peccatariac artu de-  
zaquean Jaungoicoagandic bere peccatuen  
castigu, mundu onetan artu etzue-  
na, eta justuac, bere virtuteai dagocan  
saria: ceren bestela, Jaungoicoa ez li-  
tzaque izango justua. Eta au ain argui-  
ro icusten da, non, Russo berperac ai-  
tortu zuen, esanaz: «Gure anima ill  
«ecin ditequeana dala icusierazotzeco



«emen mundu onetan gaiztaqueria ga-  
«rai, eta virtutea azpiratua egotea beste  
«pruebaric ez balego ere, onec bacarrac  
«quenduco liquet arzaz iduqui neza-  
«quean edoceñ duda.» Badaquizu eta  
sinisten dezu, Credoan esaten danez,  
pecatuen barcacioan; da esatea, perso-  
na batec eguiñ al pecatu guztiac egui-  
ñagatic, ondo confesatzen baditu, guz-  
tiac barcatuac gueratzen zayozcala;  
baña illtzen baldin bada bear becela  
confesatu gabe, betico condenatua gue-  
ra dedin pecatu larri bat asco duela.  
Eta nola lureco justicia bidezcoac (ce-  
ña dan ceruco justiciaren part-artze  
bat) dauzcan carcelac eta castiguac,  
gaizquilleac ichian sartzeco eta casti-  
gatzeco, ceruco justiciac ere baditu car-  
celac eta castiguac purgatorioan eta in-  
fernuan, pecatuan edo osotoro garbitu  
gabe iltzen diranac castigatzeco. Eguia  
oec jarriric, baliatu gaitecen orain iru-  
di batezaz. ¿Icusi dezu, edo aditu dezu  
contatzen, nola juezac edo tribunalac  
noicean bein aguintzen duen atera de-  
dilla gende tartera preso daudenetatic  
bat bere lotsa gueyagoraco, eta beste



bat izan dedilla azotatua errico lecu aguirienetan? Ez dute, ordea, osterontzeco presoac irten bearric lotsa artzera, eta aterea izaten dana ere ez dute icusten munduco biztanle guztiac, ez uri artaco gende guztiac, ezpada bera darabilten toquietan arquitzen diran banaca batzuec. Eguizu orain irudiaren egoquiera. Juez guztien Juez, eta vicien eta illen Jabe bacarra dan Jaungoico gure Jaunac edoceñ ordutan aguindu dezaque, eta noicean bein aguindu du, infernuco leice zuloetan ichutuac daudenetaco batzuec irten ditecela carcela artatic beren lotsa geyagoraco, eta gure escarmentu eta prochuraco; eta aguertu ditecela munduan, aguertzeco aguintzean daucan motivoari dagocan moduric onenean; eta aguerzen diranean, mundu guztiac icusi ditzala ez da gauza precisoa, asco da batzuec icusi, eta oec gañeracoai gaztigatzea, besteren buruan guztiac escarmentaturic, arret aundi eta bereci bat jarri dezaten confesio gaiztoric ez eguiteco, eta damu eguiazcoarequin eta asmo sendoarequin lagunduricaco confe-



sio oso baten bidez ontzeco eta berri-  
tzeco len gaizqui eguindaco guztiac,  
guerta ez dezayoten probatu bearra  
guero beren buruetan patu zorigaiztoco  
hura bera. Au da zuc atera bear dezun  
frutua eta prochua guertacari onetatic  
eta onelaco beste guztietatic.

6. ena Urte ascoan pecatu loi bat con-  
fesioan ishillic gorde zuen Señora ba-  
ten guertacaria. San Ligorio, eta be-  
reciroago Aita Anton Coroccio, diote-  
nez, Señora au vici zan erritican bi Er-  
ligioso igaro ciran, eta nola bai cegoen  
beti confesore arrotz baten esperanzan,  
aetaco bati erregutu cion adi cezayola  
Penitenciaco tribunalean, eta confesa-  
tu zan. Erligiosoac andic alde eguinda-  
coan, lagunac confesoreari esan cion,  
ecen, Señora ari, sugue asco icusi ci-  
ozcala aotic irtetzen, confesatzen ce-  
goen bitartean, eta iransugue aundi ba-  
tec ere bere burua azaldu zuela, baña  
ostera barrena itzuli zala, eta orduan,  
len irten ciran sugue guztiac, ari jar-  
raica berriz sartzen icusi cituela. Con-  
fesoreac suspichaturic gauz arc cér adi-  
eraci nai zuen, itzuli zan errira eta Se-



ñora aren echera, eta esan cioten, bera  
salan sartu zan unean bertan, supituan  
ill zala. Iru egun seguituetan barau  
eguiñ zuten eta erregutu cioten Jaun-  
goicoari arengatic, escatuaz, arren,  
guertaera ura aguertu cezayela. Irugar-  
ren egunean Señora doacabea aguertu  
citzayen condenatua, jarriric dragoi  
izugarriaren ichuraco deabru baten ga-  
ñean, bi iransugæc errosca guisan le-  
poa loturic itotzen zutela eta bularrac  
jaten ciozcatela, buruan cirau bat, be-  
guietan bi apo, belarrietan guezi gori-  
tuac, aoa su garrac, eta escuetan za-  
cur amorratu bi osca eguiten eta jaten  
ciozcatenac cituela, eta oyu triste eta  
izugarri bat emanaz, esan zuen: Ni  
naiz, orain iru egun berorrec confesatu  
zuen Señora doacabea, nere pecatuac  
aitortzen nituen becela cijoacen irte-  
tzen nere aotic pizti nazcagarrien ichu-  
ran, eta burua azalduta ostera barrena  
itzultzzen araco berorren lagunac icusi  
zuen iransugue aundi hura; zan confe-  
satu gabe beti lotsaz gorde izandu nuen  
pecatu loyaren irudia; nai nuen confe-  
satu berorrequin, baña ez nintzan ven-



turatu, argatic ostera sartu zan barre-  
na, eta berarequin batean, lenago ate-  
rataco beste guztiac. Aimbeste ichedo-  
teaz Jaungoicoa aspertu zan, eta vicia  
bat batetan quenduric, amildu ninduen  
infernura, nun penaaracitzen nauten  
deabruac pizti izugarrien ichuran. Ci-  
rauac oñazcatzen nau buruan nere ar-  
roqueriagatic, eta illeac orrazatzen  
izan nuen arreta gueyeguiagatic; apoac  
ichutzen dizquidate beguiac, nic egui-  
ten nituen beguiratze aragui atseguin-  
corragatic; guezi gorituac zauritzen  
dituzte nere belarriac, adi izan cituz-  
ten murmuracio, jolas eta canta loyac-  
gatic; suac aoa erretzen dit, eguin izan  
nituen murmuracio eta musu-emate  
ichusiagatic; sugueac erroasca guisan  
lepoa inguraturic, jaten dizquidate bu-  
larrac, erabilli nituelaco pecatura mu-  
guierazteco moduan, soñeco escotatuac  
jantzi, eta laztan deshonestoac eman  
izanagatic; escuac jaten ari zaizquit  
sacurrac, eguin izan nituen obra gaizto  
eta uquitze ichusiagatic; baña azpian  
daramadan dragoi icaragarri onec gue-  
yen gueyena penatzen edo atormenta-



tzen nau, bada errayac erretzen dizquit, eta ori da nere pecatu loyen castiguan. ¡Ah, ez dago neretzat ez erremedioric eta ez erruquiric, betico oñaceac eta penac baicic! ¡Ay emacumeen zorigaiztocoac! cion gañera, bada oetatitic asco, lau pecatu motagatic condenatzen dira: loiqueriazco pecatuacgatic, gala eta apainduriacgatic, sorguinqueriagatic, eta confesioan pecatuac ishiltzea gatic: guizonac pecatu mota guztiacgatic, baña emacumeac, batez ere lau oecgatic. Au esan zuenean lurra idiqui zan, eta doacabea erori zan infernuaren ondoraño, nun dagoen padecitzen, eta egongo dan beticotasun guztian.

Jarri zaitez pensatzen, eta beguira ezazu, cristaua, Jaungoico gure Jau-nac nola aguindu cion Señora oni irte-zeco infernuco carceletatic, eta lotsa ain aundia eramateco, mundutarrac jaquin cezaten ichedoten dagoquien patua, pecatu eguinda confesatzen ez badira. ¡Ay guertacari icaragarri au iracortzetic ateraco bacenduque zuc, beste ascoc atera duten frutua, confesio



on bat eguiñaz, eta vicitza osotoro mudatuaz! Jaquintsu batec dio, berreun garizumac baño gende gueyago convertitu duela guertacari onec. Aita Jaime Corella misioguilleac misio guztietan predicatzeco promesa eguiñ zuen, ezagaturic fededunai eracartzen cien prochu aundia. Obispo Jaun batec ere para zuen fundacio bat, urteco demboraldi batzuetan guertacari au Eleizan predicatzeco edo iracortzeco encarguarequin. Baña ¡zure zori gaiztocoa, beragandic prochuric ateratzen ez badezu! ¡zure zori gaiztocoa, confesatzen ez badituzu cere pecatu guztia! ¡zure zorigaiztocoa, ondo prestatu gabe joaten bacera Comunio sagradua artzera! Obe cenduque iñoiz jayo ez izana.

Ozta dago bidegabequeriaric, Comunio gaiztoac ambat Jaungoicoa aserretzen duenic. Itz eta ejemplo arrigarracquin adierazten dute au Eleizaco gurasoac. Pecatu mortalean comulgatzen danac, Herodesec baño bidegabequeri aundiagoa eguiten du, dio San Agustiñec; Judasec baño nazcagarriagoa, dio San Juan Crisostomoc; Salva-



tzallea gurutz-iltzatzean juduac eguiñ zutena baño icaragarriagoa, diote beste santu batzucc; eta guztien ordez San Pabloc esaten du, Jaunaren gorputz eta odola gaizqui artu izanaren culpa izango du; au da, dio, Glosa deritzan liburuac, izango da castigatua, bere escuacquin Jaungoicoaren Semea ill izan bazuen becela. Comunio sacrilegoa da bidegabequeri bat ain neurcailza, non beraren castigua Jaungoicoac ez duen utzitzen infernuraco, ezpada mundu onetan bertan asitzen da castigatzen eritasunacquin eta eriotzacquin; bada Apostoloen demboran ere, San Pabloc dionez, Comunio sacrilegoac cirala bide, ascoc sufritzen cituzten gorputzeco gaitz chit pisuac, eta beste ascoc iltzen ciran. San Ciprianoc contactzen du bere demboraco batzuecgatic, ecen, aentzat Comunio sagradua gaizqui artzea, eta lerturic ill arteraño, sufri ecin citezquean errayetaco miñac izatea: guztia bat zala. Sin Juan Crisostomoc ezagutu cituen persona ascoc gaizquiñac cituztenac pecatu onegatic; eta San Gregorio Aita Santuac asegura-



tzen du, ecen, ondamen icaragarriac eguin cituela Erroman peste edo izurriac, Pazcoaco comunio ondorean iraun zutelaco uri artan jostaquetac, janedan eragabeac, comediac eta loique-riac; eta berebat contatzen du San Anselmoc, guertatzen zala bere demboran ere, legue au gaizqui cumplitu izan zutelaco. San Bernardoren vicitzan iracortzen da, monge bat venturatu zala pecatu mortalean comulgatzera; baña igauza icaragarria! ez al cion eman Santuac Hosti sagradua, non Judasec becela estanda eguin zuen, eta betico condenatu zan.

Aita Arbiol ospatsuac contatzen du, ecen, Señora bat joan zala confesatzera jai chit aundi batean, confesoreac icusiric bere nayez cegoela pecatuzco ocasio aldecoan, esan cion, ecen, baldin ocasiotic lenaz apartatzen ez bazan, ecin absolvitu cezaqueala, eta egun artan ecin artuco zuela Comunio santua, arc ordea artu nai izan zuen confesorearen esanari casoric eguin gabe, eta Hosti sagraduac berac ito zuen, eztarrira irichi citzayon unean, ill-da



gueraturic Eleizan bertan persona ascoren aurrean.

Guis onetaco guertacari asco, anciñacoac ez ecic dembora oetacoac ere conta nitzatzuque, eta egungo egunean guertatzen ez badira lenagocoetan ambat, ori da, uste dedanez, ceren cristau onac bildurturic, erretiratuco liraquean Sacramentu santuac maiz artzetic, eta Jesus onac, beguiraturic digun amorioari eta gure onari nayago ditu utzi sacrilegioac castigu esagungarri gabe, cristau onac maiz ar ditzaten, ecen ez gaizqui artzalleen castiguacquin icaturic, artzera venturatu gabe guertatzea; baña gaizqui artzalleac castigatzen ez baditu ere edoceñec ezagutzeco moduan, castigatzen ditu mundu onetan ishilchoric adimentuco ichumena-requin, viotzeco gogortasunarequin eta bere escutic utzitzearequin, eta guero bestean, infernucoco pena beticoacquin. Gomendatu zatzaizca Maria chit santari, irichi ditzaquizun bear dituzun laguntzac maiz eta ondo artu al izateco Sacramentu santuac,

Eta are obeto ezagutu dezazun cem-



bat conveni dan Sacramentu santuac prestaera onarequin artzea, eta oec eracartzen dituzten ondore desberdiñac; gai oni azquena emateco contatuco dizut beste guertacari bat, Guraso santuen vicitzatan iracortzen dana. Obispo virtutetsu batec, jaquindu zuenean persona bi vici cirala elcarre uico tramentu ez-garbian, Jaunari erregutucion, baldin ondo baceritzayon, aguer-tu cezayola nola ceuden bere mende-coen concienciac. Jaungoicoac adituciozcan erreguac, eta egun batean, gende talde aundi bati Comunio sagra-dua emandacoan icusi zuen, batzuec ceucatela arpeguia icatza becin beltza besteai chimpartac cerizcatela beguie-tatic, eta beste batzuec ceudela chit ederrac eta zuriz jantziac. Berritu zuen erregua Obispo onac, azaldu cezayon Jaungoicoac misterio artan ezcutatu-tzen zaca. Bereala aguertu citzayon Aingueru bat, eta san cion: Jaquin be-ar dezu, eceñ, onaco arpegui beltza daucaten oec dirala loyac eta desones-toac; orraco beguie-tatic chimpartac darizcaten orieñ dirala guticiosoac, logre-



roac eta vengatzalleac; eta araco ain ederrac eta zuriz jantziric icusten dituzun aec dirala gracian eta virtutez apa-indrac daudenac. Tratu ez-garbian elcarrequin vici cirala salatuac izandaco bi persona aec ere joan ciran comulgatzera, eta Obispo santuac icusiric ceudela ederrac eta arguitasunez inguratuac, uste izan zuen, engañatua izan zala; Aingueruac, ordea esan cion, eguia zala aecgatic esan cioten guztia, baña ocasiotic apartaturic confesio on bat eguiñ zutelaco, barcatuac izan citzayezcatela beren pecatu guztia, onela gueraturic ondo prestatuac artzeco Comunio sagradua, ceñac eracarri ciezen ondore miragarri oec.

Beragatic, Jesucristogan nere senide maitea, dizudan amorio aundiagatic erregutzen eta encargatzen dizut, arren, Comunio sagradua artzera etzaitecela joan beñere pecatu mortalean; baña etzaitez izutu, egoera negargarri ortetan arquitzen bacera; aurretic ondo confesa zaitez, eta benetaco damutasuna arturic, eguiñ itzatzu humilltasunezco, confianzazco eta amoriozco acto



iracequiac, eta prestaera onequin comulgatzen bacera, gueratuco cera Comunio sagradua bear becela artzen duenari Sacramentu onec eracartzen diozcan frutu ugari eta cerucoyez betea: oetatic bicañenac contatu nai dizquitzut emen, guero eta maizago artzera zaletu zaitecen.

1.<sup>coa</sup> Gueitzen du gracia.

2.<sup>ena</sup> Anima arquitzen du ezagutu dezan ona, jarraitzeco, eta gaiztoa, berari igues-eguiteco.

3.<sup>ena</sup> Pizcortzen ditu fedea eta esperanza.

4.<sup>ena</sup> Iracequitzen du caridadea.

5.<sup>ena</sup> Gozaten ditu ira eta beste grinac gordeaz pecatu eguitetic.

6.<sup>ena</sup> Bat eguiten gaitu Jesucristorequin.

7.<sup>ena</sup> Ematen digu espirituzco gozotasun bat, ceña dala bide eguiten diran pocic virtutezco obra guztiac.

8.<sup>ena</sup> Deabruac ayenatzen ditu, ain maiz tentatu ez gaitzaten.

9.<sup>ena</sup> Guera-arazten ditu concienciarren ozcadac.

10.<sup>ena</sup> Iduqui-arazten digu Jaungoi-



coagan confianza aundi bat eriotzaco orduan.

11.<sup>ena</sup> Bazcatzen du anima, indarra emanaz, lurreco oguiac gorputzari ematen dion bacela.

12.<sup>ena</sup> Eta azquenic, ematen dizqui-  
gu laguntza bereciac onean irauteco,  
eta iristeco betico gloria, ceñaren pren-  
da ciertoa dan, eta neretzat becela zuri  
ere viotz viotzez opa dizudan. Ala izan  
dedilla.

## INFERNUAREN ORROAC

edo

## CONDENATUEN DEADARRAC

ETA PATU AIN ZORIGAIZTOCOA

DACARTEN GAITZAC SENDATZECO ERRE-  
MEDIOAC.



SENABQUERIB BLASFEMARI EDO ARNEGARIAREN  
OYUAC.

¡Ay arnegari atrebitua! ni izan nin-



tzan zu cerana, eta zu izango cera ni naicena. Nic lenago arnegatzen nuen, zuc orain arnegatzen dezun becela; guezurrezco juramentuac eguiten nituen, birauac botatzen nituen, etzion ecereri barcatzen nere mingañ cirauac, etzan frenoric bera escuratuco zuenic, eta... ¡ay! eriotzac achitu ninduen bil-durric guichiena nionean, juzgatua izan nintzan, eta beti iraunde guztian infernuetan gar eguitea da, condenatuta nagoen castigua, ¿Eta etzera escarmentatuco nere buruan? ¿nayago dezu nerequin zorigaiztöcoa izan, zure vicimodua emendatu baño? ¡ay zuri! vicitza mudatzen ez badezu, etzera libratuco ni orain naicena izatetic... ¡ay! ¡ay! ¡ay!

*Deabruen pecatua dan blasfemia edo arneguaren contraco erremedioac.*

LEMBICICO ERREMEDIOA. Goicean asmo sendo bat ar zazu ez arnegatzeco, eta orretaraco gracia escatuco diozu Jaungoicoari, Virgiña chit santaren birtartez, errezatuaz iru *Ave Maria*.



BIGARREN ERREMEDIA. Aserretzen bacera, edo ira-grña somatzen bazatzu, zaude ishillic edo ezazu: *Virgiña chit santa, lagun nazazu: Jaungoicoac balia nazala: madaricatua izan dedilla pecatua*; alabaña, itz onac esaten ain erraz da nola gaiztoac.

IRUGARREN ERREMEDIA. Guertatzen bazatzu arnegatzea nolerebait zure go-goaren contra, escayozu Jaungoicoari beraren barcacioa, eta errezatu *Ave Maria* bat; eta neque aundi gabe al badezu, muñ eguiozu lurrari, bertan mingañarequin gurutze bat eguiñaz.

LAUGARREN ERREMEDIA. Igues eguizu jocoetatic eta gaizqui-esaleetatic; eta aditzen badezu gaizqui itz-eguiten, esazu *Ave Maria chit garbia*, eta erregutu Jaungoicoari aecgatic, Mariaren Sociedade edo elcartasunecoac eguiten duten becela.

CAIN GORROTOTSUAREN OYUAC.

¡Ay zu, gorrotoan, eta amorruc gañ eguiñic zauden zorigaiztocoa, lagun urcoari agurric eguiñ ez ecic, beguira-



tu ere nai ez diozuna, eta aren contra beti gaizqui itz-eguiten dezuna! Beguirra... ¡cér izua! onaco nere aldameneco toqui au... au da zuri ichedoten dagoquizun patua... nere anaya illerazo ciran gorrotoac ecarri ninduen onera... ¡ay! ¡ay!... Eguizu, bada, penitencia, adisquidetu zaitez, maite itzatzu guizon guztiaç, etsayac utzi gabe; bestela... ¡ay! ¡ay! etorrico cera nere penac zureacquin batean gueitzera, emengo quirats eta estutasunarequin, eta cerorrec banatuco dezun beroarequin.

*Igüiña eta gorrotoa sendatzeco erremedioac.*

LEMBICICO ERREMEDIOA. Lagun urcoa amatuco dezu cere burua becela.

BIGARREN ERREMEDIOA. Uste izango dezu, zuc Jaungoicoari eguin dizcatzun ofensac, lagun urcoac zuri eguin cizquitzunac baño paregabe aundiagoac dirala; eta oee zuc barcatzen ez bedituzu, aec ez dizquitzula barcatuco Jaungoicoac. Zure lagun urcoac barcioric ez duela mereci baldin baderitzazu, barcayozu Jaungoicoaren amo-



rez; bada Jaun onec mereci du, eta ala aguintzen dizu.

IRUGARREN ERREMEDIOA. Aztu ezazu lembait len lagun urcoac eguiñ cizun ofensa, eta aren oroipena burura bada-torquizu, bota ezazu bereala zugandic, arropara erortzen dan chimparta bat, su artu baño len botatzen dan becela.

LAUGARREN ERREMEDIOA. Oroituco cera cristaua cerala, au da, Cristoren jarraille edo imitatzallea, eta ez ezazu aztu egundaño, Cristoc sufritu cituela azoteac, arantzac eta lotsa gaiztoac; quendu ciozcatela soñecoac; gurutz-iltzatu zutela, eta cintzilie cegoen lecutic lembici eguin zuen gauza izan zala bere etsayai barcatzea, eta aecgatic bere Aita beticoari erregutzea: barca zayezu, bada, zuc ere, eta erregutu ezazu beracgatic, cristaua ceran becela. Ez ezazu gaizquiric esan aecquin arquitean, diosala eguin zayezu, asisti-tu itzatzu, eta beren premietan socorri itzatzu al dezaquezuneraño.

BOSTGARREN ERREMEDIOA. *Aita gurea eta Ave Maria* bat errezatuco dezu egu-



noro ofensac eta bidegabequeriac eguiñ  
dizquitzutenacgatic.

JALETZAR ETA LUJURIOSOAREN OYUAC.

Iduricatzen edo imitatzen nazun pe-  
cataria... ¡ay! beguira.. ¿Icusten dezu?  
ona emen nere atseguinñen frutua...  
¡Cér pena! ¡Ah! dembora ematen zatzu  
zuri damutzeco; provechatu ezazu,  
icusi itzatzu ichedoten dizquitzuten  
tormentuac: igues eguizu comedietatic,  
cafetegui eta ardandeguietatic; bota  
itzatzu sutara araco estampa, liburu  
eta paper desonesto eta irudi gaiztoco  
aec; urra itzatzu onestidadearen con-  
traco jantziac; alde-eguizu jocoetatic,  
amorio limuri eta dantzetatic; utzi  
itzatzu lagun gaiztoac; gabaz etzaitez  
irten echetic; ez itzatzu eguiñ gauz  
ichusiac cerorrequin eta ez bestere-  
quin; ez itzatzu esan, ez contactu eta  
ez cantatu gauza desonestoac; alacoric  
eguiten baldin badezu... ¡ay! ¡zu ere  
condenatuco cera ni becela! ¡ay! ¡ay!



*Desonestidadea sendatzeco erremedioac.*

*Lembicico erremedioa.* Goiz-arratsetan escatuco diozu prenda precioso au garbitasunaren Ama dan Virgiña chit santari, agur eguiñaz orretaraco iru *Ave Mariacquin.*

*Bigarren erremedioa.* Gogoracio loyen bat burura datorquizun becin laster bota ezazu zugandic, esanaz Mariari: *Virgiña chit santa, balia nazazu, asistitu nazazu.*

*Irugarren erremedioa.* Bereci zaitez lagun gaiztoetic, dantza eta amorio limurizco elcartasunetic; azaletic ere ez dezu artu bear liburu edo paper desonestoric; etzayezu beguiratu estampa, pintura eta lujuriaren pizcorgarri diran beste irudiai; eta guztiaz gañ, ez itzatzu eguiñ queñada edo eguiquera escandalosoac.

*Laugarren erremedioa.* Jantzico cera modestiaz; jan eta edan ezazu templanzarequin; ez esan itz loiric, ez aditu eta ez jarraitu jolas gaiztoric, eta zure beguiari ez eman libertaderic.



*Bostgarren erremedioa.* Oroitu zaitetz, Jaungoicoa beguira dagoquizula, eta emen bertan vicia quenduta bota zaitzaqueala infernuetara, beste ascorren artean Onani guertatu citzayon becela, bada ill zan pecatu loya eguiñ zuen une berean, eta condenatu zan.

*Seigarren erremedioa.* Maiz ar itzatzu Sacramentu Santuac.

#### LAPUR GAIZTOAREN OYUAC.

¡Ay zu, lapurretan iduricatzen nazun cristaua!... ¡ay! beguira nazazu... ¿ez dezu icusten?... oec dira, bada, lapurreria utzitzen ez badezu, ichedoten dizquitzen penac. Etzaitez lilluratu; adi ezazu bein betico... lapurrac dira, eta emen daude penatzen nerequin, bideetan ostutzen dutenac ez ecic, saldu-erosietan bear ambat eman gabe edo licharreriac eguiñaz fede onean faltatzen dutenac, orobat logreroac, eta gastu alper eta bidegabeco anciacquin lagun urcoari calte eguiten dienac, edo zorrac pagatzen ez dituztenac; ¡zure zorigaiztocoa! ¡aen zorigaiz-



tocoa! ceren confesatzen ez bacerate, eta jabeari bere gauza biurtzen ez badiozute, etorrico cerate... ¡cér izua!... nerequin emen gar eguitera.

*Lapurreria sendatzeco erremedioac.*

*Lembicico erremedioa.* Ez ezazu nai izan besterentzat, zuretzat nai ez dezu-nic. Zuc ez badezu nai zure gauzaric inore guticiatzea edo cerorri quentzea, atera ezazu contua, ea naico ote duen lagun urcoa, berea dana zuc guticia-tzea edo quentzea.

*Bigarren erremedioa.* Maiz ecartzu gogora, ecen, zure escu eta viotzari Jaungoicoa beguira dagoquiela, eta lapurrac infernuc gar-gorrietara botiac izango dirala.

*Irugarren erremedioa.* Besterena quentzeac pobreza sortzen du, ceren bide gaiztoz bildutacoac dacarren galtzea bide onez irabacitacoa: emendic etorri oi dira eritasunac, galmenac eta gaitz mota guztiac, eta gaero infernua. ¿Eta mundu osoa irabazteac cér servitzen du, anima deabruac baldin bada-



ramate?

*Laugarren erremedioa.* Maiz eguizu limosna, bada besterena quentzeac pobreza dacarren becela, norc beretican limosna eguitea da ondasunac ugartzeaco bidea.

*Bostgarren erremedioa.* Beragatic, bada, zure ondasunac aguintzen dizutenerañoco limosnaren bat eguingo dezu egunoro, ez arroqueriaz edo guticiaz, ezpada zure lagun urcoaren premiac socorritzeagatic. Etzaitez arrotu ona eguiten dezulaco, etzera, ordea, orrezaz lotsatu bear; esan nai det, ez dezazula eguiñ icusia izan zaitecen, ez eta utzi ere eguiñ gabe, eguitean beguira dagozquitzulaco.

#### JUDAS SACRILEGOAREN OYUAC.

¡Ay cristaua! ¿nai dezu jaquin cer-gatic nagoen carcel onetan, piztiac irenchia, gar tartean eta oyuca beti betico? ¡ay! ¡oroitze utsac dardaraz jartzen nau! ¡oroipenac berac icaragarriro acitzen ditu nere tormentuac! ¡Comulgatu nintzan gaizqui, eta saldu eguiñ



nuen nere Maishua! ¡Ay! zuri! confesatzen ez badituzu comunio sacrilegoac eta gaizqui eguindaco confesioac, pecatuac ishilic gorde ciñituelaco, edo confesatu baciñituen ere, emendatu etziñalaco, eta pecatuaren ocasio eta bide aldecoetatic apartatu etziñalaco. ¡Ay zure zorigaiztocoa!... Eguizu lembait len zure pecatu guztien confesio oso bat, nerequin batean gar eguiñ nai ez badezu eternidade batean. Etzaitez izan setatsua, etzayozca eguiñ entzungor Jaungoicoaren inspiracioai, ni eguiñ nintzayen becela, eta... ¡ay ¡ay! icusico ezu.

*Comunio sacrilegoac edo confesio gaiztoac eguiñ dituztenentzat erremedioac.*

LEMBICICO ERREMEDIOA. Confesoreari lembici aguertu bear diozun pecatua izango da lotsa gueyena ematen dizun hura, orrela lotsaz beteric utzico dezu tentatzallea.

BIGARREN ERREMEDIOA. Lotsac eragozpenic jartzen baldin badizu, aurreratu zayozca confesoreari itz onequin,



edo guis onetaco beste batzuecquin: *Aita, badaucat alaco escupulo bat; aitor-  
tzera atrevitzen ez naicena*; eta beste ga-  
be iguerrico dizu cér esan nai diozun,  
eta billatuco ditu bide egoquiac zuri  
laguntzeco. Baña au esaten ere lotsac  
utzitzen ez balizuque, zoaz orduan  
beste confesore batengana; ceren bes-  
tela eguingo cenduque sacrilegioric  
ichusiena, eta arquituco cenduque erio-  
tza, Jaungoicoac vicitza eman edo  
gueitu nai dizun lecuan.

IRUGARREN ERREMEDIA. Confesioac  
ascotan gaiztoac izaten dira ez eguian  
faltatu izan dalaco, ezpada emiendaric  
izan ez dalaco: gobaratic arropa atera-  
tzean, gobara charra dala esaten degun  
becela manchac quendu ez bacitzayoz-  
can, era berean icusten badegu perso-  
na bat confesatuta ondorean dagoela  
arnegatzeco edo blasfematzeco, birauac  
botatzeco, gorrotoraco, loiqueriac egui-  
teco, murmuratzeco, etc., etc., lenago-  
co vicio ber beracquin, ecerere artu  
izan ez balu becela, bideric asco izan  
go degu esateco gaiztoa zala arc eguiñ  
zuen confesioa. Ez guera engañatu



bear, ez da cumplitzen esanarequin: guztia esan nion confesoreari: bada gobara bat ona izateco arropa loi guztiac bertan sartzea asco ez dan becela, ezpada eguiten bear dan guztia, arroparen ciquin guztiac quentzeco, era be-rean confesio bat ona izateco, gauza bearra da anima guera dedilla peca-tuetatic garbitua.

LAUGARREN ERREMEDIA. Confesio gaizto gueyenen sustraya da pecatura-co occasioetic ez apartatzea, eta pe-nitencia sendagarriac ez cumplitzea; aparta zaitez bada, peligroetic, cum-pli ezazu confesoreac aguintzen dizu-na, ar itzatzu prudenciatic eracusten di-tuen neurriac, eta icusico dezu cein ezaguna izango dan zure vicitzaren mudantza.

BOSTGARREN ERREMEDIA. Comulgatu baño len probatuco cera, eta beguiratuco diozu cere buruari ea gracion ote zauden; eta comulgatu ondorean gue-ratuco cera esquerrac ematen; eta con-tu etzaitecela bereala irten Eleizatic, Judas becela.



## CONDENATU GUZTIEN DEADARRA,

LABUR GOZATZEA, BETICO PENATZEA.

Pecatariac... ¡ay! ¿cér prochu ecarri-  
co dizute ondasun guztiac inguratu  
izanac, onore aundiac irichi izanac,  
gorputzari atseguin guztiac emanac,  
opa becela vengantza artu izanac, az-  
quenean anima galtzen baldin badezu-  
te? ¡Ay! ¡cén azcar igaroco diran orain  
aimbesteraño lilluratzen, zoratzen eta  
ichutzen zaituzten gauz oec guztiac!...  
baña ain azcar aitzen diran gauz oei  
darraican penen beticotasuna, ¡ay!  
¿norc sufritu al izango du? ¿norc?  
Emenda zaitetze bada, confesa itzatzu-  
te zuen pecatuac; bestela... ¡ay! ez det  
izango alaitasunaren cutsuric; contra-  
ra, gueituco didazute nere penen go-  
gortasuna, etorriaz zuec ere betico ne-  
que oñaceac padecitzen nagoen lecu  
onetara. Orretan pensa dezazutela edo  
ez dezazutela, sinistatu dezazutela edo  
ez dezazutela, illico cerate, eta... ¡ay!  
nic becela padecituco dezute.



*Infernucó pena beticoetan erortzetíc libra-  
tzeco erremedio guztienquicoac.*

LEMBICICO ERREMEDIAO. Goiz arratsetan errezatucó diozcatzu iru *Ave Maria* Virgíña chit santari *Aita gure bat Ave Mariarequin* Aingueru goardacoari, eta beste bat zure iceneco Santuari.

BIGARREN ERREMEDIAO. Sarrítan pensatucó dezu Jaungoicoa beguira eta celatatzen dagoquizula, eta bere escuandaucala zu bertan illic utzi, eta infernuetan obiratzea, beste peccatari ascorequin eguiñ izandu duen becela.

IRUGARREN ERREMEDIAO. Etzaitzala engañatu deabruac, esango dizunean: *peccatu eguizu, bada guero confesatucó cera.* ¡Ay, confesatucó calazcoaren ustean peccatu eguiten duenaren zorigaitzocó! ceren, edo ez du icusico eguiztatua bere uste gaiztoa edo confesatzeratzen bada ere, gaizqui confesatucó da, dio Burdonic.

LAUGARREN ERREMEDIAO. Mortificatucó dituzu potenciác eta sentiduac: bidezco gaucetan mortificatzen ez da-



quienac, guichiago jaquingo du debe-  
catutacoetan, eta erorico da pecatuan.

**BOSTGARREN ERREMEDIA.** Asteoroco  
egun batean barautuco cera, edo bein-  
tzat utzico dituzu zale gueyena ematen  
dizuten gaucetacoen batzuec.

**SEIGARREN ERREMEDIA.** Egunoro  
eguingo dezu ordu erdico edo laurde-  
neco oraciō mentala edo ishilicacoa.

**ZAZPIGARREN ERREMEDIA.** Devocio  
bereci bat izango diozu Maria Virgiña  
chit santari.

**ZORTZIGARREN ERREMEDIA.** Sacra-  
mentu santuac maiz artūco dituzu.

**BEDERATZIGARREN ERREMEDIA.** Ira-  
corrico dituzu liburu onac, eta gaiztoac  
eziñoiz ere; onelacoren bat baldin ba-  
dezu, erre ezazu: igues eguizu lagun  
gaiztoetatic, eta pecaturaco bidea izan  
litzatzuqueala iguertzen diezun lecu  
eta gaucetatic.

**AMARGARREN ERREMEDIA.** Alegui-  
ñean sayatuco cera gordetzen beti  
Jaungoicoaren legueco aguinteac, eta  
cere vici moduco eguin-bideac, eta  
onela eguiten baldin badezu, zorione-  
coa izango cera beticotasun guztian.



## Indulgenciac edo barcamenac.

Eleiza Santa, Jesucristogan sortzen dituen seme-alaben zorionagatic daucan celoac, muguierazten duen ezquero guiatzera oec ceruraco bidean erruquizco, graci eta barcamenezco eracardeacquin ascozaz maizago, izu eta castiguacquin baño, beste alde batetic oec ondo merecituac badauzcate ere, uste det Eleizaren espiritu onen erara obratu, eta beraren naya somatuco dedala, baldin liburucho onen osagarritzat fede dunai ematen badiet cembat indulgencien, batez ere, viciera mota guztietaco personac erraz irabaci ditzatequenen lista bat becela; ez jaquiñez utzi ez ditzaten eguiñ gabe orretaraco aguintzen diran obrae, eta beragatic guera ez ditecen ondasun ain aundia irichi gabe. Baña ongui izango da *indulgenciaz* cer aditzen dan, eta bera irabazteco cer eguiñ eta certatic itzuli bear dan, laburcho bederic lendanaz adieraztea.

Indulgencia da pecatu barcatuen pe-



na demborazcoaren barcacioa. Onec adierazten du, ecen, betico pena bat, nola dan infernucoa, mereci duela peccatu mortalac; eta venialac, vicitz onetan edo purgatorioan pagatu bear dan demborazcoa. Baldin peccatu mortala badago bear becela confesatua, confesatu al ditequeanean, edo baldin, ecin ditequeanean, gorrotatzen bada contricio oso edo onezco damuarequin, eta aldanean edo dembora datorrenean confesatzeco propositoarequin, betico pena hura gueratzten da contricio onen edo Penitenciaco Sacramentuaren indarrez, ez osotoro des-eguindua, ezpada aldatua demborazco izatera, pena au izanic iraupen gueyagocoa edo guichiagocoa, confesatu zanaren edo contriciozco actoa eguiñ zuenaren damua, amorioa eta osterontzeco prestaerac izandu ciran erara: eta demborazcoa dala diogun pena au pagatu bear da, edo mundu onetan edo purgatorioan, peccatu venial barcatuenagatic esan dan becela.

Pena demborazco au, ordea bi modutan quitatu diteque; edo nor berac,



edo beste baten bitartez, naiz mundu onetan, naiz purgatorioan. Guc gueroc pagatuco degu, baldin viotz iracequi batequin eguiten baditugu, Jaungoicoaren gracion eguiñican *quitocoac* deitzen eta diran obra batzuec, nola diran oracioa, limosna eta baraua, Trentoco Batzarre santuac erabaqui zuen becela; bada berac dionez: «Ain aundia da «Jaungoicozco on-guitearen liberalta- «suna, ce, Jesucristoren graciaren bi- «tartez quitatu dezayoquegun Aita «Jaungoicoari, ez bacarric pecatuaren «satisfacio emateco guere gogoz egui- «ten ditugun penitenciacquin eta con- «fessoreac ematen dizquigunacquin; «baita ere, Jaungoicoac bialtzen diz- «quigun castigu demborazcoacquin, «aguertuaz onela digun amorioaren «prueba aundia, padecitzen ditugula «guc viotz onarequin;» eta ala edoceñ oracio modu, ala aozco, nola mental edo itz gabecoarequin; edoceñ nequepena ala gogozco nola gogorrezcoacquin, naiz izan Jaungoicoagandic zucen zucen, naiz lagun urcoagandic, naiz elementu edo abereetatic datozqui-



gunac, nun eta viotz onez sufritzen ditugun; edoceñ limosna-mota, ala animaco nola gorputzecoacquin, baldin Jaungoicoaren amorez eguiten baditugu, quitatu dezaquegu pecatu barcatuari zor zayon pena demborazcoa: eta obra oec alaco moducoac izan ditezque; non-edo dala beren ugaritasunez, edo dala eguiñac izandu diran amorioaren berotasunez, leucatequean esandan pena oso pagatzeco bear ambateco merecimentu edo valioa, eta orduan Jaungoicoa gueratzen da quito, eta ez du beneric ecer ere escatzen, ez mundu onetan eta ez bestean; eta ona emen norc berac pagatzeaz cer aditzen dan.

Besteren bitartez pagatzen da, adisque edo onguilleren batec gure zorra beregañ artu, eta pagatzeco, esqueintzen diozcanean Jaungoicoari gorago esandaco obrac, edo irabacitaco merecimentuac. Jesucristo izan zan obracquin lembici pagatu zuena, eta gure adisque justuac orain eguiten dute berpera, oracio, barau eta limosnac eguindacoan, oen merecimentua aplicatzen digutenean: eta irabacitaco



mercimentuacquin pagatzea eguiten  
lu Eleizac, ceña dan Cristoren, Virgiña  
chit santaren eta Santuen mercimentu  
gordelari eta partitzallea, bada nola  
Jaunaren mercimentua dan cabu ga-  
bea, eta oei asco sobratu bai citzayen,  
sobratu au gueratu zan Eleizaco gorda-  
lluan, eta emendic ematen digu paga-  
tzen cerequin lagundu (diot *laguntzen*  
digula, bada gueroc cerbait pagatu  
guenezaqueala, guztia berac pagatzea  
ez litzaque bidezco gauza; argatic bere  
partetic penitenciac edo satisfaciozco  
obrac eguiten sayatzen ez danac ez lu-  
que irabacico indulgenciaric, ceren  
jaquiñaren gañean egon bear degu,  
ecen, indulgenciac etzirala izan ipiñiac  
lasaiqueriari eta alperqueriari indarra  
emateco): alaco moduan non, baldin  
Eleizac ematen badigu bere gordallutic  
gure zorra quitatzeco edo des-eguiteco  
bear ambat, orduan cantidade oni dei-  
tzen diogu indulgencia osoa; eta onem-  
besteco marcatu bat bacarric ematen  
badigu, deitzen diogu indulgencia par-  
tearra edo ez-osea.

Esan danetican, bada ezagutzen da,



ecen, indulgenci osoa dala pena guztiaren barcacioa; da esatea, Eleizac barcatu dezaqueanarena: eta ala, bera irabazteco suerte zoriontsua daucana, gueratzen da, Jaungoicoaren aurrean batere zorric gabe, ez mundu onetan eta ez bestean.

Indulgencia partearra edo ez-osoa da emalleac señalatzen duen ambateco pena bacarric barcatzen duena. Eta ala, persona batec irabazten duenean onembeste urteco, eguneco, etc., indulgencia bat, demagun berroguei egunecoa, ez da aditzen purgatorioco berroguei egun descontatzen zayozcala, ezpada barcatzen zayola Eleizac anciñaeran jarriac ceuzcatenetaco berroguei eguneco penitenciaquin quitatu al izango zuena; penitenci oec icendatzen dira canonico edo neurtartecoac, pecatuac castigatzeco neurri edo arguibidetzat servitzen zutelaco, eta Eleizac ipiñiac izan ciralaco. Ona ejemplo bat. Aguindua cegoen, ecen, *Jaungoicoaren icenaz, Virgiña chit santarenaz edo beste Santuren batenaz arnegatzen edo blasfematzen zuena egon cedilla zazpi igandetan*



*Eleizaco atean meza nagusiac cirauen bitartean, eta azquenecoan oñ-utsic eta capa gabe, eta aurreco zazpi ostiraletan ogui eta ur barautu cedilla, dembora onetan guztian eragotzia iduquiric Eleizan sartzea. Orobat, bere gurasoai biraut bat botatzen ciona, berroquei egunean ogui-ur utsacquin egon cedilla, etc. Ora- in gauza ciertoa da, ecen, penitencia oec cintzo, humillqui eta Jaungoicoa- ren gracion cumplitzen cituenac, Elei- zac ipiñitaco penari satisfacio eman ez ecic, mereci zuela ere Jaungoicoaren aurrean, barcatzea penitenci aren bidez pecatu barcatutaco aecgatic mundu onetan edo bestean pagatu bear zuen pena demborazcoaren guichi edo gue- yago bat (ez det esango cembat barca- tzen citzayon, eta cembat pagatu bear zuen, ceren ez daquigun, Jangoicoac aguertu ez duelaco): berroquei barauc- quin, bada, edo zazpi igandetan peni- tenciaz Eleizaco atean egonarequin Jaungoicoari pagatuco cion penaren parte au da, Eleizac bere gordallutic ematen diona, conceditzen duenean zazpi eguneco, berroqueico, etc., indul-*



gencia bat, eta orobat gañeraco partear guztia: beragatic, eun eta berroguei milloi eguneco indulgencia bat, onem-beste dira, guichi gora bera, concedituac daudenac, Errosarioco cofradiacoa izanic, errosarioaren parte bat erreza-tzen duenarentzat) zorionez iristen duenac, irabazten du eta quitatzen dio Jaungoicoari, eun eta berroguei milloi ogui-urezco baruacquin quitatuco lioquean ambat. Ona emen cer dan indulgenci oso bat, eta cer partear edo ez oso bat.

Baña nola bere gordalluco ondasun oec Eleizac ez dituen ematen nola nai edo cer eguiten duen beguiratu gabe, ezpada condicio batzuen azpian, esan bear degu cerbait oen gañean, bada ascotan berac cumplitzean dago aec irabaztea.

Gondicio oec dira bi modutacoac: batzuec indulgenciac irabaci bear dituen personari dagozcanac, eta besteac indulgenciac irabazteco, oen emalleac aguindutaco obra edo obrari dagozcanac. Lembicicoac, beste batzuen artean, dira oec:



1.<sup>a</sup> Batayatua egotea; 2.<sup>a</sup> indulgenci emallearen mendecoa izatea; 3.<sup>a</sup> escomulgatua ez egotea; 4.<sup>a</sup> Jaungoicoaren gracion arquitea, benic bein azqueneco obra eguiten duenean, aguintutaco obrac asco badira; edo obra acabatzean, bacarra baldin bada. Beragatic batayatu gabeac, emallearen mendecoa ez danac, escumicua daucanac edo pecatu mortalean dagoenac indulgencia irabazteco aguintzen diran obrac eguingo balituzque ere, ez luque irabacico.

Oec irabazteco aguintzen danari dagozcanac dira: 1.<sup>a</sup> aguintzen diran obra edo obrac cumpli ditecela guztiac osotoro eta bear becela; 2.<sup>a</sup> eguiñ ditecela ondo, ichusitu edo gaiztotu gabe artarazucentzen ez diran asmo edo motivoaquin, nola litzaquean eguitea arroqueriaz, gogozco zabarqueriarequin, etc.; 3.<sup>a</sup> eguin ditecela aguintzen dan demboran, lecuan eta moduan. Eta ala, indulgenciaric ez litzaque irabacico condicio oen faltaz, onaco aldi oetan:

1.<sup>a</sup> Utzico balitz eguin gabe ez jaquiñez edo eciñ eguiñez aguintutaco



gauza, edo beraren parte aundi bat, nun eta gauza aguindua etzuen aldatu beste gauzaren batean artaraco escubidea duenac; 2.<sup>a</sup> Eguiten ez balitz aguintzen duenac ceucan motivoagatic, ezpada besteren bategatic; 3.<sup>a</sup> Eguiten ez balitz aguintzen dan lecuan, demboran edo moduan, edo orretaraco baliatuco baguiñaque bestezaz, nola litzaquean, aguinduco baguiñoque norbaiti gure ordez barautu dedilla, visitatu dezala Eleiza, edo bere dirutic eguin dezala limosna, etc.; 4.<sup>a</sup> Eguin gabe utzico balitz berez precisoa dan gauzaren bat, naiz guc eta naiz bestecala dala uste ez badegu ere; 5.<sup>a</sup> Ez luque irabacico indulgenci osoa pecatu mortalgabe egon arren, pecatu veniala daucanac edo oni naitasuna dionac: pecatu barcatugabecoaren penaric iñoiz barcatzen ez dalaco, eta ona cergatic condiciotzat jartzen danean Sacramentuac artzea, consejatzen dan, azquenengo eguingo dan obra izan dedilla Comunio santua. Baña emen oarterazobear degu, ecen, condicio bear bearrecoren baten faltaz indulgenci osoa ira-



bazten ez danean, irabazten dala partearra becela; 6.<sup>a</sup> Aguindutacoa cumplitzeco besteaz, bere mendeco batezatzat becela baliatzen danac ez du irabazten indulgencia osoa, baldin beste orrec cumplitzen ez badu eguiaz eta benaz gauza aguindua: demagun, nic ematen diodala lagunari diru pisca bat entregatu dezayon pobre bati, persona onec diru ori entregatzen ez baldin badu, nic ez det irabazten indulgencia. Esandaco falta oec eragozten dute, bai, indulgencia irabaztea; baña ez beste oec.

1.<sup>a</sup> Ain chiquia bada eguin gabe utzitzen dan partea, non, ecerezqueriatzat artzen duten persona centsuzcoac: nola litzaquean ceremonia bat meztan, distracio labur bat, gauza chiqui bat gueyago artzea barau egunean, etc.; 2.<sup>a</sup> Emandaco limosna izatea chiquichoa, cembat eman bear dan señalatzen ez danean; 3.<sup>a</sup> Oracio eguitera sartu ecin baditeque Eleizan, gendez betea dagoelaco, bada asco da orduan atetic, edo Eleiz-ataritic eguitea; 4.<sup>a</sup> Indulgencia irabazteco aguintzen zan



guztia eguiñ arren, baldin ez baceucan intencioric, nun eta etzeucan ere con-tracoa, ceren onetaraco asco dan ala naico zala uste izatea: eta orregatic chit conveni da artzea noicean bein, egunaren asieran, astearen eta illaren aurrenean, alditezquean indulgenciac irabazteco intencioa; 5.<sup>a</sup> Baldin alda rea edo capilla visitatzean, bertara joa-ten ez bada, asco izanic ara beguira-tzea Eleizan arkitzen dan toquitic, edo icusi dezaquean eran jartzea.

Indulgencia cér dan, eta irabazteco cér eguiñ, eta certatic itzuli bear dan adiarazteco, oraindaño esana asco dala baderitzagu ere, oarterazoco degu ar-guitasun are gueyagoraco: Lembici; ematen danean indulgenci bat eriotza-co orduraco, demagun, JESUSEN icen gozoa esanda irabazten dana, ez dago confesoreac aplicatu bearric, ezpada asco du iltzen dagoenac, al badu aoz, edo bestela viotzarequin esatea.

Bigarren; eriotzaco orduraco indul-genciac emanac dauzcan Gurutze, Er-rosario edo medalla, etc., lepotic cin-cilic edo escuetan iduquitzea obe balitz



ere, ez da au bear bearrecoa; iltzen dagoenean asco du, aren jabea bera baldin bada, oean edo bere aldamenean iduquitzea, naiz ez icusi eta ez uquitu; ez da ere precisoa iduqui dezala berequin azqueneco asnaserano, au beti procuratu bear bada ere.

Irugarren: gauza seguruen da, ecen, illdacoen sufragioan aplicatzeco escubidearequin viciai emandaco indulgencia ecin irabaci dezaqueala Jaungoicoaren gracion ez dagoenac; eta ala, illdacoari aplicatu nai diona, estadu onetan ez baldin badago, saya bedi jartzen, edo confesatuaz, edo eguiñaz contriciozco acto bat dembora danean confesatzeco proposituarequin.

Laugarren; iltzen daudenac irabaci ditzateque motivo diferenteacgatic emanac izan diran indulgenci asco, demagun, errosario diferenteacgatic, onelaco edo alaco Gurutzeagatic, etc., eta ori naiz ez jaquin edo ez gogoratu berac.

Bostgarren; vicientzat emandaco indulgenciac ecin aplicatu litzayezteque illdacoai, nun eta ematen dituenac ez



duen señalatzén balitzayeztequela.

Seigarren; obra bat berarequin irabaci ditezque indulgenci asco, persona batec baño gueyagoc emanac daudenac, baldin obra hura era berean zuzentzen bada, indulgenciac ematean batac eta besteac ceucaten intenciora; eguiñ dezagun contu, persona batec baño gueyāgoc ematen dituztela indulgenciac liburu bat guztia edo beraren partea iracortzeagatic, imagiña bat adoratu bitartean onelaco edo alaco oracio labur esateagatic, etc., orain bada, asco da bein bacarric iracortzea edo adoratzea, guztia irabazteco, eta orobat aguindutaco obra egun berean berritu ecin baditeque ere, nola litzaquean Comunioa edo baraua.

Azalduric, bada, aurretic, jaquin-bide eta oarquera oec, ara emen fededun guztia irabaci ditzatequen indulgencien lista (1):

1.<sup>a</sup> Asco dira Trisagio chit santua devocioz errezatzen duten guztientzat, Erromaco Aita Santuac eta Obispo jaunac emanac dauzcaten indulgenciac.

(1) Ferrari-ren liburutic aterea.



2.<sup>a</sup> Sacramentu guztiz santua visitatzen dutenac iristen dituzten graciac dira asco, eta irabazten dituzten indulgenciac, conta al baño gueyago.

3.<sup>a</sup> Diosala norbaiti eguiten: «*Ala-batua izan dedilla Jesucristo*» esateagatic, eta *Amen* edo *beti izan dedilla*, erantzuten duenentzat, emanac daude eun eta berrogueta amar eguneco indulgenciac, eta vicitzan oitura au izan duenari ematen zayo indulgenci oso bat eriotzaco orduan, JESUSEN icena devocioz esanaz viotzez bederic, aoz ecin baldin badu.

4.<sup>a</sup> JESUSEN edo MARIAREN icena erreverenciarequin esaten duenari daude emanac ogueita bost egunecoac.

5.<sup>o</sup> JESUSEN icenaren letania errezatzen duenari, irureun egunecoac; eta MARIAREN izenarena errezatzen duenari, berreunecoac.

6.<sup>a</sup> Meza devocioz entzuten edo ematen duenari, ogueita amar milla eta zortzireun urtecoac, ceñac aplicatu litzayezcaquean ildacoai.

7.<sup>a</sup> Cristoren pasioaren eta Maria chit santaren samiñtasunaren onran



*Aita gurea* eta *Ave Maria* bost bider errezatzen duenari, amar milla urte-coac.

8.<sup>a</sup> Errosarioaren irugarren partea errezatzen duenari, bost urte eta bost berrogeico egunecoac gañera *Aita gure* bacoitzagatic eun egunecoa, eta *Ave Maria* hacoitzagatic, beste aimbeste; eta urte guztian irauten badu devocionetan, autu dezaque egun bat ceñean, confesatu eta comulgaturic, eta erregutzen duela graci au ematen duenaren motivoacgatic, irabacico duen indulgenci oso bat, purgatorioco animai aplicatu dizayequena: baña onetaraco errosarioac egon bear du bedeincatua Santo Domingoren ordenaco fraileren batec, edo escubide au daucanac; baita ere da gauza precisoa misterioac esatea, nun eta ez jaquiñez edo ecin icasiaz utzitzen diran esan gabe.

9.<sup>a</sup> Pecatu mortalean daudenacgatic amabost *Aita gure* eta *Ave Maria* errezatzen dituenari, cembat bider au eguiten duen, beste aimbeste bider ematen zayo pecatu barcatuac zor duten penaren irugarren partearen barcacioa.



10.<sup>a</sup> *Ave Maria* bat errezatzen duenari iruroguei egunecoac; *Salve* bat esateagatic, berroguei egunecoac; *Jesus* eta *Mariaren* icenari burua macurtzeagatic, oguei egunecoac; *Gloria Patri* esatean ori bera eguiten duenari, ogueita amar egunecoac; Aldareco Sacramentu santuari belaunicatzeagatic, berreun egunecoac; Gurutzeari muñ eguiteagatic urte bat eta berroguei egunecoa. *Bedeincatua izan dedilla Maria Virgiñaren chit Sortze santu eta mancha gabea* esaten duenari, eun urtecoac.

11.<sup>a</sup> Eleizacoac dijoacenean arguiarequin laguntzen duenari, zazpi urte eta zazpi berrogueico; argui gabe lagun eguiten dionari, bost urte eta bost berrogueico: nor bera joan ecin ditequeanean, beste bat arguiarequin bialtzen duenari, iru urte eta iru berrogueico.

12.<sup>a</sup> Mezaren Sagaracoan parroquian jotzen dan ezquilla adituric, belaunicatuta, oracio eguiten duenari, naiz echean, naiz campoan, edo arquitzen dan toquian, urte batecoa; eta onetaraco Eleizara badijoa, bicoa.



13.<sup>a</sup> Bear becelaco prestaeracquin edoceñ jai egunetan confesatzen eta comulgatzen danari, bost urtecoac aldi bacoitzean; eguiten badu illean bein, eta Jesucristoren, Virgiña chit santaren, Apostoloen eta San Juan Bautis-taren pestatan, amar urtecoac bacoitzeoro; eta bere errico pesta aundie-nean egūiten badu, osoa.

14.<sup>a</sup> Goicean, egüerdian eta arratsean ezquillac jotzean, *Jaunaren Aingueruaren* oracioa iru *Ave Mariacquin* belaunico (zutic larumbat arratsean eta igande guztian) errezatzen duenari, eun egunecoac bacoitzeoro; eta berac aututzen duen illeoroco egun batean confesaturic eta comulgaturic, eta Eleizaren motivo jaquiñacgatic erreguric, indulgenci osoa.

t 15.<sup>a</sup> Arratsean animen ezquilla aditzean, *Aita gure bat Ave Mariarequin*, eta guero: *Eman zayezu, Jauna, azquen gabeco descantsua*, eta betico *arguiac argui eguiñ dezayela*. Purgatorio-co animacgatic belaunico errezatzen duenari, eun egunecoac bacoitzean; eta onela eguiten urte guztian irauten ba-



du, berac aututzen duen egun batean confesatu eta comulgaturic, eta Eleizaren motivoacgatic oracio eguiñic, indulgenci oso bat.

16.<sup>a</sup> Laroguei urtecoac ematen zayozca errezatzen dituenari onaco oracio au: *Nere Jesucristo Jauna, Aita guztiz gozoa, zure Ama Maiteac artu zuen pozagatic erresurreccioco gau sagraduan aguertu ciñitzayonean, eta Jaungoicozco arguiarequin gloriaz beteric ceundela icusten izan zuen atseguñagatic, escatzen dizut arguitu nazazula Espiritu Santuaren doayakin, nere vicitzaco egun guztietan eguiñ dezaquedan zure vorondatea, bada vici eera eta erreinatzen dezudembora guztien demboretan. Amen.*

17.<sup>a</sup> Damutu eta confesaturic Corpus jayeco matutiac errezatzen dituenari, edo aetara asistitzen duenari lareun egunecoac; lembicico vezperac errezatzen dituenari, edo aetara asistitzen duenari, lareun egunecoac; bigarrengetan orobat eguiten duenari, eun egunecoac; Meza esan edo entzuten duenari, lareun egunecoac; eta egun bereco Eleiz errezo bacoitzagatic, eun



eta irurogueicoac. Zortziurrempeco egun guztietan, berreun egunecoac vezpera bacoitzagatic; berreunecoac matutia bacoitzagatic; berreunecoac Meza bacoitzagatic; larogueicoac Eleiz-errezo bacoitzagatic; eta berreunecoac procesiora asistitzeagatic.

Indulgenci oec guztia zabaltzen dira Mariañen Sortze edo Concecio mancha gabearen pestara, Jesusen icen gozoarenera (pesta onetan bost *Aita gure* eta *Ave Maria* gueyago esanaz), eta Jaunaren Bestiruditze edo Transfiguracioarenera; eta Ama Virgiñaren Visitacio egunean, ematen dira eun egunecoac Vezpera, Matuti eta Meza bacoitzagatic; eta berroqueicoac Eleiz-errezo bacoitzagatic.

18.<sup>a</sup> Ostiral arrats-aldeco iruretan ezquilla jotzen aditzean bost *Aita gure* eta *Ave Maria* belaunico errezatzen dituenari Jesusen pasio eta agoniaren oroi-penean, eun egunecoac.

19.<sup>a</sup> Illabete batean oracio mental edo hitz gabecoa ordu erdian edo benic bein laurdenean egunoro eguiten due-



nari, egun oetacoren batean confesatu eta comulgatuaz, indulgencia osoa.

20.<sup>a</sup> Inautiri egunetan confesatu eta comulgaturic, Jauna patente dagoela visitatzen dutenai, indulgencia osoa.

21.<sup>a</sup> Acto fedecoac, esperanzacoac eta caridadecoac piedadez, devocioz eta viotzez illabete batean egunoro eguiten dituenac, autu dezaque egun oetacoren bat, ceñean confesatu eta comulgaturic irabacico duen indulgenci oso bat, purgatorioco animai aplicatu dezayequena. Eta emen conturatu bear da, ecen, acto oec eguiteco usatzen diran itzac izan ditezqueala nola naicoac, baldin adierazten badituzte virtute Teologal bacoitzaren motivo bereciac.

22.<sup>a</sup> Aita gurea eta Ave Maria batequin errezatzen badira otoitz labur, jaculatoriac deitzen diran oec: Agur Maria, Aita Jaungoicoaren Alaba, Agur Maria Seme, etc., indulgenci osoa bacoitzean.

Emen ez dira ipintzen Cofradi eta erligiozco Billada batzuetan arkitzen diranac, ceren bertan sartuta daudenai dagocate, oec cembat eta nola diran



jaquitea, edo besteai aditzera ematea.

Baña bay erregutzen zaye chit fededun guztiai, saya ditecela eguiten penitenciaren diñaco frutuac edo obra onac, zabarrac izan gabe indulgencien ondasun ain estimagarriac provechatzen, oecquin pagatu al izateco gure argaltasunac iristen ez duena; eta eguiten badute, edo ez dira joango purgatoriora, an garbituac izatera, edo chit luburra beintzat izango da, beren animac mundu onetatic alde-eguitean igaroco duten dembora sartu gabetanic ceruco glorian; nun guztioac elcarrequin icusi gaitecela. Amen.





## SAN RAFAEL

EDO

### ERIEŅ CONSUELOA.

---

Lembicico parrafoa.—*Eriac visitatzea, eta berai eguiñ ditzayeztequean oarquera edo on esanac.*

Eriac visitatzea edo socorritzea cein caridadezco obra aundia dan ezagutze-co, asco da gogoratzea Jesucristoc berac aezaz esaten diguna. San Mateoren Evangelioco XXV garren capituloan segurutzen digu, ecen, eriai eguindaco visitac, bere personari eguiñac becela ezagutuco dituela juicioco egunean mundu guztiaren aurrean, eta aguin-duco duela emateco dagocaten saria; *eria nintzan, eta visitatu ninduzuten.* (36 gar. v.)

Ari gaitecen bada, caridadezco obra ain aundi onetan, visitatuaz aide-eriac ez ecic, arrotzac ere, naiz beren echeo-



tan, naiz hospitaletan, uste izanic, ecen, oetaco bacoitzean Jesucristo bera icusten aegula. Baña gure visitac ez dute izan bear legorrac, nola izan oi diran araco odei, eurirican bialdu gabe, egualdia pishutzeco, eta vicidunac atsecabetzeco baicic serbitzen ez duten aec; ezpada campoac erregatuaz, lurrai ugaritasuna emateco euri jasatan des-eguiten diranac becelacoac.

Batzuen visitac, bertan eguiñ oi dituzten erausi eta choraqueriagatic, ala erientzat nola echecoentzat servitzen dute consueloa eta gozaera emateco baño obeto, gogaitzeco eta atsecabetzeco. Guc ez dugu eguin bear orrela; ezpada, premian baldin badaude, eta, guc albadegu, lagundu bear diegu limosen batzuequin, edo benic bein animaco socorruren batequin, aen egoera tristeaz cupitzen, eta Jaungoicoari gomendatzen diozcagun bitartean, dembora berean conseju ongarriac emanaz, eta pensamentu santu batzuec gogoe-razoaz. Itz eguiñ guenezayequé era onetan, eta edo guis onetaco besteren batean:



1.<sup>a</sup> Jesucristogan nere senidea, oroi-tu zaitez cerala cristaua, ceñacesan nai duen Jesucristoren icaslea eta jarrailea. Jarraitu zayozu, bada orain, ain erraz iduritu zatzaquiozcan ezque-ro oñacezco oe orretan, eta esayozu Aita Beticoari, Salvatzalle adoragarriac Jetsemanico agonia gogorreanean esaten ciona: *Ene Aita, caliz au igarō bedi nigandic; baña edan dezadala nai badezu, eguin bedi zure vorondatea eta ez nerea.* Escayozu Jaunari libra zaitzala arqutizen ceran pena eta nequeetatic, baldin baditeque, baña sufri ditzatzula nai baldin badu, zuc ere nai dituzula, eguiñ dedilla bere vorondate chit santua, ceña cumplitu nai dezun, Jesus zure Maisu Jaungoicozcoac becela.

2.<sup>a</sup> Ondo daquizu, nere senidea, gauza bearra dala salvatzeco, eguite Jaungoicoaren vorondatea, Jesucristoc berac segurutzen digun becela, esaten digunean bere Evangelio santuan (*Math. c. vii. 21*): *Ez dirala sartuco ceruetaco erreinoan Jauna, Jauna, esaten dioten guzliac; ezpada Aita Cerucoaren vorondatea eguiten dutenac.* Ez de-



zazula aztu iñoiz, nola Aita gurearen oracioan esan diozun Jaungoicoari egunoro: *Eguin bedi zure vorondatea nola ceruan ala lurtean*: Orain icusi nai du Jaunac, ea viotzez esaten cenduen, edo ez ote ciran itz soll uts batzuec baicic, orduan esaten ciñituenac. Baldin bacenduca morroi bat zure egunoro lanetaraco, eta esanic prest dagoquizula aguintzen diozun guztiraco; ¿cér esango cenduque arzaz, cerbait aguintzen diozun unean bertan asico baltizatuque aguindutacoaz quejatzen, eta eguiñ naico ez baluque? Guztioe guerra Aita cerucoaren morroi batzuec, escatu nai dizquigun servitzu guztia zor diozcagunac; eta zu batez ere milla bider ez ecic, baita egunoro ere esqueñi zatzaizca, guztian eta chit leyalqui eguiteco beraren vorondate santua; ¿eta quejatu al zaitezque orain beraren providenci adoragarriaren neurriaz? ¿Ucatuco diozu, zure mendetasunezco señaletzat escatzen dizun prueba ori? Esayozcatza, bada, berriz eta berriz eta viotzeco sencilltasun osoarequin, Aita gureco itz oec; *Eguin bedi zure*



*vorondatea nola ceruan ala lurrean,*

3.<sup>a</sup> Eritasunac paciencian eramatea, animarentzat becin prochugarria da gorputzarentzat: prochugarria da gorputzarentzat, ceren, eria soseguz baldin badago, sasoi obean arkitzen da sendagayac obratu dezaten, eta ala be-realago irichi dezan osasuna; eta animac ere irabazten du merecimentu aundia, eta on-bide ederra ematen die ala ehecoai nola visitazera dijoazquinai. Paciencia artzen ez duenac, contrarara, calte eguiten dio bere gorputzari, eta galera aundiac animari eracarriaz gañera, guztiac daucatzu asper-tuac, eta gogaituac.

4.<sup>a</sup> Gaitzetan paciencia iduquitze-co, on da Jesucristoren penetan maiz pen-satzea, bada Jaun au da, profeta batec chit egoqui dionez, *Oñaceetaco Guizona*, Beguira zayozu nola dagoen larru gor-rian, abe bati loturic, eta ecin conta al azote bere gañean artzen dituela: ¿norc sufritzen du gueyago, zuc edo arc?... Beguira zayozu, arantzaz nola coroa-tzen duten... nola Calvarioan quentzen diozcaten borchaz bere zauriai odol



gogortuarequin itsasiac ceuzcan soñe-  
 coac... nola luzatzen duten gurutzeco  
 oe gogorrean; nola iltze lodi gogorra-  
 quin josten duten escu-oñetan. ¡Cér  
 diferencia, nere senidea, zure oetic  
 arenera! ¡Zu, oe biguñean, eta hura  
 abe gogor batean! ¡Zu, buruco suavea-  
 ren gañean, hura arantza garrillo bate-  
 quin! ¡Zu, etzanda eta ondo estalia,  
 hura, larrugorrian eta iru iltzetatic ishe-  
 guia! ¡Zu, echeocoac ondo contu egui-  
 ña eta adisquideac visitatzen zaituzte-  
 la, hura adisquideac utzia eta bere et-  
 sayen jostallu eguiña! ¡Zuri edaten  
 ematen dizute, egarri bacera, eta ari  
 bere egarrian beazuna eta ospiña baca-  
 rric ematen diote edaten, eta lotsaga-  
 bequeriaz betetzen dute! Orain bada,  
 senide maitea, baldin Jesus inocenteac  
 badaramazqui paciencian aimbeste pe-  
 na eta oñace, eta heriotza bera, ¿cerga-  
 tic peccatari pobre batec ecin sufritu al-  
 izango du viotz onez bere calizaren  
 parte guichi bat?

5.<sup>a</sup> Oroitu zaitez, nere senidea, ne-  
 gar eta miseriazco ballada batean gau-  
 den deserritu batzuec guerala: gure gu-



rasoac eta gueroconai ezarri diozca-  
gunacquin eguindaco pecatuacgatic  
madaricatutaco lur onec ez ditu ema-  
ten pena, neque eta eriotzazco arantzac  
baicic. Alaitu zaitez bada, deserri onec  
izango du bucaera, baña bien bitartean  
pasa bear degu beraren nequeetatic,  
alic eta aguindua daucagun ceru-errico  
zoriontasunera iristen guerañ arteraño.

6.<sup>a</sup> Viotz on eta paciencia, nere se-  
nidea; pensa ezazu, ecen, zure vicitza  
danic contuzcoena izan bada ere, ero-  
rico ciñala uts-eguiteen batzuetan, eta  
oecquin ecin sartuco ciñala ceruetaco  
erreinoan. Gauza bearra da berac aur-  
retic garbitzea, edo mundu onetan zuc  
daramazquitzun penacquin edo oec  
ambateco beste batzuecquin; edo bes-  
tean purgatorioco pena icaragarriac-  
quin. ¡Cein aundia dan oetatic aetara  
dagoen diferencia! Eta uts-eguite aun-  
diren batean noizbait erori baldin ba-  
cera, oroitu zaitez infernua merecitu  
izan cenduela, eta une artan Jaunac  
vicia quendu izañ balizu, orain oña-  
cezco toqui artan arquituco ciñala,  
Evangelioico aberatsa becela. Eta ango



su irentsille arequin ¿nola vici al izango  
 go ciñaque? ¿nola sufritu al izango ci-  
 ñituzque beti dirauten gar vici aec  
 Contu eguizu, ango neque oñaceac al  
 datu dizquitzula Jaungoicoac, oatua  
 zauzcan gaitz orrec sufrierazten diz-  
 quitzunetan; sufri itzatzu, bada, pa-  
 ciencian eta gracion; esan nai det  
 eguin dezazula confesio on bat, orain  
 dic eguin ez badezu, jarri zaitecen  
 Jaungoicoaren gracion, eta orduan ne-  
 que oec berac izango dituzu mereci-  
 mentu aundicoac, bada gracion ez ego-  
 tera, ez lizuteque ecercho ere serbituco  
 ceruraco.

7.<sup>a</sup> Jaungoico gure Jauna portatzen  
 da gurequin, nere senidea, eria senda-  
 tzeco emplastoac ecer servitzen ez du  
 tela icustean, medicu on bat burnia  
 baliatzen dan becela; esan nai det  
 ecen, Jaungoico gure Jaunac icuster  
 duenean ez dutela iristen peccari  
 convertitzea eta centzatzea ez apaizer  
 gaztigu eta sermoyac, ez ere viotzer  
 bialtzen diozcan muguida on eta gogo-  
 racio santuac, baliatzen dala eritasu  
 naz, ceñaren bidez eragozten dion joa



tea ostatuetara, cafeteguirra, jocora, andre galduen echera, etc.; eta are gueyago dana, obligatzen du lenagoco vicitza gaiztoa sucentzera, eta confesio on baten bidez, burni batequin becela, vicio gogortuenac ebaquitza. Onelacoarequin portatzen da moduren batean Saulorequin becela, ceñac, lurre-ratua izan zanean esan cion Jaunari: *¿Cér nai dezu equin dezadan?* eta eran-tzun citzayon cijuala Jaunaren apaiz Ananiasengana, eta irichi zuen gorputz animetaco osasuna. ¡Oh cembat diran gaitzarequin oatuac egonduta-coan, beren beguiac graciaren arguira idiqui dituztenac; confesio on bat eguiñ, gorputzeco eta animaco osasuna irichi eta azquenic salvatu diranac!

Bigarren parrafoa.—*¿Eleizacoac noiz eman bear zaizcate eriai?*

San Ligorio dio, ecen, eriari Eleizacoac emateco, ez duela egon bear onec etsimena artua, ezpada asco duela eriotzaco perillean arquitzea. Eta ascozaz ohea da orduan ematea, bada



dago ezagüera gueyagorequin, obeto prestatu diteque, eta beragatic atera dezaque frutu gueyago Sacramentuetatic, ceren oec eracartzen duten gracia da aundiagoa edo chiquiagoa, artzen dituenac daucan gayaren erara.

San Ligorioac berac dio gañera, Eleizacoac asco bider eman dezayozcaqueala erñari, barauric egon ez arren, gaitz berarequia seguitzen duen bitartean, benic bein sei edo sortzi egun igaro ezquero.

Ezagüeran sartutaco aurrari ere orobat eman litzayezcaque Eleizacoac.

Eria visitatzen eta consolatzen dagoenac sortuerazo bizayo biotzean Aldareco Sacramentu guztiz santua edo Eleizacoac artzeco zalea, indartsuen janari onequin sendoturic gogor eguiñ dizayequen deabruaren erasoai indar aundiagoacquin eta gracia ugarigoarequin, esanaz, ala eguingo dala bat Jesus gure Erredimitzallearequin. Bada, Jaun au etorri nai zayola bera visitazera, bere graciaac emateco, eta ceruerrira lembaitlen eramateco; edo oraindic irichi ez bazayo eriotzaco ordua,



gorputzeco osasuna emateco, conveni  
bazayo. San Cirilo Alejandriacoac dio,  
Aldareco Sacramentu santuac ayena-  
tzen dituela gaitzac ere, eta eriarri osa-  
suna ematen diela. Eta San Gregorio  
Nacianzocoac contatzen du, bere aita  
sendatu zala Comunion sagradua artu  
zuen une berean. Nic ere asco icusi  
izandu ditut obedasuna sentitu dute-  
nac Eleizacoac artuta bereala, eta az-  
quenec sendatu diranac.

Irugarren parrafoa.—*¿Olio Santua noiz  
eman bear zaye eriai?*

Cristruari eman zayon atzeneco Sa-  
cramentua nola bai dan Olio Santua,  
bera da ere bicitzaren coro espirituala.  
Onequin indarturic prestatzen da cris-  
taua ceru-errian sartzeco. Beragatic,  
Sacramentu au eman bear zayo eriarri,  
ezagüera galdu dezan baño len, pro-  
chugarriagoa izan daquion, Argatic dio  
Erromaco Doctrina-liburuac, ecen, pe-  
catu larria eguiten dutela araco anima-  
zai, eriai Olio Santua emateco, etsime-  
na artuta ezagüera galtzen duten arte-  
raño ichodoten dutenac.



Esan degu, gaitz batean maiz artu ditezqueala Eleizacoac, baña ez da berebat guertatzen Olio Santuarequin, bada ecin berritu diteque gaitz arc berac dirauen bitartean, nun eta eria, lembicico gaitzetic ustez sendaturic, ez dan errortzen beste alaco peligroren batean.

Ezagüeran sartutaco aurrari bidezqui ematen zaye Olio Santua, oraindic comulgatu ecin badute cre; baña ezagüeran sartu diran edo ez dudatzen baldin bada, eman dizayequé condicioaren azpian.

Conveni da esatea eriarri, Olio Santuac eman dezayoqueala gorputzeco osasuna, animacoari ala conveni bazayo; baña ez du ematen osasun au, orretaraco dauden erremedioacquin irichi ecin danean. Juan Heroldoc contactzen du, persona batec ill zan ondo-rean aguertu zuela, nola Olio Santua artu izan balu, gaitzetic bereala sendatu izan zan, baña artzea luzatu zuelaco ill zala, sentenciatua izanic purgatorioan eun urte pasatzera.

Gañera, Olio Santuac barcatzen ditu



pecatuen cutsuac, eta beragatic pecatu larri ezcutucoac edo eriac gogoratzen ez dituenac; eta ala eracutsi bear zayo eriari, sentiduac igortzitzen zayozcan bitartean, artu bear duela oecquin eguindaco pecatuen damua, eta inguruan daudenacquin erantzun dezala: Amen.

Eriac jaquin bear ere du, Olio Santuac emango diozcala laguntza bereciac atzeneco agonian ayenatzeco beragandic infernuaren indar eta eraso gogorrac. Orregatic Sacramentu au artu nai ez duenac, egui dirudi pecatu larria eguiten duela. Oneraño jarritaco doctrina, San Ligoriorena da.

Laugarren parrafoa. — *Gaizqui aditu, eta gaizquiago obratzen dan caridadeari beguiraturic, Sacramentu Santuac artzeco eriari esatera venturatzen ez diranai oarquerac.*

Aideac bein edo bein esaten dute: *Ez naiz ni venturatzen nere aide eriari berri char au aditzera ematera...*; baña nic erantzuten dizut: caridadean eta



piedadean uts-eguiten dezula. ¿Piedadeac eta caridadeac etzaitu obligatzen zure aidearen onagatic beguiratzera? ¿Cérgatic bada ez diozu eratzen ondasun ain aundi bat, nola dan Sacramentu santuac artzea? Esaten didazu, ez dezula ori eguiten caridadearen faltaz, ezpada berari diozun amorioac berri au ematen utzitzen ez dizulaco, eta izutu eguingo litzaqueala beldur ceralaco. Zaude ishilic, etzadazu esan orrelaco gauzaric, ceren zure caridade ori da gogortasuna, da caridade bat gaizqui aditua, eta zure aidearequin usatzen dezun piedadea erruqui gabecoa. ¿Nola esango da maite dezula zure aidea, baldin atsecaberíc edo izuric ez emateagatic, diozun becela, Sacramentu Santuac dembora egoquian eta bear becela prestaturic artzeco aditzera ematen ez badiozu? eta artu gabetanic iltzen bada, edo ondo artzen ez baditu sentiduac lotuac becela dauzcalaco, eta estadu gaiztoan iltzen bada, zú cera beraren condenacio eracarlea. ¿Esango da amorioa dala, Sacramentu gabe eta zacurra becela iltzen aide bati utzitzea?



¿Esango da amorioa dala utziarazten diona bati bere aidea infernuan amiltzen, Sacramentuen bidez cerura eratu cezayoqueanean? Batzuec eriacquin aguertzen duten trataera au, caridadea baño obeto dala gogortasuna are arguiroago icusi dedin, baliatuco naiz irudi onezaz. Ama batec du seme gazte, liran eta chit ederra, viotz viotzez maite duena: esquer oneco seme onec amari erantzuten dio guisa bereco amorioarequin, baño ona non amac jaquiten duen gau batean semea lo dagoela, etsayac datocela bere seme maiteari vicia quentzera. ¿Cér eguiten du orduan ama onac? chit damu du bere seme maiteari susto au eman bearra, baño ala ere erabaquitzen da ematera, eta consejatzten dio igues-eguin dezala, osotoro izutua eta etsayetatic libre icusi naya-go duelaco, ecen ez sustoric ez ematea-gatic oean lo utzitzea, bertan ichu mustuan achitua izanic, uste ez duela illa, ganibetaz josia utzitzeco. Zure aidea zuc maite baldin bedezu, ¿cergatic ama onec becela eguiten ez dezu? atsecabe guichi bat ez emateagatic utzico



diozu iltzen pecatuan, etsayac ustecabean bera achituric bota dezaten infernuetara? ¡Zure gogortasunaren aundia! ¡Ce odolguirotasuna!... ¡Ah! infernue-tatic itz eguin albalizuque, esango lizu-que, nagusi batec bere morroyari esan ciona, bidajea cijoala lapurrac aterata ceramana quendu, zauriz betea eta odol usturic erdi illean utzi zutenean. Nagusiari, bere negar eta oyu errucarrietan consolatzeagatic, morroyac esan cion; ¡Ay Jauna! banequien nic lapur-rac cirala bide onetan, eta bildur nintzayon desgraciaren bati, baña berorri sustoric ez emateagatic, ez diot ecer esan. ¡Ay abere viotz gabea, deadar eguiñ cion nagusiac, etzan ohea izango susto bat emanda igues eraguin ciñizadala, ecen ez utzi erortzen dedan guztia quenduric, viciaren esperanza gabe laga nauten lapurren escuetan!... Orobat esango luque zure aide edo adisquideac: ¡obea etzan susto bat ematea, ecen ez iltzen utzitza Sacramenturic gabe, edo luzatzea cer eguiten nuen ez nequien demboraraño, era onetan utziaz erori nedilla salvacioaren esperanza



guztia quenduric beti beti atormenta-  
tzen nauten infernuco lapurren escue-  
tan!...

Zuc diozu ez diozula sustoric eman  
nai zure aide edo adisquideari, Sacra-  
mentuac ar ditzala esanarequin; eta  
nic erantzuten dizut, ecen, chit mese-  
de guichi eguiten diozula itz oecquin,  
ceren tratatzen dezun cristau gaizto-  
tzat eta Cristoren etsaitzat. Eta arrazo-  
ya da ecin arguiagoa, ceren cristau ona  
ez da izutzen Sacramentu Santuac ar-  
tzeagatic, contrara chit poztutzen eta  
consolatzen da, daquielaco ceñ aundia  
dan oer virtutea eta indarra, eta da-  
quielaco ondo artutaco Sacramentuac  
ambat beste ecerc ecin lagundu deza-  
yoqueala arquitzen dan egoera tristean.  
Emango diote gorputzeco osasuna, ala  
conveni bazayo, eta ez baldin bazayo,  
emango diote bear ambat paciencia, ill  
dedin borondate onarequin eta alegue-  
re Jaunaren icenean, jaquiñic dijoala  
cerura Jaungoicoac berac laguntzen  
eta eusten diola; orregatic deitzen da  
Viaticoa edo bideracoa, ceren laguntzen



eta indartzen gaituen beti iraunde doat-  
tsuraco bidaje onetan.

Esan det ere, tratatzen dezula Cris-  
toren etsaitzat, ceren adisquidac beren  
adisquide eriai visita eguitera joaten  
diranean, ez die sustoric ematen, bai  
ordea atseguña eta consueloa, eta eriac  
artzen du visita hura, adisquidetasun  
eguiazcoaren señaie bat becela. Beraz  
zure aide eriarri Cristoren visitac izua  
emango diolaren bildur bacera, begui-  
ratzen diozu ez Cristoren adisquidea,  
ezpada etsaya balitz becela, etsayen  
eguitecoa dalaco iñor izutzea.

Baña nic garbiro diotzut, ecen, zure  
aide edo adisquidea benetan maite ba-  
cenduque, Sacramentu Santuac artzea  
ez eragotzi edo luzaaraci ez ecic, ezpa-  
da contrara, beste gauzaric etziñioque-  
la procuratuco aec artuerazteco bece-  
laco arret eta ernaitasunarequin. En-  
tzun nazazu Jaungoicoagatic, eta be-  
reala emango dizquitut prueba ba-  
tzuec, ez guztia: bada ala eguitera ez  
nituzque iñoiz bucatuco. ¿Maite dezu  
edo ez zure aide edo adisquidea? Bayetz  
esaten badidazu, beraz gaitz guztitic



libratu bear dezu, eratuaz aldezun on guztia, onetan dago alabaña, eguiazco amorioa. Zuc libra dezaquezu Sacramentuacquin cabu gabeco eta betico gaitzetic, ceña dan condenacioa, eta eratu dezayoquezu cabu gabeco eta betico ondasuna, ceña dan salvacioa: beraz ala eguiten ez badezu, cera guizonic gogorrena eta odolguiroena; cera zure aide edo adisquidearen etsairic aundiena; cera bere saltzallea, bada Judasec adisquidetasunezco señalearequin bere Maishua etsayai entregatu cien becela eguiten dezu zuc ere, adisquidetasunaren apucoarequin uzten diozunean erortzen bere etsayen escuetan, ceren zuc, diozun becela. sustoric eman nai ez arren, orregatic ez da gueratuco ill gabe, eta estadu gaiztoan illico da, eta condenatuco da....

Baña beraren adisquide eguiazcotzat contatzen bacera, animaco gaitzetic libratu, eta ona procuratu ez ecic, libratu ere bear dezu gorputzeco gaitzetic, eratuaz osasuna, eta au Sacramentuacquin eguiaz irichico diozu, bada oen bidez beretuco du ostera osasuna,



conveni bazayo, eta gueratuco da libre gaitzetic. Aurrena emango dizquitzut guertatutaco gaucen prueba ucat-eciñac, eta esango dizut, ecen, jaquintsu ascoc ala segurutuaz gañera, nic ere icusi izan ditudala asco persona, gaitzac alde-eguinda, osotoro sendatzerano obero eman dutenac Sacramentu santuac artutacoan. Orain ez dizut esan nai, erien obedasun eta sendatze au dala Sacramentuaren mirari edo graciaren bat, ezpada ondore berezco bat, Sacramentutic datorrena bada ere. Aditzera emango naiz Filosofico eguia jaquiñetatic. Gorputz animen artean dago, zuc uste izan dezaquezun bat-tasun edo unioric eztuena, alaco moduan, non, anima baldin badago antsiatua, triste eta atsecabetua, onen penac mella eguiten dute gorputzean, jarriaz au ere antsiatua, triste eta atsecabetua, ta contrara edo aldeeranciera. Orain, gaitz gueyenac etorri oi dira humore edo ezaviciac desberdin edo naspillaturic egotetic, orregatic gorputzac ondo ez dagoenean pasatzen dio animari bere oñacea eta pena: orduan



esnatzen da bere griñac, vicio eta peccatua lo modorrean becela venturaz ceucaten anima, eta azaldatzen da aice portitz icaragarri batec darabilen ichasoaren guisan, eta nola antzira baten ondoa loyez betea dagoenean, ango loiguztia gooratzen dan antzira irabiratu ezquero, lenago batere loiric an etze-goela iduritu arren, alashe asten da anima bildur izaten, eta bildur au gueitzen zayo igarotaco vicitzaco gaiztaquerien culpa eta peccatuen oroipenarequin. Escritura Sagraduac contatzen digu au pasa citzayola Antioconi, ceñac, eri cegoela, cion: *Orain oroitzen naitz Jerusalemenequin nituen gaiztaqueriaz*; au guertatu zan Volter eta Russo-requin; eta conta nitzatzuquean beste chit ascorequin; eta bildur eta izu onec gueitzen du gorputzeco oñacea, Egoera onetan eriarri eman dezayoquean erremedioric onena edo sendagai bacarra da Sacramentuac arrerazotzea, bada confesio on batequin arantza hura ateratzen zayo viotzetic, bere peccatuen pishua quentzen zayo gañetic, itzaltzen zayozca concienciaren ozcadac,



eta asitzen da gozaten, esan ecin ala-  
co paquea eta atseguña. Orduan ani-  
mac bere paquea pasatzen dio gorpu-  
tzari, ceñac ostera cobratzen duen so-  
segua, jarriric sendagayen virtutea ar-  
tu al dezaquean eran, bada oec nola  
bai diran naturaleza edo izaquiaren la-  
guntza batzuec, ez da ecer ere aurrera-  
tzen nai āmbat aplicatuagatican sasoy  
onean ez dagoenean; baña naturaleza  
arquitzen bada ondo prestatua, descant-  
tsuan eta soseguan, escutic artuta be-  
cela darabilte sendaguiñac beren erre-  
medioaquin, eta eriac erraz iristen du  
galdutaco osasuna.

Oneraño Filosofiaco eguia jaquiñeta-  
tic itz-eguin det: orain ordea, Teologia  
Sagradutican cerbait baliatu nai det,  
eta diotzut, ecen, eritasunac eta erio-  
tza, itz batean esateco, pecatua dala  
bide etorri dirala mundu onetara; eta  
bereciro esan bear dizut, oec Jaungoi-  
coac chit ascotan bialtzen dituela ba-  
coitzac eguin dituen pecatuen casti-  
guan; beste batzuetan pecatariac berac  
convertitu ditecen, gaitzaren penare-  
quin animaco beguiac idiqui cituzten



ascoengatic Escritura santuetan iracortzen degun becela. Orain bada, causa edo sustraya quentzen ez baldin bada, ¿nola quenduco da ondorea? Confesio on baten bidez culpa edo pecatua deguiten ez bada, ¿nola arinduco da pena beintzat, ceña dan eritasuna?

Goacen aurrera: badaquigu, comulgatzen danean artzen dala Jesucristo, Jaungoico eta guizon eguiatzcoa, ichuai icustea, gorrai aditzea, mutuai itza eman ciená, eriac sendatzen eta illac ere piztutzen cituena bera, Evangelioan esaten dan becela; badaquigu Jaungoico-Guizon onen escua ez dagoela laburtua, orduan zan berpera dala gaurco egunean ere; ¿cergatic bada, ez du eguingo orain, orduan eguiten zuena? Baña contu galdu ez dedin gure culpaz, fedearen eta confianzaren faltaz, Nazaret-tarrai becela, ceintzuen artean Jesusec etzituen eguiten, beren fede guichiagatic, beste batzuecquin eguiten cituen mirariac; baña berágan fedeá eta confianza ceucatenac, Cananeoarrac edo arrotzac izan arren, osasuna iristen zuten beraren soñecoaren ertza



uquitze utsarequin, naiz izan citecela eritasunac danic zarrenac eta sendacaitzenac.

Baldin asco bazan, bada, Salvatza-llaren jantziaren ertza fedez eta confianzaz uquitzia, ¿cergatic ez da asco izango beraren gorputz eta odol guztia eriaren barrumbean sartzea? ¡Ay, au ascotan guertatzen da fedearen faltaz! Eta arrazoya da arguia: cergatic ¿nola esango degu aide arc beduela fedea eta confianza, baldin echetic irten bearrean Jairo ceritzan Sinagogaco Principea irten zan becela (bada juan zan Jesusen billa echean gaizqui ceucan alaba bat sendatzera etorri cedin, eta onen moduco beste asco, Evangelioac dionez, eta Jesus joan citzayen, eta bereala sendatu cituen) baldin Je:usi edo Sacramentu santuac deitu bearrean, diot berriz, eguiten badute eguiñal guztia etorri ez dedin, ichedonaz atzeneco estutasuneraño, eta orduan ere eramamaz munduaren beguiramentuagatic, esan ez dezaten utzi diotela iltzen Sacramentuac gabe zacur bati becela, ez eragozteagatic Campo San-



tuan lurpetua izatea, beguirapen gueyago eguiñic esa-mesa oei, Jesucristogan iduqui bear dan fede eta confianzari baño?

¡Ah, au ondo adituco balute aideac eta adisquideac! ¡ah, eriac au ondo pensatuco balute? seguru nago, oraindaño baño maizago escatuco eta artu naico lituzquetela Sacramentu santuac.

Eta aideac eta adisquideac ez ecic, sendaguiñac ere contu gueyago iduquico luteque eriac dembora onean ar ditzaten Sacramentuac, arrazoi bigatic: lembicicoa, berentzat onragarriagoa izango litzaquealaco eriac sendatzea Eleizacoac artu ondorean; eta bigarre-na, ciertotzat daucadalaco, sendaera gueyago irichico lituzquetela bestela baño, emanac dauden arrazoyacgatic. Uste det sendaguiñac chit ondo eguingo lutequeala, baldin beren erremedioac frutu ona eman dezaten, maiz pensatuco baluteque eria Sacramentuacquin prestatzeco arrazoi oetan. Cergatic pintatzalle batec, bere lana ondo irtetzea nai duenean, coloreac ezarri bear diozcan eunari prestaera



ona ematen sayatzen dan becela, aurreneco lan au utzi ezquero guztia alperric galdua dalaco, era berean aleguiña eguin bear du sendaguiñac ere eria ondo prestatzen, eta prestamen onena da Sacramentu santuac artzea.

Gañera, sendaguiñac gogoan iduqui bear ere dute, Jaunarena dala osasuna, eta Jaungoicoac ez baldin badu ematen eguiñ al guztia eriarequin eguiñ arren, ez dutela ecer ere irichico. Ona emen cergatic icusten diran sendaguiñ adituenac ezagutu ecin dituzten gaitz batzuec, eta berac sendatzeco erremedioric onenac, indartsuenac eta confianza osocoac empleatzen badituzte ere ecerere balio ez dutenac. Campo santuco lurra suertez ain onguilletzua da, non guztia estaltzen eta escutatzen duen; eta Jaungoicoac noicean bein ala eguiñ nai izaten du aen arroqueria beerratzeco. jaquin dezaten, ecen, osasuna eta vicia Jaungoicoac ematen ez baldin balitu, beren aleguiñ guztia alperricoac dirala. Nic ezagutzen ditut sendaguiñ batzuec eta nere adisquideac dirachit, eriren batengana deitzen dituzten



becin laster, Jesusen icen guztiz gozoa viotzez esanda, Maria chit Santaren, San Rafaelen, eta San Cosme eta San Damian medicuen bitartecotasunaz baliatzen diranac, eta gaitzac ala aguintzen duenean bereala eriai Sacramentu santuac ar-eracitzen dizcatenac; eta bien bitartean berac beguiratzen die ondo eriai, eta gaitza icasiaz, eta sasoi oncan errece tac eguiñaz, iristen dituzte sendaera chit zorionecoac. Badira, contrara, beste batzuec humilltasun guichiagocoac, eta beren jaquin-duriaz arroturic uste badute ere osasuna eta vicia beren escuetan daucatela, uneoro chascoac pasatzen zaizcatenac, eta beren arroqueria centsu gabea dala bide lotsa gorrian icusi oi diranac.

### Oarquera.

Eriaren oe ondoan jarrieracico dira Jesus gurutze iltzatuaren eta Maria chit Santaren imagiñac, baita ur bedeincatu pisca bat ere, oea eta guela noicean bein busti al izateco.

Eria chit gaizqui arquitzen danean, on da apaiza deitzea consolatu eta alaitu dezan;



eta au ecin baditeque, asistitzen dioteneta-  
coren batec zuceudu bear dio oracio labur,  
baña iracequiren bat; bada boticaco cucha-  
racho gosho batequin gorputzaren aldetic  
asistitzen zayon becela, ala asistitu bear za-  
yo animarenetic ere celo santu eta pruden-  
cia cristauac inspiratutaco oracio laburren  
batequin, eri errucarria alaitua guera dedin  
moduan,-ez necatua: eta ala esango zayo,  
asco duela berac viotzez esatea, adituco  
dituen itz on eta oracio laburrac, ceñac  
izan bitez eriazen egüera eta estutasunari  
dagozcan moducoac.

Bostgarren parrafoa.—*Eriari gogorae-  
raci lezayozcaquean afectoac eta oracio  
laburrac.*

Nere Jaungoicoa, sinistatzen det zu-  
gan, egui utsic eguiñ eciña ceralaco,  
esperatzen det zугan, misericordia  
neurri gabea ceralaco; amatzen zaitut,  
ontasun cabu gabea ceralaco.

Nere Jaun Jaungoicoa sinistatzen  
det, Eleiz Ama Santa Catholicac sinista-  
tzeco aguintzen duen guztia.

OARQUERA.-Laguntzalleac esango du emen  
Credoa soseguz eta devocioz, eta eriac esan  
dezala viotzarequin:



Nere Jaungoicoa, zure misericordia-gandic esperatzen det barcatuco dizquidatzula nere pecatu guztiaç, eta eman-go didazula gracia, eta azquenean gloria.

Aita Beticoa, zure ontasun aundi eta misericordia neurrigabeagatic escatzen dizut nere pecatu guztien barcacioa: barca nazazu, nere Aita,

Nere Aita, Jesus zure semearen merecimentuacgatic, escatzen dizut nere pecatu guztien barcacioa.

Nere Aita, peccatarien Ama eta bitartecoa dan Maria chit santaren merecimentu eta erreguacgatic escatzen dizut nere pecatu guztien barcacioa.

Nere Aita, ceruco santu eta Aingueru guztien merecimentu eta erreguacgatic escatzen dizut nere pecatu guztien barcacioa.

Nere Aita, barca zaizquidatzu nere pecatu guztiaç, nic viotz viotzetic barcatzen dietedan becela ofenditu nauten, eta bidegabequeriaç eguiñ dizquidaten guztiai.

¡Oh nere Salvatzalle Jesus! misericordia eta ontasunezco Jaungoico aun-



dia! barca zayozu nere anima pecatari errucarri oni, Magdalenari eta gañeraco emacume gaiztoai barcatu ciñien becela; barca nazazu neri ere Seme ondartzalleari, Pedrori eta Lapur onari barcatu ciñien becela, bada viotz viotzez damu det zu ofenditu izana.

Nere Ama, Virgiña chit Santa eta Jaungoicoaren Ama, erruqui zaitez nizaz, lagundu nazazu, irichi zadazu nere pecatu guztien contricio eguiazco bat, bada oec eguiñ izana ecin gueyago damu det.

*OARQUERA.- Laguntzalleac errezatuco ditu emen soseguz eta dovocioz Aita gurea, Ave Maria, Salvea eta Contriciozco actoa; eta eriac ere esan ditzala viotzarequin.*

Contentu nago guztia galduta ere Zu, nere Jaungoicoa, nere gauza guztiac cerena iristeagatic.

Nere Jaungoicoa, ¿noiz icusico zaitut arpeguiz arpegui, eta noiz amatuco zaitut nere viotz guztiarequin?

Nere Jesus, ¿noiz egongo naiz seguru, Zu egundaño galduco etzaitudala?

O paradisoa, ó erri doatsua, ó amo-



oriozco erria, ¡noiz icusico zaitut!.. ¡noiz neretuco zaitut!...

O Jaungoicoa, zu beti amatzea espero eta deseo det.

Ez dezazula nai, nere Jaungoicoa, ni zugandic berecitzea. Ecer besteric ez det opa, Zu, ontasun neurrigabe ori baicic.

Jesus nere amorioa, nigatic izan zan gurutz-iltzatua; nic ere ill nai det beraren amorioagatic.

Nere Jaungoicoa, ¿nola eman al nizquitzuque esquerrac eguiñ dizquidatzun aimbeste mesede ain paregabeagatic? Uste det betiro ceruan emango dizquitzudala.

Nere Jaungoicoa, amaten zaitut nere viotz guztiarequin; nere anima guztiarequin nere adimentu guztiarequin, eta nere indar guztiacquin.

¡Ah beti amatu izan bacindudan, nere Jaungoicoa; ah egundaño ofenditu izan ez bacindudan!...

Maria, graciazco Ama, amoriozco Ama, misericordiazco Ama, jarri zaitez bitarteco nigatic.

Santa Maria Janngoicoaren Ama, er-



regutu ezazu nigatic orain, eta nere eriotzaco orduan.

San José, agonian daudenen bitarteco, erregutu ezazu nigatic.

Ceruco gorteco Santu guztiac, erregutu ezazute nigatic.

Nere Aingueru goardacoa, socorri nazazu, eta nere etsayetatic gorde nazazu.

Aingueru guztiac, asistitu nazazute, lagundu nazazute cerura, zuecquin batean canta ditzadan Jaungoicoaren misericordia beticoac.

Jesus, José eta Maria, ematen dizutet viotza eta anima nerea.

Jesus, José eta Maria, atzeneco trancean ampara ezazute anima nerea.

Jesus, Maria eta José, nere animari betico descansua eguiozute.

OARQUERA.- Oracio labur oec berritu dittezque bai aibat bider, bai gueratu ere onena dala deritzagun artan.

Seigarren parrafoa.—*Eriotza alderatzen dalazcoaran señaleac.*

Eriari laguntzen dagoenari conveni



zayo jaquitea eriotz aurreco señaleac, azqueneco asnasetara danean obeto lagundu dezayoquean. Señale ezagunecac dira: pulsua faltatzea, edo orain asi eta orain gueratu becela ibiltzea; asnasea antsiaz artzea; beguiac chit sartuac eta cristal colorecoac, edo oi baño zabalduagoac iduquitzea; sudurra jartzea zorrotz eta ertzean churiscatua; aicea ematea aspoarequin becela; arpeguiac artzea lasto colorea, morea eta ubel gorritua; copetean icerdi otza aterratzea, mandiretaco ariac eta litchac biltzen eria abiatzea; gorputzeco ertz guztiac oztutzea, etc.

Eria azqueneco asnasea ematera dijcala adierazten duten señale aldeene-coac dira: asnase naguia edo bada ez badazcoa; pulsuric eza; ortzac estutzea edo carrascadac ematea; eztarrico garrada, intziri edo suspirio argal bat; berez irtetzen dan negar malco bat; aoa, beguiac, eta gorputz guztia oquertzea. Eria azqueneco señale oetacoaren batequin dagoenean, laguntzalleac gogoraeracico diozca maiz, devocio ira-



cequiarequin eta voz sendochogoare-  
quin onaco oracio labur oec:

Zure escuetan, Jauna, gomendatzen  
det nere espiritua.

Nere Jesus, gomendatzen dizut nere  
anima au, zure odol guztiz preciotsua-  
requin erredimitu cenduena.

Nere Jesus, nere amorioa, maite zai-  
tut, damu det zu ofenditu izana.

¡Ay beti amatu izan bacindudan; ay  
egundaño ofenditu izan ez bacindudan!

¡Oh Maria, Jaungoicoaren Ama eta  
nere Ama! erregutu ezazu nigatic orain  
arquitzen naicen nere eriotzaco ordu  
ontan.

Nere Jesus, salva nazazu.

Nere Ama Maria, ampara nazazu.

San José gloriatsua, asistitu nazazu.

San Miguel Goi-anguerua; socorri  
nazazu; etsayetatic libra nazazu.

Nere Aingeru goardaco santua,  
Jaungoicoaren aurrera joaten lagundu  
nazazu.

Aingeru guztia, atozte nere socor-  
ruan, bada zuen premian arquitzen  
naiz.

Santu eta Santa guztia, lagundu na-



zazute, eta eriotz on bat irichi zaza-  
zute. Amen.

OARQUERA.

Eriari laguntzen dagoenac oracio labur  
oec gogoraeracitzen diozcan bitartean, beste  
aide eta adisquideac belaunicatuco dira Ma-  
ria chit santaren imagiñaren aurrean, naiz  
eria dagoen guelan bertan, naiz beste ba-  
tean, eta errezatuco dute *Errosario* santua  
eta Maria chit Santaren *Letaniac*. Ala obeto  
lagundu al izango diote eriari, ecen ez be-  
re oe inguruan negarrez, oyuca, eta iltzen  
dagoen gashoaren pena gueitzen egonda.

Baita ere errezatu liteque ondorean da-  
goen animen recomendacioa.

ONDO ILTZEN LAGUNTZEKO

EJERCICIOA.

—

Agonian daudenen letaniac.

Jauna,  
Jesucristo,

*Erruqui zaitte onezar.*  
*Erruqui zaitte onezar.*



Jauna,	<i>Erruqui zaitte onezaz.</i>
Santa Maria,	<i>Erregu zazu onegatic.</i>
San Abel,	<i>Erregu zazu onegatic.</i>
Justuen Coroa,	<i>Erregu zazu.</i>
San Abraham	<i>Erregu zazu.</i>
San Juan Bautista,	<i>Erregu zazu.</i>
San José,	<i>Erregu zazu.</i>
Patriarca-eta Profeta santuac,	<i>Erregu zazu'e gu- cioc onegatic.</i>
San Pedro,	<i>Erregu zazu.</i>
San Pablo,	<i>Erregu zazu.</i>
San Andres,	<i>Erregu zazu.</i>
San Juan,	<i>Erregu zazu.</i>
Apostolu eta Evan gelista Santuac,	<i>Erregu zazute gu- cioc onegatic.</i>
Jaunaren icasle Santuac,	<i>Erregu zazute</i>
Inocente santuac,	<i>Erregu zazute.</i>
San Esteban;	<i>Erregu zazu.</i>
San Lorenzo,	<i>Erregu zazu.</i>
Martiri santuac,	<i>Erregu zazute.</i>
San Silvestre,	<i>Erregu zazu.</i>
San Gregorio,	<i>Erregu zazu.</i>
San Agustin,	<i>Erregu zazu.</i>
Elizaco buru eta Confe- sore santuac,	<i>Erregu zazute.</i>
San Benito,	<i>Erregu zazu.</i>
San Francisco,	<i>Erregu zazu.</i>



Monje eta eremutar san- tuac,	<i>Erregu zazute.</i>
Santa Maria Magdalena,	<i>Erregu zazu.</i>
Santa Lucía,	<i>Erregu zazu.</i>
Virgiña eta alargun san- tac,	<i>Erregu zazute.</i>
Jaungoicoaren Santu eta Santac,	<i>Erregu zazute.</i>
Izan zaitezte onen alde,	<i>Libra zazu au. Jauna.</i>
Zure aserretic,	<i>Libra zazu au.</i>
Heriotzeco perilletic,	<i>Libra zazu au.</i>
Infernucó penetatic,	<i>Libra zazu au.</i>
Gaitz gucitic,	<i>Libra zazu au.</i>
Demonioaren escupetic,	<i>Libra zazu au.</i>
Zure jayotzagatic,	<i>Libra zazu au.</i>
Zure gurutze eta Pasioa- gatic,	<i>Libra zazu au.</i>
Zure heriotz eta sepul- turagatic,	<i>Libra zazu au.</i>
Zure pizte gloriatsuaga- tic,	<i>Libra zazu au.</i>
Zure Ascencio miragar- riagatic,	<i>Libra zazu au.</i>
Espiritu poz-emallearen graciagatic,	<i>Libra zazu au.</i>
Juicioco egunean,	<i>Libra zazu au.</i>



Pecatariac gueralaric, au  
onela escatzen dizugu, *Ar gaitzatu,*  
*Jauna.*

Erregutzen dizugu bar-  
ca zayozula, *Entzun gaitza-*  
*tu Jauna.*

Jauna, *Erruqui zaitz*  
*onezaz.*

Jesucristo, *Erruqui zaitz.*

Jauna, *Erruqui zaitz.*

Gañoa azquen-asnasetan dagoenean esan-  
go da ondorengo

### **Animen recomendacioa.**

Zoaz zure bidean anima Cris-  
taua, mundu onetatic irten zaitz,  
Aita Jaungoico gucziz poderoso,  
ecerecetic eguin cinduenaren ice-  
nean. Jesucristo Jaungoico bicia-  
ren Seme bere heriotzarequin  
erredimitu cinduenaren icenean.  
Espiritu santu zuri eman citzatzu-  
naren icenean. Aingueru eta Ar-



cangelen icenean. Trono eta Dominacioen icenean. Principadu eta Potestadeen icenean. Querubin eta Serafiñen icenean. Patriarca eta Profeten icenean. Apostolo eta Evangelisten icenean. Martiri eta Confesoreen icenean. Monge eta Ermitañoen icenean. Virgiña eta Alargun Santen icenean. Jaungoicoaren Santu eta Santa-gucien icenean. Oriec guciac ampara zaitzatela, eta zure lagun izan ditecela. Gaurco egunetic paque, eta descantsuco lecuá zuretzat izan dedilla, eta zure biciteguia Ceruco Sion Santuan: Jesucristo gure Jaunaren merecimentuacgatic. Amen.

*Bigarren Oracioa.* »Jaungoico misericordioso, Jaungoico bera, Jaungoico zure piedadearen aunditasunaz batean eguiazco peniten-



teen pecatuac barcatzen, eta zure  
graciaz igaroco culpen manchac  
quentzen dituzuna: zure misericor-  
diazco beguiaz beguira zayozu. N.  
zure sierbo oni, ceñac bere bio-  
tzeco, eta eguiazco confesioaz be-  
re culpa gucien barcacioa escatzen  
dizun. Aita guciz poderosoa, ani-  
ma onetan gaizqui eguiñic arqui-  
tzen dan gucia, dala lureco ar-  
galtasunaz, dala deabruaren enga-  
ñuz, eta zure odol preciosoaz erre-  
dimitutaco miembroa becela Eliza  
santa Catholicaren gorputzarequin  
bat eguizu. Onen andia eta negar-  
ren lastima iduqui zazu Jauna: ba-  
da Zugan, eta ez bestegan, eta zu-  
re misericordian confianza iduqui  
du. Zure Eliza Santaren umea be-  
cela ar ezazu zure gracian Jesu-  
cristo gure Jaunaren meritoacga-  
tic. Amen.



*Irugarren Oracioa.* »Anai guciz maitea, Jaungoico *omnipotente* zure Criadoreari, ceñarena ceran, encomendatzen zaitut: berac nai duenean heriotzari zure zorra pagatu, eta zure eguille lurreco autsetic eguin cinduenagana biur zaitecen. Zure anima gorputzetico dijoanari bada Aingueruen egercitu ederra datorquiola bidera: Apostolo santu zure juezac ondo artu zaitzatela: Martiri santu garaitzalleac bidera irten ditecela: Confesore gloriosoac lagun dizazutela: Virgiña garbiac ampara zaitzatela; eta Patriarcac beren paque lecu eta besoen artean ar zaitzatela. Alegre eta gozo Jesucristoren arpeguia aguertu daquizula, eta bere Cerutarren artean betico ipiñi zaitzatela. Infernuco illuntasunac, ango su-garrac, ango tormen-



tuac zurequin cer icusiric izan ez dezatela. Quen emendic, ta urruti dijoala Satanas izugarria bere tro-pa guciaquin, eta Aingueruac zuri laguntzera etorri, eta deabrua igues bere toquirra onda dedilla.

»Jaiqui bedi, betor gure Jaungoicoa, eta arrazabite aren etsayac: eta aren Magestadea ecin icusi dutenac, aren beguietatic ayenabitez: Quea becela deseguin ditecela, eta nola arguizaguia suaren aldean erre, galdu, eta urtutzen dan, ala peccatariac Jaungoicoaren beguietan galdu ditecela. Justuac berriz faborez eta erregaloz Jaungoicoaren aurrean beteac izan ditecela. Lotsa bitez bada, eta onda bitez betico Satanaz, eta aren infernuco lagun guciac, eta zuri Ceruco bidea eragoztera atrebitu ez ditecela.



»Jesucristo gure Jaun, zugatic Gurutzean egon zanaç, infernuco penetatic libra zaitzala. Jesucristo gure Redentore, zugatic heriotza artu nai izan zuanaç, betico heriotzatic libra zaitzala, Jesucristo Jaungoico biciaren Seme, zure Salbadore eguin zanaç beren Paradisoco Vergel, eta gloriaraco lore ederren artean sartu zaitzala: eta animen Artzai nagusi eguiac coaz beçela zure anima bere ardi-en artean beretzat ezagutu, eta lecua dizula. Sacerdote andiac beçela berac zure pecatu gucien barçacioa dizula, eta suerte eta zori-oneco Justu eta Santuen artean, zure Salbadorearen arpeguia claro, eta beti aren escuitic icusteco diña eguin zaitzala: eta beraren aurrean zaudela, begui zorionecoaz eguia guciz arguia icusi de-



zazula: eta Jaungoicoaren semeen artean jarririk, beraren edertasun gucia icusi, ta goza dezazula secula seculacoetan. Amen.

**Gure Jaungoicoari animagatic  
escariac.**

Ar ezazu, Jauna, zure siervo au bere salbacioco, zure misericordia diagan dic uste duen lecu artan. Beti erantzuten da, Amen.

»Libra ezazu, Jauna, zure siervo onen anima infernucoco peligrugucietatic, pena eta estutasun gucietatic. Amen.

»Libra ezazu, Jauna, zure siervo onen anima, Enoc eta Eliaz munducoco heriotza jaquiñetatic libratu cinduen becela. Amen.

»Libra ezazu, Jauna, zure siervo onen anima, Noe, dilubioco



uretan ito etzedin libratu cenduen  
becela. Amen.

»Libra ezazu, Jauna, zure sier-  
vo onen anima, Abraham Caldeoen  
su-garretatic libratu cenduen be-  
cela. Amen.

»Libra ezazu, Jauna, zure sier-  
vo onen anima. Job santua bere  
neque eta penetatic libratu cendu-  
en becela. Amen.

»Libra ezazu, Jauna, zure sier-  
vo onen anima, Isac bere Aitaren  
sacrificio, eta heriotzatic libratu  
cenduen becela. Amen.

»Libra ezazu, Jauna, zure sier-  
vo onen anima, Lot Sodomaco  
su-gar izugarritic libratu cenduen  
becela. Amen.

»Libra ezazu, Jauna, zure sier-  
vo onen anima, Moises Faraon  
Egiptoco Erreguearen escuetatic  
libratu cenduen becela. Amen.



»Libra ezazu, Jauna, zure siervo onen anima, Daniel Legoi goseetatic libratu cenduen becela. Amen.

»Libra ezazu, Jauna, zure siervo onen anima, iru guizon gaztiac Babiloniaco labe iracequitic, eta Erregue gaiztoaren escuetatic libratu cinduen becela. Amen.

»Libra ezazu, Jauna, zure siervo onen anima, Santa Susana falso testimoniotic libratu cenduen becela. Amen.

»Libra ezazu, Jauna, zure siervo onen anima, David, Saul Erreguearen eta Goliat Gigantearen escuetatic libratu cenduen becela. Amen.

»Libra ezazu, Jauna, zure siervo onen anima, San Pedro eta San Pablo Apostoloac carcela eta calaboetatic libratu cinduen becela. Amen.



»Ta Santa Tecla Virgiña eta Martiri zorioneco ura, iru tormentu icaragarrietatic libratu cenduen becela, ala zure siervo onen anima libratzea nai daquizula, zurequin beti gozaten egon dedin. Amen.

*Laugarren Oracioa.* »Zuri, Jauna, zure siervo onen anima ematen dizugu, ta zuri munduaren Salbadore Jesucristo gure Jauna, erregutzen dizugu, onegatic zure misericordiaz lurrera jechi ciñan becela, ala zure adisquideen artean au contatzea nai daquizula. Ezagüezazu, Jauna, zure echura au, ez beste guezurrezco jaungoicoc, baicic Zuc, Jaungoico eguiazco bici bacarrac eguiña; ceren eguiaz Zu baicic, Jaungoicoric, eta Zuc becelaco obrac eguiten dituanic ez dan. Onen anima zure pre-



sencian alegre, ta consola ezazu,  
ta ez arren, Jauna, acordatu onen  
igaroco culpaz, eta eragabeco eta  
gueyegui eguin cituen gaizquiaz;  
bada peccataria izan bada ere, or-  
regatican Aita eta Semea eta Espi-  
ritu Santua sinistu, eta confesatu  
du Jaungoico eguiazco bat: zure  
celo santua beregan iduqui du, eta  
Zu Jaungoico gauza gucien Egui-  
llea fielquiro adonatu zaitu.

*Bostgarren Oracioa.* «Erregu-  
tzen dizugu Janna, onen gaztetaco  
peccatuac, ez-jaquiñ edo ignoran-  
ciac aztu ditzazula. Zure miseri-  
cordiaz onequin usa ezazu, eta  
onen animaz zure gloriaco argui-  
tasunean acorda zaite. Iriqui bedi  
Cerva onentzat: alegre bitez Ain-  
gueruac onequin. Zure Erreinuan  
zure siervoac ar ezazu, Jauna. San  
Miguel Aingueru, Ceruco ejercito-



en Capitan izatea merecitu zuenac onen anima ar dezala. San Pedro Apostolo, Ceruetaco erreinoaren guiltzac dituenac ar dezala. San Pablo Apostolo Jaungoicoaren on-tzi señalatu eguiteco diña izan zana lagun diozala. San Juan Apostolo eta Evangelista, Cristoren discipulo laztan, Jaungoicoaren misterio ezcutatnac icusi cituena, onen bitarteco izan dedilla. Apostolo santu peccatariac lotu, eta peccatuen cateetatic ascatzeco escua iduqui zutenac, onegatic erregutu dezatela. Santu eta Jaungoicoaren escogitu guciac, Jesucristoren ice-nean munduco tormentu aundiac eramam cituztenac, onegatic berrari esca diozatela; gorputz ilcor onen carcelatic anima au irtetean Ceruco Gloria gozatzer aigo dedin. Jesucristo gure Jaunaren meritoac-



gatic, ceña Aitarequin batean bici-  
dan, eta erreinatzen dagoen secu-  
la gucietan.» Amen.

Oyec dira, cristaua, Eliza San-  
tac Jaungoicoari zure anima aguin-  
tzeco eguingo dituen oracioac, edo  
recomendacioa, eta zu, berac nai  
duenean, onela ilco cera: puntu  
artan bertan mundua zurezat, eta  
zu munduarentzat, bioc batean  
acabatuco cerate. ;Azqueneco as-  
nasa Jaungoicoaren gracion ema-  
ten badezu, ó cer dicha, cer glo-  
ria bicia! Zu ill eta Sacerdoteac  
esango du:

«Atozte Jaungoicoaren Santuac,  
Jaunaren Aingueruac bidera irten  
zaitezte, ta corputz onetatic joan  
dan anima zuen escuetan ar eza-  
zute, eta Jaunaren aurrean ofreci-  
zazute. Jesucristo gure Jaun deitu  
zaituenac artu zaitzala, eta aren



Aingueruac Paradisora zaramaiz-  
quitela.

Descantsu beticoa Jaungoicoac  
zure animari diola: eta betico ar-  
guia aguertu daquiola.

ORACIOA.

Zuri, Janna, N. zure siervo onen  
anima aguintzen dizugu; mundu  
onentzat ill dan, zuretzat bici de-  
din, eta lurreco jolas, edo araguaia-  
ren argaltasunaz eguin cituen pe-  
catuac, zuc zure misericordia gu-  
ciz aundiaz barca zayozcatzu, Je-  
sucristo gure Jaunaren icenean.»

Eliza Ama Santa piadosaren,  
edo espiritu Santuaren heriaquico  
contu eta gobierno, da gauza alde  
gucietara miragarria, bere Ritual  
eta Manual sagraduan Sacerdotea-  
ri, Sacramentuac ondo emateco,



eta heria bere nequean icusi eta animatu eta ondo iltzen laguntzeco ematen diozcan erreglac, eta ill arteraño eguin bear duen gracia. Ala zuc cristaua, zure fedea bicierazo bear dezu, eta erreverencia aundiaz. Sacerdotearen itzac, Jaungoicoarenac becela artu.

Jaunaren ministroac badaquite ondo, oficio edo eguiteco au, esan al baño aundiagoa dala, eta Jaungoicoaren adisquide gucien celoa mereci eta escatzen duela: ta guc ez icusi arren, Aingueruac porfian becela, oficio ori animen favore ordu artan eguiten dutela.

Fedeco gauza da, heriotzaco edo azqueneco pausoan animaren betico suertea dagoela goyan Cerua, bean infernua, eta heria bien erdian dagoela. Azqueneco pauso ori ondo ematen badu, betico di-



chosoa glorian: gaizqui ematen bada, betico desdichatua infernuan. Bici arteco pausoac oquer edo gaizqui eman arren, Jaungoicoaren graziaz eta penitenciaz zucendu, eta erremedia ditezque; baña azqueneco pauso au, gaizqui ematen bada, erremedioric ez du, ceren atzera biurtzeric eztuen.

Badaquite ondo, Sacramentuetan, eta animen joya estimatuetan, Jesucristoren Odol precioso beren escuetan dacartela. Honra eta cargu gucia Jaungoicozcoa, eta berequin carga aundi eta pisua duena, animen contu ona gucien Jauna, eta Juezari emateco: »*Rationem pro animabus vestris reddituri.* Hebr. 13» Badaquite, beren celoren saria artzeco, Jaunac gucien tzat neurri justu bat duela, ta aren ardiai, edo animai Cristoren ice-



nean eguiten eta ematen dien neurri artan bertan Jesus Artzai onac berari neurritu, eta emango diela.

### OARQUERA.

Eria illdacoan, aren gaitza eta eriotza icusten egōndu diran gañeraco senide edo personai apaizac edo illtzen lagundu diotene coren batec esango die: Nere Jaun eta senideac; orainche joan da Urlia, N. (illdacoaren icena) orainche sufritu du munduan vicitzen asi zan unean bertan irabaci zuen pena; quitatu du guztioac pagatu bear degun zorra. Espiritu Santuac dio, gauz ona dala progucō echera etortzea, guzaz ere cēr izango dan emen gogoratzen dalaco. Eta eguiac, guztioac etorri bearrac guera trance onetara, guztioac ill bear degu, ez daquigu ordea nun, edo echean eta oean au becela, edo lecu des-eriren batean gauza guztien faltan eta iñoren laguntza gabe. Ez daquigu nolacoa izango dan gure eriotza, edo supitocōa, edo gueldica gueldicōa, Sacramentu santuac artzeco dembora izandu duen gure senide onena becela. Guc onenean ez degu izango demboraric; orregatic egon bear degu beti prest eta gai onean salvacioa iriste-



co alabaña mundu guztia irabasteac ez liguque deus balioco, anima galduco baguendaque. Saya gaitecen bada, ondo eta santutasunean visitzen, obra onac eguiñaz, ceñac diran beste mundura daramagun ondasun bacarra: gañeraco guztia emen utzi bear degu, Jaun onec utzi duela icusten dezuten becela.

Gomendatu dezayogun Jaungoicoari ildaco onen anima, Chit gauz ona da persona batzuec eguiten dutena; au da asco maitatzen dutenen bat illtzen zayotenean, bereala dijoaz confesatzera eta comulgatzera, eta aplicatzen diote artutaco Sacramentuen merecimentua; baita ere esqueintzen diozcate Jaunari entzun al ditzaqueten Mezac, eguited diezte beartsuai limósnen batzuec, erregutuaz zanaren animagatic errezatu dezatela.

Zori onecoac onelaco misericordia ildacoacquin usatzen dutenac, ceren berac ere irichico duten misericordia. Au da eguiñ bear dutena, eta ez aurrécoai icusitaco eceren prochu gabeco oituren batzuec, nola eguiñ oi dituzten caridadeco eta piedadezco obra oen ordez, obligaciozcoac ere cumplitu gabe utzitzen dituzten cristauac.

Testamentarioac iduqui bezate contu aundia cumplitzeco bereala testamentuan aguindutaco guztia. Guztioac bete ditzagun



ondo gueron eguin bideac eta saritzat Jaungoicoac emango digu gracia mundu onetan eta gloria bestean. Amen.

ERAC SENDATZEN DANEAN EGUINGO DUEN

ORACIOA.



Esquerrac ematen dizquitut, nere Jaungoicoa, visitatu nazun gaitz eta ostera eman didazun osasunagatic; misericordia izan dezu nerequin, erruquitu cera nere gaitzaz; eguizu, Jauna, esqueñi dizazudala beti zure alabantzen sacrificioa eta nere osasunarena. Ez dezu nai izandu ni iltzea, eta eritu banazu, izandu da sendatzeco, eta oartuerazotzeco, nere osasuna eta vicia, guztia dala zurea, eta bera-gatic bacar bacarric empleatu bear dedala penitenciazco, piedade eta caridadezco obretan. Emendic




aurrera, bada, nere Aita eta Jaungoicoa, ez det bestetan empleatuco, alaituric zure graci Jaungoicozcoaren laguntzacquin. Eguizu, Jauna, ez dezadala aztu libratu nazun peligroa, eta ez dedilla gueitu ere nigan vicitzaren amorioa aztuaracitzeco moduan nere gaitzean eguiña daucadan propositoa, ceñadan, emendic aurrera ondo vicitzeco, Penitencia eta Comunioco Sacramentu santuac maiz artzeco, eta misericordiazco obrac eguiten aritzeco. Amen.

**OARQUERA.** Eria echetic irten dediquean becin laster joango da Meza santua entzute-ra, eta Jaungoicoari esquer ona emateco confesatu eta comulgatuco da, visitatuaz gañera Maria chit santaren ecantz edo imagiña







## ILLEAN BEIN BEINTZAT

CRISTAU GUZTIAC IRACORRI BEAR LUTEQUE  
VIOTZAC LAGUNDU AZ.

### Eriotzaren ontzat-artze au.

Nere Jaungoicoa, adoratzan det zure izate beticoa; zure escuetan jartzen det neri eman didazuna; eta eriotzaren bidez, zuc señalatucoco dezun unean galduco dana. Berealatic artzen det eriotz au viotz onez eta humilltasunezco espirirituz, Jesucristo nere Jaunac sufritu zuenarequin batean; eta ontzat-artze onequin mereci uste det Zure misericordia, ondo irten nadin pauso ain icaragarritic.

Nere eriotzagatic, ó Jaungoicoa,



nere buruaren sacrificio bat eguiñ  
nai dizut, nere izatearen des-egui-  
tearequin emanaz zure izatearen  
aunditasunari zor diodan mende-  
tasunezco aguiria. Deseatzen det,  
nere eriotza izatea pecatuetatic  
garbitu nazan sacrificio bat, eta ar-  
zadzula zuc ó nere Jaungoicoa,  
zure Justiciari eguiñ diozcadan  
aimbeste ofensen satisfacioan; eta  
esperanza onequin pocic ontzat ar-  
tzen det, eriotzac berez eta senti-  
duentzat daucan izu eta negargar-  
ri guztia.

Nai det, ó nere Jaungoicoa, ani-  
ma bereci dedilla nere gorputze-  
tic, zugandic nere pecatuacgatic  
bereci naicen castiguan. Ontzat ar-  
tzen det guera nadilla sentidueta-  
co ezagüera gabe, oequin eguiñ  
ditudan gaiztaquerien satisfacioan.



Ontzat artzen det, Jauna, nere gorputza izan dedilla lurpetua eta oñ-pean erabillia, castigatze-co iduqui dedan arroqueria izan nendin criaturac icusia: ontzat artzen det gueyago ez ditecela oroi-tu nizaz, ni maite izan nintzaten iduqui izan dedan atseguñaren castiguan: ontzat artzen ditut lurpeco bacardadea eta izua, erremediatzeco nere lasaiqueriac eta jostaqueta perilltsuac: azquenic, ontzat artzen det auts biurtua eta arren janari izatea nere gorputza, beroni izan diodan amorio eragabearen castiguan.

¡Oh autsa! ¡oh arrac! nic artzen zaituztet, nic estimatzen zaituztet, eta beguiratzen dizutet Jaungoicoaren Justiciaren servitzari batzuei becela; castigatu dezazuten bere aguinteai contra eguiñaraci



didaten ausardia eta urgullqueria:  
vengatu itzatzute beraren escu-bi-  
deac, erremediatu itzatzute eguin  
diozcadan bidegabequeriac, onda  
ezazute pecatuzco gorputz au,  
Jaungoicoaren etsai au, gaiztaque-  
riaren bizacai edo miembro oec,  
eta ateraerazo ezazute garai egui-  
llearen escualdia bere criatura  
desdiñaren argaltasunaren ga-  
ñean. Guzti guztira menderatzen  
naiz, ó nere Jaungoicoa, baita ne-  
re animari eriotzaco unean zure  
Justicia Jaungoicozcoac eman nai-  
co dion sentenciara ere. Amen.

---

¡Oh Jesus, ontasunezco Jaun-  
goico, eta Aita erruquitsua! viotz  
humill, damutsu eta izutuarequin  
zure aurrean jarriric, gomenda-  
tzen dizut nere azqueneco ordua  
eta ondoren ichedoten didan guztia



Nere oñac, beren muguida gal-  
duric, adieracico didatenean mun-  
du onetaco gure izateac azquena  
aldean duela.

*Erantzuten da.* Jesus misericor-  
diosoa, erruqui zaitez nizaz.

Nere escu icarati eta naguiac  
gurutze santuari eldu ecingo dio-  
tenean, eta damuz bederic, oe ga-  
ñera erortzen utzico diodanean.

*Erant.* Jesus misericordiosoa,  
erruqui zaitez nizaz.

Nere begui lilluratu eta oquer-  
tuac, eriotza gañ gañean icustean  
izuturic, beren beguirada illun eta  
tristeia Zugan ezarrico dutenean.

*Erant.* Jesus misericordiosoa,  
erruqui zaitez nizaz.

Nere ezpañ ill-otz eta quiscor-  
tuac Zure icen adoragarri azque-  
neco aldian esango dutenean.

*Erant.* Jesus misericordiosoa,  
erruqui zaitez nizaz.



Nere arpegui ubel-moretuac er-  
ruqui eta izua emango dienean in-  
guruan iduquico ditudanai, eta ne-  
re ille erio-icerdiz bustiac buruan  
lazturic, nere azquena aldean dala  
adieracico dutenean.

*Erant.* Jesus misericordiosoa,  
erruqui zaitez nizaz.

Guizonen jolasic gueyago ez  
aditzeco istera dijoacen nere belar-  
riac, idiquico diranean aditzeco  
beticotasun guztian izan bear de-  
dan patua erabaquico duen sen-  
tencia.

*Erant.* Jesus misericordiosoa,  
erruqui zaitez nizaz.

Nere burua iduripen izugarriac-  
quin nasturic eriotzaco antziac in-  
guratuco dutenean, eta eguindaco  
gaiztaquerien oroipenarequin zure  
justiciaren bildurrac icaraturic  
egongo dan nere animac gogor



eguingo duenean zure misericordietan daucadan esperanza quenduric, etsimen icaragarrienean amilldu nai ninduquean infernuco elsayaren contra.

*Erant.* Jesus misericordioso, erruqui zaitez nizaz.

Nere viotza oñacearen indarrez argaldua eta estutua, eriotzaren bildurrez antsiatua, eta nere salvacioaren etsayen contra eguingo cituen indarca aundiacquin necatua eta osotoro eroria egongo danean.

*Erant.* Jesus misericordioso, erruqui zaitez nizaz.

Laster aituco naicelazcoaren señaletan diran nere azqueneco malcoac ishurico ditudanean, ar itzatzu, Jauna, nere pecatuen ordaintzat, ill nadin penitencian esqueñitacoa becela, eta trance icaragarri artan.



*Erant.* Jesus misericordioso,  
erruqui zaitez nizaz.

Nere inguruan egongo diran ai-  
de eta adisquideac nere egoera  
errucarriaz cupituric, nere alde  
deituco dizutenean.

*Erant.* Jesus misericordioso,  
erruqui zaitez nizaz.

Nere centsuen contua galduric  
mundu guztia neretzat aituco da-  
nean; eta azqueneco agoniaren eta  
eriotzaren neque gogorren artean  
oyuzca egongo naicenean.

*Érant.* Jesus misericordioso,  
erruqui zaitez nizaz.

Nere viotzaren atzeneco suspiri-  
oac, bultzatuco dutenean nere  
anima gorputzetic irtetzera, ar  
itzatzu, Jauna Zugana lembaitlen  
joateco daucadan deseo santu ba-  
tetic sortuac becelea, eta orduan.



*Erant.* Jesus misericordioso,  
erruqui zaitez nizaz.

Nere animac atzeneco asnasea-  
requin mundu onetatic betico irte-  
nic, nere gorputza ubel-oritua eta  
ill-otza utzico duenean, beronen  
des-eguite au ar-ezazu, Jauna, zu-  
re Magestadeari emango diodan  
mendetasunezco aguiri bat becela,  
eta ordu artan.

*Erant.* Jesus misericordioso,  
erruqui zaitez nizaz.

Azquenic, nere anima Zure aur-  
rean aguerturic, lembicico aldian  
icusico duenean zure Magestadea-  
ren arguitasun distiatzallea, ez de-  
zazula bota, arren, zure beguieta-  
tic; ar nazazu zure misericordia-  
ren albo amorezcoan, zure alaban-  
zac canta ditzadan beticotasun  
guztian; eta orduan, orain eta  
beti.



*Erant.* Jesus misericordiosoa,  
erruqui zaitez nizaz.

Pecatariaren Ama eta bitartecoa  
dan Maria chit santaren mereci-  
mentu eta erreguacgatic, bada es-  
peratzen det erregutuco duela ni-  
gatic nere eriotzaco orduan.

*Erant.* Jesus misericordiosoa,  
erruqui zaitez nizaz.

Jesus, José eta Maria, ematen  
dizutet viotza eta anima nerea.

Jesus, Maria eta José, atzeneco  
trancean nere anima anpara eza-  
zute.

Jesus, Maria eta José, nere ani-  
mari betico descantsua eguiozute.





# ORACIO MENTALA EDO ISHILICACOA

EGUITECO MODUA.



Oracio mēntala eguiñ aurretic escatuco da Espiritu Santuaren gracia ondorengo Antifona, verso eta oracioarequin, eta ori bera eguingo da meditacio guztietan.

Atoz, ó Espiritu Santua, zure doayez bete itzatzu zure fededunen viotzac, iracequiaz beregan zure amorioaren suan.

Ÿ. Zure espiritua bialdu ezazu, eta eguiñac izango dira.

R. Eta berrituco dezu lurraren gañ-ichura.

**Oracioa.**

O zure fededunen viotzac Espi-



ritu Santuaren arguiarequin iracasi dituzun Jaungoicoa; iguzu zucen jaquitea Espiritu beronen erara, eta beraren consueloaz beti gozatzeta; Jesucristo gure Jaunagatic. Amen.

---

**Egunoro eta meditacio bacoitzean eguin bear diran**

**ACTOAC.**

---

**PRESTAERACO ORACIOA.**

Nere Jaun eta Jaungoicoa, chit irmero sinistatzen det Zu emen aurrean zaudela.

Adoratzen zaitut, nere Jaungoicoa, viotzeco mendetasun eta amorio guztiarequin, eta humill-



qui escatzen dizut nere pecatu guztien barcacioa.

Meditacio au esqueintzen dizut, nere Jauna eta Aita, eta uste det, emango didazula ondo eguiteco bear dedan gracia. Orretaraco zungenatzen naiz, ó nere Ama, Virgíña chit santa, eta Aingueru eta santuac, erregutu dezazuten nigatic, eta irichi, meditacio au prochuarequin eguiteco bear dedana. Amen.

Guero sosegu aundiarequin asico da iracortzen mediatu bear dan puntua, beguiratzen diolaric Jaungoicoagandic etorri balitzayo becela, bertan esaten dana egoquituaz bere anima orduan arquitzen dan egoerari, eta onela icusico du bacoitzac beregan emendatu, zucendu edo ondu bear duena, eta guero eguingo ditu asmo edo proposito eraguilleac eta oen ondoren erreguac eta itzescariac naiz Ama Virgíñari, naiz Jesucristori, edo naiz Aita Beticoari, artu duen asmo eta deseaten duen guztia eguiteco conveni zayen gracia irichi dezan.



MEDITACIOAREN BUCAERA.

---

ESQUER EMATEA.

Esquerrac ematen dizquitzut, nere Jaungoicoa, meditacio onetan gogoerazo dizquidatzun pensamiento, afecto eta inspiracio onacgatic.

ESQUEÑIA.

Esqueintzen dizquitzut meditacio onetan artu ditudan asmoac, eta escatzen dizut berac obraz eguiteco bear dedan graci chit eraguillea; eta orretaraco erregutzen dizut Zuri, nere Ama Maria, eta zuei, nere devociozco Aingueru eta Santuac bitarteco jarriric, graci au irichi zadazutela. Amen.

---



GURE AZQUEN FIÑEN GAÑEAN

MEDITACIO LABURRAC ILLAREN EGUN  
GUZTIETARACO,

AITA

JUAN PEDRO PINAMONTE

JESUITAC IPINIA.

Oracio mental edo ishilicacoa eguiteco

**MODUA.**

Meditacioaren faltatic dator anima batec espirituco gaucetan ain guichi aurreratzea. Eta ala, nor bere betico salvacioaren eguitecoric aundienean benetan aurreratu nai duenari, conveni zayo aritzea egunoro oracio mentalean edo meditacioan. Eta au erraz eguin dezazuñ, ipintzen dizut eracus-bide labur au:



Lendabici: Jarri zaitez Jaungoicoaren aurrean fede vicizco acto baten bidez. Bigarrena: Uste izanic cere beguien aurrean daucazula, adora ezazu humilltasun guztiarequin. Irugarrena: Esqueñi zatzaizca gogo osoz, sucenduaz berari ceran eta dezaquezun guztia. Escayozu argui dezala zure adimentua, mediatu bear dezun eguia ondo ezagutzeco, eta iracequi dezala zure vorondatea, egui onec eracusten dizuna eguiteco. Oni deritza prestaeraco oracioa.

Bigarren lecuan adimentuarequin eguin bear dezuna da: Lendabici, pisatzea contuz puntu bacoitzeco itzac, consideratuaz cearo oec esan nai duten guztia. Bigarren, arretaz beguiratzea ea oraindañoco zure vicimodua ongui datorren mediatzen dezun egui aequin, sayatuaz gogoan ondo artzen, eta beraren importancia ezagutzen. Irugarren, beguirada bat ematea zure oraingo vicimoduari icusteco, ea maiz uts-eguiten dezun, eta ceren bidez, zure uts-eguiteen sustraya arquituric oso-



toro ateratzeco. Gauz oec gogoan ondo artzen, juzgutzen eta beren gañean pensatzen adimentuac eguiten dituen lanetan dago batez ere meditacioa.

Irugarren lecuan, pasa zaitez emendic vorondatearen afectoetara. Lendabici, damu eguiazcoarequin gorrotatuaz lenagoco-zure vicitza gaiztoa. Bigarren, asmo sendo bat artuaz andic aurera eguiteco meditacio orretan ezagutu eta icasi dezuna. Eta irugarren, bucatuco dezu meditacioa itz amorez beateac zucenduaz Trinite gultiz santuari, edo Jesucristori, edo Ama Virginiari, edo Aingueru goardacoari, edo zure devociozco santuai, dembora berean berrituaz Jaungoicoaren amorezco actoac, humilltasunezcoac, pacienciazcoac, asmo onezcoac, eta zuc bearren dituzun gracienc scaerazcoac. Au guttia da oracio mental edo ishilicacoaren azqueneco partea.

Meditacio onetan aritzeco bidea erraztutzeco, paratzen dizut gai chit egoqui bat, guizonaren azquen-finetatic atereac, ceren oen oroipena dan erreme-



dioric indartsuena peccaturic ez eguiteco, bada Espiritu Santuac eracusten digunez, oec gogoan darabilzquienac egundaño ez du peccaturic eguingo. (Ecles. vii). Ari zaitez, bada, egunoro ordu laurden batean bederic ain valio aundico eguia oetan pensatzen, orregatic meditacio bacoitza partitu da puntu batzuetan, oec banaca consideraturic adimentua guera dedin sinismen osoan eta osotoro des-engañaturic, eta vorondatea erabaquiric, bere animaren salvacioraco aleguiñ guztia eguitera.

Jesucristoren errayacgatic erregutzen dizut, gogoan ondo sarturic iduqui dezazula, ecen, eguia oetacoren bat ondo edo gaizqui consideratzean dagoqueala, bear bada, zure betico zoriona edo gaitza.

Consideracio oetacoren batec, besteac baño muguida eta indar gueyago eguiten baldin badio zure animari, gueratu zaitez bertan dembora gueyagoan, eta berritu ezazu biaramonean ere, ceren servituco dizun prochu eta aurrerapen aundiraco. Ala eguiteco aguintzen du S. Ignacioc, oracioco maisu aundi arc.



Meditacioco dembora guztia ez da empleatu bear adimentuzto lan bacarretan: gai onetan eguitecoric aundiena da vorondatearen aldetic acto iracequietan aritzea, nola dan, edo pecatuen gorrotozcoa, edo Jaungoicoari beragandic artutaco mesedeen esquer ematecoa, edo lureco ondasunen despreciozcoa, edo vicitza gaiztoa mudaturic, beste bat, munduco oitura galgarrien, gorputzaren atseguñen, eta deabruaren promes engañarrien osotero contracoa asteco proposito sendozcoa.

Berritu itzatzu maiz Jaungoicoaren amorezco eta pecatuaren gorrotozco actoac. Escã ezazu Virgiña chit santaren valimentu indartsua,

Egunoro eguiteco señalatzen dan frutua, diferentea da beti; baña igartzzen badiozu vicioren bat ventzutzeo, edo virtuteren bat iristeco, batec geyago laguntzen dizula besteac baño, ari zaitez artan urrengo egunean ez ecic ill guztian ere, baldin baderitza-tza ala conveni dala Jaungoicoaren



gloria gueyagoraco eta zure animaren  
oneraco.

Baldin egunen batean edo bestean  
ez badezu betaric meditatzeo, iracorri  
itzatzu beintzat bi edo iru bider egun  
artaco puntuac, eta erabilli beti go-  
goan. Espiritu Santuac lagun daguizu-  
la, eta erregutu ezazu zure salvacioa  
benetan opa duen onegatic.



# ILLAREN EGUN BACOITZERACO MEDITACIOAC.

---

## LEMBICICO EGUNA.

### SALVACIOAREN IMPORTANCIA.

1 Nere salvacioa da eguiteco bat osotoro nereá: eguiteco onetan neronec pensatzen ez badet, ¿nórc pensatuco du nigatic?

2. Eguiteco au alaco moduan da nereá, non, onetan dijoan nere anima, eta nere gorputza; nerau naicen guztia. Eta nic segurutzen ez badet, ¿nórc neri segurutuco dit?

3. Da nere eguitecoa, nondic dagoen cintzilik becela nere eternidade guztia. Eta eguiteco au nic ondo eguiten ez badet, ¿nórc eguingo du nigatic?

¿Certan nago bada? ¿cergatic nere anima salvatzeco ez det aleguiñ guztia eguiten? Anima bacar au ambat maita-



tu bear dedan gauzaric ez det, iñoiz  
illco ez dan anima au da nic dedan  
gauzaric baliosoena: bein bacarric gal-  
tzen baldin badet, guztia betico galdu  
det.

*Meditacio onetatic atera bear dezun as-  
moa eta frutua.*

Esqueñi zayozcatzu Trinitade guztiz  
santuari zure eguiera guztia Virginia  
chit garbiaren, Aingueru goardacoaren  
eta eguneco Santuaren bitartez, izan  
ditecen Jaungoicoaren gloria gueyago-  
raco eta zure animaren salvacioraco.  
*Esango dezu iru bider Gloria Aitari, etc.*

## BIGARREN EGUNA.

ERIOZACO ORDUAREN ECIN-JAQUIÑA.

Sentencia emana dago: *Ill bear naiz:*  
ill bear naiz,

1. Ez daquit, ordea, noiz: ill nite-  
que ordu onetan bertan.

2. Nun, ez daquit: ill niteque oca-  
sio artan.

3. Nola, ez daquit: ill niteque pe-



catu artan. ¡Eta ain pocic pecatu eguiten det! ¡Eta berriz ere ain erraz erortzen naiz pecatuan! ¡Eta pecaturaco bideetatic ez det iguesic eguiten! ¡Cér fede da nere fedea!

*Meditacio onctatic atera ber dezun as-  
- moa eta frutua.*

Partituco dezu dembora, señalatuaz egunaren ordu bacoitzean eguiñ bear dituzun gauzac. Alperric galtzen dezun ordu hura baliteque zure vicitzaren azquenecoa; eta ordu onec berac, ondo empleatu ezquero segurutu ditzazue salvacioa.

## IRUGARREN EGUNA.

### ERIOZAREN GASTIGUA.

Supitoan iltzen ez banaiz, etorricoda eguna, ceñean esango didaten presta nadilla ondo iltzeco; eta orduan.

1. ¿Izango det confesatzeco lecuric, baldin gaitzaren indarrez ozta itz-eguiñ al izango badet?

2. ¿Izango det conciencia examiña-



tzeco demboraric, baldin bildur eta icaraz beteric, neregan ozta egongo bainaiz?

3. ¿Izango det damua artzeco vitzic, aimbeste peccaturequin nastua egongo bada nere conciencia? ¡Oh nere Jaungoicoa! ¡Eta orduan cér eguingo det!

*Meditacio onetatic atera bear dezun asmoa eta frutua.*

Eguizu zure vicitza guztico confesio generala, lenago iñoiz eguin izan ez bacenduen, eta eguiñ izan badezu, ordutandic onerañocoa, zucenduaz zure animaren contuac, eta itzali itzatzu Sacramentu onen bidez concienciaren quezca guztia. Autu ezazu confesore on bat, eta Jaunac ematen dizun dembora onezaz balia zaitez zure vicitza gaiztoa utzitzera osotoro erabaquitze.

## LAUGARREN EGUNA.

ERIOZARACO PRESTAERA.

¿Cér eguitea on izango det nic, eriozta santu bateraco prestatze?



1. Len eguiñ izana, ordu artan naico dedan hura bera.

2. Ordu artan dirudienez ecin eguino dedana.

3. Nere anima salvatzeco, ordu artan erremedio gabe eguiñ bearco dedana. Nere pecatuen penitencia, contriciozco acto iracequiac, pecaturacobideetatic igues-eguiteco proposito sendo sendoac.

*Meditacio onetatic atera bear dedan asma eta frutua.*

Gaurco nere obra eta eguinquizun guztia eguiten sayatuco naiz, nere vicitzaren azquenecoac balira becela. Egingo ditut nere pecatuac ambat contriciozco acto, berrituaz emendatze-co propositoac. *Erreza zayozcatzu San Joseri zazpi Aita gurea.*

## BOSTGARREN EGUNA.

### ILTZEN DAGOENAREN EGOERA.

1. Dembora igaroac estutzen du;



penitencia eguiñ gabe dauzcatzin aim-  
beste pecatuac.

2. Oraingoac tristetzen du; aimbes-  
te irriscu condenatzeco, eta ez du icus-  
ten oetatic irtetzeco bideric.

3. Etorquizunac izutzen du; be-  
guien aurrean dauca eternidadea, eta  
ez daqui, edo gloriuzcoa edo infernuz-  
coa. Justuac icaratuco dira; ¿cér eguin-  
go det nic, peccatari errucarrí onec?

*Meditacio onetatic atera bear dezun as-  
moa eta frutua.*

Confesa zaitez bereala, gaur bertan,  
baldin pecatu mortalean arkitzen ce-  
ran quezca badaucazu; eta gracion  
zaudela baderitzatzu, mesede onen es-  
quer ona aguer zayozu Jaunari, erre-  
gutuz berari eta Virgiña chit santari  
gorde zaitzatela estadu onetan eriotza-  
raño.

*Erreza ezazu Virgiña chit santaren  
Letania.*



## SEIGARREN EGUNA.

### VICITZAREN AZQUENECO UNEA.

1. Une artan anima berecico da gorputzetic, eta sentiduetaco atseguin guztietatic.

2. Une artan aituco dira onrac, aituco dira aberastasunac, aituco dira adisquideac.

3. Une artan condenatu niteque. Orain vici naicen une au baldin balitz nere azquenecoa, ¿cér izango litzaque nizaz? ¡O eternidadea cintzilik daucazun unea!

*Meditacio onetatic atera bear dezun asmoa eta frutua.*

Examiña ezazu egunaren ordu bacoitzean, ea nola igaro dezun lenagocoa, San Ignacioc eguin oi zuen becela; eta ar zazu oitura Virgiana chit santarenganatzeco erlojua aditzen dezun guztian, esaten diozula *Ave Maria* bat.



## ZAZPIGARREN EGUNA.

ANIMA DIJOA JUICIORA.

Iltzen naicen unean bertan nere anima izango da eramana Jaunaren Tribunalera. Uste izango det nagoela icusten:

1. Nere oe barrenean Jesucristo nere contra aserreturic dagoen, eta azqueneco sententia ematera etorri zadan Juez becela.

2. Ezquerreco aldetic infernuco deabrua chit alai, eta liburu aundi bat ipintzen nere beguien aurrean anche bat banaca iracorri ditzadan nere vici-tzaco pecatu guztiac.

3. Escuicotic nere Aingueru goardacoa, liburu chiqui batean iracortzen nic eguin ditudan obra on piscac, eta arpegui tristearequin liburu au ipintzen nere beguien aurrean, ¡Oh cér irudipe-na! ¡Cér icustecoa! ¡Cér izua!

*Meditacio onetatic atera bear dezun as-moa eta frutua.*

Gaur arratsean oeratzen ceranean



jarri zaitez iltzen dagoenaren egoeran, uste izanaz escu batean Gurutze Santua eta bestean candela piztua dauzcatzitzula. Gogora itzatzu berriro meditacio onetaco puntuac, eta galde zayozu cere buruari: ¿Cér naico nuque nic eguiñ izana, ordu au baldin balitz nere vicitzaren azquenecoa?

## ZORTZIGARREN EGUNA.

### ANIMAREN JUICIO BACARRICACOA.

1. Chit estua eta bat banacoa izango da pensamentu guztien, itz guztien eta obra guztien contu artzea. Salatuco naute tentatu izan ninduten deabruac, gaitzeraco bidea nic eman nien lagunac, eta bere quezca eta imurtziacquin aimbeste bider contuan ipiñi izan ninduen nere concienciac berac.

2. Jueza izango da osotoro zucena, eta erruquiric gabea. Pecatuac bere aurrean eguiñ nituen, eta ala, berac icusi zuen guztia, aditu zuen, eta jaquindu zuen.

3. Sentencia izango da urratu, aldatu edo mudatu ecingo dana: an ez da



izango apucoric; ez erreguric, ez beste  
iñorenganatzeric; edo betico vicitza,  
edo betico eriotza.

*Meditacio onetatic atera bear dezun as-  
moa eta frutua.*

Gaur egun guztian erabilli ezazu chit  
gogoan Jesucristo Juezaren presencia;  
eta edocein lanu equin baño len, esa-  
yozu cere buruari: ¿Cér sentenci eman-  
go zat orain eguitera noan gauz onega-  
tic? Oeratu baño len esan itzatzu iru  
*Ave Maria*, eta muñ eguiozu lurrari.

## BEDERATZIGARREN EGUNA.

ERIO TZ ONDORECO ANIMAREN EGOERA.

1. Sentencia emandacoan, baldin  
gloriaracoa bada, anima bereala joango  
da cerura doai eta virtutez apaindua,  
pest aundien artean Aingueru santuac  
laguntzen diotela. ¡Nore irichi al izan-  
go du poz au cér nolacoa izango dan!

2. Sentencia baldin bada betico pe-  
naracoa, anima, doai eta virtute guz-  
tiac quenduric, bereala eramango dute



deabruac infernura, ¡Oh cér pena izu-  
garria ango garretan sartzean!

3. Bi sentenci oetatic bat, erreme-  
dio gabe eman bear zayo bacoitzari.  
¿Bietatic cén izango ote da neretzat?

*Meditacio onetatic atera bear dezun as-  
- moa eta frutua.*

Gaur arratsaldean, concienciaren  
examiña eguindacoan jarri zaitez pen-  
satzen arretaz zure vicitza igaroaren  
gañean; eta begaira ezazu, eá orain-  
daño cér sentencia merecitu dezun, eta  
oeratu baño len eman bear balitzatzu-  
que, nolacoa merecico cenduquean.

*Lurrean auspez jarriric Aita gurea  
bat iru Gloriarequin Trinitade guztiz  
Santuari.*

## AMARGARREN EGUNA.

ERIOZ ONDORECO GORPUTZAREN EGOERA.

Eguizu contu ill eta guero ere cere  
gorputza icusten zaudela.

1. ¿Nola gueratzen da? Ill-otza, ori-



tua, ichus eta izugarria. Ez ecer icustendu. ez aditzen du, ez sentitzen du, eta ez mugitzen da. Dago bacarric, eta inoren laguntza gabe.

2. ¿Cerequin dago jantzia? zatar despreciagarrienarequin, edo habitu pobreren batequin. Ematen duen izuac ayenatzen ditu guztia beragandic, alaco moduan non, ozta arquitzen dan estaltzera dijoaquionic.

3. ¿Nora daramate? Eleizara, apai-zac lagun dituela; eta oec ere uzten dute oraioac esaten diozcatenean, lurzulo batean sartu eta lurrez estali dezaten, anche oñ azpian zampatua, usteldua eta arrac jana izan dedin, Eta au da, aimbeste erregalo eta gozamentuquin nic tratatzen dedan gorputza?

*Meditacio onetatic atera bear dezun asmoa eta frutua.*

Visita ezazu Aldareco Sacramentu guztiz santua, eta guero Campo santura joanda ango obi edo sepulturac icusiric, esango dezu bost bider: Au da; egunen batean nere gorputza ecarrico



duten echea, bertan usteltzera eta ar tartearen des-eguitera.

Purgatorioco animacgatic *Aita gurea* eta *Ave Maria*.

## AMAICAGARREN EGUNA, VICITZAREN PROCESOA.

Vici naicen artean, uneoro eguitertzen dijoa nere vicitzaren procesoa, eta etorrico da bera iracorrigo dan eguna.

1. Iracorrigo dira eguiñ izan bear ez nituzquean gaiztaqueri guztiac, baño ala ere eguiñ nituenac.

2. Iracorrigo dira eguiñ ez banituen ere, eguiñ bear nituen obra on guztiac.

8. Emango zat guzti guztiaren sentenci azquenecoa. Baña ¿cér sentencia? nere vicitzaco obracquin nerau prestatzen ari naicena.

*Meditacio onetatic atera bear dezun asmoa eta frutua.*

Zure vicitza igaroari pasada bat emanic, icusi itzatzu, eguiñ bear ciñituen obrac eguiñ gabez, eguindaco peca-



tuac; cembat obra on utzi dituzun esamesen bildurrez edo beste motivoen batzuecgatic; cembat liquitsqueria eguiñ dituzun: damutu zaitez batezaz eta bestezaz: eta ar ezazu vici modu berri on bat eguiteco asmo sendoa.

*Erreza ezazu Trinitade guztiz santuaren Trisagioa.*

## AMABIGARREN EGUNA.

### PENITENCIARACO MUGUIGARRIAC.

Pecatu eguiñ badet, beartua nago penitencia eguitera, ¿ala ez da? Baña ¿noiz eguingo det?

1. Ill ezquero ecin diteque, demboraric ez dagoelaco.

2. Eriotzan, da chit nequeza, dembora guichi dagoelaco.

3. Ez daucat bada nere escuan oraingo dembora baicic; beraz, edo bereala eguiñ bear det penitencia, edo bestela orain bertatic bildur izan bear det, egundaño eguingo ez dedala.



*Meditacio onetatic atera bear dezun as-  
moa eta frutua.*

Saya zaitez guztiai ematen ejemplo  
ona zure eguiñacquin, eta oneraco go-  
goa eta bidea cere consejuacquin, esca-  
tuaz cere-oracioetan lagun urco guztien  
salbacioa.

*Errezatuco dezu Errosarioa peatura-  
co bidea eman al izan dieztezunacgatic,  
Virgiña chit santari gogotic escatuaz,  
arren, zu cerala bide iñor condenatu ez  
dedilla.*

## AMAIRUGARREN EGUNA.

AZQUEN-JUICIOCO EGUNAREN SEÑALEAC.

Fedecoac dira Juicioaren aurretico  
icusico diran señaleac, gure Erredimi-  
tzalleac lendanaz adieraci cituelaco.

1. Izango dira asco chit: eguzquia  
illundua eta odei beltzez inguratua, ill-  
arguia bere arguia galdurico eta odol  
colorecoa, izarrac erorico dira, ichasoac  
marru eguingo du, lurra idiquico da  
leice zulo aundietan, icusico dira lur-



icarac, guerrac, izurriac, gorrotoac, etc.

2. Desdich oec guztiac izango dira supitocoac, eta ustecabecoac; etorrigo dira munduac aetan guichiena pensatuco duenean, munduan gueyen gueyena pecatu eguingo danean, eta emendatzeco lecuric gueroztic munduac izango ez duenean.

3. Izango dira icaragarriac: cerutic erorico da suzco euri jasa izugarri bat, eta onec bere garren artean ondatuac utzico ditu guizonac, abereac, arbolac, erriac, gazteluac, jaureguiac; itz batean, mundu guztia. ¡Oh ceñen su icaragarria! Centsu gabeco criaturac ere osotoro arrituric orduan gueratuco baldin badira, ¿cér eguingo dute peccariac?

*Meditacio onetatic atera bear dezun asmoa eta frutua.*

Gaurco egun onetan, ari bear dezu eguiten:

1. Jaungoicoaren Justiciaren bildurrezco actoac.

2. Zure peccatuen contriciozcoac.



3. Seme bat bere aitagana dijoan becelaco amorio eta errespetoarequin, zu ere Jaunaren erruquimentura joate-coac.

*Bucatuco dezu iru Aita gurea eta Ave Mariarequin.*

## AMALAUGARREN EGUNA.

### GORPUTZEN PIZTEA.

Aingueruen trompeta-soñu icaragar-rira:

1. Nere gorputz au piztucoda, dartzan toquian dartzala, an bertan.

2. Nere gorputz onequin osterabatzera etorrico da nere anima, edo cerutic edo infernutic.

3. Anima gorputzarequin batutacoan, gorputza ere gueratuco da gueyago illico ez dan moduan. Baña gueyago ez ill izate au ¡nolacoa izango da? ¡Madaricatuac ordu artan, vicitz oneta-co atseguin-contentuac! ¡Bedeincatua beti betico emengo penitencia!



*Meditacio onetatic atera bear dezun as-  
moa eta frutua.*

Eguizu gaur mortificacioren bat, no-  
la dan barau, cilicio edo onelaco beste  
cerbait; utzi ezazu jan gabe chit zale  
ceran gauzaren bat, eta escuratu itza-  
tzu sentiduac, batez ere beguiac, quen-  
tzen dituzula icus-mira alper guztie-  
tatic.

*Eguin̄ Jurrean iru gurutze mingaña-  
requin itz gaistoren penitencian.*

## AMABOSTGARREN EGUNA.

### JUEZAREN ETORRERA.

Jesucristo aguertuco da bere gortea-  
requin garailari baten erara, odei gañe-  
tic majestade aundian Aingueruen ala-  
bantza guztizcoen artean, Maria chit  
santa Apostoloacquin batean aldamene-  
tic duela; aguertuco da Juez-lana egui-  
tera.

1. Eguillea dan aldetic, escatuco  
dit nere salvacioraco eman cizquidan  
aimbeste laguntza eta bideen contua;



eta nic esquer gabe onec ain gaizqui empleatu nituenena.

2. Aita dan aldetic, escatuco dit nerequin izan zuen aimbeste amoriorren contua; eta nic, ezagüera gabe onec ain gaizqui erantzun nionarena.

3. Erredimitzalle dan aldetic, escatuco dit nigatic ishuri zuen aimbeste odolen contua; eta nic, basa-piztiac baño odolguiroago onec, aimbeste bider oñ-pean erabilli nuenarena.

*Meditacio onetatic atera bear dexun asmoa eta frutua.*

Gorputzean erabilli ezazu gaur iru urduz penitencia eraguiteco egoqui dan gauzaren bat, nola dan, gurutzea, catechoac edo zurdazco soca guerrian, edo onelaco beste cerbait, Jesucristoren pasioaren oroipenean. Erabiltzu ere bularrean Santo Cristo bat, laguntz esque berari, Aitaric amoriotsuenari becela maiz deitzeco, bere llaga chit santuac adoratuaz, eta oetaco bacoitzari *Aita gurea* bat *Gloriarequin* esanaz.



## AMASEIGARREN EGUNA.

### CONCIENCIEN AGUERTZEA.

1. Eguiñ ditudan pecatu guztietatic, bat bacarra ere ez da gueratuco ezcutuan. Guztiaac izango dira iracorriac. Eta guztiaac adituco dituzte. ¡Nolacoa izango dan orduco nere lotsa!

2. ¡Cembat pecatu arguitaraco diran orduan, nic ishillic neuzcanac, eta egundaño aintzat artu izan ez nituenac! ¡Cembat izango dira pensamentuzcoac, nere culpaz erreparoric eguiñ izan ez nienac! ¡Cér aitzahui eman al izango det orduan?

3. Jaungoicoaren contra eguiñ ditudan pecatu guztien aurrean ipiñico ditu berac eguiñ dizquidan on eta gracia guztiaac, arpeguira emanaz, nola osticoperatu dedan bere odol guztiz preciotsua, alperric galdu bere Sacramentuac, eta gogor eguiñ eta despreciatu bere inspiracioac. ¡Cér desesperacioa nic orduan izango dedana!



*Meditacio onetatic atera bear dezun as-  
moa eta frutua.*

Ordu laurden batean bederic erretira zaitez gaur Eleizara edo Gurutze santu baten aurrera, eta examiña ezazu ondo zure conciencia, bai eguindaco pecatu guztien, baña batez ere viotzeco deseo, afecto, gogo eta atseguin utsezcoen gañean, eta bai lenagoco confesioen gañean ere.

*Esayozcatzu* Espiritu Santuari iru Credo, *arguitu* dizazun *adimentua* zure pecatuac ezagutzeco, eta gañera egizu contriciozco actoa.

## AMAZAZPIGARREN EGUNA.

ON ETA GAIZTOEN BEREIZTEA.

Onac eta gaiztoac elcarrequin vici-  
dira mundu onetan. eta ill eta guero  
ere, guztia lecu batean lurpetuac iza-  
ten dira. Baña Juicioco eguna datorre-  
nean, ez da orrela izango: Aingueruac  
ateraco dira, eta berecico dituzte gaiz-  
toac justuen tartetic.



1. Escuico aldetic egongo dira autuac, eta venturaz oen artean icusico ditut, mundu onetan nic burla eguiten nienac,

2. Ezquerrecotic egongo dira condenatuac, eta venturaz nerequin pecatu eguin zutenac, nun eta etzuten emendatu beren vicitza gaiztoa.

3. ¿Cein alde ote da egun artan ni egongo naicena?

*Meditacio onetatic atera bear dezun asmoa eta frutua.*

Devocio biguñ bat ar zayezu Aingueru santuai, batez ere zure Goardacoari, egun icaragarri artan condenatuetatic berecituric eraman zaitzan escuico aldera. Ain mesede aundia iristeco, berealatic ar ezazu aen inspiracio santuai obeditu eta leyalqui jarraitzeco asmo sendoa.

*Bederatzi Gloria, bederatzi Aingueru-Coroen onran.*



## EMEZORTZIGARREN EGUNA.

### AZQUENECO SENTENCIA.

Pecatariac justuacgandic berecitan  
coan, Cristoc emango du sententia.

1. Iñoiz ere borratuco ez dan sen-  
tencia.

2. Berealache cumplituco dan sen-  
tencia.

3. Beticotasun guztiraco bein ba-  
carric emango dan sententia. Betico  
madaricacioa pecatu eguinda beñere da-  
mutu nai izandu etzuenari. Betico be-  
deincacioa egundaño peaturic eguiñ  
etzuenari, edo pecatu eguiñ bazuen ere,  
mugonez penitenci eguiazcoa eguin  
zuenari.

*Meditacio onctatic atera bear dezun as-  
moa eta frutua.*

Besoac gurutze guisan zabalduric  
erreza ezazu estacio bat, eta lurrean  
auspezturic esan itzatzu iru bider itz



oec: *Jauna, eguin det peccatu, erruqui zaiter nizaz; eguiñaz iru acto:*

1. coa Humilltasunezcoa.
2. ena Damutasunezcoa.
3. ena Jesus gurutz-iltzatuari barca-cioa iristeco escari iracequizcoa.

## EMERETZIGARREM EGUNA.

### DEMBORAREN VALIOA.

Dembora da ondasun bat precioric aundienecoa: une batec aimbeste balio du, non, une bacar orretan beretu dezaquean animac, peccatuen bidez galdu zuen Jaungoicoa. Consideratuco det:

1. C mbait on eguiñ dezaquedan gaur bertan, eta eguiten ez dedan.

2. Egun au badijoala, eta gueyago etorrico ez dala.

3. Egun onen contu chit estua eman bearco dedala, baña onetan ez dedala pensatzen. Eta orobat izango da nere vicitzaren une guztiena. ¡Nere zorrigaiztocoa, gaizqui empleatu izan baldin baditut!



*Meditacio onctatic atera bear dezun as-  
moa eta frutua.*

Saya zaitez igarotzen egun au, vir-  
tutezco obracquin ceruraco irabaciac  
gueitzeco deseo santu batequin, egui-  
ñaz guztiac animaren oneraco gai izan  
ditequean motivo santuren bategatic.  
Ala Meza demboran ari zaitez eguiten  
adoraciozco, fedezco eta esquer onezco  
actoa: entzun ezazu erligioz, caridadez,  
edo obedienciaz. *Errezatu zayozu Erro-  
sarioa Virgiña chit santari, mesede uga-  
riac escatuaz.*

## OGUEIGARREN EGUNA.

### INFERNUAREN GAÑEAN.

¿Cér da infernua?

1. Da carcela illun illun bat, cate  
gogorren-pean lasaitasun eta liberta-  
dearen izpiric gabe bertan vicitzen da-  
na.

2. Da suzco eche bat, beti erretzen,  
baña iñoiz ill gabe bertan egoten dana.

3. Da tormentu guztien lecu bat. pe-



na guztiac, arintasunic chiquiena iñoiz sentitu gabe bertan padecitzen dirana.

*Meditacio onetatic atera bear dezun asmoa eta frutua.*

Sutan sartu ezazu escua, edo para ezazu beatz bat, candel arguiaren gainean, iduquiaz onela, albadezaquezu, dembora piscacho batean, eta emendic contu atera ezazu, nolacoa izango dan infernuco sua, ceñaren aldean emengo au ez dan angoaren antz edo iduria baicic,

*Iru Salve Ama Virgiñari.*

## OGUEITA BATGARREN EGUNA.

### CONDENATUEN EGOERA.

¿Cér eguiten da infernuan?

1. An ezagutzen da cein gaitz aundia dan pecatua, orain ain guichi ezagutzen dana.

2. An padecitzen da, orain ain pena guichi ematen digun pecatuaren pena.

3. An madaricatzen da, orain quentzen ez dan pecaturaco bidea. ¡Oh pe-



catariaren zorigaiztoco vicitza, eta are zorigaiztoagoa, baldin emen nayerara vicitu b azan!

*Meditacio onetatic atera bear dezun asmoa eta frutua.*

Quen ezazu bertatic pecatuan gueyen gueyena amillduerazotzen zaituen occasio, edo lagun, edo liburu, edo joco, edo eche hura. Esqueñi zatzaizca Jaungoicoari edoceñ neque vicitz onetan eramatera, betico penetan erortzetic libratzeagatic. Erregutu zayozu Jaungoicoari eta Virgiña chit santari pecatu mortalean daudenac gatic.

*Ama Virgiñaren Letania edo nere Jesucristo Jauna.*

## OGUEITA BIGARREN EGUNA.

### SALVACIOAREN ECIN JAQUIÑA.

1. Pecatu eguin badet, infernua merecitu det, eta ez daquit ciertoro Jaungoicoac barcatu ote didan.

2. Condenatu niteque, bada berriz pecatu eguin dezaquet; eta ez daquit



ciertoro, ocasioan jarri ezquero, libra-  
tucote naicen erori gabe.

3. Oitura gaiztoac utzitzen ez badi-  
tut, ez dago dudaric condenatucote nai-  
cela: eta ez daquit ciertoro onduco ote  
naicen ill baño lenago. ¿Cér izango da  
nizaz, baldin eriotzaco unean, Sacra-  
mentuac artuta egon arren, lecu ema-  
ten badiot viotzean pensamentu gaizto  
edo atesguin loi bati, nere vicitzan  
iduqui dedan oitura aimbeste bider  
eraguiñ didan pecatu ari? ¿Cér izango  
da nizaz?

*Meditacio onetatic atera bear dezun as-  
moa eta frutua.*

Ar zazu bereala confesatzeco asmo  
sendo bat, baldin arkitzen bacera pe-  
catuan. Jarri ezazu arret aundiagoa  
maicen erori oi ceran pecatu hura  
emendatzeco, ceren bera dan zure sal-  
vacioa irriscu eta perill aundiagoan  
ipintzen dizuna.

*Zoaz Ama Virgiñaren aldare aurrera  
eta errebatu zayozcatzu iru Ave Maria  
bere Zortze chit garbiaren onran.*



OGUEITA IRUGARREN EGUNA.

CEMBAT CONDENATZEN DIRAN.

1. Condenatzen erraz da, infernueraco bidea alabaña da guztiz zabala, eta ascoc jarraitzen diotena. Ala dio Cristo gure Jaunac.

2. Salvatzen gaitz da, ceren estudan ceruco atea, eta guichi bertatic sartzen diranac. Jesucristo da au diona.

3. Munduaren asieratic oraindaño-co guizon eta emacume gueyenac condenatu dira, eta aurrera ere, Santuac diotenez, gueyenac condenatuco dira. ¿Cer da nic nere buruaz uste dedana?

*Meditacio onetatic atera bear dezun asmoa eta frutua.*

Otorduan utzi ezazu jan gabe gogocoena dezun jaqui hura. Quen zayozu cere buruari, eman oi diozun gozaldiren bat, pecatu gabe eguin ditequeenetacoa bada ere. Erreza itzatzu belaunico Fedeco actoac, Esperanzacoac eta Caridadecoac.



## OGUEITA LAUGARREN EGUNA.

### CONDENATU BATEN AITORMENA.

1. Asco eta asco eguiñ du Jaungoicoac ni salvatze arren. ¡Cembait on-eguiñ ala gorputzecoac nola anima-coac, bera amatzera ni cuturtzeco! ¡Cembat arguitasun, cembat gaztigu, cembat Sacramentu, ceruraco bidean ni zucen guiatzeco! Palacatu nau esqueñi aundiacquin; izutu nau amena-zoacquin; muguieraci nai izandu nau damutasunera; baña nere seta gogor-rac guztia alperric galdu du.

2. Chit erraz salvatu nitequean... ¡Ah pecaturaco ocasio hura aurreneti-can ebaqui izan banu! ¡Ah gaztigu ar-zaz valiatu izan banintz! ¡Ah iraun izan banu sendo proposito artan! As-mo indartsu batec, gaitzbidea benetan ebaquitze batec, garai onean eguinda-co confesio batec eramango ninduen cerura.

3. ¡Eta nic ecerez bategatic conde-natu nai izandu det? Bai instambate-



co atseguin bategatic nago sententia-  
tua emengo betico tormentuetara. Bai;  
neronec ondo nequiela amildu naiz su  
eta garrezco leice ondogabe onetara,  
aintzat artu gabez confesoreen on esa-  
nac, ez nere concienciaren ozcadac eta  
ez Jaungoicoaren erruquimentua.

*Meditacio onetatic atera bear dezun as-  
moa eta frutua.*

1. Esquer aundiac emayozcatzu  
Jaungoicoari, cristau-errian jayotzeco  
gracia eguin dizulaco, eta aimbeste ar-  
guitasun eman dizquitzulaco. Orain  
bada, zure damutasun gueyagoraco go-  
gora itzatzu guztia, batez ere vici mo-  
du berria artu cenduen edo oitura gaiz-  
toac utzi ciñituen aldetic dagozquitzu-  
nac.

2. Erregutu zayozu Jaungoicoari  
condenatzeco perillean arkitzen dira-  
nacgatic.

*Erreza ezazu iru bider Nere Jesu-  
cristo Jauna.*



OGUEITA BOSTGARREN EGUNA.  
BETICO CONDENACIOA.

¿Cér da condenatzea?

1. Da Jaungoicoa galtzea, eta beti-  
co galtzea.

2. Da su-gar bicietan erretzen ego-  
tea, eta beti ala egotea.

3. Da prochu gabe desesperatzea,  
eta betico desesperatzea. ¡Oh beti! ¡Oh  
iñoiz caburic ez! ¡Oh eternidadea!

*Meditacio onetatic atera bear dezun as-  
moa eta frutua.*

Soma ezazu gaur gorputza mortifi-  
catzeco moduren bat, nola dan, eseri-  
tzen ceranean sillari gueyegui ez arri-  
matzea; belaunico zaudenean oñ bat  
aidean iduquitzea; bacardadean oracio  
eguiten dezunean, besoac gurutze gui-  
san zabaltzea; calean zabiltzanean, be-  
guiac lurrera beguira erabiltzea! eta  
mortificacio zale danari erraz gogora-  
tuko zayozcan beste onetaco gauzac.

*Errezatuco dezu Aldareco Sacramentu  
gutziz santuaren estacioa.*



## OGUEITA SEIGARREN EGUNA.

### PENITENCIA GUERORACO EZ UTZITZEA.

Pecatu eguin det; beraz sententia emana dauçat: edo infernua edo penitencia. Berriz ere pecatu eguiten det, eta onduco naicen esperanzarequin vici naiz contentu; baña ¿norc segurutuco dizquit iru gauza oec?

1.<sup>ena</sup> Izango dedala ontzeco dembora.

2.<sup>ena</sup> Dembora izan arren, gogoa izango dedala.

3.<sup>ena</sup> Bein ondu ezquero, ez naicela berriz erorico eta condenatuco.

*Meditacio onetatic atera bear dezun asmoa eta frutua.*

Beguirazayezu gaur zure escuai iru bider bacoitzean esanaz: Escu oec igartu eta usteldu bearrac dira, oitu zaitez pensamentu au goicero burura ecar-



tzen. Onela convertitu zuen santo Domingoc emacume pecatari bat.

*Bost Aita gurea, Ave Maria eta Gloria*, besoac gurutze guisan zabalduric.

## OGUEITA ZAZPIGARREN EGUNA.

### GLORIA.

Ceruco lembicico sarreran ¿cér progatuco det?

1. Bat batetango ondasun eta atseguin guztien ugalde bat gaitzaren cuntsuric gabe. Gozatuco ditut poz contentu guztia penaren arrazaric gabe. ¡Oh cein aundia izango dan nere consueloa!

2. Zorion ecin aundiago oec gozatuco ditut Jesusequin, Ama Virginiarequin, eta ceruco Aingueru guztiaquin batean. ¡Oh cér elcartasun atseguinezcoa eta zorionecoa!

3. Gozatuco ditut doatsuera guztia, eta beti betico, baterre sustoric eta beñere galtzeco bildurric gabe. ¡Oh zorientasun esan al baño aundiagoa!



*Meditacio onetatic atera bear dedan as-  
moa eta frutua.*

Edocean penac atsecabetzen, edo atseguinac tentatzen nauenean, esango diot nere buruari: cerura, cerura, gloria, betico zoriona, san Felipe Neric, Cardenal eguin nai izandu zutenean, esan zuen becela. Ceruco ondasunen consideracioarequin icusico det lurreco guztia despreciatzen, san Ignacioc eguiten zuen becela, esanaz: ¡Ay cen-ñen uts eta despreciagarria iduritzen zadan mundu au, cerura beguiratzen dedanean!

Esan itzatzu iru *Credo* Trinitade guztiz Santuaren onran.

OGUEITA ZORTZIGARREN EGUNA.

CERURACO BIDEA.

Bi bide baicic ez daude cerura iristeco, bata inocenciacoa, eta bestea penitenciacoa.

1. ¡Gordetzen det oraindic inocencia, eta batayoan eman citzadan gra-



cia? ¡Ah nere errucarria! ¡cémbat bider galdu dedan, eta besteai galdueracico nien garbitasunaren contraco pecatu tzar ichusiacquin!

2. Baña ¿eguin det pecatu oen eta gañeracoen bear becelaco penitencia? ¡Cer penitenci, baldin guzti guztian nere gogo eta nayera billatuaz, beti mortificacioaren iguesi ibilli banaiz!

3. Au onela izanic, ¿salvatu uste det eta nai det? Bai. ¿Baña cein bidetic? Bi ate oetaco batetic sartu bear naiz ceruan: inocencia galdu nuen, penitenciaric ez det eguiten; ¿nola bada salvatuco naiz?

*Meditacio onetatic atera bear dezun asmoa eta frutua.*

Alcha itzatzu beguiac ceruronz, eta zaude pensatzen zorioneco erri artan, uste izanaz, ecen, baldin aitaturaco bide bietatic, bati men menetan jarraitzen badiozu, anche vicico cerala beticotasun guztian.

*Eguiñ Fedeco actoac, Esperanzacoac eta Caridadecoac.*



OGUEITA BEDERATZIGARREN  
EGUNA.

CERUAREN IRABAZPENA.

1. Jaugoicoac ecer guichi escatzen dit ni salvatzeco: bacar bacarric aguintzen dit gorde dezadala bere legue santua; legue guztiz gorde-erraza, guztiz zucena eta guztiz ariña.

2. Onetaraco Jaungoicoac berac laguntzen dit, bere aldetic gauzaric eguiñ-nequecenac erraztuaz bere arguitasunen graciarequin, bere mercedentuen valioarequin, berac emandaco jarraicayen indarrarequin.

3. Nic eguiten dedan apur au Jaungoicoac pagatzen dit betico sariarequin; istampateco atsecabeac betico atseguinãarequin; nere neque eta pena laburrac betico gloriarequin.

*Meditacio onetatic atera bear dezun asmoa eta frutua.*

Betico sariaren aunditasuna conside-



ratzeac muguieraci bear zaitu, bera iristeagatic gauz aundiac eguitera eta padecitzera, eta Trinitade guztiz santuari esango diozcatzu iru *Aita gurea* eta *Ave Maria* iru *Gloriarequin*, eza-güera au josia utzi dizazun zure violetzean.

## OGUEITA AMARGARREN EGUNA.

### ETERNIDADEA.

1. Guizon eta emacume guztiac joango dira beren eternidadeco echera; beraz ni ere joango naiz. Eche au nor berac bere bicitzan eguiten du beretzat.

2. Istampateco atseguin uts batequin gombidatzen nau deabruac, eternidadeco nere echea infernuan eguitera, eta ni jartzen naiz artara.

3. Penitencia guichirequin deitzen nau Jaungoicoac, eternidadeco nere echea ceruan eguitera; eta ni uzcur jartzen nazayo. ¡Oh nere centsu gabea! ¡Cein eroa naicen!



*Meditacio onetatic atera bear dezun as-  
moa eta frutua.*

Oean sartzen ceranean, saya zaitez egoten ordu erdi batean bederic loac artu gabe eta alde batera bacarric beguiratzerdezula, edo burucotzat ol bat ipiñiric beste aimbeste demboran; eta onec aimbesteraño necatzen eta asper-tzen bazaitu, esayozu cere buruari: ¿cér izango da bada, infernuco tormen-tuac eternidade guztian s-fritzea? Au bera esan ezazu naigabe, pena edo era-manquizunen bat datorquizon bacoit-zean.

Ama Virgiñaren zazpi Doloreen er-reverencian zazpi *Ave Maria*, bacoit-zeoro lurrari muñ eguiñaz.

OGUEITA AMAICAGARREN EGUNA.

CONCIENCIAREN ERANZUERA.

1. ¿Certaraco para nau Jaungoicoac munduan? bacar bacarric nere burua salvatzeco.



2. ¿Cembat gai eta bide eman dizquit nere salvacioraco? conta al baño gueyago ala gorputzaren aldetic nola animarenetic.

3. ¿Oraindaño cér eguin det nic, salvatzeco? Al nezaquean oquerrena, eta condenatzeco bacarric mundu onetara etorria banego becela.

*Meditacio onctatic atera bear dezun asmoa eta frutua.*

1. Eguizu aurreco illeco confesio generala, eta examiña ezazu zure animaren estadua, icusteco ea vicioetan edo virtuteetan gueyago aurreratu dezun.

2. Eguin dezun gaizquiaz damutu zaitez, eta ar ezazu urrengo illa obeto empleatzeco asmo sendoa, pensatuaz bera izan ditequeala zure vicitzaren azquenecoa. Esqueñi zayozu Jaungoicoari ceran guztia, zure anima, gorputza, potenci eta sentidua, obra, itz eta pensamentu guztia, eta goiceoro jai-



quitzen ceranean, esan ezazu san Ignacioc esan oi zuen

ORACIOA.

Ar ezazu, Jauna, nere libertade guztia: ar itzatzu nere memoria, entendimientu eta vorondatea beren jarduera guztiacquin. Zuc eman didazu nic dedan guztia, eta ala, ostera itzultzen dizut, batere urritu gabe, guztia osotoro ematen dizut, cere Providenciarequin zucendu eta gobernatu dezazun. Zure gracia eta amorioa bacarric escatzen dizquitut, oecquin nai ambat aberats izango naiz, ez dizut escatzen eta ez det nai ere ecer besteric.

JAUNGOICOAREN GLORIA GUEYAGORACO.



LIBURU ONETACO ORACIO ETA  
DEVOCIOZCO EJERCICIOAC CEIN ORRITAN  
DAUDEN JAQUITECO

BIDEA.



ORRIAC.

Sarrera. . . . .	V.
Cristauaren goiceraco ejercicioa. . . . .	9
Arratzeraco ejercicioa. . . . .	16
Ondo eta provechu aundiarequin con- fesatzeco modua. . . . .	21
Examiña aurreco oracioa. . . . .	22
Mandamentuen gañean examiña. . . . .	25
Examiña ondoreraco oracioa. . . . .	31
Confesioa eguiteco modua. . . . .	37
Confesio ondoreraco oracioa. . . . .	41
Comunioraco prestaera. . . . .	44
Provechu aundiarequin comulgatzeco modua. . . . .	49
Comunio aurreraco oracioa. . . . .	51
Comunio aurreraco oarquera. . . . .	57
Comunio ondoreraco oarquera. . . . .	59
Comunio ondoreraco oracioa. . . . .	62
Comunio espiritualala. . . . .	75



Gogozco comunioa eguiteco modua, . . . . .	75
Batayo santuan eguindaco aguindu edo promesen berritzea. . . . .	76
Cristauari erregua. . . . .	81
Mezaren gañean icasbidea. . . . .	85
Meza santua devocioz entzuteco modua.	102
Irutasun edo Trinitade guztiz santuai Trisagioa, . . . . .	161
Indulgenciac-irabazteco esqueñaia. . . . .	165
Trinitade guztiz doatsuari erregu ira- cequia. . . . .	174
Trinitade guztiz santuari esqueniac. . . . .	178
Aldareco Sacramentu guztiz santuari visita. . . . .	183
Sacramentu guztiz beneragarria eta Maria chit santaren viotz sagraduari anima onac bederatzi coroetaco Ain- gueruacquin batean eguiten dioten adoracioa. . . . .	193
Aldareco Sacramentu guztiz santuari esqueñaia. . . . .	196
Aldareco Sacramentu guztiz santuari versoac. . . . .	198
Artutaco mesede guztien, ala ceruco nola lurrecoen esquer emateac. . . . .	205
Jaungoicoari escatu bear dioguna. . . . .	213
Jaungoicozco amorioaren jarduera edo ejercicioa. . . . .	218
Maria chit santari visita. . . . .	225
Mariaren Viotz sagraduari adoracioa. . . . .	233



Maria chit santari agurrac ta esquiñiac.	235
<i>Mariaren Gortea.</i> = Ala icendatzen dan Billadan sartuac daudenac Virgiña chit santari eguiten diozcaten visite- tan esan ditzatequen oracioac.	237
Virgiña chit santaren onran errosarioa.	249
Errosarioa errezatzeco modua.	254
Maria chit santaren zazpi doloreetaco coroa.	276
Cristau guztiai erregua, erabilli deza- ten gorputzean Virgiña chit santaren escapularioa edo medalla.	287
VEZPERAC.	290
Gurutze-bide edo calvarioco ejercicio santua.	305
Devociozco espirituarequin gurutzea eramaten Jesucristori jarraitzeco mo- dua.	351
Campoco edo gorputzeco mortificacioa.	356
Barrengo mortificacioa.	378
Paciencia.	395
San Joserenganaco devocioa.	401
San Antonio Paduacoarenganaco devo- cioa.	415
Zucen-bide laburra eta erraza, edocẽn Santuren onran iru egun edo bedera- tzi-urren bat consagratzeco, eta jai aundiren bateraco ondo prestatzeco.	41
Gure devociozco Santuren baten Jaya bear becela celebratzeco modua.	420



Bici modu diferenteetaco obligacioac.	423
Lau gaztigu San Ignacioarenac.	455
Importancia aundico pensamentuac.	534
Illaren egun bacoitzeraco sentenciac.	435
Bost esaera espirituzcoac azquen irau- pena iristeco Jaincoaren servitzuan.	439
Bici modu diferenteetaco guertacari edo ejemploac.	450
Infernuaren orroac edo condenatuen deadarrac, eta patu ain zorigaiztocoa dacarten gaitzac sendatzeco erreme- dioac.	475
Blasfemia edo arneguaren contraco er- remedioac.	476
Igüña eta gorrotoa sendatzeco erre- medioac.	478
Desonestidadea sendatzeco erremedioa.	481
Lapurreria sendatzeco erremedioac.	483
Comunio sacrilegoac eta confesio gaiz- toac eguin dituztenentzaco erreme- dioac.	485
Condenatu guztien deadarra.	488
Infernuco pena beticoetan errortzetic libratzeco erremedio guztienquicoac.	489
Indulgenciac edo barcamenac.	491
San Rafael edo erien consueloa.	513
ONDO ILTZEN LAGUNTZECO EJERCICIOA.	
Agonian daudenen letaniac.	547
Animen recomendacioa.	550
Gure Jaungoicoari animagatic escariac.	550



Eriac sendatzen danean eguingo duen oracioa. . . . .	569
Eriotzaren ontzat artzea. . . . .	570
Oracio mentala edo ishilicacoa eguiteco modua. . . . .	580
Egunoro eta meditacio bacoitzean eguin bear diran actoac . . . . .	581
Meditacioen bucaera. . . . .	585
Gure azquen fiñen gañean meditacio laburrac. . . . .	584
Illaren egun bacoitzeraco meditacioac.	590



9-96

9014

Est 30



